

Zaugarritasun ibilbideetan balantzaka:

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren

argi-ilunak.

Doktorego tesia

Aiala Elorrieta Agirre

Bilbo, 2013

Aurkibidea

Aurkibidea.....	1
Irudien aurkibidea	4
Taulen aurkibidea	6
Eskerrak	9
0. SARRERA	11
1. KAPITULUA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAK: IKERKETAREN ERDIGUNEAN.....	19
1.1) Ikuspegia familiengana hurbilduz.....	21
1.1.1. Familia ereduak: tradizionala eta forma berriak.....	22
1.1.2. Zer dago male-breadwinner ereduaren atzean?	26
1.2) Ongizate erregimenen osaera: familia eta generoa.....	30
1.2.1. Esping-Andersen hiru munduak	30
1.2.2. Genero itsutasuna eta hiruko ardatzaren eraikuntza	35
1.2.3. Ongizate-erregimenak begiratzeko beste era bat: laugarren euskarriaren bila	39
1.3) Gizarte Bazterkeria	47
1.4) Gaitasunen ikuspegia eta ikuspegi feminista	57
1.5) Marko teorikoaren eraikuntza	65
2. KAPITULUA. HIRITARTASUN OINARRIZKO ERRENTAREN DEFENTSA ETA EAE-KO OINARRIZKO ERRENTA.....	73
2.1) Hiritartasun Oinarrizko Errenta.....	78
2.1.1. Hiritartasun eskubidearen aurkezpena.....	78

Aurkibidea

2.1.2. HOE: aldaerak eta modalitateak.....	80
2.1.3. HOE eta ongizate erregimenak.....	82
2.1.4. HOE eta lan merkatua	85
2.1.5. HOEren ikuspegi historikoa	91
2.2) EAEko Oinarrizko Errenta: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta.	98
2.2.1. DBEren ardatz nagusiak eta betebeharrak.....	99
2.2.2. Prestazioaren beste zenbait elementu.....	105
2.3) Inguruko testuingurura ikusmira irekiz	107

3. KAPITULUA. METODOLOGIA KUALITATIBOA IKERKETA EKONOMIKOAN

.....	119
3.1) Elkarrizketa kualitatiboaren ezaugarri nagusiak	122
3.1.1. Sakontasuna	124
3.1.2. Egunerokotasuna, eguneroko solasak eta elkarrizketa kualitatiboa	124
3.1.3. Aitortzaren presentzia	126
3.1.4. Jarrera aktiboa	127
3.1.5. Elkarrizketa kualitatiboen sailkapena.....	128
3.2) Positibismoari kritika eta izaera konstruktibista	130
3.3) Kritika feminista eta elkarrizketa feminista	1301
3.4) Prozesu komunikatiboaren bi eredu: Gorden eta Wengraf.....	134
3.5) Elkarrizketa kualitatiboa eta bizitza-ibilbideen teoria.....	138
3.6) Elkarrizketa kualitatiboa zientzia ekonomikoetan	144

4. KAPITULUA. LANDA LANA: ELKARRIZKETEN DISEINUA ETA EMAITZAK

.....	151
4.1) Elkarrizketa kualitatiboa: Gizarte Bazterkeriaren ikasketan murgiltzeko tresna	154
4.2) Kasu praktikoaren diseinua: elkarrizketatuen profila eta galdetegia	156

Aurkibidea

4.3) Gizarte egituraren aldaketak eta DBE	165
4.4) Gure protagonistak: elkarrizketatuen aurkezpena	169
4.5) Elkarrizketetan barrena	190
4.5.1. Prekarietate ekonomikoa: baliabide ekonomiko eskasia.....	191
4.5.2. Prestazioaren onuradunak eta lan merkatua.....	207
4.5.3. Harremanen esparrua: familiaren babesean	216
4.5.4. Faktoreak metatzen direnean: familia harreman urratuak.	233
4.5.5. Eskubidearen ezagutza: estimua versus estigma	242
4.5.6. Hausturak lotuz.....	249
5. KAPITULUA. ONDORIOAK	261
5.1) Lurra hartuz: marko teorikoa eta testuingurua	263
5.2) Galderei erantzuteko lerro nagusiak.....	275
5.3) Bi dinamika ondo-ondoan	280
5.4) Azken hausnarketa	288
Bibliografia.....	297
Glosarioa.....	321
Eranskinak.....	323
1. Eranskina: elkarrizketen galdetegi-gida	323
2. Eranskina: Galdetegia GIG eta EGD formatoarekin.....	327

Irudien aurkibidea

1.	Irudia: Ongizate Erregimenen eredu klasikoa	32
2.	Irudia: Genero ikuspegia barneratu beharraz	36
3.	Irudia: Ongizate erregimenak hiruko ardatzean	37
4.	Irudia: Familia-politikak ardatz hirukoitzaren erdigunean	39
5.	Irudia: Politika sozialak, lau ardatzen erdigunean.....	46
6.	Irudia: Desafiliazioa. Harremanen esparruaren garrantzia	52
7.	Irudia: Gizarte bazterkeria eta gizarteratzea: kontzeptu jarraitua	56
8.	Irudia: Gaitasunen ikuspegia, ikuspegi feminista eta gizarte bazterkeria.....	63
9.	Irudia: Marko teorikoa (I), Gizarte Bazterkeriaren harreman eta ekonomia esparruak.....	68
10.	Irudia: Marko teorikoa (II), Oinarrizko Errenta analisiaren erdigunean.....	70
11.	Irudia: Hiritartasun Oinarrizko Errentaren ezaugarri nagusiak.....	79
12.	Irudia: Gutxieneko Errentak eta HOEren arteko ezberdintasunak	82
13.	Irudia: Gorden-en eredu komunikatiboa	135
14.	Irudia: Wengraff-en eredu komunikatiboa	137
15.	Irudia: Indar historikoak eta bizitza ibilbideak	140
16.	Irudia: Bizitza ibilbideen teoriaren printzipioak	143
17.	Irudia: Ikerketa kualitatiboa eta teoriaren berreraikuntza	147
18.	Irudia: Elkarrizketak egin aurretiko perfilak	160

Aurkibidea

19.	Irudia: Gaikako ikerketa galderak eta Elkarrizketa galdera dinamikoak.....	162
20.	Irudia: Bizikidetzaren unitateen diru-sarrera maila, kide kopuruaren arabera. ...	198
21.	Irudia: Bakarrik bizi direnak vs. elkarbanatzen dutenak	200
22.	Irudia: Estigmatizazioa ingurunean	248
23.	Irudia: Marko teorikoaren laburpena.....	270
24.	Irudia: Bazterkeria faktoreen arteko joko-dinamika I	282
25.	Irudia: Bazterkeria faktoreen arteko joko dinamika II	285

Taulen aurkibidea

1.	Taula: Familia ereduak.....	23
2.	Taula: Gizarte bazterkeriaren dimentsioak, IGOPen ikuspegiaren arabera.....	66
3.	Taula: Hiritartasun Oinarrizko Errentaren izen ezberdinak.....	97
4.	Taula: Gizarteratzeko Gutxieneko Errentak Europan: Ereduen laburpena.....	110
5.	Taula: Gizarte-babes gastua Europako Batasunean.....	111
6.	Taula: Gutxieneko errenten zenbatekoak Espainiar estatuan	113
7.	Taula: Ikerketa kualitatiboaren ezaugarriak.....	122
8.	Taula: Elkarrizketa kualitatiboaren sailkapena	129
9.	Taula: Bazterkeria ibilbideak	157
10.	Taula: Elkarrizketa kualitatiborako teknikak	164
11.	Taula: Familia ereduaren bilakaera EAEn.	168
12.	Taulak: Elkarrizketatuen aurkezpen fitxak.	172

Ispiluak jendez beteta daude.
Ikusi egiten gaituzte ikusezinek.
Gurekin gogoratzen dira ahaztuak.
Geure buruak ikustean, ikusi egiten ditugu.
Gu goazenean, ba al doaz?
(Eduardo Galeano, Espejos)¹

Ahots anonimo hauen atzean dauden nire bidaideei, zuoi, nire eskerrik zintzoena
ibilbide honetan egin didazuen konpainiarengatik. Zuen mintzo indartsua miresten
dudalako.

¹ Los espejos están llenos de gente. Los invisibles nos ven. Los olvidados nos recuerdan. Cuando nos vemos, los vemos. Cuando nos vamos, ¿se van? Galeano, E. (2008): Espejos. Una historia casi universal, Siglo XXI, Madrid.

Eskerrak

Lehenik eta behin, Ekonomia Aplikatua I departamentuan tesi honen zuzenketa lanetan aritu zaizkidan Mikel Zurbano eta Mertxe Larrañagari nire eskerrik beroena agertu nahi diet, lan honetan zehar eman didaten gidaritzaz eta orientazioaz gain, esparru pertsonalean erakutsi didaten hurbiltasun eta prestutasunarengatik.

Bestetik, Bartzelonako IGOPEko kideei ere esker onak eman behar dizkiet haien lantaldean parte hartzeko eman zidaten aukerarengatik. Haien ondoan ikasitako guztiaz gain, haiekin batera bizitakoek beste zentzu askotan aberastu nautelako eta beste gauza askoren artean beste hizkuntza bat maitatu eta ikasteko parada eskaini didatelako. Sandra Ezquerri, Jaume Badosa, Andreu Camprubí, Alex Caramé eta Imma Quintanari ere, moltíssimes gràcies.

Ikerketa lan honetan protagonista izan diren hamazortzi pertsonekin zorretan geratzen naiz, beraien parte-hartzea ezinbestekoa izan delako. Mila esker gure bidaideei proiektu honen parte izanagatik eta haien kontakizunak gurekin elkarbanatzeagatik. Ikerketa lanean zehar pertsona anonimo gisa agertu diren arren, bai ikerketan eta bainigan utzi duten arrastoa bizi baino biziagoa izan delako. Bidean, pertsona hauekin kontaktuan jarri ahal izateko atak ireki dizkidaten elkarte guztiei ere, nire eskerrik zintzoena.

Tesi honetan familiaren esparruari eskaini zaion arreta berezia, neure familia propioari eman behar diot paragrafo bakar batean bada ere. Kilometrotako distantzian egon izan naizenean ere, beti ondo-ondoan izan ditudalako. Nire jarraitzaile amorratuak izan direlako, eta zentzu askotan eredutzat dauzkadalako. Gotzone, Jose eta Iratiri, eskerrik asko haiei ere, zenbat lagundu nauten jakin badakiten arren, beti eskertuko diedalako.

Urteetako lan hau bakar-jokoa izan daiteke une askotan, baina beste horrenbeste momentutan konpainia egin didaten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Zuek konturatu gabe ere, asko zarete horretan lagundu nauzuenak, liburutegiko ordu luzeetan eta liburutegitik kanpo inguruan izan zaituztedanak. Presente eta birtualki, eguneko orduak

Eskerrak

eta asteetako egunak goxoago egin dizkidazuenak. Uneka hain bakartia izan daitekeen ibilbide honetan, email soil baten keinuak preziorik ez duelako. Eskerrik asko Jone, Irati eta Leori.

Bidea ibiliaz egiten da eta norbere identitatea bezala, eraikitze prozesua da. Poetaren batek ere esan izan du euskaraz, «zu ez zara aldatzen, zu aldakorra zara». Beste era batean, «ni ez naiz, nabil» esaldiarekin adierazi ohi dut nik. Nabil, erdal hizkuntzetara itzultzeko zail xamarra den aditz horrexekin.

Zuei guztiei,

Ni ez naiz, nabil.

O. Sarrera

Ikerketa lan honetan zehar zaugarritasun istorioetan barneratuko gara, gizarte bazterkeriaren bideetara gerturatu. Azken hamarkada hauetan sakon ikasi, landu eta hedatu den kontzeptua da gizarte bazterkeriarena. Esparru ekonomikoaz harago eta ikuspegi multidimentsional batetik, gizarteratze egoeratik urruntzen diren prozesuak ulertu nahi ditu. Kontzeptu jarraitua dugu, etenik gabeko *continuuma*. Bizitza-ibilbideak ere *continuum* beraren parte direla irudika dezakegu eta hain zuzen ere, kontakizun pertsonal hauei helduz sakonduko da gizarte bazterkeriaren ikasketan.

Aldi berean, 80ko hamarkadaz geroztik Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-politiken baitan ernatu eta garatu den Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) aztertuko da. Zehazki, prestazio ekonomiko honek bere onuradunen zaugarritasunean eta ibilbideetan jokatzen duen rola ikertuko dugu.

Bi asmo hauek, lanari gorpuzkera jakin bat emanez, xede nagusi bakarrean egiten dute bat. Honenbestez, lan honen helburu nagusia zaugarritasun istorioak nola perfilatzen diren ikastea izango da, bizitza-kontakizunei eutsiz zaugarritasunak har ditzakeen itxura anitzak behatzea, alegia. Abiapuntu gisa hurrengo hipotesiari heldu diogu: DBE prestazioa zaugarritasun ibilbide horietan ongizatearen euskarri sendoa izanik ere, egoera hauskorak gainditzeko nahikoa sostengu ez dela uste dugu. Ikerketaren izenburuan bertan hipotesi nagusi honen arrastoren bat ematen da aditzera: «Zaugarritasun bideetan balantzaka. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren argi-ilunak». Izan ere, adierazpide honek ezegonkortasun zantzu bat iradokitzen digu; prestazioa bazterkeriaren aurkako borrokan hankamotz geratzen denaren ideia.

Hipotesi honek auzi eta helburu berriak mahaigaineratu dizkigu berehala eta horrek ikerketa hiru ildo nagusitan antolatzen eraman gaitu. Batetik, ondoko galdera planteatu dugu: prestazio ekonomikoa, zaugarritasun egoerak gainditzeko nahikoa ez bada, zein da familiak eta familia-esparruak guzti horretan jokatzen duen rola? Hau da, familia-esparruak zaugarritasun istorioak zein bidetatik leundu edota biziagotzen dituen analizatuko da, horretarako bizitza-ibilbideei begiratuz.

Bestetik, aurretik aipatu dugun *continuumaren* ideiarekin jarraituz beste ikerketa-galdera bat plazaratuko dugu. Gizarte bazterkeria kontzeptu jarraitua izaki, bizitza-

ibilbideetan une esanguratsuek, trantsizioek edota hausturek utzi dezaketen arrastoa aztertuko da. Azkenik, eta hirugarren ikerketa-galdera gisa, DBEren onuradunen artean prestazioari buruzko ezagutzak haien ibilbide pertsonaletan izan dezakeen eragina lantzea proposatuko da. Izan ere, prestazioa jasotzea norberari dagokion eskubidea dela bereganatzea, norberaren egoeran zeresana izan dezakeen faktoreetako bat dela aurreuposatu dugu. Bidenabar, eskubidearen ezagutza eta estigmatizazioa elkarren artean erlazionatuta dauden elementuak direla estimatu da.

Metodologiari dagokionez, zuzenean nahiz zeharka ikerketa helburuekin lotura duten gaien inguruko berrikusketa bibliografikoa burutu da. Zeregin horretarako liburu, aldizkari eta artikulua sorta zabala kontsultatu da eta tesia osatzen duten kapituluak banan-banan aurkeztu ahala, landu diren autore nagusien aipamena egingo da. Era berean EAEko DBEren inguruko lege eta dekretu nagusien azterketa ezinbestekoa izan da prestazioaren funtsezko araudia ezagutu ahal izateko. Horretaz gain, zenbait inkesta eta datu-estatistikotara ere jo da, bai ikerketa testuinguru zehatz batean kokatu ahal izateko eta baita teorian jorratuko diren hainbat edukiri oinarri sendo bat eskaini ahal izateko ere. Beste askoren artean EUSTAT, INE, EUROSTAT estatistika institutuek, zenbait gobernu erakundeek edota FOESSA fundazioak argitaratutako txostenek eskainitako informazioaz baliatu gara.

Bestalde, landa ikerketa gauzatzeko metodologia kualitatiboaren aldeko hautua egin da. Zehazki, erdi-egituratutako elkarrizketa kualitatiboetan oinarrituta, DBEren onuradunen bizitza-kontakizunak aztertuko dira. Izan ere, geroz eta ugariagoak dira azken urteotan bizitza-ibilbideen metodologia barneratu duten ikerketak. Elkarrizketa kualitatiboaren erabilera justifikatzeko hauetariko batzuk aipatuko dira gure landa ikerketa aurkezten den atalean. Horien artean ditugu gizarte bazterkeriari buruz FOESSA fundazioak 2008an argitaratu zuen txostena (FOESSA 2008), Gurutze Gorriak zaugarritasunaren inguruan kaleratutako beste ikerketa bat (Gurutze Gorria 2007), Subiratsen *Fragilidades Vecinas* liburua (Subirats 2006) edota Gorka Morenoren *Historias de vulnerabilidad* artikulua (Moreno Marquez 2010b). Hauei guztiei Martha Nussbaumen *Crear capacidades* azken liburua gehitu behar zaie, Gaitasunen Ikuspegia sendotzen duen lan honen abiapuntua bizitza-kontakizun bat dela kontuan hartzen

badugu (Nussbaum 2012).

Tresna metodologiko hau Bartzelonako IGOP -*Institut de Govern i Polítiques Públiques*- institutuaren eskutik erabili nuen lehen aldiz. Institutu honek ibilbide sendoa jorratu du gizarte bazterkeriarekin lotutako gaitan eta IGOPeko kide batzuekin batera, Bartzelonako Diputazioarentzat egindako proiektu batean parte hartzeko parada izan nuen: *Famílies, exclusió social i disrupcions en els cicles de vida*². Proiektuaren helburu nagusia familia eredu desberdinek erakunde eta politika publiko desberdinekin eratzen dituzten harreman motak ulertzea izan zen. Lehen esperientzia horrek elkarrizketa kualitatiboan funtzionamendua bertatik bertara ezagutzeko bidea eman zidan eta bide batez, tresna honen indarra ikusita, ikerketa lan honetan ere erabiltzeko adorea eta irrika piztu zizkidan.

Tesiaren helburu nagusia eta beronen inguruan kimatu zaizkigun ikerketa-galderak erantzun ahal izateko, bost kapitulutan antolatu da ikerketa lana. Lehen bietan, lanaren oinarri teorikoak ezarriko dira. Lehenengoan zehazki, ongizate-erregimenen osaera eta gizarte bazterkeriaren kontzeptuan sakonduz marko teorikoa eraiki ahal izateko urratsak finkatuko dira. Beste askoren artean Luis Moreno, Esping-Andersen, Taylor-Gooby, Joan Subirats, Jane Lewis, Ann Orloff, Miguel Laparra eta Amaia Perez-Orozcoren lanak jorratuko dira.

Marko teorikoaren taxutze prozesu honetan, familia esparruak eta genero aldagaiak duten berebiziko garrantzia aintzat hartuta, bi aldagai hauek lehen plano batean barneratzeko beharra argudiatuko da. Kasu baterako, familia inguruneari eta genero aldagaiari dagokien protagonismoa ematen ez bazaie, eremu ekonomikotik at dauden esparruak analisitik kanpo uzteko arrisku bizia dago. Hain zuzen ere, etxeke esparruan eta lan merkatutik kanpo garatzen diren aktibitate eta harremanez ari gara, kasu askotan gainera, emakumeen esku geratzen diren jardueraz, alegia.

Bestalde, lehen kapitulu honetan proposatutako gure hurbilketak ikerketa feministarekin eta giza garapenaren ikuspegiarekin dituen bateragarritasunak aipatuko

² *Famílies, exclusió social i disrupcions en els cicles de vida. Una mirada a les polítiques socials des de baix. Familiak, gizarte bazterkeria eta bizitza zikloan hausturak. Gizarte politikekiko behetiko begirada. Sandra Ezquerak koordinatuta, Jordi Collet eta Imma Quintanarekin batera burututako ikerlana.*

dira. Bi ikuspegi hauek pertsonarengan zentratzen dira eta gainera, bizitzaren –eta bazterkeriaren- aurpegi eta esparru anitzak ikusmira multidimentsional batetik ikastea ahalbidetzen dute, lan merkatutik kanpoko esparruak bistaratuz. Ikuspegi feminista eta Gaitasunen Ikuspegiarekin lotuta Amartya Sen, Ingrid Robeyns, Martha Nussbaum eta Cristina Carrascoren autoreak landuko dira besteak beste.

Marko teorikoaren makineria piezaz-pieza muntatu ostean, DBE prestazioaren atzean dagoen hezurdura mamituko da bigarren kapituluan, prestazioaren nondik norako nagusiak ulertzera eman asmoz. Atal horretan bertan, Hiritartasun Oinarrizko Errenta (HOE) prestazio unibertsala ezagutaraziko da proposamen teoriko eta indartsu gisa.

Alabaina, HOEren funtsezko oinarriak eta ideia honen ibilbide historikoa garatu ondoren, nahitaezkoa izango da HOE politikak ohiko Gizarteratzeko Gutxieneko Errentetatik bereiztea. Izan ere, DBE prestazioa oinarrizko errenta gisa aurkeztu izan den arren, ez ditu eskubide unibertsal honen baldintzak betetzen eta honenbestez, aztergai dugun prestazioa Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten barruan kokatu beharra dago nahitaez. Aztertutako literatura guztiaren artean zenbait autore izendatzearen, Daniel Raventós, Philippe Van Parijs eta Gorka Moreno genituzke.

Hirugarren kapituluan ikerketa lanari berezko itxura eman dion tresna metodologikoaren erabilgarritasuna defendatuko da. Hau da, elkarrizketa kualitatiboak gizarte bazterkeria bezalako kontzeptu konplexu eta aldeanitzaren ikasketan sakontzeko duen gaitasunari eutsiz, metodologia honek teoria berreraikitzeke duen indarra goraiatuko da. Era berean, metodologia honen erabilerak ikerketa pertsonarengan fokatzea ahalbidetzen duela argudiatuko da, analisia subjektuarengan zentratzea permititzen duela, alegia. Elkarrizketa kualitatiboaren baliagarritasuna arrazoitu ahal izateko, garrantzi handikoak izango dira Steinard Kvale, Irene eta Herbert Rubin eta Michael Pioreren ekarpenak. Kapitulu honetan, derrigorrezkoa izango da halaber bizitza-ibilbideen inguruko errepasso bat egitea eta bide horretan Glen Elderren teoriak gidatuko gaitu gehienbat.

Ikerketaren oinarri metodologikoak xedatu ostean, landa-ikerketa aurkeztuko da lan honen atalik mardulenean. Laugarren kapitulua abiarazteko elkarrizketa kualitatiboa

gizarte bazterkeriaren ikerketan murgiltzeko tresna gisa erakutsiko da, gero elkarrizketen diseinua, elkarrizketatuen profila eta galdetegia ezagutzera emateko. Kasu praktikoaren prestaketa lanetan eta elkarrizketatuen aukeraketa prozesuan zehar, azken urteotan gizarte egituretan bizitako aldaketak aintzat hartuko dira.

Ikerketaren fruitu nagusiak xehetasun handiz ekarriko dira laugarren kapitulu honetara. Zalantzarik gabe, elkarrizketetan barrena murgiltzearekin batera helduko zaizkigu emaitzarik interesgarrienak. DBE prestazioaren onuradun diren pertsonen emango zaie ahotsa ikerketa honetan eta narrazio horietan izango dira lanaren iparrorratz nagusia. Orotara, hamazortzi izango dira zeharbide honetan lagunduko diguten bidaideak eta hortik jasotako bizipen-sorta zinez anitza eta aberatsa izango da. Landa ikerketan entzundako bizitza kontakizunetan zehar esparru ekonomikoak, lan merkatuak eta harremanen esparruak jokatzen duten papera aztertuko da alde batetik. Horretaz gain, bazterkeria faktore anitzen metaketak eta bizitza-ibilbideetan bizitako hausturek zaugarritasun istorioetan duten eraginaz egingo da gogoeta.

Azkenik ikerketari itxiera emateko, lan honen ondorio nagusiak bilduko dira bosgarren kapituluaren. Gure ikerketa zuzenduko duten bizipen pertsonaletatik abiatuz distantzia bat hartuko da, urrundu, lehen pertsonen bizitako esperientzietatik abstrakzioa egin eta emaitza orokorrak proposatu aldera. Horretarako, ikerketa lana marko teorikoan eta egun bizi dugun krisi egoeran kokatu beharko da lehendabizi. Jarraian ondorio nagusienak agertuko dira, segidan emaitza zehatzagoak adierazi ahal izateko: gizarte-bazterkeria perfilatzen duten esparruen arteko jokoan antzeman diren bi dinamika, alegia. Azken emaitza honek elkarrizketa kualitatiboaren erabilgarritasuna balioztatuko digu, alde batetik teoria berritzeko emango digun aukeragatik. Bestetik, ikerketan behatutako bazterkeria faktoreen arteko bi joko-dinamika hauek, xede nagusiaren eta ikerketa galderen inguruan aurkikunde interesgarriak ekarriko dizkigutelako.

Duela lau urte baino gehiago abiatu nuen ibilbide honetan zentzu askotan aberasteko aukera izan dut. Tesiaren aurretik izandako bizpahiru esperientziez gain, ikerketaren munduan izan dudana intentsuena izan da hau eta horrexegatik ikerketa fase guztietan gauza berriak ikasi ditut. Bidean, noski, zailtasun batekin baino gehiagorekin egin dut topo.

Sarrera

Krisiak bete-betan harrapatu gaitu eta etorkizunera begira horrek lan honetan jorratzen diren teoretako asko kolokan jartzen ditu, baita gaur egun indarrean dagoen DBE prestazioa bera ere. Edozelan ere, ikerketan zehar izandako oztopo nagusietako bat, gure protagonista izan diren lagunekin harremanetan jartzea izan da. Egia esan elkarte eta GKE ugarik izugarri lagundu dute zeregin horretan baina ez da beti lan erraza izan. Azkenean baina, arrakastaz lortu da helburu gisa markatutako elkarrizketa kopurua betetzea, horretarako aurrez markatutako perfiletara guztiz doitzen ez ziren hautagaiak baztertu behar izan direla aintzat hartuta.

Pertsona hauek guztiek haien bizipen pertsonalak elkarbanatu dituzte eta sarritan istorio latzak izan dira ekarri dituztenak. Ezinezkoa da kontakizun hauek erabateko distantziaz aditzea, hain zuzen ere, helburu nagusia pertsonengana gerturatzea izan dela jakinik. Zer esanik ez, elkarrizketa kualitatiboan erabilitako estrategien artean enpatiarako gaitasuna giltzarria denean. Une batzuetan ez da samurra izan parez pare zegoen pertsona horren narrazioa entzun eta bere munduan murgiltzea. Baina era berean, ikerketaren alde gizatiar hori izan da zalantza izpirik gabe eremu pertsonalean gehien bete nauena. Azken finean, narrazio hauen guztien bilduma izan da doktorego tesi hau sendotu eta jantzi duena.

1. Kapitulu

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak:
ikerketaren erdigunean

Atal honetan ikerketa lanaren marko teorikoa eraiki asmoz berau eusten duten oinarri eta kontzeptu nagusiak finkatu nahi dira. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE), gizarte bazterkeriaren aurka diseinaturiko gizarte politika den heinean, analisiaren erdigunean ezartzea da helburua eta horrexetarako, zein testuingurutan aztertuko den zehaztea ezinbestekoa da. Horrek bidea irekiko digu ostean, bigarren kapituluan, DBE prestazioaren barrenean murgildu, eta beronen jatorria, oinarriak eta funtzionamendua ulertu ahal izateko.

Hasteko, gizarte politika hau marko zabalago batean kokatzearen ongizate-erregimenen analisira egingo da jauzi. Era horretan, ongizate-erregimenak egituratzen dituzten elementu eta eragileak identifikatu nahi dira eta joko horretan parte hartzen duten eragileen artean, erakunde publikoek eta bereziki familiek betetzen duten rola nabarmendu nahi da. Horretarako familia eta familia-ereduen esparrura gerturatu beharra dago.

Bestetik, ikerketa lanean barneratuko den gizarte bazterkeriaren ikuspegia ere zehaztuko da. Marko teorikoaren taxutze prozesu honetan funtsezkoa izango da genero ikuspegia bereganatzea, alderdi askotatik nolabaiteko koherentzia bermatu ahal izateko: bai familia esparruak analisisian jokatuko duen paperagatik, bai integratuko den gizarte bazterkeriaren ikuspuntuarengatik. Hitz gutxitan, ikuspegi feministaren jabekuntza nahitaezkoztat jo da ongizate erregimenez eta gizarte bazterkeriaz jarduteko.

1.1) Ikuspegia familiengana hurbilduz

«Nire abiapuntua zera da, familia – edozein delarik bere forma eta jatorria- pertsonen, eta ez soilik haurren, oinarrizko sare sozial gisa aintzat hartzea...»

(Brullet 2009)

Familia etengabeko eraldaketa prozesuan murgilduta dagoen eraikuntza soziala da, leku eta garai historikoarekin batera bilakatuz doana. Azken 25-30 urteei erreparatzen badiegu, familiak instituzio gisa bizi izan dituen aldaketak garrantzi handikoak izan dira, 80ko hamarkadaz geroztiko mendebaldeko gizarteetan bereziki (Castells 2000), (Beck-

1. Kapituluia

Gernsheim 2003), (De la Cal Barredo 2006), (Collet et. al 2012).

Familia eredu tradizionalaz gaindiko eredu en ugaritzeak indartu egin du familia molde anitzen arteko elkarbizitza eta aniztasun hau jasotzeko modu bat, «familia» hitza aintzakotzat hartu beharrean, kontzeptua pluralean jorratu eta «familiak» terminoa erabiltzean datza (Beck-Gernsheim 2003).

Hortaz, marko teorikoaren eraikuntza prozesu honekin abiatzeko «familiengan» jarriko da begirada. Izan ere, pertsonen bizitza-zikloan zehar errealitate egonkorrenetako bat dira «familiak» -bere aldaera eta forma guztietan- giltzarri baitira pertsonaren gizarteratze eta eskusio prozesuetan (Ezquerria et. al 2011). Hau da, gaur egungo gizarte globalizatuetan harreman pertsonalek aldaketak bizi izan badituzte ere, zenbait ikerketa soziologikok erakutsi dute «familiak babes-egitura garrantzitsuenetako bat izaten jarraitzen dutela, eta norbanakoaren bizitzan zehar harreman sozialetarako lehen esparru gisa mantentzen direla» (Brullet 2009).

1.1.1. Familia ereduak: tradizionala eta forma berriak

Ugaria eta zabala da familia-ereduen inguruan dagoen literatura. Aberastasun hori nolabait islatzeko, azken hamarkadotan ernatu diren zenbait kontzeptu jaso dira hurrengo taulan. Beckerren familia eredu utilitariotik abiatuta (Becker 1981), XX. mende bukaeran familiak –instituzio eta egitura sozial den heinean- bizi izan dituen aldaketak azaldu nahian proposatu diren terminoetako batzuk bildu dira bertan. *Beckerren eredu*a edota *Familiaren Ekonomia Berria*, gogor kritikatu du korrante feministak. Batik bat, ikuspegi erabat arrazionaletik familia ekonomia unitate gisa behatzen duelako, eta familiari esleitzen dioten baliagarritasun funtzioan, familiako beste kideen interesen gaintetik ogi-irabazlearen –gizonaren- baliagarritasuna inposatzen duelako. Bestetik, lanaren genero banaketa legitimatzen du Beckerrek, familiaren baliagarritasun funtzio hori hobesterako orduan aintzat hartzen dituen abantaila konparatiboak direla eta (Carrasco 2006).

Bereziki deigarriak eta interesgarriak dira soziologo en eskutik ernatu diren izendapen

anitzak eta zentzu honetan, originaltasunik ez zaio falta familia-moldeekin lotutako kontzeptuak irudikatzeko formulatutako izendapen-sortari:

1. **Taula: Familia ereduak**

FAMILIA EREDUAK eta KONTZEPTUAK	Kontzeptua landu duten autoreetako batzuk
Beckerren familia (Familia-ekonomia berria)	Becker, G. (1981)
Gizon ogi irabazlea (Male <i>breadwinner</i>)	Eredu tradizionala Eredu fordista
Eredu patriarkalaren krisia	Castells M. (2000)
Familia negoziatzailea	Meil, G. (2004)
Familia-osteko familia (<i>Post-familial family</i>)	Beck-Gernsheim, E. (2003)
Familismo anbibalentea (The <i>ambivalent familism</i>)	Saraceno, C. (1995)
Presentzia bikoitza/Absentzia bikoitza	Izquierdo, M.J. (1998)
Gizonezkoen presentzia bakarra, emakumezkoen presentzia bikoitza	Carrasco, C. (2004)

Iturria: norberak eginda.

Lehen taulan aurkezten diren autore eta izendapen horien atzean ikusmolde eta tesi kontrajarriak egon daitezkeen arren, praktikan denek egiten dute bat funtsezko ideia honekin: eredu *fordistan* -XX. mendeko 80ko hamarkadara arte- nagusi izan den molde *tradizionalak* nagusitasuna galdu du. *Male breadwinner* izenez ere ezagutzen den eredu hau -gizon ogi irabazlea-, familiaren baitan ematen den generozko lan banaketan oinarritzen da (Moreno Fernandez, Carrasco, Parella) eta joan den mendeko gizarte industrializatuekin identifikatu izan da. Izenak iradokitzen duen moduan, gizonari dagokio familia ekonomikoki eustea lan merkatuan irabazten duen soldata medio, emaztea etxeko ardurez eta familia-kideen zainketaz arduratzen den bitartean.

1. Kapitulu

Moreno Fernandezek «bizitza familiarraren despatriarkalizazioa» izendatu duenarekin bat etorriz (2003), Manuel Castellsek argi adierazten du «eredu patriarkalaren krisia» *La era de la información* maisulan. Horrela, «familia-buru izanik familiaren gainean autoritate eta dominazioz jarduten duen gizonezkoaren» ideian oinarritzen den eredu ahuldu egin dela aipatzen du. Are gehiago, etorkizunera begira mendebaldeko herrialdeetan gehienbat, *familia patriarkala* deitzen duen hau gutxiengoaren bizitzeko eratzat jotzen du. Bestelako familia ereduak esperimentatzen ari direla aintzat hartzen duen heinean, honek ez dakar «familiaren bukaera». Soziologoaren ustez, «orain arte ezagutu izan dugun familiaren» amaieraren aurrean gaude (Castells 2000). Dena den, herrialde garatuen artean, Espainiar estatua nolabait salbuespen gisa ikusten du Italiarekin batera, familia tradizionalak erakusten duen erresistentzia maila handiagoa dela eta.

Moreno Minguez soziologoak ere Europako Hegoaldeko herrialdeen kasurako gizon *breadwinner* ereduak indarrean jarraitzen duela uste du. Baina ñabardurak ñabardura, azken tesi honek ez du esan nahi, eredu tradizionalaren inguruan familia molde berriak ugaritu ez direnik.

Familia egituren inguruan ematen ari diren aldaketak direla medio eta eredu patriarkaleko gizonaren dominazioarekin lotuta, ugaltzen ari diren eredu berrietan negoziatio eta adoste prozesuak indarra hartzen ari dira (Giddens 2000). Adoste-prozesu horien harira Gerard A. Meil soziologoak, Espainiar estatuaren kasurako «familia negoziatzailea» delakoa kontzeptualizatu du (Meil 2004). Honen arabera, belaunaldi arteko harremanak ez daude hain hierarkizatuak eta printzipio demokratiko eta berdinkideak gailentzen dira. Autore honen tesi nagusia, belaunaldi arteko solidaritate harremanen indartzearen ingurukoa da. Bere ustetan espainiar familiak bizi dituen aldaketak handiak izanik ere, eta familia barnean zenbait berdefinizio geratu diren arren, belaunaldi arteko solidaritate harremanak sendotu egin dira.

Teorizazio honetan, Meielek bizitza-proiektu indibidualek eskuratu duten independentziari egiten die erreferentzia (2004). Zehatzago esanda, «familia-bizitza proiektuen pribatizazio prozesua» identifikatu du autoreak, Ulrick Beck soziologo alemanak antzeko parametroetan «biografia aukeratu» gisa bataiatu zuen ideia jasoz.

Hau da, bizitza-ibilbideek eskuratu duten independentziaz ari dira hein batean; alde batetik bizitzako aspektu garrantzitsuenak ebazterako uneetan erabaki ahalmen handiagoa esleitzen zaio norbanakoari. Era berean baina, balore, arau, eta gizarte-instituzio tradizionalen ziurgabetasun handiagoa nozitzen da (Beck 2000).

Ilido honi jarraiki, eredu patriarkal eta autoritarioen deslegitimazioa geroz eta indartsuagoa den heinean, familia-bizitza proiektuen pribatizazioa erraztu egiten da, aldi berean, elkarbizitza formen ugaltzea ahalbidetuz (Ezquerria et. al 2011).

Bizitzeko forma berrien eta familia berrien harira, sormen handikoak dira Elisabeth Beck-Gernsheim soziologo aleman ospetsuaren hausnarketak. Familia nork edo zerk eraikitzen duen identifikatzea geroz eta nekezagoa den testuinguruan kokatzen du bere analisia, «mugak lausotzen direneko» egoeran. Meil eta Giddensen ideiarekin bat eginez, Beck-Gersheimek ere «familia hitzartuak» antzematen ditu «familia-osteko familiaren» eremuan. Azken finean, familia tradizionalaren «monopolioaren amaiera» aldarrikatzen du berriro ere, Manuel Castellsen ikuspegitik guztiz aldendu gabe:

«Zer etorriko da familiaren ostean? ... Familiaren ostean datorrena ... familia da! Beste era batekoa, hobea, familia hitzartua, familia aldakorra, familia anitza ... Horrek ez du esan nahi familia tradizionala desagertuko denik ... baina geroz eta trantsizio forma ... gehiago sortzen ari dira, atariko eta epilogo formak ... Horrela soslaitzen dira familia osteko familiaren inguru-ertzak ... » (Beck-Gernsheim 2003).

Bestalde, lan merkatuaren bilakaerarekin paralelotasuna egiten Beck-Geresheimek: prekarizazioarekin lotuta lanak instituzio gisa galdu duen egonkortasuna familien esparrura ere hedatu dela adierazten du. Lan harremanetan egoera prekarioak, atipikoak eta arautu gabeak jazo daitezkeen moduan, familia ere «bizitzaren fase iragankor» bilakatu da (Nave-Hertz 1992), «denbora partzialeko komunitatea» alegia (Imhoff 1988). Elkarbizitzeko eta harremanak izateko bestelako moduak hedatzen diren heinean, familia tradizionala desagertuko ez den arren, geroz eta bitxiagoa izango dela deritzo (Beck- Gernsheim 2003).

Dena den, familia-egituren delako prekarizazio honek ez du zertan esan nahi ohiko familia-elkartasun formak indargetu edota ahuldu direnek. Aitzitik, Meilen ustez

bizitza-proiektuak indibidualizatu diren arren, prekarietate eta krisi uneetan, familia elkartasuna indartu eta birdefinitu egiten da (Meil 2004).

1.1.2. Zer dago *male-breadwinner* ereduaren atzean?

Orain arte eredu tradizionalaren nagusitasunaren gainbeheraren ideia, bizitza-proiektuen pribatizazioa eta familia hitzartuen gaiak bildu baditugu, iritsi da uea familia-ereduen atal honexetan familia egituren baitan eman daitezkeen genero desberdintasunak era esplizituan nabarmentzeko.

Male breadwinner eredu tradizionalaren baitan begi-bistakoa da generoaren arabera lanaren banaketa. Banaketa honekin baina, jendartearen baloratua izan ez den esparru batera mugatzen dira emakumeak, zainketa eta etxeko lanetara hain zuzen ere. Aldi berean zatiketa honen bitartez independentzia ekonomikoa ukatu egiten zaie emakumeei.

Cristina Carrasco ekonomialariaren ahotan ekonomia feministak ekonomia ortodoxoaren «*sesgo androzentrikoa*» zalantzan jartzen du, merkatuan zentratuta dagoen munduaren irudikapen horretan, merkatuz kanpoko beste edozein jarduera aintzat hartzen ez delako, eta bereziki emakumeek burutzen dituzten zainketa lanak bistaratzen ez direlako (Carrasco 2006).

Are gehiago, pertsonen «erreprodukzioarako beharrianen» analisisa eta «bizitzaren sostengua»³ ekonomia ofizialarentzat inoiz zentralak izan ez direla salatzen du ikuspuntu sozioekonomiko batetik. Bere ustetan gizarte jakin bateko genero eta botere erlazioak zeintzuk diren aztertzeko, jendartearen lehentasunak identifikatzeko eta lanaren eta bizitzaren denborak zelan egituratzen diren ikusteko, ezinbestekoa da *giza beharrianak* eta *bizitzaren sostengua* erdigunean kokatzen dituen ikuspegia garatzea (Carrasco 2003).

Ikusmolde horren arabera, giza beharrianen artean badaude materialak diren ondasun

³ Cristina Carrascok darabilen kontzeptua «sostenimiento a la vida» da jatorrian, «bizitzari sostengua» (Carrasco: 2003).

eta zerbitzuak, baina hauen ondoan afektibotasun harremanek ordezkazina eta ukiezina den espazioa betetzen dute. Alde batetik beharizan biologikoei erantzunez, giza beharizanen dimentsio objektiboa izango genuke. Dimentsio subjektiboan aldiz, zaintza, segurtasun psikologikoa eta afektibotasun harremanak biltzen dira.

Ekonomia tradizionalak -eta guri dagokigunez *male breadwinner* ereduak- bi eremu antagonikoren arteko bereizketa zurruna egiten du eremu publiko-maskulinoa eta eremu pribatu-femeninoaren artean, eta honenbestez, esparru ekonomikoa eta ez-ekonomikoa; produktiboa eta ez-produktiboa; merkatukoa eta merkatuz kanpokoaren artean.

Dikotomia anizkoitz hori ez da inolaz ere hutsala: zenbait giza beharizan eremu publikoan asetzen dira, -esparru maskulinoan, esparru sozialean, ekonomikoan, eta politikoan-, eta eremu domestikoan berriz, bizitza publiko horretan parte hartzen ez duten aktibitateak burutzen dira; femininotasunarekin, sentimenduekin eta afektibitate harremanekin erlazionatu ohi direnak. Lehenengoek errekonozimendu soziala jasotzen duen bitartean, bigarren taldekoen balorea ez da aintzakotzat hartzen.

Carrascok dualtasun horretan emakumeen lanak «esku ikusezin» baten antzean jarduten duela salatzen du, zeina berariaz ezkututzen baiten:

«aktibitate horren handitasunak eta ardurak, pentsarazten digu, Adam Smith-ek deskribaturikoa baino boteretsuagoa den esku ikusezin bat badela, egunerokotasuna arautzen duena, eta munduak funtzionatzen jarrai dezan ahalbidetzen duena» (Carrasco 2003).

Funtsean, ikuspuntu androzentriko batetik sistema autonomo gisa aurkezten den hori -merkatuaren esparrua, eremu produktiboa- ez da eremu pribatuarekiko autonomia, menpekota baizik. «Edozein kasutan, emakumeen lanaren ekarpenik ezean, gizarte batean ere ez legoke familia taldearen biziraupena bermatuta» (Cahyanov 1925), (Kriedte et al. 1997). Izan ere, menpekotasuna duten pertsonak zaintzez gain, lan-indarraren erreprodukzio ardura ere hartu izan dute emakumeek bere gain -eredu tradizionalan gehienbat-, gizonezko helduak esparru publikoan lan egin zezan bermatzeko. Etxeko lana bera baino, ezkutuan dirauena etxeko lan horrek produkzio

1. Kapitulu

kapitalistarekin duen harremana bera da (Picchio 1994)⁴.

Ikuspegi are zabalagoa eskaintzen digu Carrascok menpekotasunaren ideiarekin lotuta. Gizon eta emakumeen menpekotasuna ez da gizarte talde jakin batzuetara mugatuta dagoen egoera, baizik eta gizaki izateari lotuta dagoen ezaugarri unibertsal eta banaezina (Carrasco 2009). Ikuspegi honek ageri-agerian jartzen ditu gizabanakoaren zaurgarritasuna eta pertsona orok duen zainketa beharra, norbere bizitza zikloan zehar behar hauek aldatuz doazen arren.

Bizitzaren sostengua erdigunean kokatzen duen begirada barneratzen denean, kontraesan sakona antzeman daiteke kapital metaketa prozesuaren eta pertsonen erreproduzio prozesuaren artean (Picchio 1992). Hots, aipatzen dituen bi prozesuen logikak kontraesankorrak izan daitezke: kapitala metatzeko prozesuan pertsonak bitarteko bilakatzen diren bitartean, pertsonen erreproduzio prozesuan, pertsonen ongizatea bera xedea delako (Pérez-Orozco 2006).

Male breadwinner ereduak gizonaren enplegu beteko egoerarekin bat egiten du, baina hainbat ekonomialarik zalantzan jartzen dute ereduaren beraren oinarria ere. Emakumeak etxeko ekonomiara mugatzen dituen, alegia. Izan ere, XX. mendean zehar -fordismoaren garaian- emakumeek ere hartu ohi zuten parte lan merkatuan, bereziki soldata baxuko familien artean, betiere gizonezkoak baino baldintza okerragoetan (Carrasco 2003).

Perezek EA Eren kasurako, XIX eta XX. mendeetan emakumeek siderometalurgia eta meatzaritza industrian burutu izan zuten lana aztertu du. Industria sektorea garatzearekin batera, geroz eta gehiago ziren etxean neskamea edota inudea har zezaketen klase ertaineko familiak, eta hortaz, geroz eta gehiago izan ziren lan horietan jardun zuten emakumeak. Zenbatu izan ez den arren, emakumeek etxeko lanez gain egindako ordaindutako lanak funtsezkoak izan dira langile klasearen erreproduzio soziala ziurtatzeko. Gehienbat zerbitzuen merkatuan lan murgildua

⁴ Antonella Picchio italiarra ekonomia feministan aditua da. Bere lanen artean, Picchio, A. (1994): *El trabajo de reproducción, tema central en el análisis del mercado laboral*, Borderías et al-en. Eta Picchio, A. (1999): "Visibilidad analítica y política del trabajo de reproducción social", Carrasco C.ren, *Mujeres y economía liburuan*, Icaria.

burutzen zuten, itxuraz behintzat ogi-irabazlearen rola gizonari egozten dion genero-eredua kolokan jarri gabe (Pérez 2004).

XX. mendearen bigarren erdian emakumeek lan merkatura egin duten saltoa fenomeno orokorra izan da gure inguruko herrialdeetan, batzuetan besteetan baino lehenago edo beranduago gertatu izanaren desberdintasunarekin. Horrela, lan merkaturako sarrera masibo hau Frantzian 60ko hamarkadan abiatu bazen, Espainiar estatuan 80ko hamarkadan izango zen. Datuen arabera, EA Eren kasurako hamarkada horrexen bigarren erdian kokatu daiteke «emakumeen iraultza isila» (Larrañaga 2005).

Honenbestez, emakumeen lan merkaturako integrazioak lan merkatuan bertan ekarri dituen aldaketez gain, eragin nabarmena izan du familia ereduetan. Aurretik aipatu den bezala, geroz eta ugariagoak dira eredu tradizionalaren inguruan ernatu diren bestelako familia eredu ezberdinak⁵.

Besteak beste, aurkeztu berri dugun lehen taulan «familismo anbibalentea» (Saraceno 1994), emakumeen «presentzia-ausentzia bikoitza» (Izquierdo 1998), eta «gizonezkoen presentzia bakarra, emakumeen presentzia bikoitza» (Carrasco 2003) bezalako izendapenak jasotzen dira. Xehetasunak xehetasun, hirurak ideia beraren bueltan mugitzen dira. *Anbibalentzia* hitzarekin, bereziki lan merkatuan lan egiten duten emakumeek, lehen profesionalak eta familia-afektibotasun lehen profesionalak bateragarri egiteko bizi dituzten zailtasunak islatu nahi dira. Era berean, emakumeek eremu publikoan eta etxeetan duten presentzia bikoitza irudikatzen du «presentzia-ausentzia bikoitza» esapideak. Hots, leku bitan aldi berean egoteak, azken finean, bietako batean ere ezin egotea iradokitzen du.

Azkenik, eredu familiar berri honetan emakumeen rola aldatu bada ere, gizonezkoak dira beren portaera gutxien aldatu dutenak. Izan ere, etxeko arduetan erakutsi duten inplikazioa ez baita handitu emakumeek lan merkatuan integratu diren neurri berean. Erantzukizunen banaketa gabezia horixe jasotzen du bada, «gizonezkoen presentzia bakarra, emakumeen presentzia bikoitza» formulazioak (Carrasco, Larrañaga)⁶.

⁵ Beste autore askoren artean; Carrasco C., Castells M., Moreno Fernandez eta Larrañaga, M.

⁶ Gizon eta emakumeen lan ibilbideek denboran izan duten eboluzioa aztertzeko, ikus, (Carrasco 2003).

1.2) Ongizate erregimenen osaera: familia eta generoa

«Ongizate erregimenen osaeran familia da oinarrizko euskarrietako bat»

(Moreno Fernandez 2003)

Aurreko atalean familiez eta familia-ereduen inguruan egindako hausnarketa testuinguru zabalago batera lekualdatzeko, ongizate-erregimenen eszenatokira jauzi egin beharra dago. Era berean, salto horrek bidea ematen du ongizate erregimenen baitan familia esparruak betetzen duen lekua aztertzeko. Prozesu horretan, «familia eredu mediterraneo» deritzona barneratzea funtsezkoa izango da. Izan ere, EAE eta Espainiar estatua ongizate erregimen mediterraneoan kokatzen bada, ezinbestekoa da berau definitzen duen familia eredu aintzat hartzea.

1.2.1. Esping-Andersen hiru munduak

Ongizate-erregimenak gorpuzten dituzten eremu eta instituzio desberdinak zehazten hasi baino lehen, esparru honetan hain itzal handia eduki duen Esping-Andersen daniarraren ekarpenetara jo beharra dago. Autore honek, *The three worlds of Welfare Capitalism* liburuan ongizate erregimenen kategorizazioa egin zuen. Kontrako kritika asko ere jaso dituen arren, tipifikazio hauxe izan mundu akademikoan da arrakasta eta hedapen handiena izan duena.

Sailkapen hori eraiki bidean, hurrengo hiru gaiak sakon lantzen ditu bere lanean Esping-Andersenek. Estatua eta merkatuaren aldeko erlazioa jorratzen du batetik, eta *desmerkantilizazio* eta *estratifikazio*⁷ kontzeptuak bestetik. Bi esparru edo eragileren arteko erlazioan oinarritzen du ongizate erregimenen inguruko analisi sakon hau: estatua eta merkatuaren artean finkatzen den aldeko harremanean hain zuzen ere. Gizartean ematen diren ezberdintasunak zuzentzerako orduan estatuak jokatzen duen paper nagusia nabarmentzen du biko ardatz honetan. Horrekin batera, estatuak gizarte harremanak eta klase ezberdinak finkatzerakoan instituzio egituratzaile gisa betetzen

⁷ Jatorrizko ingelesean, *decommodification* eta *stratification* hitzak dira darabiltzanak (Esping-Andersen 1990).

duen rola ere azpimarratzen du.


Honenbestez, *desmerkantilizazioaren* ideiak bere baitan gordetzen duen dimentsio politikoa nabarmendu dezakegu. Hiritartasun Oinarritzko Errentei (HOE) eskainitako atalean, zehazki instrumentu honexek hiritarrei mugimendu sozial eta politikoetan murgiltzeko emango liekeen aukera jorratuko da (Bauman 2001), (Beck 2002). Honekin lotuta Esping-Andersenek adierazi du, langileak erabat *merkantilizatuta* dauden bitartean, zaila dela mugimendu solidarioetan –sozial, sindikal, politikoetan- inplikatzeari (1990). Hala, *desmerkantilizazioak* langilea lan merkatuarekiko menpekotasun horretatik libratzen duen heinean, bere eskubide sozial eta politikoen alde mobilizatzeko ere askatu egiten du. *Desmerkantilizazioak*, HOEk edota bestelako politika sozialek, hiritarren parte-hartzea areagotzeko duten potentziala azpimarratzeak berebiziko garrantzia du gure ikerketari dagokionez.

Merkantilizazioa eta *desmerkantilizazioa* (*commodification/decommodification*) kontzeptu kontrajarrien erdigunean merkatua bera dago; eta merkatuarekin batera beronek pertsonak lan merkatuarekin lotzeko duen indarra. Hain zuzen ere *merkantilizazio* deritzon kontzeptuak, pertsonen lan-indarra salgai huts bihurtzen deneko prozesua irudikatzen du. Esping-Andersenek hitzetan, gizarte kapitalistetan «merkatua langilearentzako kartzela bilakatzen da eta kartzela horren barruan bizirauteko derrigorrezkoa da merkantzia gisa jokatzea» (Esping-Andersen 1993).

Era berean, botere publikoek emandako bermeari esker zenbait eskubide sozial modernoren lorpenak *merkantilizazioaren* zama hori arindu egiten du. Hortaz hurrengo ideia biltzen du *desmerkantilizazioak*: «gizabanakoak eta familiek onargarria den bizitza-maila eramateko duten gaitasuna, edozein delarik ere haien parte hartzea merkatuan» (Esping-Andersen 1993).

Hitz gutxitan, *merkantilizazio-desmerkantilizazioak*, kontrako noranzkoan diharduten indar bi islatzen dituzte: bata pertsona lan-merkatuarekiko kateatzen duena, eta bestea, derrigortasun horretatik askatzen duena. Lehen irudi horretan, merkatua eta estatuaren arteko harreman hori bistaratzen da eta bide batez, bi eragile hauen arteko *merkantilizazio-desmerkantilizazioaren* joko bereiz daiteke (1. Irudia).

1. Irudia: Ongizate Erregimenen eredu klasikoa



Iturria: (Esping-Andersen 1990)-tik abiatuta, norberak eginda.

Estratifikazio kontzeptuak bestetik, politika sozialek -eta beraz, estatuak- harreman sozialen mailaketa eta antolakuntza zehazteko orduan betetzen duten funtzioa irudikatzen du. Esping-Andersenen jatorrizko ereduan klase-desberdintasunak dira mailaketa honen ardatz nagusia. Zentzu honetan, politika sozialen norabide eta izatearen arabera, klase/gizarte-estatus/lan-banaketa ezberdintasunak biziagotu egin daitezke, edo alderantziz, politika hauek ezberdintasun hauek leuntzera zuzendu daitezke berdintasuna eta solidaritatea sustatuz.

Laburki esanda, ongizate erregimenak karakterizatzen dituzten hiru ezaugarri proposatzen ditu autoreak – *merkantilizazioa*, *desmerkantilizazioa* eta *estratifikazioa*-, indar-eragile nagusiak merkatua eta estatua diren markoan (Orloff 1996). Hirurak ere grafikoan daude ikusgai, norabide batean edo bestean, estatu eta merkatuaren funtzionamenduan eragiten dutela islatuz.

Hortaz, Esping-Andersenek ongizate erregimenen sailkapena proposatu zuen, diru-sarrerak eta zerbitzuak eskaintzerako orduan merkatuek eta estatuak jokatzeko duten paperaren arabera. Hiru talde nagusi bereizten dira tipologia klasiko honetan⁸.

Lehen multzo batean, herrialde anglosaxoiekin identifikatu ohi diren erregimen liberalak izango genituzke. Ahal den heinean merkatuaren hornikuntza sustatzen du

⁸ Esping-Andersen-en ongizate-erregimenen sailkapen klasiko hau 2. Kapitulan ere jorratu da, Hiritartasun Oinarrizko Errentei eskainitako atalean, erregimen hauetako bakoitzak HOEren ideiekin duen hurbiltasuna baloratuz.

erregimen mota honek. Hots, gizarte erreformen edo eskubide sozialen garaipenaren aurrean, merkatua eta lanaren etikari ematen zaie lehentasuna. Gizarte babesaren mugek, lanerako joera marjinala eta laguntza soziala jasotzearena berdindu egiten dituzte (Esping-Andersen 1993). Hala, gizartearen dualtasuna biziagotu egiten da eta gizartearen gehiengo merkatuaren menpe dagoen bitartean, beste sektore txikiago bat hornikuntza-publikoaren babesean bizi da. Bestela esanda, hiritarrek merkatuaz haratago zerbitzu eta diru-sarrerak lortzeko dauzkaten aukerak murrizak dira (Orloff 1996).

Esping-Andersenek deskribatutako beste bi erregimen eredu dagokienez esan beharra dago ongizate estatua eredu liberalean baino garatuago izan ohi dutela, hiritar gehienei estatu-hornikuntzaren babesa eskaintzen zaien neurrian. Edozelan ere, beste bi eredu hauen artean desberdintasunak nabarmenak dira.

Hasteko, eredu kontinentala edo korporatiboa deritzanean, guztiz mailakatutako gizarte sistema baten testuinguruan, estatus eta klase desberdintasunak iraunaraztea erregimenaren helburuetako bat izan da. Honenbestez Frantzia, Austria eta Alemania bezalako ongizate estatu kontserbadore eta korporatibistetan, merkatuaren eraginkortasunarekiko obsesioa eta *merkantilizazioa* ez dira inoiz berebizikoak izan, eta ordenak eta diziplinak bete dute haren lekua. Zentzu horretan, eskubide sozialen kontzesioak ez du inoiz eztabaida handirik piztu⁹. Estatua gizarte-klase arteko desberdintasunak areagotzen tematu da eta ongizate erregimen hauetan errenta birbanaketaren efektua ez da esanguratsua izan. Esan beharrago dago, estatuak eskaintzen dituen onurak eredu anglosaxoian baino eskuzabalagoak izan badira ere, hein handi batean lan merkatura baldintzatuta egon direla.

Hirugarren multzoan erregimen sozialdemokrata daukagu, herrialde eskandinaviar gehienetan indarrean dagoena, alegia. Prestazio sozialen unibertsaltasuna dute ezaugarri nagusi eta erregimen berdinkideenen adibide dira. Gehienbat zerga bidez finantzatuta dagoen sistema baten barruan, *desmerkantilizazio* maila altuenaz gozatzen

⁹ Esping-Andersen-en arabera Austria, Frantzia eta Alemaniaren kasuetan indar politiko kontserbadoreek klase ertainaren gizarte segurantzarekiko leialtasuna instituzionalizatu egin dute, lanbide eta okupazioaren arabera bereiztuta (Esping-Andersen 1993)

1. Kapitulu

dute.

Sailkapen klasiko honetatik aldendu gabe eta genero aldagaiari erreparatuz, eredu liberalak generoarekiko axolagabe jokatzen duela ikusiko genuke, izan ere, zuzenean merkatuaren esku uzten baitu zerbitzuen horniketa. Bestetik, erregimen kontserbadoreek subsidiaritatea sustatzen dutela esan genezake; estatuak familiek huts egiten duten egoeratan bermatzen baitu gizarte-segurantz, bide horretatik emakumeek familiarekiko izan dezaketen menpekotasun harremana areagotuz. Erregimen sozialdemokratek berriz, estatuaren eskutik prestazioak jasotzeko eredu individuala sustatu dute eta zerbitzuak eskaintzen ditu zainketa lanez arduratzen direnak lan merkatura jo dezaten ahalbidetzeko –emakume ezkonduak gehienak- (Orloff 1996).

Azken finean, emakumeen lan-merkaturako integrazioarekin lotuta, eredu sozialdemokrataren aparteko ezaugarria gizarte ongizatea eta lanaren arteko fusioa dela azpimarratuko genuke. Edo bestela esanda, enplegu betearen jomuga izan dela gizarte-akordioaren funtsezko ezaugarria. Ongizate-eskubide eta lanaren arteko lotura sendo hori gizartearen ikuspuntutik solidarioagoa den sistema hau finantzatu ahal izateko giltzarrietako bat izan da¹⁰.

¹⁰ J. Elorrietak (2011) esana Esping Andersen (1990) aipatuz.

1.2.2. Genero itsutasuna eta hiruko ardatzaren eraikuntza

«Genero harremanek sakonki zehazten dute ongizate estatuaren izaera. Era berean, ongizate estatuak genero harremanetan ere eragiten du».

(Orloff 1996)


Esping-Andersenaren eredu hau itzal handikoa izan bada ere, asko izan dira azken urteotan bere planteamendua kolokan jarri duten ikuspegi kritikoak, beroni darion genero-itsutasuna dela eta (Korpi 2000), (Lewis 2002), (Orloff 1996). Izan ere, zenbait aditu feministek nabarmendu dutenez, ongizate estatuaren tipologiak klase sozialekin lotutako faktoreak jorratzen ditu ezberdintasun sozialen auzia lan merkatura edota aktibitate ekonomikoaren esparrura mugatuz. Hots, eredu hauetan inplizituki aipatzen diren hiritarrak «gizon langileak» direla salatzen da eta gizarte-klaseen baitan eman daitezkeen genero desberdintasunak kontuan hartu gabe, estatua eta familien arteko harremanak albo batera uzten dituela. Hutsegite honen aurrean, genero ikuspegia barneratzeko beharra azpimarratzen da, bai genero eta bai klase desberdintasunak analizatzeko gai den ongizate-erregimenen taxuzko sailkapena garatu nahi bada (Korpi 2000)¹¹.

Genero dimentsioa barneratu ezean, estatuak genero harreman, ezberdintasun eta boterearengan dauzkan efektuak aztertzerako orduan huts egiten da (Orloff 1996), besteak beste, esparru domestikoan emakumeek gizartearen onurarako egindako lanak bistaratzen ez direlako eta ordaindu gabeko lana analitiko kanpo uzten delako (Lewis 2002).

Hurrengo irudian, ongizate erregimenen ikasketan genero harremanak aintzat hartzeko behar hori irudikatzen da ere sinple batean, ongizate-estatu eta genero harremanen artean dagoen hartu-emana adieraziz (2. Irudia). Esping-Andersen grafikoarekin konparatuz, genero aldagaia barneratzeak berritasun garrantzitsua dakar.

¹¹ Ildo beretik Robeyns-ek azpimarratu du genero itsutasun hau, HOEren inguruko analisietan ere sumatu daitekeela (ikus 2.1.4) (Robeyns 2007).

2. Irudia: Genero ikuspegia barneratu beharraz



Iturria: (Orloff 1996) eta (Obradors 2006)-tik abiatuta norberak eginda.

Anna Obradorsen hitzetan ere genero harremanek badute zeresana ongizate-estatuan. Bere ustez, Esping-Andersen en eredu klasikoa gizarte eredu jakin batean oinarritzen da; familia eredu tradizional –eta heterosexualean– hain zuzen ere. Gizarte antolakuntza familia eredu jakin honetan oinarritzeak, nola ez, eragin nabarmena izan du ongizate estatuaren garapenean (Obradors 2006).

Illo horretatik, Esping-Andersen en eredu klasikoan familia aldagaia «behaketa unitate gisa» ikusi izanaren kontra argudiatu du Korpik, *familia nuklearren* baitan diru-sarrerak era berdintsuan banatzen direla emandakotzat jotzen delako. Ostera, genero ikuspegia barneratzen denean nahitaez familia nuklearraren ideia horrekin hautsi egiten da; familia unitatea berdinkidea delakoaren ustearekin, alegia (Korpi 2000).

Honenbestez, familia-eredu berrien inguruan egindako gogoetan «familia negoziatzaileaz» edota «hitzartuaz» aritu bagara ere, zenbaitzuek familia lankidetza eta gatazka gune bezala sumatzen dutela gogora araztea komeni da. Izan ere, familia barnean bizi daitezkeen desadostasun eta genero arteko desberdintasun horiek, ongizate-erregimenean analisisian generoa aldagai endogeno gisa txertatzera behartzen gaituzte. Korpik, era honetan adierazten du:


«familia barruan baliabide materialak eta bestelako onurak era berdinkidean birbanatzen direla jakintzat hartu beharrenean, aberasgarria litzateke familia nuklearra koalizio egonkor gisa kontsideratzea ... eta bere baitan, partzialki konpartitzen diren interesen eta partzialki

elkarrekin gatazkan sartzen diren interesak topatzen direla. Birbanaketa-gatazka batean inplikaturik dagoen koalizioa da, bai gizarte esparruan eta baita ere etxe barneko negoziaketetan» (Korpi 2000).

Amartya Sen ekonomialariak ere halaxe azpimarratu izan du (Sen 1989) eta desadostasunak bereziki denboren, aktiboen eta jardueren banaketari buruz erabakiak hartzerakoan gertatu ohi direla zehaztu zuen (Larrañaga, Jubeto 2011).

Genero-itsutasunaren oztopoa gainditzeko seta honen inguruan Esping-Andersenek ere hausnarketa egin du eta horrek bere planteamendu klasikoa birplanteatzera eraman du. Ildo honetatik, ongizate erregimen garaikideak hiru eragileren elkarrekintzan oinarritzen direla aitortu du. Hala, ongizate erregimenak –eta beren krisiak- «lan merkatuen, familiaren, eta hirugarren lekuan soilik, estatuaren arteko soinu bakarreko elkarrekintzan» konfiguratu direla baieztatzen du (Esping-Andersen 2000).

3. Irudia: Ongizate erregimenak hiruko ardatzean



Iturria: (Korpi 2000), (Orloff 1996), (Lewis 2002), (Esping-Andersen 2000) eta (Carrasco 2003).

1. Kapituluia

Honenbestez, bigarren irudian erakutsi den biko-ardatza gaindituz ardatz hirukoitza proposatzen da 3. Irudian. Esping-Andersen en jatorrizko ereduaz harago, «benetan kritikoa den erlazioa, ordaindutako lana, ordaindu gabekoa eta ongizatearen artean» dagoena dela erakusten du (Taylor-Gooby 1991). Hitz gutxitan esanda, ongizate-erregimenek egitura instituzional jakina dakarte berekin. Egitura horretan baliabide legal, material eta antolakuntza baliabideak nahasten dira eta baita baliabide hauen ekoizle nagusienak ere: estatua, merkatua eta, familia (Moreno Fernandez 2003). Bestetik 3. irudian, genero aldagaiaren derrigorrezko ikuspegi transbertsala nabarmentzen da berriro ere. Behin hiruko ardatz hau ezarri eta ongizate-erregimenen jokoak gorpuzten duten eragile nagusiak nabarmenduta, marko teorikoaren eraikuntzan aurrera egin dezakegu.


Planteamendu honen arabera ongizate-erregimenak hiru esparruren inguruan definitzen diren neurrian, halaxe soslaitzen dira baita ere «arrisku sozial berriak». Peter Taylor-Goobyren ustetan, familiek eta berauek eskatzen duten atentzio informalak batetik, lan merkatuek bestetik, eta azkenik, ongizate estatuaren baitan ematen diren aldaketek ematen diete itxura «arrisku sozial berriei». Industrializazio ostean ernatu diren arrisku sozialetara moldatzeko bidean, mendebaldeko gizarteetan ongizate estatuak izaten ari diren eraldaketak aztertzen ditu bere lanean. Izan ere, arrisku sozial hauek ongizate-estatuaren berrosatzea eragiten baitute: lehen existitzen ez ziren premiak sortarazten dituztelako edota aurretik existitzen baziren ere, lehen premia hauek familien esparruan asetzen zirelako. Bere ustetan, arrisku hauen berritasuna zera da: gizabanakoari bizitzako aro goiztiarragoetan eragiten dietela, eta izaera iragankorragoa, partikularragoa eta minoritarioagoa dutela (Taylor-Gooby 2005).

Arrisku sozial berri hauek eskakizun berriak dakartzate. Hauen aurrean, familia esparruan bizi diren bazterkeria prozesuak eremu pribatutik atera eta esparru publikora hedatzea merezi dute, esate baterako, lan merkatuan txertatzeko ezintasun kasuetan edota familia-kideren bat menpekotasun egoeran bizi den egoeratan.

Laburbilduz, gaur egungo gizartearen «integrazio gaitasuna» kolokan jartzen duten hiru arrisku-esparru identifikatu ditu Goobyk: elkarbizitza ereduaren bizitako aldaketak; lan merkatuan izan diren eraldaketa eta erreformak; eta azkenik, ongizate estatuaren baitan

izandakoak. Hiru arrisku-esparru hauen arteko harremana biltzen da 4. irudian. Halaber, grafikoak berritasun nabaria proposatzen du: familia-politikak erlazio triadiko horren erdigunean kokatuz, hiru arrisku ardatzak harremanetan jartzen dituen tresna gisa aurkezten ditu Taylor-Goobyk (2005). Proposamen honek bidea irekiko digu aurrerago gure marko teorikoaren muinean DBE politikak plazatzeko.

4. Irudia: Familia-politikak ardatz hirukoitzaren erdigunean



Iturria: (Taylor-Gooby 2005)-tik abiatuta, norberak eginda.

1.2.3. Ongizate-erregimenak begiratzeko beste era bat: laugarren euskarriaren bila

Marko teorikoan genero dimentsioa barneratu ostean ongizate-erregimenen sailkapen alternatiboak proposatzeko tartea irekita geratzen da, Esping-Andersen en eredu klasikoak genero ikuspegia aintzat hartzeko erakutsi duen antzutasuna kontuan hartuta.

Jane Lewisek adibidez, ongizate-erregimenak «gizon langile, emakume etxekoandre» - *male breadwinner, female household*- ereduarekin daukaten erantzukizun mailaren arabera sailkatu beharko lirakeela proposatzen du. Ikuspegi horretatik, «lan

1. Kapitulu

merkatutik kanpo dauden emakume ezkonduak izango lirateke helburu, haien senarrekiko erabat menpe daudenak» (Lewis 1992).

Gizarte-politikek gisa honetako akordio tradizionalak bultzatzen dituzten heinean, emakumeen interesak ondo asetzen ez direla uste du, besteak beste gizarte-segurantzaren eskubideak eta zerga-sistema ere definituta dauden eragatik. Aitzitik, *bi diru-iturriko* etxeak sustatzen dituzten erregimenetan emakumeen interesak hobeto defendatzen direla ematen du aditzera. Honenbestez, bere lanean Europako hainbat herrialdetako kasuak alderatzen ditu. Horren arabera, Britainia Handia eta Irlandako erregimenak gizon *breadwinner* ereduarekin sakon konprometitu daudela ondorioztatu du. Bestalde, Frantzia eredu tradizionalarekiko lotura apalagoa sumatzen duen bitartean, Suediar ongizate erregimena da, bere analisisen arabera, *bi diru-iturriko* ereduarekin gehien konprometitzen dena.

Planteamendu honetatik gehiegi urrutiratu gabe ongizate erregimenen beste sailkapen bat iradokitzen du Sainsburyk (1994); gizarte-politiken eta helburu diren bi genero ereduaren artean dagoen antzekotasunaren arabera, hain justu ere. Lehen eredu, gizon *breadwinner* moldearekin bat egiten duena da. Bigarrena berriz, *eredu indibiduala* deritzona litzateke: eredu ideal honen baitan, gizon eta emakume, biak ari dira lan merkatuan eta biek hartzen dituzte bere gain zainketa ardurak. Ongizate-estatuaren onurak norbanakoarengana zuzenduta daude eta zainketa zerbitzu asko era publikoan edota prestazio bidez eskaintzen dira. Sainsburyk bi eredu hauek desberdintzen dituzten lau dimentsio nagusi identifikatu zituen: familia ideologiaren ezaugarriak, eskubideak, enplegua eta soldata politikak, eta azkenik, zainketa-lanen antolaketa (Orloff 1996).

Honenbestez, ongizate-erregimenen markoan genero aldagaia barneratu izanak ongizate-erregimenei begiratzeko beste modu bat eskaintzen digun heinean, aukera ematen digu Esping-Andersenek proposatutako *desmerkantilizazio* eta *estratifikazio* kontzeptuak birplanteatzeko. Halaber, eszenatokian hirugarren aktore bat sartzeak—familia-, *familiarizazio-desfamiliarizazio* deritzon binomioa atzera aztertzeraz derrigortzen gaitu.

Lehenik eta behin, Esping-Andersen *merkantilizazio-desmerkantilizazio* kontzeptuak lan merkatuari egiten dio erreferentzia soilik, ordaindu gabeko lanaren esparrua eta emakumeek bertan jokatu duten paper garrantzitsua kontuan hartu gabe. Hau da, *decommodification* kontzeptua langileen mobilizazio politikorako aurre-baldintza gisa aurkeztu zuen, buruan gizonetzko langilea zeukala (Lewis 2002).

Hortaz, *desmerkantilizazio* kontzeptua familia esparruraino hedatuko bagenu, pertsonak bizitza-maila onargarri bat eskuratzeko duten mailari egingo lioke erreferentzia, pertsona horiek familia esparruan dituzten ardurak edozein izanik ere. Ikuspegi honek, ordaindutako lanaren, ordaindu gabekoaren eta ongizatearen arteko harremana hartzen ditu kontuan (Carrasco 1997).

Ildo beretik, Orloff eta O'Connorek ere *desmerkantilizazio* kontzeptua biribildu asmoz, definizio are osatuagoa proposatu zuten (Orloff 1996). *Desmerkantilizazioak* gizabanakoa lan merkatuarekiko erabateko menpekotasunetik babesten duenaren ideari eusten diote, baina berebiziko garrantzia duen ñabardura batekin: lan merkatuarekiko babes horrek, generoa, adina eta familia estatusa bezalako aldagaiak independentea izan behar du. Hitz gutxitan, lan merkatuarekiko derrigorrezko lotura horrekin hausteko gaitasuna emakumeei ere bermatu beharra dagoela azpimarratzen dute, bide batez, adina, eta talde soziala bezalako aldagaiak ere barneratuz.

Horrekin lotuta Orloffek «familia autonomoaren kontzeptua» iradoki zuen; etxeko eta zainketa lan gehienez arduratzen diren pertsonak –emakumeak gehienetan- familia autonomo bat mantentzeko duten gaitasunaz ari da hain zuzen, horretarako ezkontzara jo beharrik izan gabe (Orloff 1993).

Era berean, estratifikazio kontzeptuaren baitan ere genero dimentsioa erantsi beharraz gogoeta egin da. Nolanahi ere, helburu orokorra genero bereizkeria eta genero desberdintasunak aintzat hartzea da. Jomuga zehatzagoa berriz, gizon zein emakumeei «antzerako kalitate-maila duten onurak» bermatzea litzateke, haien estatusak -guraso bakarreko familiak, langabetuak, ezkonduak, erretiratuak- berdintasun eskubide hori oztopatzen ez duela ziurtatuz (Orloff 1993; 1996).

1. Kapitulu

Familia edota etxeko esparruan genero arteko berdintasunean aurrera egiteko, lehenik eta behin emakumeek haien lan-indarra *merkantilizatu* egin behar dutela argudiatu izan da, hurrengo pausu batean *desfamiliarizatu* eta etxe barneko ardurak birbanatu ahal izateko (Orloff 1996). Hiru urratseko prozesu honetan –*merkantilizatu*, *desfamiliarizatu*, *familiarizatu*- estatuaren parte-hartzea ezinbestekotzat jotzen da. Esping-Andersenek ere uste du aukerarik egokiena «zerbitzu pertsonal eta sozialak» garatzen dituzten ekonomiak bultzatzea dela, lan merkaturako emakumeen integrazioa sustatu asmoz.

Edozelan ere, emakumeen *merkaturatze-desmerkaturatze* prozesu honen inguruan desadostasuna da nagusi korrante feministaren baitan eta prozesu beraren desiragarritasuna zalantzan jartzen da. Esate baterako, herrialde eskandinaviarretan lan merkaturatu nozitzen den sexu segregazio eta estratifikazio nabarmenenak agerian jarri dute enpleguaren esparruan errepikatu daitezkeen botere asimetriak (Lewis eta Astrom 1992).

Emakumeen merkaturatze prozesuak dituen mugak salatzerako unean, interesgarria da Moreno Fernandezek hartu duen jarrera. Bere hitzetan, *desfamiliarizazio* prozesua konplexua da oso, eta emakumeak lan merkaturatu aktiboki integratzera bideratuta dauden politikez haratago doa. Hala, emakumeak lan merkaturatu bultzatzen dituzten politika «kanporatzaileek», esparru domestikoan eta familia barruan ematen diren genero ezberdintasunak iraunarazten badituzte, ezinezkotzat jotzen du berdintasunean aurrera egitea. Hots, esparru domestikoan familia kideen artean ardurak banatu ezean, emakumeen merkaturatzea alperrekoa dela uste du, berdintasuna lan ordainduaren esparruan eta ordaindu gabeko lanaren esparruan ere bermatu behar delako (Moreno Fernandez 2003b).

Honenbestez, gaia korapilatsua dela nahikoa argi geratu ez bada, Jane Lewisen hurrengo aipuak lagunduko digu konplexutasun hori agerian uzten. Gizarte politiketan aditua den honek, emakumeek lan ordainduarekin, ordaindu gabekoarekin eta ongizatearekin duten harremana zaila dela irizten du:

«Konplexua da emakumeek lan ordainduarekin, ordaindu gabekoarekin eta ongizatearekin duten harremana. Konplexutasun honek eskatzen du harreman hauen inguruan emakumeen posizioa bi norabideetan kontuan hartzea. Alde batetik, aintzakotzat hartu behar da emakumeek lan ordainduan ez murgiltzeko duten eskubidea, eta ondorioz, ordaindu gabeko lanean aritzeko duen eskubidea. Bestetik, eta kontrako norabidean, emakumeek lan ordaindua burutzeko duten eskubidea kontsideratu behar da, eta eskubide horretatik eratorrita, emakumeek lan ordainduan ez inplikatzeko duten eskubidea» (Lewis 1997).

Era berean Moreno Fernandezek tesia berreskuratuz, emakumeentzat eskatzen diren bi askatasun hauek gizonezkoengana ere hedatu behar dira, ordaindu gabeko lanen esparrua ez baita emakumeengana soilik mugatu behar.

Esping-Andersenek berak ere, *Ongizate Kapitalistaren hiru munduen sailkapenaren* berrikusketa egin du gerora, eta berrikuste lan horretan arreta berezia eskaini dio hiru eredu horien azterketatik kanpo geratzen den «laugarren munduari». Halaxe, «laugarren mundua» delakoa osatzen duten erregimenen ezaugarri espezifikoak aztertu ditu: antipoden laugarren munduan Australia eta Zeelanda Berria; Asia Ekialdean Japonia, Korea eta Taiwan, eta azkenik «eredu mediterraneo» deritzana. Azken talde honetan Italia, Grezia eta Espainia biltzen ditu, herrialde hauek eredu kontinentalarekiko erakusten dituzten ezberdintasun nabariak aintzat hartuz (Esping-Andersen 2000).

Eredu kontinentala eta anglosaxoiren erdian, laugarren eredu hau tarteko posizio batean kokatzen du Moreno Fernandezek (2003); lehenengotik lan errentak estali edo ordezkatzeko dagoen joera hartzen duelako, eta bigarrenetik berriz, unibertsalagoa den estaldura baten bereizgarria barneratzen duelako. Are gehiago, Espainiar estatuko ongizate eredua tarteko bide horren adierazle nagusia dela baieztatzen du. Alde batetik osasuna, hezkuntzaren eta pentsioen unibertsaltasuna eta bestetik, izaera kontributiboa duen gizarte segurantza bateratzen dituelako. Bestalde, eredu mediterraneo bat dator goiko grafikoan proposatutako ardatz hirukoitzaren ereduarekin: estatuaren, familiarren eta merkatu pribatuen ongizate baliabideak konbinatzen ditu, hiritarren autonomia eta bizi-asetzea *-well being-* segurtatzeko

1. Kapitula

(Moreno Fernandez eta Sarasa 1992 eta 1993). Edonola ere, Europako Batasunaren eremuan krisiari aurre egiteko hartu diren neurriak bete-betean erasotzen ari dira ongizate erregimenen euskarri diren zerbitzuetako batzuk. Espainiar estatuaren kasuan, hezkuntza eta osasunaren sektorean burutzen ari diren murrizketa eta privatizazioak orain arte unibertsalak ziren zerbitzuen iraunkortasuna kolokan jartzen ari dira, eta horrekin batera, ongizate erregimena bera hankaz gora geratzeko arriskua bizia da.

Esparru teorikoan baina, eredu mediterraneoaren kontzeptualizazioa egiterako orduan, hiru ezaugarri nagusi bereizten ditu Moreno Fernandezek. Ezaugarri hauek partekatzen dituzte Europako Hegoaldeko herrialdeek eta era berean, ezaugarri hauexek dira orain arte behintzat, beste ereduetatik urruntzen dituztenak.

Ezaugarrietako bat, dagoeneko aipatua den «tarteko-bide» posizio horrekin lotuta dago. Hau da, herrialde hauek unibertsalak diren prestazio batzuk konbinatzen dituzte lan merkatuarekiko baldintzatuta dauden beste prestazio batzuekin. Eta, lan merkatuari dagokionez, nabarmena da oso merkatu honetan nozitzen den zatiketa, babes maila handia duten lanpostuen eta erabat marjinalak edota prekarioak diren lanpostuen artean. Bestalde, eta berriro ere lan merkatuarekin lotuta, herrialde hauetan lurpeko ekonomiak duen berebiziko pisua ere aipatzen du, BPGaren %15-25 tartean estimatua izan dena.

Beste bi ezaugarriek familia esparruarekin dute zerikusia. Zehazki, bigarren berezitasunak, hegoaldeko herrialde hauetan pertsonen eta familiek dauzkaten bizitza estilo eta beharrian desberdinei egiten die erreferentzia. Hots, familia inklusioaren baloreak duen pisuaz ari da, hain zuzen ere familiaren baitan ematen diren birbanaketa-fluxu anitzez eta baliabideak konpartitzeko dagoen joeraz *-resource pooling-*.

Azken ezaugarri bereizgarria, familia esparruan ematen den mikro-solidaritate maila handia da. Hau da, herrialde mediterraneoetan solidaritateak izaera mikroa du batik bat eta bereziki familia giroan antzematen da (Moreno Fernandez 2000). Eredu honetan, familia ongizate erregimenen laugarren pilarea izateaz gain, funtsezko euskarria ere bada. Familiaren baitan elkartrukutzen diren transferentzia hauexek -

materialak eta ez materialak- dira mikro-solidaritate honen ardatz nagusia. Hain zuzen ere, materialak ez diren elkartruke horietan dira eredu mediterraneoan gorputzen dutenak eta ongizatearen esleipenean familiak jokatzen duen rol hori indartzen dutenak.

Txanpon beraren beste aldean, gizarte politiken garapen urriagoa izango genuke. Izan ere, eredu mediterraneoan gizarte asistentzia politikak ez baitira Europako beste herrialde batzuetan bezainbeste hedatu. Hasteko, oraindik ere gizarte babesaren hornitzaile nagusia familiak direla auresuposatzen da. Bestetik, bigarren balizko nagusia, familia esparruak hutsik egiten ez duenaren ustea da (Esping-Andersen 2000).

Laburbilduz, eredu mediterraneoan gainontzeko ereduetatik argi eta garbi ezberdintzen dela ondorioztatzen du soziologo daniarrak, berezitasun horren marka nagusia familiak duen pisua dela aintzat hartuta. Horren berehalako ondorioa familia-politiken garapen eskasa da: gizarte hauexetan gizarte politikak izaera subsidiarioa dutela esan liteke, esku-hartze publikoa familia esparruak «porrot egiten» duenean abiatzen delako.

Eredu mediterraneoaren inguruan egindako analisian, Moreno Fernandezek oso era esplizituan barneratu du genero dimentsioa. Hurrengo aipuak hitz gutxitan laburtzen du ahalegin bikoitz hau. Hots, familia eta emakumeen rola aintzat hartzen dituen ikuspegi bereganatu izana: «Ongizate politiken baitan, emakumeek jokatu duten rola erabakigarria izan da (eta izaten ari da), bereziki familia solidaritatearen esparruan» (Moreno Fernandez 2001).

Azkenik, ongizate erregimenei eskainitako atal honekin amaitzeko, 3. eta 4. irudietan proposatutako hiru esparruko ereduak baztertu gabe, analisia lau eremutara hedatzen duen ikuspegi osagarria jorratuko da.

Zentzu horretan, Subiratsek berretsi egin du merkatua ez dela desberdintasunak eragiten dituen espazio bakarra, ezta botere publikoek gaindiko esparru sozial bakarra ere. Ildo beretik, ongizate erregimenak eta ongizate politikak ez dira ezta ere estatu eta merkaturaren arteko aldebiko harremanean agortzen.


Horrela bada, ongizate politiken kontzeptualizazioa lantzerakoan eszenatokia ez hiru, baizik eta lau eremutara hedatzea proposatzen du. Kasu honetan, hirugarren sektorea

1. Kapituluia

familia eta harremanen esparrutik bereizi egiten du, ongizate estatuak esparru konplexu laukoitz honetan paper anitzak jokatzen dituela baieztatzeko (Subirats 2004b). Norabide berean doaz Adelantado, Noguera, Rambla eta Saezen lanak ere, eta Subiratsekin batera politika sozialak lau eremu hauen erdigunean kokatzen dituzte (Adelantado et al. 1999).

Gizarte politikek prozesu jakin batzuk *desmerkantilizatu* ditzaketen modu berean beste zenbait aktibitate familia edota elkarteen eskuetara pasa daitezke. Hots, ongizate erregimenak lau esferen inguruan definitzen badira, politika sozialek ere lau eremu horiexen inguruan jardun dezaketeela ikus daiteke (5. Irudia).

5. Irudia: Politika sozialak, lau ardatzen erdigunean



Iturria: (Subirats 2004b) et (Adelantado 2000)-tik abiatuta, norberak egindakoa.

Ikusmira honen ekarpen nagusia elkarteen esparruari eskaintzen zaion arreta berezia bada, hortik eratorrita *elkarteratze* eta *des-elkarteratze* kontzeptuak ere berritasun horren parte dira. Hau da, harreman-elkarteen esparruari dagokionez, baliabide-ondasun-eskubideen esleipenaren ardura elkarteen esku uzten denean *elkarteratu*

egiten da eta kontrako norabidean, *des-elkarteratze* prozesuen bidez, hirugarren sektorearen esku egondako ardurak, merkatuari, estatuari edota familiei pasatzen zaizkienean.

Garbiago esanda, adiskidetasun eta auzokotasunean oinarrituta, eremu honen baitan burutzen diren ekintza ezberdinek elkarrekikotasun harreman-sareak ehuntzen dituzte. Elkarteen esparru hau, sendoa denean, zainketa eta prestazio garrantzitsuen hornitzaile izan daiteke. Hartara, politika publikoek huts egiten dutenean bazterkeria egoerak ekiditen lagundu dezake. Zentzu honetan, sarritan familia esparruan erabat feminizatuta dauden zainketa ardurak gizarteratzeko beste bide bat irekitzen da. Baina edozelan ere, kontuan hartu behar dira elkarteen esparruaren baitan antzeman litezkeen botere harreman asimetrikoak eta esparru honetan emakumeen parte-hartzeak izan lezakeen gehiegizko pisua (Adelantado 2000).

1.3) Gizarte Bazterkeria

Gizarte bazterkeriaren kontzeptua berri samarra da eta bere jatorria 70eko hamarkada erdialdean koka genezake. Hain zuzen ere, hitzaren beraren jaiotza -bazterkeria- René Lenoir politikari frantsesari sor diogu¹², *Les Exclus* izenarekin argitaratu zuen lanean (Lenoir 1974). Ondorengo hamarkadetan zehar kontzeptuaren erabilera finkatuz joan da, 90eko hamarkadaz geroztik bereziki.

Sendotze prozesu horretan Europa Batasuneko zenbait erakundek eman dioten bultzada aipatu beharrekoa da, kontzeptua beren agendetan barneratuz joan diren heinean. Izan ere, Amsterdameko Itunean (1999) gizarte bazterkeriaren kontrako borroka gizarte politiken helburu gisa finkatu zenetik, gizarte bazterkeriari aurre egiteko koordinazio politikak bere egin dituzte Europako erakundeek (Lisboa eta Nizako

¹² 1974 urtean René Lenoir politikariak *Les Exclus* liburua publikatu zuen -*Baztertuak*-. Liburuak oihartzun handia izan du bereziki eskusio hitzari eman dion bultzadari dagokionez. Lan honen argitalpenaz geroztik, «bazterkeriaren lehen eredu irudika genezake, kontuan hartuta, autorearen pentsaera uste sendo eta zentzudunei lotuta dagoela eta bere ikuspegia autore ugari jorratu eta landu dutela» (Emmanuel D. 1995), *Emergences des mots de exclusion* artikuluan.

1. Kapituluia

Kontseiluak 2000, Europa 2020 estrategia)¹³. Hala, gaur egun gizarte bazterkeria terminoaren hedapena ukazina da, mendebaldeko herrialdeetan gehienbat: Europako testuinguruan, Espainiar estatuan eta baita EAEn ere.

Gizarte bazterkeriaren kontzeptua garatu aurreko urteetan, garrantzi handikoak izan dira pobreziarekin lotutako gaiak ikertu dituzten analisiak. 60ko hamarkadaren bukaeran, pobrezia inguruko ikerketa lanak ugaltu ziren gizarte zientzien esparruan. Zentzu horretan aitzindaria izan da Towsendek Erresuma Batuen kasurako egin zuen azterketa, pobrezia inguruko alarma berpiztu baitzuen (Moreno Marquez 2007). Moreno Markezek, Espainiar estatua eta EAEn kasu bereziko bizpahiru ikerketa nabarmendu ditu. Espainiarako 1986. urtean Caritasek antolatutako mintegia aipatzen du eta baita 1992an BBVrekin batera argitaratu zuten ikerketa ere. Euskadirako berriz, 1987an Eusko Jaurlaritzak burututako pobrezia buruzko lana azpimarratu du.

Honenbestez, esan daiteke azken hamarkada hauetan zehar Europako erakundeak gizarte bazterkeriaren kontzeptua bereganatu egin dutela, pobrezia terminoa ordezkatzuz joan diren neurrian. Baina paradigma aldaketa sakonena mundu akademikoaren baitan jaso da, pobrezia ikuspuntu ekonomizista gaitu beharrak bultzatuta batetik, eta bestetik ikerketaren beraren helburuen eta gizartearen eraldaketak behartuta (Laparra et al. 2007). Zenbait autorek adierazi dutenez, jauzi kontzeptual horrek ikusmolde zabalago eta konplexuagoa ekarri du berekin (Brugué, Gomà eta Subirats 2002).

Kontzeptuaren konplexutasun hori argitu asmoz, atal honetan gizarte bazterkeriaren muinean gordetzen diren funtsezko bereizgarriak argituko dira, ostean ikerketaren marko teorikoan barneratuko den gizarte bazterkeriaren definizioa iritsi ahal izateko.

Europako erakundeak aipatu ditugula aipatuz, esparru honetan eraberritako definizio batetik abiatuko gara. Honek bidea irekiko digu kontzeptuaren izaera multidimentsionalera jauzi egiteko. Halaxe, sona handikoa izan den definizioetako bat 1992 urtean Europako Komunitateen Komisioak proposatutakoa izan da. Ikuspegi

¹³ Europa 2020, hazkunde adimentsurako, iraunkorrerako eta bateraturako estrategia. Europako Batzordearen Komunikazioa, 2010eko martxoa.

honek, gizarte bazterkeriaren egoera, «gizarte laguntzarik jaso gabe, gizarte eskubideez gozatzeko ezintasunarekin» identifikatu zuen (CCE 1992).

Dokumentu horretan gizarte bazterkeriaren beste ezaugarri anitz jorratzen dira -nork bere buruaz duen irudi debaluatua, laguntza egoeran irauteko mehatxua e.a.- baina dagoeneko, goian aurkeztutako ideian, kontzeptuaren erdigunean dagoen elementuetako bat suma daiteke: pobrezia ekonomikoaren nozioa gainditzeko duen indarra eta hortik eratorrita, bere dimentsio aniztasuna.

Gizarte bazterkeria eta gizarte inklusioa ardatz beraren mutur banatan dauden prozesuak dira, txanpon beraren bi aurpegi. Hortaz, gizarteratze prozesuaren definizioan bertan ere antzematen da pobrezia ekonomikoaz haraindi doan ideia dena. Ana Obradors eta Eva Alfamak partaidetza terminoetan definitu dute gizarteratzea, hiru eremuren inguruan hain zuzen ere:

«parte-hartze hau hiru elementu gako definitzen dute: lan merkatua eta ekoizpen ekonomikoak, familia eta harreman sozialen esparruak, eta azkenik hiritartasun eskubidearen aitopenetik eratorritako beste eskubideen esparruak» (Obradors eta Alfama 2005).

Hau da, gizarte bazterkeriaren kontzeptuak – gizarteratze prozesuaren antonimoa izaki-pobreziarekin uztartu ohi diren desberdintasun sozialen egoera irudikatu nahi du, desabantaila sozial horiexen dimentsio aniztasuna kontuan hartuta. Ondorioz, inklusioaren ideiak pobrezia ekonomikoaren ideia zeharkatu egiten du, hasiera batean gehien hurbiltzen zitzaizkion kontzeptuak pobrezia, marginalizazioa eta muturreko pobrezia izan baziren ere.

Izan ere, gizarte bazterkeriaren ezaugarri bereizgarrietako bat, kontzeptuak barneratzen duen dimentsio aniztasuna da. Hau da, baliabide material eta ekonomikoaren gutxiegitasunaz gain norbanakoak bizitzaren beste zenbait esparrutan izan ditzakeen gabeziak ere hartzen dira aintzat. Anitzak dira gizarteratze prozesuan zeresana duten bestelako faktore eta eremuak, den-denak desberdintasun eta diskriminazioaren sortzaile izan daitezkeenak.

Gizarte bazterkeriaren kontzeptualizazioa garatzerako orduan,

1. Kapitulu

multidimentsionalitateari dagokionez dimentsio-sorta desberdinak proposatu izan dira. Esate baterako, Miguel Laparraren arabera kontzeptuak hiru dimentsio biltzen ditu: ekonomikoa, politikoa eta harremanen esparrua (De la Cal eta Moreno Marquez 2011). Bestetik, José Felix Tezanosek bost dimentsiotako proposamena landu izan du; lanaren esparrua, ekonomikoa, kulturala, pertsonala eta harremanen esparrua edota esparru soziala aintzat hartzen dituen.

Joan Subiratsek oster, are gehiago zabaltzen du ikusmira eta bere ustetan, norbanakoaren bizitzaren hurrengo zazpi esparruetatik ernatu daitezke gizarte bazterkeria prozesuak: esparru ekonomikoa, laborala, heziketa esparrua, sozio-sanitarioa, etxebizitza esparrua, harremanena, eta azkenik, hiritartasun eta parte-hartze esparrua (Subirats 2004).

Zerrendaratze alternatibo ugari egon badaude, baina azken finean izaera soziala, politikoa eta erlazionala duten esparruak definitzen dira. Orokorrean gainera, autore desberdinak bat datoz esparru soziokulturalean eman daitezkeen gabeziak jokatzen duten papera antzematerako orduan. Hau da, harremanen esparruak pertsonen gizarteratzean eta zaurgarritasunean jokatzen duen rolaren garrantzia onartu egiten dute aho batez.

Puntu honetan, dimentsio honi behar duen arreta eskaintzeko harremanen esparruan pausatuko gara. Ildo honetatik eta bazterkeriaren kontzeptutik aldendu gabe, Robert Castelek hurbilketa interesgarria proposatzen du desafiliazio –*désaffiliation*- deritzon kontzeptura ailegatzeko. Gerturatze honen bitartez, norbanakoaren harremanen esparruaren garrantzia gizarte bazterkeriaren faktoreetako bat bezala identifikatzen du. Aldagai hau nabarmentzea erabat funtsezkoa da tesiaren marko teorikoaren eraikitze prozesuan oinarriak finkatu ahal izateko (Castel 2000).

Kontzeptu hori jorrazteko gizarte-laguntza jasotzen duten talde sozialen zerrenda hartzen du abiapuntutzat soziologo frantsesak -pobreak, langabetuak, diru-ituririk gabeko jende edadetua- eta «pobrezia mota berriak» barneratuz osatu egiten du, besteak beste, guraso bakarreko familiak, epe-luzeko langabetuak edota lehen aldiz lan bila dabiltzan gazteak txertatuz.

Talde hauen kategorizazio kuantitatiboa egin ordez kualitatiboagoa den gerturatzea burutzen du, zerrenda horretako perfil multzoen edota talde espezifikoaren definizioak gurutzatzen dituena, nolabait esatearren. Hau da, epe luzeko langabetuek, lan bila edota praktikan ari diren gazteek, Gizarterako Gutxieneko Errenten (GGE)¹⁴ onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten bikoterik gabeko pertsona helduek, eta familia monoparentalek zer partekatzen ote duten galdegiten du. Eta hain zuzen ere, galdera horren erantzunaren baitan aurkezten du *desafiliazio* kontzeptua: pertsona talde guzti hauek, «gizarte-loturekiko *desasoziazio mota partikularra* erakusten dutela» irizten du, eta *desasoziazio mota berezi* horixe bera da *desafiliazio* hitzarekin aditzera eman nahi duena.


Idea honen arabera, gizarte-laguntzaren balizko onuraduna hauskorra izan daiteke, ez bakarrik baliabide ekonomikoaren gutxiegitasunaren mehatxuagatik, baita lan eta harremanen esparruan jasan dezakeen ezegonkortasunarengatik ere.

Hau da, esparru ekonomikoa gutxietsi gabe, dimentsio bakarra barneratzen duen ikuspegia pobrezia taxuz jorratzeko antzua dela uste du. Hau da, pobrezia egoera gisa definitu liteke, eta beronen «formak» zerrendaratu litezke, diru-sarrera, etxebizitza, hezkuntza, osasun-arreta ... bezalako baliabidegabeziaren arabera. Castelen ekarpena baina, zerrendaratze honetaz haratago doa. Bere aburuz muturreko pobrezia barren-barrenean gorpuzten duena, norabide bitan jarduten duten bi ardatzek markatzen duten jokia da.

(atzealdean begiratu)

¹⁴ Castel, Frantziako testuinguruaz ari da eta garaiko RMI laguntzari egiten dio erreferentzia (*Revenu Minimum d'insertion, Gizarterako Gutxieneko Sarrera*); gaur egungo RSA laguntza dena (*Revenu de Solidarité Active, Solidaritate Aktiborako Sarrera*).

6. Irudia: Desafilazioa. Harremanen esparruaren garrantzia.



Iturria: (Castel 2000)-tik abiatuta, norberak eginda.

Aurreko irudian ikus daitekeenez, ardatz horizontalak lanaren bidezko integrazioa -eta desintegratioa- irudikatzen du, zeinaren bitartez esparru ekonomikoan norbanakoak bere izatearen erreproduzioa burutzeko aukera duen (6. Irudia). Ardatz bertikalean ostera, harremanen esparrua sartzen da jokoan; hots, familia eta gizarte-sareen esparrua. Harremanen eremu honetan norbanakoaren erreproduzioa burutzen da, zentzu emozional eta sozialean.

Esparru ekonomikoaren garrantzia alboratu gabe, bigarren ardatz honek gizarte bazterkeriaren itxuratzean hartzen duen kokapena da, hain zuzen ere, gure marko teorikoaren oinarriak ezartzeko interesatzen zaiguna, betiere, harremanen esparru honetan emakumeek jokatzen duten rola gogoan izanda.

Integratio kontzeptuaren definizioa nahikoa zehaztugabea izan daitekeen arren, Castelek kontzeptuaren baliagarritasuna azpimarratzen du. Izan ere, agerian uzten baitu pobreziaaren erronka -eta bere hitzetan, baita desafilatuen edota bazterketa sozialean daudenen erronka ere- gizarte-asistentzia hutsaren bitartez gairitzeko ezintasuna eta bide batez hutsune sozial hori betetzeko beharra ere badagoela nabarmentzen du.

Bestalde, grafikoko bi ardatz inguruan lau gune desberdin osatzen dira. Hauen arteko mugak lausoak izanik ere, haietako bakoitzak lan merkatua eta gizarte-familia harremanekiko posizio ezberdina irudikatzen du. Esate baterako, *integrazio gunean* (1) legokeen pertsonak, lan egonkortasunaren eta harreman sozial sendoen bermeak izango lituzke. Kasu honetan lanaren ardatzarekiko kokapen onuragarriak independentzia ekonomikoa dakar berarekin eta integrazio autonomoaren adibide litzateke.

Gure irudiko *asistentzia guneak* (2) berriz, *integrazio asistituaren* egoera islatzen du; lanarekiko harreman ezegonkor edota hutsa gizarte integrazio maila altuak konpentsatzen duenean. Hau da, gizarte eta familia harremanek emandako «laguntza» horrek, menpekotasun egoera hori gizartean nolabait «integratua» egon dadin ahalbidetzen du.

Bestalde, *zaugarritasun-bulnerabilitatearen* (3) zonaldean egoteak lan ez-ziurra eta harreman ahulak inplikatzeko dituen bitartean, *desafiliazio gunean* (4) muturreko bi egoerak bateratzen dira; lanaren falta eta isolamendu soziala, alegia. Kasu honetan, laguntza sozialen onuradun potentzialak «ez daude soilik pobreziarako bidean, *desafiliazio*-rantzako prozesuan ere badaude, gizartearekiko loturak hausteko bidean» (Castel 2000). Azken finean, prozesu bikoitz honek ziurgabetasun ekonomikoa muturreko pobrezian bilakatzea dakar alde batetik, eta bestetik harremanen ahultasunetik isolamendura iragatea.

Honenbestez, Castelek argitu nahi duen korrelazioa, «lan mundutik deskonektatuta egotearen eta familia eta gizartean parte-hartze desegokia izatearen artean dagoena» litzateke (Castel 2000). Korrelazio hori «hobekien erakusten duen perfila GGEn eskatzaileena dela» nabarmentzen du soziologoak. Azken ideia hau bereziki interesgarria da gure ikerketarako. Izan ere, aurrerago azalduko den moduan, landa-ikerketan Diru-sarrerak Bermatzeko Errenten (DBE) onuradun diren pertsonen egindako elkarrizketa kualitatiboetan oinarrituko da. Zentzu honetan aurrean genezake, ikerketaren objektu diren pertsona hauek, gehienbat asistentzia, bulnerabilitate, eta *desafiliazio guneen* inguruan mugituko direla.

1. Kapitulu

Laburbilduz, beste zenbait dimentsiorekin batera, Robert Castelen ikuspegi honek gizarte bazterkeriaren markoan harremanen dimentsioa barneratzea ahalbidetzen digu. Aniztasun honen ondoan baina, faktore guzti hauen arteko elkarreraginak ere kontuan hartu behar dira. Hau da, hauetariko esparru bakoitzean egon daitekeen oztopo, ezintasun eta gabezien pilaketa, gizarte bazterkeria gorpuzten duen ezaugarrietako bat da. Alde-bateko desabantaila egoerak bezain garrantzitsua da desabantaila hauen metaketa edo beraien arteko elkarrekintza (Alfama, Obradors 2005).

Gizarte sektore jakin batzuetan metatu ohi dira bereziki oztopoak, kolektiborik ahulenetan: pobrezia kasu larrienen, emakumeengan, etorkinengan, erretiratuengan e.a. Hala, gizarte bazterkeriaren konfigurazioan zeresan nabarmena duten zehar faktoreak hauteman dira (Tezanos 2002), (Subirats 2004a):

«aipaturiko dimentsio sorta horiez gain, beste hiru ardatz nagusi hartu behar dira kontuan, zeintzuen inguruan gizarte desberdintasun-ardatzak osatzen diren: adina, sexua eta jatorria edota etnia» (Subirats 2004a).

Hiru ardatz hauek bazterkeria eta gizarteratzearen dinamikak zeharkatzen dituzte, dinamika hauexek berrindartuz eta kasuan kasu berezko ezaugarri eta elementu propioak ekarriz. Bestela esanda, hiru ardatz hauek bazterkeriaren beste faktoreekin gurutzatzen direnean, gizarte bazterkeriaren egoera anitz eta espezifikoak irudikatzen dira¹⁵.

Esandakoarekin kontraesanean sartu gabe, autore ugari nabarmendu dute gizarte bazterkeriaren kontzeptua ez zaiola soilik gizarteko sektore ahulenei egokitzen. Aitzitik, geruza anitzetara hedatu egiten da, eta muturreko pobrezia egoera bizi dutenez gain, zaugarritasun soziala eta prekariedade egoerak pairatzen dituzten pertsonak ere ukitzen ditu (Moreno Fernandez 2001), (Subirats 2004a, 2004b), (Alfama eta Obradors 2005). Honekin lotuta, Elisabeth Beck-Gernsheimek «pobreziaren demokratizaziori» egiten dio erreferentzia. Soziologo alemanak uste du, gaur egun pobrezia ez diola zertan pertsonari era iraunkorrean eragin behar, behin-behineko iraupena izan

¹⁵ Hiru ezberdintasun-ardatz hauek, hein batetan, Amartya Sen-en aldaketa-faktoreekin bat egin dezakete. Sen-en Gaitasunen ikuspegia eta aldaketa faktoreak, kapitulu honetako hurrengo atalean jorratuko dira sakonago.

dezakeela. Baina aldiz, geroz eta pertsona gehiagok pairatu dezaketela bazterkeriaren egoera (Beck-Gernsheim 2003).

Orain arte aipatutakoez gain, gizarte bazterkeriak daukan egiturazko izaera eta dinamikotasuna ere ezaugarri erabat funtsezkoak dira. Hain zuzen ere, bi hauek dimentsio aniztasunarekin batera, gizarte bazterkeriaren ezaugarri nagusi gisa identifikatu dira (Laparra et al. 2007).

Hau da, pobreziaren ikuspegi klasikoenak kutsu indibidualistagoa duen heinean, pobreziaren erantzukizuna portaera eta erabaki indibidualei egotzi izan zaio. Aitzitik, gizarte bazterkeriaren jatorria gizartearen beraren egituran eta antolaketaren forman sumatzen da. Egiturazko izaera honekin oso estu lotuta daude, ongizate-erregimenen analisisan identifikatu ditugun hiru aktoreak: botere-publikoak, lan merkatuak eta harremanen esparruak (Taylor-Gooby 2005) (Moreno Fernandez 2003) (Korpi 2000) (Orloff 1996) (Lewis 2002) (Esping-Andersen 2000) (Carrasco 2003).

Bestalde, kontzeptuaren prozesu izaerak gizarte bazterkeriaren dinamikotasunari egiten dio erreferentzia. «Pertsona, talde edota lurraldeen eskusio dinamikak, harreman sozialen bitartez gauzatzen dira, eta hauek, aldagarriak dira denbora eta espazioan zehar» (Obradors eta Alfama 2005). Zentzu honetan eta landa-ikerketarekin lotuta, esan beharra dago bizitza-ibilbideen metodologia kualitatiboa bereziki erabilgarria izan daitekeela gizarte bazterkeria pairatzen duten pertsona eta familien bizipenak aztertzeko (Laparra et al. 2007).


Prozesu izaera horrek berriro ere gogorazten digu gizarte bazterkeriak eta gizarteratzeak elkarrekin osatzen duten binomioa. Ikuspuntu horretatik kontzeptu jarrai gisa antzeman genitzake, *continuum* gisa (Tezanos 1999¹⁶ eta Moreno Marquez 2007). Robert Castelek jorratutako *desafiliazioa* kontzeptuaren baitan ere jarraitasun hau begi bistakoa da, batez ere landutako grafikoan integrazio gune ezberdinen arteko muga lausoei erreparatzen badiegu. Jarraian, beste bi grafiko aurkezten dira 7. irudian, gizarteratzearen eta bazterkeriaren dinamika irudikatu asmoz.

¹⁶ José Felix Tezanosek bost dimentsiotako gizarte bazterkeriaren ereduari, dimentsio bakoitzerako eskusio faktoreak identifikatu zituen. Faktore horien guztien eta dimentsioen arteko elkarrekintza azpimarratu zuen, inklusioa *continuum* gisa antzemanaz (Tezanos 1999).

1. Kapitula

Tezanosen irudian binomio hau zirkulu zentrukideen bitartez islatzen da, dualtasun izaera hori zentro eta periferia terminoetan planteatuz. Bestetik Kataluniako IGOP institutuak¹⁷, hiru esparru jakinen inguruan irudikatzen du gizarteratze kontzeptua. Horrela, norberaren egoera hiru espazio horietan duen parte-hartzearen arabera izango da. Edozein kasutan, gizarteratzea -eta bazterkeria- ezin dira konpartimendu banatu gisa ulertu, etenik ez duen bide jarrai gisa baizik.

7. Irudia: Gizarte bazterkeria eta gizarteratzea: kontzeptu jarraitua



Iturria: (Tezanos 1998) eta (Subirats 2004a)-tik abiatuta, norberak eginda.

Atalarekin amaitzeko, hurrengo bi definizioek orain arte jasotakoak laburbiltzen dituzte, eta azken batean marko teorikoan barneratzen den ikuspegia islatzen dute. Batetik, Miguel Laparrak halaxe azaldu izan du gizarte bazterkeria:

¹⁷ IGOP (Institut de Govern i Polítiques Públiques) unibertsitate institutua da, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Politika publikoekin, eta gizarteratzearekin lotutako gaien inguruan lan egiten dute. Lan honetan aipatutako zenbait autore institutu honen kide dira edo izandakoa dira. Besteak beste, Joan Subirats, Quim Brugué, Ana Obradors, Eva Alfama eta Ricard Gomà.

«tradizio frantsesean jatorria duen termino honek, prozesu bati egiten dio erreferentzia, hain zuzen, integrazio –sozialaren- galeraren prozesuari. Prozesu honen baitan, diru-sarrera gabeziak eta lan-merkatuarekiko urruntzeak jokatzen duten paperaz gain, gizarte harremanen beherakadak ere zeresana du, eta hortaz, giza-eskubideen galerak ere bai» (Laparra 2001).

Bestetik definizio hau nolabait osatuz, zenbait autorek –Laparra bera ere tarteko-honela zehaztu dute kontzeptua. Hauxe izango da, ikerketan barneratuko den gizarte bazterkeriaren ikuspegia.

«bereganatuko dugun definizioak, bazterkeria gizarteratze egoerarekiko urruntze prozesu gisa ulertzen du. Intentsitate mailaren arabera, prozesu honen maila desberdinak antzeman daitezke, zaurgarritasun eta prekarietate egoeretatik abiatuta, bazterkeria egoera larrietara iritsi arte. Lan merkatu, formazio, gizarte-osasun, ekonomia, harreman eta etxebizitza esparruetan topatu daitezkeen oztopo eta arriskuen metaketa prozesua da alde batetik. Bestetik, babes-mekanismoak eskuratzeko aukeren murrizketa prozesua» (Laparra, Subirats et al. 2007).

1.4) Gaitasunen ikuspegia eta ikuspegi feminista

Marko teorikoaren eraikuntza prozesu honetan, interesgarria da ikuspegi feministarekin eta gure marko teorikoan barneratutako gizarte bazterkeriaren ereduarekin bateragarria den garapenari buruzko teoria gogora ekartzea.

Garapenaren inguruko teorien atzera begirakoan 1970eko hamarkadatik aurrera jorratu zen ikusmolde berria antzematen daiteke, Gaitasunen Ikuspegia deritzona alegia (Larrañaga, Jubeto 2011). Amartya Sen ekonomia Nobel sariduna¹⁸ -eta filosofoa- eta Martha Nussbaum filosofoa jotzen dira hurbilketa honen aitzindaritzat. Senek garatutako gaitasunen ikusmolde honek arautze marko zabala eskaintzen du norbanakoaren ongizatea eta itun sozialak ebaluatzeko, eta baita politikak diseinatu eta gizartean aldaketak proposatzeko ere (Robeyns 2005).

¹⁸ Amartya Senen Gaitasunen ikuspegian sakontzeko, beste askoren artean: Sen, A. (1985) *Commodities and Capabilities*, North Holland, Amsterdam.

1. Kapituluia

Pertsona da teoria honen gunea. Hau da, ikuspegia pertsonen gaitasunetan zentratzen da, «izan eta egiteko» dituzten gaitasunetan, eta ez berauen diru-sarrera edota kontsumo ahalmenetan (Robeyns 2003, 2005). Ikusmolde honen fruitu izan dira era berean Giza Garapenaren paradigmaren oinarri teorikoak, UNDPk (Nazio Batuen Garapenerako Programa) ere gerora barneratu dituenak¹⁹.

Senek pertsonaren gaitasunak kokatu zituen bere teoriaren erdigunean eta horrekin batera, bizitza kalitatea eta askatasunak mugatzen dituzten oztopoak gainditzearen garrantzia azpimarratu zuen. Gaitasun eta askatasunekin estu lotuta, Amartya Senek *Agentzia* izendatu zuen kontzeptua daukagu, pertsonak beren etorkizun propioa eratzeko duten gaitasunari erreferentzia egiten diona. Gaitasun hauxe garatzea funtsezkoa da Gaitasunen Ikuspegian eta guztiz lotzen zaio askatasunari (Larrañaga, Jubeto 2011).

Teoria honen baitan, garrantzitsua da garapen eta ongizaterako tresna eta helburuen artean egiten duen bereizketa nabarmentzea. Helburuak dira berezko inportantzia duten bakarrak, tresnak garapen, ongizate eta justizia lortzeko bitartekoak baino ez diren bitartean. Bere dimentsio guztietan pertsonaren ongizatea da helburu nagusia. Hau da, hurbilketa honen izaera multidimentsionalak giza ongizatearen dimentsio denak aldi berean barneratzea ahalbidetzen du (Robeyns 2005).

Horrekin batera, pertsonak dituzten funtzionatzeko gaitasunen *-capabilities to function-* eta benetan dituzten aukera efektiboen artean desberdindu egiten du. Lehenak askatasun eta gaitasunak diren bitartean, bigarrenak benetako lorpenak dira. Kontzeptu hauekin lotuta, aldaketa faktoreek *-conversion factors-* jokatzeko duten papera azaldu beharra dago. Hots, pertsona bakoitzak *funtzionatzeko gaitasunak gaitasun efektibo* bihurtzeko berezko abildadea dauka, zenbait faktorek baldintzatuta -ingurugiroarekin

¹⁹ 90ko hamarkadaraino biztanleko Nazio Produktu Gordina erabili ohi izan da herrialdeen garapen maila neurtzeko. UNDPk baina Senen Gaitasunen Ikuspegia barneratu zuen nolabait, Giza Garapenaren Indizea eraikitzeke orduan. Izan ere geroz eta erabiliago den Giza Garapenaren Indize honek, NPGaz gain hezkuntza maila eta osasun eta bizitza-esperantza datuak integratzen ditu. Garapena neurtzeko indize hau, hortaz, alternatiba gisa aurkeztua izan da, pertsonengan zentratuago dagoen heinean. Gerora, nazioarteko erakundeak genero aldagaia aintzat hartzen dituzteneko indize gehiago proposatu ditu, Genero Desberdintasunaren Indizeak, besteak beste. Honetan sakontzeko, irakurri (Larrañaga, Jubeto 2011).

lotutakoak, sozialak eta pertsonalak izan daitezke-. Aldaketa faktore hauetariko batzuk, generoa, adina eta jatorri edo etniarekin zerikusia dutenak, Subiratsek bere gizarte bazterkeriaren kontzeptualizazioan identifikatzen dituen *ezberdintasun ardatzekin* bat egiten dute (Subirats 2004a).

Aldaketa faktore hauen garrantzia ulertu eta gure ikerketaren testuingurura gerturatzeko, adibide bat erabilgarria izan daiteke. Esate baterako, seme-alabarik ez duten pertsonak lana eta etxeko ardurak bateragarri egiteko arazorik ez duten bitartean, seme-alabak dituzten pertsonak etxetik kanpo lan egin ahal izateko, traba gehiago izan ditzakete, generoaren, familia egituraren, eta bizi diren herrialdeko politika publikoen arabera. Jendarteak emakumeei atxikitzen dien rola kontuan hartuta, zenbait kasutan amatasuna -edo aitatasuna- eta generoa aldaketa faktoreak direla pentsa daiteke.

Giza Garapenaren ikuspegiak eta Gaitasunen Ikuspegiak hainbat gauza dute komunean ekonomia feministaren proposamenarekin (Larrañaga, Jubeto 2011); are gehiago, potentzial handia dute eta bereziki interesgarriak dira ikuspegi feministarentzat (Robeyns 2003).

Bi ikuspegi hauen artean lotura automatikoa egiten duen ezaugarria hurrengoa da: ongizatearen dimentsio anitzak aintzat hartze horretan, gaitasunen ikusmoldeak eremu ez-ekonomikoa -esparru domestikoa- azaleratu egiten du, horrekin batera ikuspegi ortodoxoek baztertu izan dituzten etxeko lan eta zainketa ardurei dagokien garrantzia emanez. Jakinik nagusiki ardura hauek emakumeek hartzen dituztela bere gain, funtsezkoa da kritika feministarentzat ekonomia konbentzionalaren dualtasun horrekin -ekonomikoa/ez-ekonomikoa- haustea (Larrañaga, Jubeto 2011) (Robeyns 2003, 2005) (Picchio 2003):

«Pertsonen ongizatean eta abantailetan eragiten duten ezaugarriak hartu behar dira kontuan, bai merkatuarekin lotuta dauden bizitzaren aspektuak eta baita merkatuz kanpokoak ere, emakumeek merkatuz kanpo gizonek baino denbora gehiago ematen dutela aintzat hartuz» (Robeyns 2003).

Publikoa eta pribatuaren arteko dikotomia hori gainditzea -merkatua eta ez-merkatua-

1. Kapitulu

beraz, garapenaren ikuspuntu honen abantaila gisa ikus daiteke. Amaia Pérez-Orozco uste du, ordaindu gabe lanarengan jarritako arreta izan dela ikuspegi feministak Senen teoriari egin dion ekarpenik garrantzitsuenetakoa (Pérez-Orozco 2006).

Paradigma honen izaera multidimentsional hau ere bateragarria da hamarkadetan mugimendu feministaren borroka defendatu izan dituen hainbat gairekin: osasun erreproduktiboa, bozkatzeko eskubidea, botere politikoa, etxeko indarkeria besteak beste (Robeyns 2003). Gaitasunen ikuspegiak beraz, pertsonen bizitzako dimentsio anitzak barneratzen dituen heinean, gai horiek ere barneratzen ditu, berriz ere ekonomia konbentzionalaren ikuspegi monetarioa eta merkantilista gaindituz.

Bigarren abantaila gisa, ikuspegi feministarekin bateragarria den ezaugarria daukagu: teoria honen izaera etikoki indibidualista eta ontologikoki ez-indibidualista (Robeyns 2003). Teoriaren erdigunean norbanakoa dagoen heinean, etikoki indibidualista dela esan daiteke. Baina bestalde, ikuspuntu ontologikoki batetik ez-indibidualistatzat jotzen da; norbanakoaren gaitasun eta askatasun horiek beste pertsonetara eta bizi diren gizarteetara menpekoak ere badirelako. Hau da, gorago aipatutako aldaketa faktoreak ere kontuan hartu behar dira, izan ere arau sozial edota diskriminazioen bitartez aldaketa faktore hauek norbanakoaren aukerak baldintzatzen baitituzte.

Ikuspuntu feminista batetik, ezaugarri bikoitz hau desiragarria da. Alde batetik, emakumeak indibiduo propio gisa antzematen direlako, eta ez familia edota komunitatearen barruan lausotzen den elementu gisa. Baina aldi berean, norbanakoaren harreman sozialak, elkarmenpekotasunak ere kontuan hartzen dira eta zentzu honetan, merkatutik kanpo esparru pribatuan egindako lanak kontuan hartzea ahalbidetzen du, berriro ere.

Robeynsek kritika feministarentzat interesgarri izan daitekeen hirugarren abantaila bat atxikitzen dio Giza Garapenaren ikuspegiari: giza aniztasuna onartzeko era esplizitua, alegia. Hau da, gizabanako bakoitzak izan ditzakeen beharrianak ezberdinak izan daitezkeela pentsatzen da eta era horretan, bakoitzak bere ongizate helburuak lortzeko erabili behar dituen gaitasun baliabideak ezberdinak izango direla. Azken finean, beste behin ere aldaketa faktoreen garrantzia azpimarratzen da. Hauen artean,

generoa, etnia eta adina bezalako faktoreak aipatzen dira edota balditzapen gehigarri gisa, pertsona batek zaintza ardurak dituen ala ez eta emakumea haurdun dagoen ala ez.

Martha Nussbaumek Senen teoriari buruz, honek gaitasunen zerrenda konkreturik egin ez izana argudiatu du. Horrela, hamar gaitasun biltzen dituen zerrenda proposatu zuen Nussbaumek (1995, 2000, 2003, 2012)²⁰. Bere ustetan, Amartya Senek genero berdintasuna eta gizarte justizia defendatu ahal izateko aurrez definitutako zerrenda bat plazaratu beharko zukeen. Nussbaumek proposatutakoak balio unibertsala duela ulertzen da, zerrenda egoera jakinetan testuingurura molda eta zehaztu daitekeen arren.

Edozelan ere, zenbaitzuek zerrenda honek duen aginduzko izaera eta kutsu normatiboa kritikatu izan dituzte (Robeyns, Alkire), «egin beharreko gauzen zerrenda» delakoan (Alkire 2002). Nussbaumen zerrendaren zurruntasunaren aurrean, Robeynsek bere ikerketa gaira hobeto egokitu ahal izateko zerrenda propioa jorratu zuen. Era horretan, balore unibertsaletara jo ordez, testuinguru jakin batera mugatu zen, mendebaldeko gizarteetan genero ezberdintasuna kontzeptualizatu asmoz (Robeyns 2003): Osasun fisikoa eta bizitza; Ongizate mentala; Gorputz osotasuna eta segurtasuna; Gizarte harremanak; Jabekuntza politikoa; Hezkuntza eta ezagutza; Etxeko lanak eta zainketak; Ordaindutako lana; Aterpea eta ingurunea; Mugikortasuna; Aisialdia; Denbora Autonomia; Errespetua eta Erljioa²¹.

Zerrenda horretako elementu nabarmenetako bat *denbora-autonomia* gaitasuna da, nork bere denbora antolatzeke autonomia izateari erreferentzia egiten diona. Honek berezko garrantzia du Robeynsen ikerketa gaiaren ikuspuntutik, emakume eta gizonen artean denboren erabileraren inguruan sumatzen diren desberdintasunak kontuan

²⁰ Nussbaumen gaitasunen zerrendan aurkezten diren hamar dimentsioak: Bizitza, Gorputz-osasuna, Osotasun fisikoa; Zentzumenak, irudimena eta pentsamendua; Emozioak; Arrazoimen praktikoa; Afiliazioa; Beste espezie batzuk; Jolasa eta Norberaren ingurunearen gaineko kontrola.

²¹ Robeyns-en zerrenda eta Nussbaumena nolabait gainjartzen badira desberdintasun nabarmenak ere badira. Robeynsek Senen kontzeptualizazioa barneratzen du. Senentzak gaitasunak oportunitateak diren bitartean, Nussbaumek talentuak, barne indarrak, eta trebetasunak ere barneratzen ditu. Hau da, Senen teorian *aldaketa faktore* direnak, Nussbaumen teorian gaitasun kontzeptuaren baitan bertan barneratuta daude.

1. Kapituluia

hartuta²².


Bere azken liburuan berriki Gaitasunen Ikuspegia aberastu duen beste liburu bat aipatzen du Nussbaumek, Wolff eta De-Shaliten *Disadvantage* hain zuzen ere (Wolf eta De-Shalit 2007). Lan horrek, Nussbaumen zerrenda berrindartzeaz gain Gaitasunen Ikuspegia bera sendotu egiten du (Nussbaum 2012). Wolff eta De-Shalitek dakarten berritasun garrantzitsuetako bat *Gaitasunaren Segurtasuna* kontzeptuan datza. Politika publikoek pertsoneri *gaitasunak* ematea nahikoa ez dela adierazi dute ideia honen bitartez. Hori baino urrunago doaz eta politika publikoek pertsoneri eragin behar lieketen *segurtasunari* egiten diote erreferentzia. Hau da, politika publikoek esleitzen dituzten gaitasunak epe luzera ere eskuragarri izango direla jakiteak dakarren segurtasunaz mintzo dira. Nussbaumek berak ere onartu egiten du *segurtasuna* dela *osasun emozionala* delako gaitasunaren ezaugarrietako bat (Nussbaum 2012).

Honekin batera, gure ikerketarako oso erakargarria den beste ekarpen bat nabarmentzen du Nussbaumek *Disadvantage* liburuaren inguruan: *funtzionamendu emankorra* eta *desabantaila korrosiboa* kontzeptuak, alegia. Funtzionamendu edo gaitasun batek beste gaitasun batzuk errazteko joera duenean, *emankorra* da *-fertile functioning-*. Esate baterako, Nussbaumen zerrendako *afiliazioa*, funtzionamendu emankorra izan daiteke, bestelako gaitasunen garapena bidera dezakeen heinean. Aitzitik, esparru jakin batean bizitako gabeziak gainontzeko esparruetara hedatzen direnean, *desabantaila korrosibo* baten aurrean geundeke *-corrosive disadvantage-*. Kontzeptu hauek gure lanean aintzat hartzea interesgarria izan daiteke, funtzionamendu korrosibo eta emankorren ideiek, gaitasun desberdinen arteko jokoak irudikatzeaz gain, gizarte bazterkeriaren esparru anitzen arteko hartuemana aztertzeke ere balio duelako.

Hurrengo irudian Gaitasunen Ikuspegiaren lerro nagusiak eta ikuspegi feministarekin bateragarri diren ezaugarriak jasotzen dira (8. Irudia). Gaitasunen Ikuspegiaren aldetik, pertsonaren zentraltasuna, eta askatasun eta gaitasunen garrantzia nabarmendu dira.

²² Gai honetan sakotzeko, beste batzuen artean, Carrasco, C. eta y Domínguez, M., (2003): "Género y usos del tiempo: nuevos enfoques metodológicos", *Revista de Economía Crítica* aldizkarian, 1, 129-52 orr, www.ucm.es/info/ec/rec/index.htm eta Larrañaga, M., (2005): "Mujeres y mercado de trabajo en la CAE"; *Lan Harremanak Revista de Relaciones Laborales* aldizkarian, 13. zkia.

8. Irudia: Gaitasunen ikuspegia, ikuspegi feminista eta gizarte bazterkeria



Iturria: norberak eginda.

1. Kapitulu

Bestetik ikuspegi feministari jarraiki, lan merkatuko esparruaz gaindiko aspektuak bistartzeko desioa azpimarratzen da, edo bestela esanda etxeko esparruan gertatzen dena agerian uzteko nahia. Merkatua/ez merkatuaren dikotomia hori gainditu beharra eta gaitasunen paradigmen izaera multidimentsionala, bete-betean marko teorikoan jorratutako bazterketa sozialaren ikuspegiarekin bat dator, grafikoan erakusten den moduan.

Gaitasunaren teoriatik guztiz aldendu gabe, azken hamarkada hauetan paradigma alternatibo ugari eratu direla aipatu beharra dago. Berriki indartu den ikuspegiarekin bat *Ongi Bizitzearen paradigma* izan da. Testuingurura hurbiltzeko Hego Amerikara egin behar da jauzi, Bolivia eta Ekuador aldera hain justu. Herrialde honetan hain zuzen ere, *Ongi Bizitzearen* ikuspegi hau 2008an Montecristin idatzitako konstituzioan barneratu da, kitxua hizkuntzan Sumak Kawsay izenez ezagutzen dena, alegia (Larrañaga, Jubeto 2011).

Alberto Acosta ekonomialari ekuadortarrak adierazi izan du, paradigma berri honek garapenaren inguruko mendebaldeko teoria nagusien hutsegiteak eta mugak agerian jartzen dituela (Acosta 2010). Betiere herrialde bakoitzean nagusi diren kultur baloreak kontuan hartuz eta bide horretan nolabait herri indigenen ikusmira bereganatuz, gizarte berri bat eraikitzeak aukera gisa planteatzen da. Garapenaren ohiko teoriak zalantzan jartze horretan, ondasun materialen etengabeko metaketak etorkizunik ez duela zehazten da. Zentzu honetan, garapen jasagarria izaera iragankorra lukeen aro gisa antzematen da. Hau da, eredu kapitalistatik guztiz at legokeen hurrengo aro baterako bidean, behin behineko egoera baino ez litzateke (Acosta 2010).

Kontzeptu honen inguruan estrategia eta kontzeptualizazio anitzak garatu diren arren, oinarri-oinarrian hiru kezka nagusi identifikatzen ditu Koldo Uncetak (Unceta 2011). Hau da, *Ongi Bizitzearen paradigmak* esparru desberdinetan oreka eta harmonia maila handiagoa desiratzen duen begirada barneratzen du. Lehendabizi, norbanakoak bere izaerarekin eta baloreekin bat datorren bizimodua garatu behar du, nolabaiteko barne-oreka helburu dela. Bestalde, gizarte esparruan pertsona eta gizarte taldeen arteko oreka ere ezinbesteko ardura da. Azkenik, naturarekiko harmonia aipatzen du hirugarren elementu desiragarri gisa. Hortaz, esparru ezberdinetan oreka eta harmonia

defendatzen duen begirada bereganatu nahi da. Hitz gutxitan eredu honen berezko ezaugarriak ekitatea, askatasuna eta berdintasuna lirateke, ingurugiro jasangarriaren bermea inolaz ere ahaztu gabe (Acosta 2010).

Gaitasunen teorian bezala, gizakia bera da berriro ere teoria honen erdigunean dagoena eta hortaz gizakia antzematen da ekonomiaren eragile nagusi gisa (Acosta 2010). Era berean eta Senen teoriarekin bate eginez, pertsonak beren burua garatu behar duteneko ideia gordetzen du bere baitan *Ongi Bizitzearen paradigmak* (Larrañaga Jubeto 2011). Horretaz gain, bizitzaren desmerkantilizazioaren helburua elkarbanatzen du ekonomia feministarekin; bestelako garapen mota bat bilatzearen erronka. Larrañaga eta Jubetoren ustetan, mugimendu feminista garrantzizko tresna izan daiteke *Ongi Bizitzearen paradigma* aberastu eta indarrean dauden zenbait eredu kolokan jartzerako orduan. Azken finean *ondo bizitzearen* alde apustu egitea, bizitza merezi duen bizitzaren alde apustu egitea da:

«ez da bizitza hobe baten ideia, ez besteena baino hobea den bizitza, ezta etengabe bizitza hobetzeko ahaleginetan itotzea ere», ongi bizitza, «hori baino ez da, ona den bizitza» (Tortosa 2009).

1.5) Marko teorikoaren eraikuntza

Marko teorikoa zehazteko funtsezkoak diren ikuspegiak pausuz pausu jorratu ostean, ezinbestekoa da berauek era argigarrian berrantolatzea. Ibilbide honetan familia esparruari, ongizate erregimenen analisiari eta gizarte bazterkeriari eskainitako arreta eta genero ikuspegia ere barneratzeko egindako ahalegina, behar beharrezko urratsak izan dira, azkenik, zenbait grafikorekin lagunduta ikerketaren marko teorikoa izango dena definitu ahal izateko.

Alde batetik, gizarte bazterkeriaren inguruan IGOP unibertsitate institutuak landutako ereduak barneratuko da ikerketan. Hots, gizarte bazterkeria integrazio egoeratik aldentzen deneko prozesu gisa gogoan hartzen duena. Prozesu horretan, esparru desberdinetan metatu daitezkeen oztipoek, norbanakoaren nahiz gizarte-taldeen gizarterako integrazioa eragotzi dezake. Ikuspegi jakin honetatik, gizarte bazterkeria

1. Kapitulu

2. Taula: Gizarte bazterkeriaren dimentsioak, IGOPen ikuspegiaren arabera

GIZARTE BAZTERKERIAREN ikuspegi integrala		
Esparruak	Esklusio faktore nagusiak	Ezberdintasun ardatzak
Ekonomikoa	Pobrezia ekonomikoa	Generoa Adina Etnia/Jatorria
	Finantza zailtasunak	
	Gizarte prestazioekiko menpekotasuna	
	Gizarte-laguntzarik eza	
Lan esparrua	Langabezia	
	Azpi-okupazioa	
	Lan kalifikaziorik eza	
	Ezintasuna	
	Prekarietatea	
Formazioa	Eskolaratze eza, edo sarbiderik eza derrigorrezko hezkuntzara.	
	Analfabetismoa edo formazio maila baxua	
	Eskola-porrota	
	Hezkuntza sistemaren abandonu goiztiarra	
	Hizkuntza Oztopoak	
Giza/ Osasuna	Giza-osasun sistemara eta baliabide funtsezkoenetara sarbiderik eza	
	Drogak, menpekotasunak eta loturako gaixotasunak	
	Infekzio-gaixotasunak	
	Buruko osasun arazoak, gaixotasun kronikoak, menpekotasun egoerak	
Etxebizitza-Egoitza	Etxebizitza propiorik eza	
	Infra-etxebizitza	
	Etxebizitzarako sarbide prekarioa	
	Baldintza txarreko etxebizitzak	
	Bizigarritasun baldintza eskasak	
	Ingurune urbano degradatua, gabezia nabarmenekin.	
Harremanak	Familia sareen narriadura (familia barneko gatazkak, biolentzia)	
	Familia sare ahula edo urritasuna (monoparentalitatea, bakardadea...)	
	Sare sozialen ahultasuna edota eskasia	
	Bazterkeria, gizarte estigmatizazioa	
Hiritartasun/ Parte-hartzea	Hiritartasunik eza	
	Hiritartasun eskubide mugatuak	
	Arazo penalen ondoriozko eskubide gabetasuna	
	Parteharzte politiko eta sozialik eza	

Iturria: (Subirats 2004a).

zazpi dimentsioren inguruan definitzen da eta hurrengo taulan laburbiltzen dira (2. taula): esparru ekonomikoa, enpleguaren esparrua, hezkuntza, etxebizitza, harremanen esparrua, sozio-sanitarioa eta azkenik partaidetza politikoarena.


Horretaz gain, dimentsio hauek gurutzatzen dituzten desberdintasun ardatz nagusiak ere bistaratzen dira taulan. Hau da, generoa, adina eta jatorria zeharkako aldagai gisa barneratzen dira, bazterkeria perfilak zehazterako orduan dimentsio ezberdinak gurutzatzen dituzten faktoreak direlako (Laparra et al. 2007), (Subirats 2004a, 2005b)

Gure kasuan, ikuspegi integral batetik esparru guztiak aintzat hartuko diren arren, zazpi dimentsio hauetako bitan zentratuko da analisia batez ere: ekonomia eta harremanen esparruan hain zuzen ere. Bi hauek era bananduan aurkezten diren arren, ez dira elkarren artean independenteak. Azken finen, esparruen arteko bereizketa kontzeptuala edo analitikoa da, errealitatean elkarren arteko mugak lausoak baitira (Adelantado 2000).

Honenbestez eta betiere IGOpek proposatzen duen gizarte bazterkeriaren ikuspegiaren barruan, ikerketa lanean berezko garrantzia izango duten esparru biak nabarmentzen dira 9. irudian. Era berean, zazpi esparru hauen inguruan Robeynsek proposatutako gaitasunak txertatu dira irudian. Gaitasunen zerrenda honetatik gure ikerketan garrantzi berezia dutenak bistaratu nahi dira; esate baterako, ordaindutako lana eta etxeko lanen arteko bereizketa. Edota, hiritartasun eta parte-hartze esparruaren inguruan kokatu diren beste zenbait gaitasun; denbora autonomia, errespetua eta jabekuntza politikoa, besteak beste.

(atzealdean begiratu)

9. Irudia: Marko teorikoa (I), Gizarte Bazterkeriaren harreman eta ekonomia esparruak



Iturria: norberak egindakoa.

Bestetik, Robert Castelen *desafiliazio* kontzeptua baliagarria da oso, esparru ekonomikoa eta harremanen esparruaren arteko elkarrekintza irudikatu eta harremanek gizarteratze eta bazterkeria prozesuetan jotzen duten rola nabarmentzeko. Soziologo frantsesaren arabera, Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten (GGE) onuradun diren pertsonak erakusten dute hobekien bi esparru horien arteko erlazioa: lan mundutik urrunduta egotearen eta familia eta jendartean parte-hartze desegokia izatearen artekoa (Castel 2000). Hain zuzen ere, landa ikerketa Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen duten pertsonen egindako elkarrizketa

kualitatiboetan oinarrituko da.


Are gehiago, gizarte bazterkeriari aurre egiteko pentsatuta dagoen DBE gure marko teorikoaren erdigunean kokatuko dugu. Ongizate-erregimenen analisiari eskainitako atalean, lau esparrutan oinarritutako ereduak garatu da Esping-Andersen (1990) eredu klasikoak abiatuta. Lan merkatua, botere publikoak, familia harremanen esparrua eta esparru komunitarioa izan dira eskema horretan barneratu ditugun lau ardatzak (Korpi 2000), (Orloff 1996), (Lewis 2002), (Esping-Andersen 2000), (Carrasco 2003).

Ongizate-erregimenen osaera irudikatzeko duen eskema honexen inguruan Peter Taylor-Goobyk zera iradoki zuen: beronen erdigunean familia-politikak koka litezkeela, familia-politikak –eta orokorrean politika sozialak- ongizate erregimenen elementu diren neurrian (Taylor-Gooby 2005). Hitz gutxitan, ongizate-erregimententzat diseinatutako eskema berbera baliagarria izan daiteke familia-politikak aztertzeke ere, antzeman diren lau ardatz horiek elkarren artean harremanetan jartzen dituztelako. Beraz, Taylor-Goobyren proposamen honetaz baliatuta, DBEak izango dira gure kasuan analisiaren zentroan kokatuko ditugunak.

Hurrengo irudian orain arte esandakoa laburbiltzen da era sintetikoan (10. Irudia). Aipatu beharra dago, gizarte bazterkeriaren dimentsio anitzen artean harremanen esparruan zentratuko garen era berean –esparru ekonomikoarekin batera- beste eskema honetan ere familia eta gizarte-harremanen esparruari eskainiko diogula arreta berezia.

(atzealdean begiratu)

10. Irudia: Marko teorikoa (II), Oinarrizko Errenta analisiaren erdigunean



Iturria: (Subirats 2004a) eta (Adelantado 2000)-tik abiatuta, norberak eginda.

Lehen kapitulu honetan zehar behin eta berriz adierazi da ikerketan genero ikuspegia barneratzeko dagoen beharra. Batetik ongizate-erregimenek –eta politika sozialek- genero harreman, ezberdintasun eta boterearengan dauzkaten efektuak aztertu ahal izateko genero aldagaia bereganatzea derrigorrezkoa da (Orloff 1996). Bestetik, gure eskema analitikoan familia ardatz nagusietako bat den heinean, ezinbestekoa da esparru horren baitan ere emakume eta gizonen bizi ditzaketen egoera desberdinak islatzea. Azken finean, emakumeek eta gizonen lan ordainduarekin –eremu publikoan- eta ordaindu gabekoarekin –etxeko esparruan- duten harremana jaso nahi da. Horretarako, ongizate-ereduei familiek eta emakumeek egiten dieten ekarpena aintzat hartu behar da.

Azkenik, gizarte bazterkerian bizi diren pertsonen beren egoera pertsonala nola bizi duten aztertzea da xedea eta horretarako DBEren onuradun diren pertsonetan zentratuko da ikerketa. Ekonomia esparruan batez ere, zenbait ezaugarri konpartituko dituztela ikustea espero da, den-denak gutxieneko errenten jasotzaile izango diren

heinean. Baina gizarte bazterkeria itxuratzen duten gainontzeko esparruetan ere jarriko da arreta, eta bereziki harremanen esparruan.

Zentzu horretan, familia eta jendarteko harremanek norbanakoaren ongizate – edota bazterkeria- egoera nola itxuratzen duten ikertu nahi da, sakoneko elkarrizketen bidez. Guzti hau hurrengo kapituluetan jorratzen da: 2. Kapituluak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak landuko dira, 3. Kapituluak elkarrizketa kualitatiboa edota sakoneko elkarrizketari eskainita dago, ikuspuntu teoriko batetik. 4. Kapituluak berriz, landa ikerketan aplikatutako metodologia zehatza aurkezten da.

2. Kapitulu

Hiritartasun Oinarrizko Errentaren defentsa eta EAEko Oinarrizko Errenta

Hiritartasun Oinarrizko Errentaren defentsa eta EAEko Oinarrizko Errenta

«... Hiritartasun Oinarrizko Errentaren (HOE) ezarpena eszenatoki desiragarria litzateke, eta horrek emakumeek ordaindutako lanaren eta ordaindu gabekoaren artean erabakitzeke duten ahalmena erraztu egingo luke».

(Moreno Fernandez 2003b)²³

Bigarren atal honetan, EAEko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak aztertzeraz murgilduko gara, izan ere, gure marko teorikoaren erdigunean prestazio honen onuradun diren pertsonak izango baitugu. Zeregin honetan, lehen urratsa Hiritartasun Oinarrizko Errentaren (HOE) kontzeptua aurkeztea izango da eta prestazio batek bene-benetako HOE izan dadin bete beharreko baldintzak zeintzuk diren azalduko da. Hau da, HOEren definizio hertsia landuko dugu, honi eusten dioten ezaugarri nagusiak zeintzuk diren identifikatu eta bestelako prestazioetatik bereizi ahal izateko. Kontzeptu teoriko honetatik, bigarren azpiatal batera egingo dugu jauzi, EAEn indarrean dauden Gizarterako Gutxieneko Errentak (GGE) jorrazteko, aipatutako DBE politikak alegia.

Puntu horretara iritsi baino lehen DBEak HOEren definizio hertsia hori betetzen ez duela aurreratu dezakegu, bere jatorrian terminologia berbera erabili bazen ere. Hirugarren urrats batean Europako testuingurura irekiko dugu ikusmira. Gure inguruko herrialdeetan indarrean dauden GGEak ere, HOEren moldaera partziala diren heinean, ez dute definizio hertsia hori betetzen. Eszenatoki honetan, komenigarria da Europako herrialdeetako GGEi erreferentziaren batzuk egitea, gure ikerketaren nukleo diren DBE politikak marko zabalago batean kokatzeko besterik ez bada ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) pobreziaaren aurkako politika publikoak 70 eta 80ko hamarkadetako krisi ekonomiko sakonaren testuinguruan jaio ziren. Frantzia, 1988an abiatutako *Revenu Minimum d'Insertion*²⁴ programak (RMI) antzerako programen hedapena ekarri zuen Europa Hegoaldeko beste zenbait herrialdeetara (Moreno Fernandez et. al 2003). Halaxe izan zen EAEn ere: 1989ko Pobreziaaren aurkako Plan

²³ Morenok esana (Moreno Fernandez 2009) Raventós (1999), Gough (2000): *Global Capital, Human Needs and Social Policies*, Basingstoke, Palgrave eta Van Parijs (1992): *Arguing for Basic Income. Ethical Foundations for a Radical Reform*, Verso, Londres, aipatuz.

²⁴ Frantziako RMI prestazioa (Gizarteratzeko Gutxieneko Sarrera), 2009ko ekainetik aurrera beste prestazio batek ordezkatu du, Revenu de Solidarité Active (Solidaritate Aktiborako Diru-Sarrera) izenekoak hain zuzen.

2. Kapituluia

Integralarekin, behin-behineko laguntza ekonomikoak aplikatzen hasi ziren ezohizko neurrien itxuran krisitik eratorritako pobrezia egoerei aurre egiteko asmoz. Hasiera batean abagune-neurri gisa ernaturiko politika publikoen programa hau, Administrazio Publikoen aurrekontuetan barneratuta dagoen egiturazko politika publiko integratua bilakatu da gerora.

Horrela, 90eko hamarkadan errentak bermatzeko lehen programak gorpuztu zuren EAEn Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten itxuran (GGE): Gutxieneko Familia Diru-sarrerara izenez hasieran (1989) eta Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerara izenarekin handik urtebetera. 2000 urtean gizarte mugimendu eta sindikatuek bultzatutako Herri Lege Ekimen bati esker, *Gizarte Eskubideen Gutuna* onartu zen eta testuinguru horretan ikusi zuen argia lehenengoz aurrerantzean *Oinarrizko Errenta* izenez ezagutuko zen Gutxieneko Errenten politika berriak²⁵ (Moreno Marquez 2010).

Prestazio honek bere hastapenetan *Oinarrizko Errenta* izena hartu bazuen ere²⁶, ondorengo erreformetan izena eraldatuz joan da, gaur egun Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) izen orokorra hartu duen arte²⁷. Dena den, aldaketak aldaketa, herritarren artean *Oinarrizko Errenta* izenez ezagutzen da oraindik ere.

DBE lege itxuran garatu baino lehen, aipatutako Gizarte Eskubideen Gutunaren borrokaren testuinguruan defendatu zen *Oinarrizko Errentaren* kontzepzioa era honetan labur liteke: langabezia dauden adinez nagusiko pertsonen zuzenduta egon beharko lukeen gutxieneko errenta, oinarrizko beharrianak asetzea permititzen duena eta kalitatezko bizitza duin eta autonomia izatea posible egiten duena. Eskubide indibidual gisa aldarrikatu zen, gerora praktikan bizikidetzaren unitateen arabera finkatu den arren. Hau da, egoera ekonomiko prekarioan bizi diren pertsona eta familia unitateek pairatu ditzaketen desberdintasun sozialak leuntzea zuen helburu, eta

²⁵ Eusko Legebiltzarrak 2000ko abenduan onartu zuen Gizarte Eskubideen Gutuna eta 10/2000 legea abenduaren 27koa, Gizarte Eskubideen Agirian gauzatu zena. Herri Ekimen Legea, ekimen indibidual, gizarte mugimendu eta erkidegoko gehiengo sindikalaren bultzadaz eraman zen aurrera. Gaztelaniaz, prestazioa Renta de Garantía de Ingresos –RGI- izenez ezagutzen da.

²⁶ 10/2000 Legea, abenduaren 27koa, Gizarte Eskubideen Gutunaren gainean (EAEAO, 249, 2000ko abenduaren 30koa).

²⁷ Hori da izen orokorra, baina bere baitan dauden bi modalitateen izenak «Gizarteratzeko eta Gizarte-Babeserako Oinarrizko Errenta» batetik, eta lan errentak dituztenentzat «Laneko Diru-sarrerak Osatzeko Errenta» dira bestetik.

horretarako, «lan egin nahi duten baina ezin duten pertsonentzako gutxieneko diru-sarrera batzuk» bermatuko lituzkeen *oinarrizko errenta* defendatu zen.

Zentzu honetan esan genezake Gizarte Eskubideen Kartak eta Eusko Jaurlaritzak *Oinarrizko Errenta* terminoa bere egin zutela legearen adierazpenean; nolabait HOEren ideia hori iradoki nahian, funtsean Gizarteratzeko Gutxieneko Errenta (GGE) izenez jaso beharko litzatekeena izendatu ordez²⁸. Edozelan ere, terminologiaren auzia alde batera utzita, aitortu beharra dago Gizarte Eskubideen Karta onartzeak, oso esanguratsua den prestazio ekonomiko baten instituzionalizazioa dakarrena.

Hau izan da *oinarrizko errenta* terminoa prestazio sozial baten legedian barneratu den lehen aldia. Funtsean, baina, unibertsaltasun izaerarik ez duen prestazio soziala da, soilik baldintza jakin batzuk betetzen dituzten pertsonen *ex-post* esleitzen zaiena. Nolanahi ere, prestazio honen ezarpenak baditu kontzeptu berritzaileak. Hasteko prestazioa, bizikidetzaren unitateari erreparatuz esleitzen den arren, eskubide indibidual gisa ernatu zen. Bestetik, prestazioaren zenbatekoa Espainiar estatuan dagoen beste edozein baino eskuzabalagoa ere bada²⁹.

Azkenik, lan merkatuan fokatu ordez, hiritartasunean jarri zuen arreta legeak bere jatorrizko formulazioan. 2011ko azaroan Eusko Legebiltzarrak aurrera eramandako erreformaren bitartez³⁰ ordea, lan merkatutarako insertzioa ezarri zen prestazioaren erdigunean. Bide batez, *Lanbideren* eskuetara pasatu da prestazioaren ardura, lehenago Udal, Aldundi eta Jaurlaritzak kudeatzen zutena bere gain hartuz.

Erreformaren ondorio nabarmenetako bat, beraz, prestazioa eta lan merkatutarako insertzioaren artean ezarri den lotura izan da. DBE bere jaiotzan Frantziako RMI prestazioan inspiratu zela esan badugu, aldaketa honek ere Frantziako erreformen korrantea jarraitzen du argi eta garbi. Izan ere, herrialde galiarrak aurretiaz eman

²⁸ Gisa honetako errenta politikek izen desberdinak har ditzakete herrialdearen arabera: gutxieneko errentak, errenta bermatuak, gutxieneko errenta bermatuak... Aurrerantzean, terminu nahasketa ekiditeko Gizarteratzeko Gutxieneko Errenta (GGE) izen orokorrarekin bilduko ditugu.

²⁹ Euskadiko diru-sarrerak bermatzeko prestazioen estaldura estatuko lehenengo postuan dago. EAEn bakarrik, Espainiar estatuko errenta-titular guztien %38 eta gastuaren %40 baino gehiago metatzen da, nahiz eta pobrezia-arriskuan dauden espainiarren %2,4 baino ez den bertan bizi.

³⁰ 2011ko Azaroaren 24an Eusko Legebiltzarrak Gizarteratzeko et Diru-sarrerak Bermatzeko Legea (abenduaren 23ko 18/2008) aldatu zuen.

2. Kapitulu

baitzion zentraltasun hori lan merkaturako gizarteratzeari³¹.

Zalantzarik gabe *Oinarrizko Errenta* terminoa bereganatu duen prestazio honen indarra prestazio honek daukan eskubide subjektiboaren izaeran datza. Hots, bere izatea ez dago inongo aurrekonturen menpe, eta horrexegatik ezin da ezabatu, eten edota murriztu.

EAEko -eta Nafarroako- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari erreferentzia eginez, Moreno Fernandezek baieztatu du gisa honetako *bermatutako errentak*, zentzu hertsian oinarrizko errenta ez diren arren, haietan inspiratuta daudela eta gainera, *bermatutako errenten* artean eredurik garatuenaren adierazle direla (Moreno Fernandez 2003).

«Gutxieneko errenta programak –HOErekiko- ezberdinak dira, programon irismenari, koberturari eta onuradunen gizarteratze formulei dagokionez. Euskadikoa da egiazko Bermatutako Gutxieneko Errenta programa jator gisa aintzakotzat hartu daitekeen bakarra» (Moreno Fernandez 2003).

2.1) Hiritartasun Oinarrizko Errenta.

2.1.1. Hiritartasun eskubidearen aurkezpena.

Atarikoan aurreratu diren zenbait ideia ondo ulertzeko ezinbestekoa da Hiritartasun *Oinarrizko Errenta* (HOE) ganoraz ezagutaraztea. Hiritar bakoitzak, bere beharrian materialak estali ahal izateko, gutxieneko diru-sarrera bat jasotzeko duen eskubidean datza. Ordainean kontra-prestaziorik exijitzen ez duen eskubide honi eusten dioten oinarrizko hiru ezaugarriak laburbiltzen dira hurrengo irudian (11. Irudia):

³¹ Frantziako erreformari buruzko argibide gehiago kapitulu honetako 2.3 atalean.

11. **Irudia: Hiritartasun Oinarrizko Errentaren ezaugarri nagusiak**

Eskubide indibiduala da, pertsonel - eta ez familia unitateei- zuzenduta egon behar duena.

- Indibidualtasuna

Gizarteko parte den edonork du berea jasotzeko eskubidea, pertsona den heinean, jaio izate hutsagatik. Funtsean, hiritartasun edota egoitza baldintzetara baino ez dago lotuta.

- Unibertsaltasuna

Ez du aurrez egindako kontribuzioekin lotuta egon behar. HOE jasotzeko eskubidea, beste diru-sarrera batzuk jasotzearekiko independentea da eta ez du hortaz, baliabideen kontrolik eskatzen. Onuradun izateko eskubidea ez dago lan merkatuan lan egiteko prestutasunari baldintzatuta ere.

- Baldintza-gabekotasuna

Iturria:norberak eginda.

Hitz gutxitan esateko, hiritartasun eskubidetzat har genezakeen eskubide hau gainontzeko hiritartasun eskubideak gauzatzea bideratu lezakeen eskubidea da, norbanakoaren independentzia eta autonomia ekonomikoa bermatzeko adina baliabide ekonomikoren zuzkidura ziurtatuko balu. Azken finean *eskubide burges* berria den honek, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean zehazten diren 30 artikuluko -eta eskubide- horien gauzatzea ahalbidetu lezake. Hala, *Hiritartasun Oinarrizko Errentak* aldarrikapen honetako 31. eskubidea bilakatu beharko luke (Iglesias 2001-2002).

Idea hau defendatzen duten autoreen artean, badago eskubide berritzaile hau sufragio unibertsalarekin konparatzen duenik ere. Gaur egun nekez irudika genezake sufragio unibertsalik gabeko demokraziarik. Bere garaian ere, boto eskubidea hiritar oroengana hedatzen duen eskubide honen defentsak gizartearen zenbait sektore aurka izan zituen. Bere hastapenetan eta neurri bateraino zentzuzkoa izan zitekeen oposizio hori, indartsuki gainditu zen denboraren poderioz, hain zuzen ere sufragio unibertsal horren oinarrian dagoen ideia, soila eta etikoki erakargarria delako. Gurera itzuliz, hiritar

2. Kapitulu

ororentzat gutxieneko bizitza baldintzak duintasunez politikoki bermatzearen ideia, hain da erakargarria eta normatiboki indartsua, ezen aurka izan ditzakeen oposizio, traba eta eragozpenak gaindituko lituzkeen (Daniel Raventós 2001).

Raventosen ustetan, sufragio unibertsal demokratikoarekin gertatzen den bezalaxe laikotasun, baldintzagabekotasun, eta unibertsaltasun ezaugarriak dira HOEri sendotasuna ematen dioten ezaugarri formalak. Horretaz gain, pobrezia errotik kentzeko eta politika neoliberalen kontra egiteko tresna gisa defendatzen den heinean HOEk badu alderdi instrumental indartsu bat. Hau da, biztanleriaren zati handi bat pobrezia egoeran bizitzera *zigortuta* egotea ekiditeko tresna gisa. Sufragio unibertsalaren aldeko borrokan oster, alderdi instrumentalaz gain, unibertsaltasun eta baldintzagabekotasunak berak ere, berezko balorea hartu zuten. Era berean baliteke HOEk ere, alderdi instrumentalaz gain, beste horiek ere garatzea eta mugimendu sozialetan eta iritzi publikoan errotzekotan, berezko balorea duten justizia eta duintasunaren defentsa bermatu litzake (Raventós 2001).

2.1.2. HOE: *aldaerak eta modalitateak*

HOEren aldaera eta modalitate anitzak planteatu eta landu izan dira literaturan, eta den denek HOE definitzen dituzten hiru ezaugarri horiek guztiak betetzen ez dituzten arren, proposamenaren jatorrizko izaeratik gertu daude.

Hasteko, HOE osoa eta partzialaren artean bereizi beharra dago. Beste baliabiderik ezean, bigarren honek ez lituzke bere kabuz bizi baldintza minimo duinak bermatuko. HOE partzial honen irudia hurrengo bi egoeratan irudika genezake: HOE osoaren ezarpen mailakatu baten lehen urrats bezala, edo bestela, HOE partziala beste era batetako prestazio sozialekin konbinatzen den eszenario batean.

HOEren partzialtasunak izaera kualitatiboa izan dezake eskubidea gizarteko kolektibo edota pertsona jakin batzuegana soilik zuzenduta dagoenean; hots, eskubidea hautakorra denean eta gizarteko talde ahulenengana mugatzen denean. Sailkapen honekin jarraituz, zenbait herrialdetan HOE *kategoriko* honen adibide izan litezke

pentsio ez kontributiboak, edota familiei zuzenduta dauden seme-alabengatiko prestazioak, hauexek biztanleriaren kategoria jakin bati soilik zuzenduta dauden heinean (Raventós 1999).

Horretaz gain badaude baldintzagabekotasun ezaugarria betetzen ez duten zenbait modalitate. Hauen eredu lirategi *parte-hartze errenta* edota *gizarteratzeko gutxieneko errentak*, onuraduna era bateko edo besteko lana onartzen behartzen dutenak. Gizarteratzeko Gutxieneko Errenta (GGE) aldaera partzial hauek ez dute HOEren definizio hertsia betetzen eta finean, ohiko programa asistentzialetatik gertuago dauden programa ahulagoak dira.

Puntu honetara iritsita, lerro banatzaile bat irudika genezake HOE definizio hertsia eta bere moldaera ahulagoen artean; pobrezia eta bazterkeriaren aurkako politika publikoen norabideak bereizten dituen marra irudikaria. Albo batean HOEren aldaera ahulak izango genituzke, modalitate partzialak. Gizartetik edota lan merkatutik kanpo dauden pertsonak lan merkatuan eta gizartean txertatzea helburu duten politikak, alegia. Lerro banatzaile horren beste aldean, bene-benetako HOE programak izango genituzke, inongo lan merkatura lotu gabe diru-sarrerara hiritartasun eskubide gisa antzematen dituenak.

Lerroaren lehen alde horretan beraz, Gizarteratzeko Gutxieneko Errentak (GGE) izango genituzke. Herrialdez herrialde aldaerak anitzak diren arren, funtsean, GGE itxurako programen helburua oinarrizko baliabide ekonomiko nahikoak ez dituzten pertsonak lan merkatuan eta gizartean integratzea da, eskubide hori lan merkatuarekiko betekizun batzuei baldintzatuta dagoela. Onuradunak sinatu beharreko delako *Lan Hitzarmenak*, lan merkaturako integrazio prozesuak iraun bitartean bete beharrekoak diren zenbait baldintzetara lotzen du eskubidea (Miravet 2003). Beraz, bestelako prestazio asistentzialak bezala, GGEak ere baldintzaturiko prestazioak dira. Honenbestez, HOEren hezurdura diren hiru ezaugarriekin kontrastatuz batu ditzagun laburki GGE politiketatik bereizten dituzten ezaugarri nabarmenenak (12. Irudia):

(atzealdean begiratu)

12. **Irudia: Gutxieneko Errentak eta HOEren arteko ezberdintasunak**

GGE (RMI) prestazioak ez dira berez hiritartasun eskubide indibiduala, baizik eta familia unitateei zuzenduta dauden prestazio asistentzialak

- Indibidualtasuna: ez

Ez dute unibertsaltasun baldintza betetzen, ez baitira hiritar ororengana zuzendutako prestazioak.

- Unibertsaltasuna: ez

Ez da baldintzarik gabeko prestazioa, onuradun izateko baldintza jakinak bete behar baitira: familia-unitatearen diru-sarrera mailari eta lan merkaturako insertzioari dagokionez

- Baldintza-gabekotasuna: ez

Iturria: (Miravet 2003-)tik abiatuta, norberak eginda.

2.1.3. HOE eta ongizate erregimenak

HOEren ezarpenak *Ongizate Erregimenen* errotiko berrituratzea ekarriko luke mendebaldeko herrialde kapitalistetan. Era berean norbanakoaren diru-sarrera eta baliabideen eskema goitik behera aldatuko luke.

Ongizate Erregimenei dagokionez, Philippe Van Parijs³² autoreak hausnarketa interesgarria egiten du Esping-Andersenek definitutako sailkapen klasikoaren inguruan -kontinental/koorporatiboa, anglosaxoniarr/liberala eta nordiko/unibertsalista- (1990)³³. Bere ustetan hiru erregimen eredu nagusien artean, lehen biak dira soilik HOEren ideiarri kontrajarri zaizkiokeenak.

Eredu kontinental edo *bismarckiarren* funtsezko ezaugarrietako bat, *aseguruaren* ikusmolde etiko klasikoan duen oinarria da: diru-sarrerak eten edo gutxitzen diren kasuetan errenta hauek bermatzera bideratuta dago, gertakizun jakinetara mugatuta,

³² Belgikar filosofo eta ekonomista politikoa, *Oinarriko Errentaren* defentsaren aldeko bere ideiangatik da ezaguna.

³³ Lehendabiziko kapitulu sakonago jorratu dira bai Gosta Esping-Andersen sailkapen klasikoa eta baita teoria horrek izan dituen kritika eta berrikuspenak ere.

alegia. Eredu honen baitan prestazioak jasotzeko eskubidea aurrez eginiko kontribuzio edota kotizazioei lotuta dago eta *asegurua*, diru-sarrerak eten edota murrizten diren kasuetan baino ezin da jaso. Prestazioak soldatapeko enplegura lotuta dauden eredu nagusiki kontributibo honetan, errenta birbanaketa garrantzitsua kanalizatzea lortzen da, baina soilik langile sektorearen artean, gizarte dual bati bidea irekiz.

Eredu *anglosaxoia* aldiz, solidaritate printzipioan oinarritzen dela esan genezake. Ezinbestekoa da baliabidegabezia edo gutxiegitasuna dagoela frogatzea (*means test*)³⁴. Horretarako alde aurretiko kotizaziorik eskatu gabe, kontrol neurri zorrotzak ezartzen dira balizko onuradunen gain. Bigarren eredu honetan prestazioak *ex-ante* xedatzen dira eta ez *ex-post* eredu kontinentalean bezala. Eredu anglosaxoiak solidaritatearen ideia sendoagoa gordetzen duen arren, orokorrean bermatzen duen errenta maila apalagoa da, izan ere prestazioen zenbatekoa baxuagoa izan ohi baita, eta bestelako prestazio pribatuekin konpentsatu beharra eskatzen du.

Van Parijsen aburuz, bi eredu klasiko hauen oinarriak ez dira nahikoa sendoak beren barne logikaren baitan HOE baten defentsari eutsi ahal izateko; edo bestela esanda, bateraezinak lirateke. Aitzitik, autorearen ustetan Esping-Andersen hirugarren eredu da HOEren filosofiara gehien hurbiltzen dena, eredu nordikoa alegia. Herrialde eskandinaviarretan politika publikoen babes handia da eta biztanleriaren zati handi batengana iristen da gainera. Nolanahi ere, herrialde hauetan bermatu den babes sozial maila handia izanik ere, ez da oraindik Hiritartasun Oinarrizko Errentarik (HOE) sekula ezarri. Herrialde nordikoetan babes maila intentsuetara heldu izan badira, zerbitzu unibertsalen horniduran eta enplegurako politika aktibo eraginkorretan oinarritu direlako izan da. Termino kuantitatiboetan eredu kontinentalean baino prestazio eskuzabalagoak dituzten arren, ezin ahaztu daiteke hirugarren eredu hau ere aurrez egindako kontribuzioetan oinarritzen dela.

Ildo beretik bada beste eredu teoriko bat, XVIII mendean Thomas Paine estatubatuarrak proposatu zuena. Eredu anglosaxoi eta kontinentalaren segurtasun eta *solidaritate* nozioak gainditu eta haratago zihoan *berdintasun* ideia bereganatu zuen.

³⁴ *Means test* esapideak, *baliabide kontrola* esan nahi du: gizabanakoa edota familia jakin batek gobernuaren laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituen ala ez determinatzen duena da.

2. Kapitulu

Eredu honen bitartez Paineek HOEren ideiarekin bat egiten duela baieztatu du Van Parijsek: hiritar orori zuzendutako oinarrizko diru-sarrera batetan oinarritzen den eredu defendatu zuen, trukean kontra-prestaziorik exijitu ez eta baliabide falta frogatzeko beharrik ez zuena³⁵.

HOE eta ongizate erregimen eredu klasikoen arteko erlazioaren nozio labur hau azaldu ondoren, komenigarria da baita ere ideia honen defentsak politika ekonomikoaren korrante nagusiekin -neoliberal, keynesiarra eta sozialista- duen topagunea soslaitzea.

Keynesiarrek defendatzen dituzten GGEk sobera gaintitzen dituzte politika neoliberalen proposamenak. Izan ere, neoliberalak mugatu nahi dituzten ongizate erregimenen zenbait lorpen, gizartean urrunago eramatea bilatzen baitute keynesiarrek. Edozelan ere, keynesiar heterodoxoen eskutik datozen diru-sarrerak bermatzeko proposamenak ahulak izan ohi dira, ez baita korrante nagusi honen baitan diru-sarrera eskubide unibertsal, baldintzarik gabeko eta indibidual baten defentsarik bultzatzen. Azken batean, keynesiar korronteak defendatutako proposamen *ahul* hauek politika neoliberalagoen baitan jaiotako politika asistentzialistekin bat egiten ohi dute errealitatean.

Honen harira, HOEren filosofiak korrante sozialistarekin bat egiten duela -edo bat egin dezakeela- iruditzen zaio Claudio Katz argentinarrari, besterenezina den hiritartasun eskubidea defendatzen duen heinean. HOEren definizio hertsia hiru ezaugarriak beteko lituzkeen prestazio sistema batek, azken bi mendeetan gizartean jazo izan den edozein aurrerapauso sozial gaintituko luke:

«Eredu keynesiarrak ez bezala, planteamendu sozialistak HOEak duen jomuga antikapitalista esplizitua da, eta ondorioz, helburu horren lorpenerako ezinbestekoa den borroka nabarmentzen du»³⁶ (Katz 2005).

³⁵ Thomas Paine (1776) *Agrarian Justice* idatzian aurkeztutako ereduaz aurrerago jardungo da berriro ere kapitulu honetako bosgarren atalean.

³⁶ HOEak duen jomuga antikapitalista honetara iritsi ahal izateko, ezinbestekotzat jotzen du Katzek zerga erreforma aurrerakoiak bultzatzea eta kanpo zorra kitatzea. Testuinguru honetan, herri mobilizaziorik gabe ezin liteke garaipen sozialik lortu.

2.1.4. HOE eta lan merkatua

HOEren defentsa diru-sarrerak izateko eskubidea lan merkatutik bereizteko aldarrikapenarekin bat dator. Hain zuzen ere, ideia hau aurreko kapituluan jorratu ditugun Esping-Andersen *merkantilizazioa-desmerkantilizazioa* kontzeptuetara gerturatu da (Esping-Andersen 1990). Ikuspegi honetatik, HOE sistema kapitalistaren funtsezko ezaugarria denarekin talka egiten duen mekanismoa da. Izan ere, kolokan jartzen baitu biztanleriak diru-sarrerak eskuratu ahal izateko lan merkatuan parte hartzeko duen obligazioa. Ekoizpen baliabideak ez dituzten pertsonak derrigorrez lan merkatuan lan egiteko duten behar hau, kapitalismoaren baldintza nagusietako bat da. Alabaina, HOEk bideragarri egiten du kapitalismoaren eskakizun hau ahuldu eta desagerraraztea, betiere aldarrikatzen den HOEren maila oinarrizko kontsumoa estaltzeko adina baldin bada (Iglesias 2001).

Beste era batera esanda, proposamen honek lana eta diru-sarrerak bereizi egiten ditu. Dena den, horrek ez du esan nahi HOE lan ordainduari -eta ordaindu gabekoari- kontrajarria dagoen ideia denik. Hain zuzen ere, *lanerako eskubidea* benetan eraginkorra bihurtzeko gai den mekanismo gisa ikus daiteke: egiaz eta zinez desio den lana egiteko eskubidea bermatzen duen eskubide gisa. Era horretan, pertsonak benetan desio duten lana burutu ahal izan dezaten, ezinbestekoa da lan egiteko eskubidea *eskakizun* bihurtzen duen edozein elementu baztertea.

Azken finean, lan egiteko *betekizun* hori bene-benetako *lanerako eskubide* bihurtzeko duen gaitasun horrek, HOE proposamenari berebiziko sakonera eta dimentsioa ematen dio, eta tresna pribilegiatu bilakatzen da, ez sistema leundu eta baita transformatzeko ere (Iglesias 2001).

Labur esatearren, erabaki ahalmen handiagoa eskainiko luke aurrera eraman nahi den bitzta forma aukeratu ahal izatea ahalbidetzen duelako eta aktibitate forma berriei ateak irekitzen dizkielako -ordaindu nahiz ordaindu gabeko aktibitateak-. HOE sistema baten ezean, zenbait aktibitate eta lan mota baztertuta geratzen dira, gizabanakoa suertatzen zaion lehen enplegua onartzera behartuta baitago. Horixe da Daniel

2. Kapituluia

Raventosek defendatzen duen *existentziarako eskubidea*³⁷. Hortaz, badago *ezkutatuta* dirauen lan multzo handi bat, *lokartutako lana*, biztanleriaren parte batek desiratzen duena baina bestelako lan motak onartzeko behar horrek blokeatuta, baztertuta geratzen dena (Casassas 2007).

Lokartutako lan honen barruan ordaindutako eta ordaindu gabeko lanei egiten zaie erreferentzia: ikuspuntu ekonomiko batetik produktiboak ez diren aktibitateak; ordainduak diren arren bizitzeko adina ematen ez duten ordainsariak eskaintzen dituzten enpleguak; lan artistiko eta sortzaileak; hirugarren sektorearekin lotutako lan boluntarioak eta mugimendu sozial eta politikoetan parte-hartzea.

Ildo honetatik eta bereziki partaidetzaren azken ideia honekin lotuta, oso esanguratsuak dira Zygmunt Bauman (2001) eta Ulrich Becken (2002) ikusmirak: guztiz bat datoz HOEak mugimendu sozial eta politikoekin izan dezakeen lotura zuzenarekin. Zentzu honetan HOEren dimentsio politikoa azpimarratzen dute³⁸. Biziraupen eta berdintasun irizpideez gain, bi soziologo hauentzat HOE ezinbesteko aldarrikapena da gizartean pertsona libreak egon daitezen. Hots, merkatuaren kontsumitzaile soilak izatera mugatu ordez, hiritarrak gizartean parte hartzeko baldintzetan egon daitezen. Finean, dagoeneko aurreratu dugun bezala, aldarrikapen honek Esping-Andersen *desmerkantilizazioaren* kontzeptuarekin bat egiten du³⁹.

Lan merkatuarekin jarraituz, bestelakoa da Michel Husson ekonomista kritikoaren iritzia. HOEren defentsaren aldekoa izanik, postura hori eszenatoki jakin batean kokatzen du eta beste ezer baino lehen, lan jardunaldia murrizteko dagoen beharra azpimarratzen du. Lan astearen iraupena gutxitzeko, orduen banaketa berdinkidea proposatzen du. Era horretan, «soldatarik galdu gabe» lan jardunaldiaren murrizketa

³⁷ *El derecho a la existencia* liburuan, Raventosek HOEren aldeko defentsa irmoa egiten du, «existentziarako eskubidearen» ideia aurkeztu eta defendatuz (Raventós 1999). HOEren ezarpena desiragarria dela kontsideratzen du eta ezaugarri horrek bideragarria egingo duela baieztatzen du.

³⁸ Baumanen jarrera nabarmentzeko: «Hiritarrei errentarik bermatu ezean, pobreek ... ez dute konpromiso politikorako pizgarririk, eta are gehiago, hauteskunderen joko demokratikoan parte hartzeko ... Eskubide politikoak eskubide sozialak ezartzeko ezinbestekoak dira eta era berean, eskubide sozialak ere behar-beharrezkoak dira eskubide politikoa operatiboak ziurtatzeko. Bi eskubideak nahitaezkoak dira bizirauteko, eta biziraupena elkarrekin baino ezin dute lortu» (Bauman 2009).

³⁹ Gizarte politiken hedapenetik eratorritako *desmerkantilizazioak*, hiritarrek bizitza-maila onargarria izateko duten gaitasuna neurtzen du, lan merkatuarekiko menpekotasuna kontuan hartu gabe (Muñoz de Bustillo 2000). *Desmerkantilizazioaren* ideia hau (Esping-Andersen 1990), lehen kapituluian landu da.

apal batek langabeziaren murrizketan eragin nabarmena izan lezakeela justifikatzen du (Husson 2005).

Hitz gutxitan, bere ustez nahitaezkoa da aisialdiaren eskaera lan jardunaldiaren eraldaketarekin konbinatzea, HOEren aldarrikapena eta enplegu betea aurre-aurre jarri ordez. Hartara, nagusiki gizarte eskubideen hedapenari esker garatuko litzateke bizitza maila, enplegu, osasun eta etxebizitza zerbitzuen bitartez, sozialki finantzatuta legokeen dohaineko -edo erdi-dohaineko- sistema baten barruan.

Ekonomista frantsesak horretarako jorratu beharreko aldarrikapenen segida proposatzen du: lanerako eskubidea eta diru-sarrerren jarraitasunaren aldibereko onarpena, gaur egungo aberastasun mailaren aurkako jarrera, kontratazioaren gaineko kontrola, kaleratzeen debekua, lanaldiaren murrizketa, patronalak enpleguan eta lan baldintzetan duen boterea errefusatzeko, lan-indarraren *desmerkantilizazioa*, eta jabego pribatua bera zalantzan jartzea aldarrikatzen ditu. Laburbilduz, kate estrategikoa honetan Hussonek HOEren proposamenari eta lanaren *desmerkantilizazioari* erreferentzia zuzena egiten diola azpimarratu beharko genuke.

Lan-merkatua eta HOEren arteko harremana aztertzen ari garen honetan, kontuan hartu beharrekoa da baita ere *lanak* instituzio gisa pertsonen izaera definitzerako orduan galdu duen indarra. Zygmunt Bauman soziologoak gure gizarte garaikidea definitzen duen fenomeno hau sakon aztertu du, *modernizazio likidoaren* garaian:

«Modernitate solidoan, hain sonatua zen joera totalitarioa, zimeldu egiten da, eta izate modernoaren aldaera *likidoan* desagerrarazten da ... Postmodernitatea, edo modernitatea bere fase likidoan, erauzteko garaia da, berriro errotu gabe ... modernitate likidoan, arrakastaren giltza ... mugikorra izan eta beti eskura egotean datza ...» (Bauman 2002).

Claus Offe alemaniar soziologoaren zenbait proposamen bereganatuz, ondorengo ideia plazaratzen du Baumanek; diru-sarrera indibiduala izateko eskubidea (HOE), diru-sarrerak eskuratzeko gaitasun errealetik bereizi daitekeela, alegia. Gizarte industrialeko modernitatetik gaur egungo *bigarren modernitate* honetara eginiko jauzia aztertzen du. Gerora modernitate likido terminoarekin bataiatu duen garairako saltoa, hain zuzen ere. Baumanen jarrera ulertu ahal izateko, ezinbestekoa da gizarte hau definitzen duten

2. Kapitulu

funtsezko ezaugarriak eta ordaindutako lanak bertan jokatzen duen papera ulertzea.

Modernitatearen garai industrialean, ezer baino lehen, gizabanakoak *produktore* izan behar zuen. Ekoizteko gaitasuna eta borondatea bereganatzeko beharra markatzen zuen araua zen gizartean gailentzen zena. Bigarren modernotasun honetan, lehendabiziko eta premiazko egitekoa *kontsumitzaile* izatea da. Kontsumitzaile-gizarte honen ezaugarria errutinarik eza da, etengabeko *hautaketa* egoera. Biak ala biak ere, benetako kontsumitzaile izateko bete beharreko baldintzak ditugu (Bauman 2002).

Zygmunt Baumanek deskribatzen duen modernitate likido horretan malgutasuna da goiburu berria: iheskortasunak eta behin-behinekotasunak mugatutako gizartea, non konpromisoaren iraupena, desiratutako objektua kontsumitzeko beharrezkoa den denbora tarte horretara mugatzen den. *Aldi baterako* eta *iragankor* adjektiboak, kontsumo-gai diren objektuetatik banaezinak dira. Gizarte industrialean pertsonen identitatea definitzerako orduan elementurik esanguratsuena *lana* baldin bazen, modernitate likidoan ezinezkoa bilakatzen da lanean oinarritzen den bizitza osorako identitatea eraikitzea. Gaur egungo lan merkatua prekarioaren baitan, identitatea oinarritzeko edozein desiok bat etorri behar du malgutasunaren dohainarekin (Bauman 2002).

Modernitate likidoaren garaian, lehen lanaren etikak agintzen zuen lekuan, *kontsumoaren estetika* da nagusi. Modernitatearen lehen etapan enplegu beteko egoera zen helburu eta lanaren etika horrexek hurrengo ideia gordetzen zuen era inplizituan: lan egiten ez zuten pertsonak, ezohizkotzat hartu behar zirelako ideia. Hartara, gizarteko langabetuen sektorea bazterkeriara kondenatua zegoen.

Aldiz, Baumanen modernitate likidoaren gizartean ez da *lana* faktore baztertzaila dena, gizarteko zenbait sektorek beraien kontsumitzaile rola betetzeko duten gaitasun eza baizik. Hau da, baztertuak edo pobre berriak ez dira zertan langabetuak izan behar, *baztertu berriak* haien kontsumitzaile izaera galdu dutenak izango dira, merkatutik kanporatuak izan direnak (Bauman 2000).

Une honetan, honezkero lehen kapitulu joratu dugun Baumanen aldarrikapen bati berrio heltzea komeni da. Soziologo-filosofoaren arabera *desmerkantilizazioak*

orokorrean, eta HOEk zehazki, paper estrategikoa jokatzen du hiritarra kontsumitzaile soil izatetik esparru politikoan parte hartzaile aktibo izaterako ibilbidean (Bauman 2001).

Horretaz gain, kontsumismoaren analisi horren barruan, *lana* terminoak berak dauzkan mugak nabarmentzen ditu Baumanek. Hitz honen eguneroko erabilera ordaindutako lanari soilik egin ohi zaio erreferentzia. Hots, salerosten den lanari, merkatuan balio kuantifikagarria duenari eta hortaz, trukean diruzko ordaina exijitu dezakeen lanari.

Zentzu honetan, ezinbestekoa da lanaz ari garenean ordaindu gabeko lanaz ere hitz egitea. Merkatutik kanpo egiten denaz, alegia. Etxeko esparruan burututako lana – emakumeek egiten dutena bereziki - ezin da inolaz analisitik kanpo utzi. Ildo honetatik, Ingrid Robeyns filosofo eta ekonomista feministak, Hiritartasun Oinarrizko Errenten (HOE) analisiak nozitzen duen genero itsutasuna azpimarratu du. Ordaindu gabeko lana eta orokorrean emakumeak bai lan ordainduarekin eta ordaindu gabekoarekin daukan harremanari behar bezala heltzen ez bazaio, HOEren inguruko analisiak genero dimentsioarekiko hankamotz geratzen direla uste du. Robeynsen hitzetan, kasu gehienetan «ez da jorratzen HOEren ezarpenak gizon eta emakumeengan eragin ezberdinak izango ote lituzkeen» (Robeyns 2007b).

HOEren aldeko zenbait adituk argudiatu izan du HOEren ezarpenak ordaindu gabeko lanaren nolabaiteko aintzatespena ekarriko lukeela (Miller 1986), (Walter 1989), (Withorn 1990) eta horretaz gain, pobrezian bizi diren emakumeen (McKay/VanEvery 1995) edota emakume guztien (Walter 1989) autonomia indartuko lukeela.

Kontrako norabidean badira HOEren aurkako jarrera hartu duten feministak ere; halako prestazioa *etxekoandre-soldata* batean bilakatuko litzatekeela argudiatzen dute eta nolabait emakume hauen isiltasuna erosiko litzatekeela. Bide honetatik emakumeen askatasuna murriztu litekeela arrazoitu dute ikuspuntu kritikoek, zenbait emakume etxeko esparruan iraunaraziz edota, lan merkatuan diharduten beste batzuk esparru domestikora igaroaraziz.

Esate baterako, Ann Orloffen arabera (1990) HOEren estrategia ez da egokia genero arteko berdintasuna eta justizia eskuratzeko. Izan ere, benetan erabakigarria dena

2. Kapitulu

etxeako arduren banaketa berdinkidea dela uste baitu. Hortaz, bere iritziz eraginkorragoa da lan ordaindua eta ordaindu gabeko lanaren egiturak bete-betean eraldatzeko gai diren politika sozialak jorratzea.

Ingrid Robeynsek ostera, balizko HOEren inplementazio baten ondorioak emakume talde desberdinen baitan ezberdinak izango liritekeela aurreikusten du: HOErik ezan bestelako diru-sarrerarik ez dutenentzat -etxeakoandreeentzat, adibidez-, lan merkatuan baldintza onetan lanean ari direnentzat, guraso bakarreko familientzat, lan partzialetan dihardutenentzat, edota HOEren ondorioz lan merkatuko partaidetza murrizten dutenentzat, eraginak ezin du berdina izan ekonomista honen iritziz (Robeyns 2007b).

Horretaz gain, genero desberdintasunak taxuz gainditu ahal izateko HOE programa bestelako politika sozialekin konbinatu beharra dagoela uste du Robeynsek, lanaren genero banaketan eta genero baldintzapenek murriztutako erabaki-ahalmenean bete-betean jo nahi bada, behintzat.

Interesgarria da, honekin lotuta, Robeynsek HOEri ikusten dion abantaila bat aipatzea. Zenbait feministek defendatzen duten *etxeakoandre-soldataren* aurrean, HOEak onura nabariak dakartzala argudiatu du. Autorearen arabera, *etxeakoandre-soldata* onartuko balitz lan merkatuan lanean ari diren emakumeek diskriminazio hirukoitza jasateko arriskua izango lukete. Batetik, etxetik kanpo lan egiteak dakarren ardura gehigarriagatik; *etxeakoandre-soldata* finantzatzeko zergapetuak izango liritekeelako, bestetik; eta azkenik, etxean egindako lanaren truke inolako ordainsaririk jasoko ez luketelako.

Hiritartasun Oinarrizko Errentaren definizio hertsira atzera jotzen badugu, prestazioaren izaera unibertsalarekin egingo dugu topo. Prestazioa hiritar orori zuzenduta legokeenez, lan merkatuan ari direnez gain etxeakoandreek ere jasoko lukete. Honenbestez, HOEk aurreko hiru diskriminazio-egoerak gainditzeko ahalmena egotzi dakioko.

«Etxekoandreek prestazio bat jasoko lukete eta ez liriteke era bidegabean tratatuta sentituko ... ezta amatasun-baimena hartzen duten emakumeekiko ere ...» (Robeyns 2007b).

2.1.5. HOEren ikuspegi historikoa

«Bermatutako Oinarrizko Errenta iritzi-espektro zabalean defendatu da ekonomista, gizarte zientzietako zientzialari eta filosofoen artean: James Tobinetik hasita Milton Friedmana, Joan Robinsonetik John Kenneth Galbraithera, James Edward Meadeetik Jan Timbergenera, eta Martin Luther Kingetik Phillipe Van Parijs eta Guy Standingera»

Widerquist, Lewis eta Presman (2005).

Hurrengo atalburuan zehar Hiritartasun Oinarrizko Errentaren ikuspegi historikoari helduko diogu. Eskubide politiko honen lehen proposamenetik abiatu eta ideia honen defentsak izan duen garapena jorratuko da bertan.

HOE lehen proposamenak

Hiritartasun Oinarrizko Errenta gaur egun pil-pilean dagoen gaia izan arren, ez da inondik ere proposamen berria. Gai honi buruz autore askok egin dute hausnarketa; korrante liberalenetatik hasi eta korrante progresistenetara. Honen inguruan dagoen literatura zabalera murgilduz, atal honetan autore hauetako batzuk egindako ekarpenak gogoratuko dira.

Abiapuntu gisa, ekar dezagun gogora Thomas Paine idazle eta aktibista estatubatuarra, HOEren defentsan aitzindaritzat jo izan dena. 1776. urtean argitaratutako *Agrarian Justice* liburuan, gizakiaren egoera naturalaz eta pobrezia eta estatuaren arteko harremanaz egin zuen gogoeta besteak beste. Bere ustetan, Erdi Aroan pobrezia ez zen gizakiaren berezko egoera naturalari zegokion zerbait. Gizakiaren egoera primitibo eta naturalaren inguruan ezagupen minimo batzuk eduki behar zirela uste zuen, eta Ipar Amerikako indio garaikideen bizitza ikertu zuen horretarako.

Aztertutako indioen komunitatean ez zuen giza miseriaren arrastorik sumatu, Europako hirietan premia gorri hura nonahi topa zitekeen bitartean. Ondorioz, txirotasuna bizitza *zibilizatuaren* ondorioetako bat dela balioetsi zuen eta ez gizakiaren egoera naturalean ematen zen fenomeno. Testuinguru honetan, Paine hurrengo defendatu zuen: herrialde zibilizatu batean jaiotako pertsona batek ere ez luke bizi behar, zibilizazio

2. Kapitulu

heldu aurretiko garaian biziko zukeena baino egoera latzagarrik.

Hori konpentsatzeko 50 urtetik gorako pertsonak zergapetzea proposatu zuen, horrekin hogeita bat urte betetzen zituen gazte bakoitzari diru-kantitate bat esleitu ahal izateko eta gazte hauek gizarte zibilizatuan bizitzeagatik pairatzen zuten «oinordetza naturalaren galera» nolabait orekatzeko. Hau da, funtsean *zibilizazioa* heldu aurretik herri-ondasun libreak jabego pribatura pasatu izana orekatuko lukeen prestazioa bati buruz ari zen.

Bere ustetan ez zen hau karitate kontua, *justizia* kontua baizik. Thomas Paineren garaikide izandako Thomas Spence izan zen *Agrarian Justice* testuan «diru-sarrera erregular» baten defentsa antzeman zuen lehena. Proposamen horren aurrean kritikoa izanik, berak ere antzeko testuinguruan «diru-sarrera erregular» baten ezarpena birplanteatu zuen: guztien artean banatuko litzatekeen aldizkako diru-sarrera defendatu zuen, ondasun higiezin bitartez finantzatuko litzatekeena.

Ildo beretik, Thomas Skidmore estatubatuarrak ondasun higiezinen bitartez finantzatutako beste proposamen bat luzatu zuen zenbait urte beranduago: urte baten buruan hildako pertsonen higiezinen bitartez urte horretan bertan adin nagusitasuna iristen zuten gazteen artean birbanatzea, alegia.

HOE European

Garai horreketan, zibilizazioak *gizon* bakoitzari *biziraupenerako gutxieneko oparo* bat zor ziola adierazi zuen Charles Fourierek frantsesak, oinarrizkoak diren berezko eskubideak urratu izanagatik. «Zibilizazioak –gizona- ehiza, arrantza, uzta eta artzaintza burutzeko lehen eskubideaz desjabetzen duenen heinean, zibilizazio horrek berak kalte-ordain bat zor dio» (Fourier 1836).

Alabaina, European jaiotako lehen HOEren proposamena Joseph Charlier pentsalariari zor zaio. 1848an idatzitako *Solution du problème social* liburuan⁴⁰ gizon orok bere beharrianak asetzeko eskubidea izan beharko lukeela baieztatu zuen, «*Probidentziak* sortutako baliabide naturalez gozatu ahal izateko».

⁴⁰ Izenburua euskaraz, *Arazo sozialaren konponbidea*.

Bere ikuspuntutik, lurraren jabego pribatua eta justizia bateraezinak dira eta denboraren poderioz, Estatuak beharko luke izan lurraren jabe bakarra. Bere garaian indarrean zeuden jabego tituluak auzitara eramatera iritsi gabe, erregimen iragankor baten ezarpena proposatu zuen: lurjabeei biziarteko errenta eta jabe ez zirenei, hileroko edo aldizkako «baldintza-gabeko gutxiengo bermatua» esleituko liekeen sistema, eta gerora *lurralde-dibidendu* terminoarekin bataiatuko zuena *-dividend territorial-*.

Bertrand Russel filosofoak piztu zuen benetako auzia I Mundu Gerratearen bukaeran. Galestar Nobel saridun honek zehaztutako gizarte ereduari, pertsona orori zuzendutako esleipena proposatu zuen: lanik egin edo ez, pertsona orok jaso beharko luke «errenta apal» hau beharrian oinarrizkoenak ase ahal izateko.

«Eguneroko terminoetan azaltzeko, gure proposamena hurrengoan datza: pertsona orori ziurtatu beharko litzaioke errenta kopuru jakin bat, lanik egin ala egin ez, beharrezko premiak asetzeko adina ... eta, ekonomiak onar lezakeen adinako beste errenta altuago bat, komunitatearen intereserako lan egiteko prest leudekeen haien artean» (1918 *Bertrand Russell*).

1918an bertan, Dennis eta Mabel Milnerek argitaratutako *Scheme for a State Bonus* lanean, baldintzarik gabe esleitutako errenta baten ezarpena proposatzen da, Erresuma Batuko biztanleria osoaren artean astero banatuko litzatekeena. Barne Produktu Gordinari indexatutako *State Bonus* honek -Estatu Hobaria-, pobreziaren arazoarekin amaitu beharko luke. Proposamen hau sakon eztabaidatu zen, bi urte geroago britainiar alderdi laboristaren kongresuaren kariaz alde batera utzi zen arte.

Aurrerago, Cliford H. Douglas pentsalari ingelesak biztanleriaren erosahalmenaren inguruko bere kezka plazaratu zuen, industria produktibitate altu baten testuinguruan gerta zitekeen gain-produkzio baten beldur zela. Arazo honi aurre egiteko, familia bakoitzari hileroko *dibidendu nazional* bat luzatuko liokeen *gizarte kreditu* sistema proposatu zuen. Mugimendu honek ez zuen arrakasta handirik izan Erresuma Batuan, baina Kanadako Alberta probintzian jarraitzaileak izan zituen *Social Credit* alderdiak gobernatu zuen urteetan zehar, *dibidendu nazionalaren* proposamena bertan behera utzi bazuten ere.

2. Kapitulu

Erresuma Batuan 1929an berpiztu zen eztabaida Alderdi Laboristako kideen artean eta *dibidendu soziala* izenarekin bataiatu zuen ideia George D.H. Colek *The Next Ten Years in the British Social and Political Economy* liburuan.

Basic Income terminoa oster, 1953an bereganatu zuen lehen aldiz J.S. Millek. Hori baino lehen 1934an Jan Tinbergen Nobel saridun holandarrak proposatu zuen lehendabizikoz izendapen hori, Holandan bertan Alderdi Laboristaren programan piztutako eztabaidaren testuinguruan. Bera izan zen beraz izendapen hau erabili zuen lehen ekonomialaria –jatorrian, *Basisinkommen*- eta horixe da gaur egun nazioartean hizkuntza anitzetan gailendu dena: *Oinarrizko Errenta*.

James Meade Nobel saridunak, Oxfordeko beste ekonomialari batek, *Outline of an Economic Policy for a Labour Government* (1935) lanetik hasi eta bere azken lanetara arte *dibidendu sozialaren* ideia defendatu zuen. Bere idatzietan «agatotopia» delakoa aldarrikatu zuen, kapitalista eta langileen interesen arteko asoziazioa alegia. Langabezia eta pobreziaren aurkako borrokan soluzio bateratua lortzeko helburuarekin, Ondare Publikoak finantzatu lukeen *dibidendu soziala* proposatu zuen.

Bestetik, Juliet Rhys-Williamsek 1943an jaurtitako *kontratu sozial berriaren* ideia HOEren beste aldaera bat kontsidera liteke. Tamalez, bere proposamena hutsean geratu zen, William Beveridgen plana izan baitzen Erresuma Batuan gailendu zena eta horrek hurrengo hamarkadetarako HOEren eztabaida itzali arazi zuen.

Friedman eta Tobinen jarrerak

60ko hamarkadan HOEren inguruko eztabaida berri bat berpiztu zuen Milton Friedman Nobel saridun estatubatuarrek. Chicagoko eskolaren bozeramailea honek Estatu Batuetako Estatu sozialaren goitik beherako erreforma proposatu zuen bere *Capitalism and Freedom* -Kapitalismoa eta Askatasuna- liburuan. Friedmanen proposamena zerga tasa negatibo baten ezarpenean oinarrituta dago (ZTN)⁴¹: errentaren gaineko zergapetze linealaren bidez, zerga kreditu finko eta itzulgarri baten bitartez gauzatzen da.

⁴¹ Ingelesezt, *Negative Income Tax* (NIT), lehendabizikoz baina, Antoine Cournot ekonomialariak erabili zuen termino hau 1838an, *Recherches sur les principes mathématiques de la théorie des richesses* liburuan.

Nolanahi ere, ideia hau bere osotasunean aztertu beharra dago. Izan ere, ezin ahantz daiteke Friedman korrante neoliberalaren defendatzaile sutsua izan zela eta beraz, estatuaren esku-hartzearen aurkakoa. Ekonomialariaren ideia ZTN bat ezarri eta ordura arte indarrean leudekeen gainerako prestazio eta beste laguntza sozial guztiak ezabatzea zen. Hala, estatuaren esku-hartzea minimizatu egingo litzateke, ongizatearen esleipena merkatu libre -eta pribatuen- esku utziz.

Proposamen honen inguruan, HOEren markoan mugatzat jo daitezkeen elementu bi nabarmendu ditu Jose Iglesiasek (Iglesias 2001, 2002). Alde batetik, pobreziari buruz erakusten den dimensio bakarreko begirada, izan ere huts-hutsean pobrezia ekonomikora eta zehazki baliabide ekonomikoaren gabeziara murrizten den ikuspegia jorratu baitzuen Friedmanek. Bestetik, bigarren oztopo gisa, gainontzeko prestazio sozialak ezabatzearen ideia antzeman du. Hurrengo aipuak, ederki irudiztatzen ditu Milton Friedmanen ideiak:

«Zuzenean heltzen dio pobreziaren arazoari (ZTNak). Pertsona zuzenean laguntzen du, likidezia bidez. Ordainketa bakarra da, gainontzeko laguntza sozialen multzoa ordezkatu behar duena. Gizarteak ordaindu beharreko kostua esplizitua da. Merkatutik kanpo jarduten du. Pobreziaren aurkako beste neurrien moduan, lanerako pizgarriak murrizten ditu, baina ez besteek bezainbeste, izan ere diru-sarrerak maila jakin bateraino soilik osatzen dituelako. Irabazitako dolar bakoitzak beti dakar berekin kontsumorako diru erabilgarri gehiago».

Beranduago, James Tobin ekonomialariak ZTNarekiko interesa erakutsi zuen, beste ekonomista liberal batzuekin batera ohiko programa asistentzialak baino eskuzabalago eta orokorragoa zen GGEa proposatu zuenean. Friedmanekiko ezberdintasuna nabaria da, ez baitzen bere asmoa prestazio xume bat ezarri eta gainerako laguntza eta prestazioak ezabatzea.

Gehienbat, berak argitaratutako hainbat lanetan esaten zuen bezala *pobreen errenta handiagotzean zetzan, edota beltzen estatus ekonomikoa hobetzean*⁴². Bide horretatik, Tobinek hiritar orori esleitu beharreko ordainketa automatikoa iradoki zuen. Bene-

⁴² Tobin, J. (1965): *On Improving the Economic Status of the Negro*, *Deadalus*, 94(4), Fall, 878-898 orr, eta, Tobin, James (1968), *Raising the Incomes of the Poor*, in *Agenda for the Nation*, ed. K. Gordon, 77-116 orr, the Brookings Institution, Washington D.C.

2. Kapituluia

benetako *oinarrizko errenta* litzatekeen horri *Demogrant* izena eman zion.

Bestetik, 70 eta 80ko hamarkadetan zehar HOEren inguruko eztabaida hau sano hedatu zen Kanadan. *Urteroko errenta bermatua* izenarekin ezagutu zen gehienbat eta ugariak izan ziren beronen inguruan proposatu ziren ZTNren aldaerak.

Europar ere gai honek arreta berpiztu zuen 80ko hamarkadaz geroztik. Danimarkan esaterako, *Hiritartasun Soldada* defendatu zuten *Revolt from the Center* liburuan (Meyers 1981). Herbehereetan J.P. Kuiper medikuntza sozialeko irakaslearen eskutik hartu zuen indarra gaiak. Bere proposamenetik abiatuta txertatu zen lehen aldiz HOEren inguruko aipu bat parlamentuan ordezkaritza zuen alderdi politiko baten programan -*Politieke Partij Radicalen*-.

Nazioarteko mailan, *Basic Income European Network* sarea sortu zen -Oinarrizko Errentaren Europar Sarea- 1986 urtean, eta mundu mailara hedatu zen 2004ean -*The Basic Income Earth Network*-. HOEren inguruan murgilduta dauden pertsona eta taldeentzat topaketa gunea izanik, gaiaren inguruko eztabaida bultzatzen du munduan zehar. Bere jatorrian Charles Fourier Kolektiboak argitaratutako artikuluak daude.

Honenbestez, historian zeharreko errepaso honetan jazotakoak laburbiltzeko, HOEren defentsarekin lotuta dauden izendapenak biltzen dira ondorengo taulan (3. taula):

3. **Taula: Hiritartasun Oinarrizko Errentaren izen ezberdinak**

Hiritartasun Oinarrizko Errentaren izendapen ezberdinen zerrenda
Dividendo territorial: Joseph Charlier, Belgika, 1894.
State bonus: Deniis Milner, Erresuma Batua, 1918.
National Dividend: D.H. Douglas, Erresuma Batua, 1932.
Basisinkommen: Jan Tinbergen, Herbehereak, 1934.
Social Dividend: George D.H. Cole, Erresuma Batua, 1935.
Basic Income: George D.H. Cole, Erresuma Batua, 1953.
Negative Income Tax: Milton Friedman, 1966.
Demogrant: James Tobin, Estatu Batuak, 1967
Borgerlon: Niels Meyer eta beste batzuk, Danimarka, 1978.
Allocation universelle: Collectif Charles Fourier, Belgika, 1984.
Bürgergeld: Joachim Mitschke, Alemania, 1985.
Reddito di cittadinanza: Confederazione Generale Italiana del Lavoro, Italia, 1988.
Revenu d'existence: Henri Guitton, Frantzia, 1988.
Renta Básica: José Iglesias Fernández, Espainia, 1994.
Dividende universel: Christine Boutin, Frantzia, 2003.
Hiritartasun Oinarrizko Errenta, Gorka Moreno, EAE.

Iturria: (Van Parijsetik 2006)-tik moldatuta.

2.2) EAEko Oinarrizko Errenta: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta.

Atal honetan, kapitulu honen hitzaurrean aurkeztutako EAEko Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentak (DBE) aztertzeraz murgilduko gara. Esana dugu bere jaiotza unean *Oinarrizko Errenta* izenez aditzera eman bazen ere, gerora prestazioaren izenak berak eta berau arautzen duen legediak jasandako erreformen ostean, izenak eta prestazioak eraldaketak izan dituztela⁴³.

Xede nagusia prestazio hau itxuratzen duten ezaugarri behinenak argitzea izango da; bere funtzionamendu orokorra ulertzea, alegia. Zeregin horretan prestazioa arautzen duen legediaren berrikuspena egin ondoren, era labur eta argienez jazo nahi da prestazioa itxuratzen duen bilbadura. Funtsean, DBE arautu eta garatzen duen legedia hurrengoa da:

- Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko legea **18/2008 Legea** (EHAA Zk. 250/2008) eta berau garatzen duten dekretua 147/2010 Dekretua maiatzaren 25ekoa dira prestazioa arautu eta erregulatzen duten lege nagusiak, eta 2011ko Azaroaz geroztik, 2008ko legea eraldatzen duen **4/2011 legea**.
- 2001eko otsailaren 14ko Agindua (EHAA Zk. 37/2001), lanean hasteko pizgarriak ezartzen dituena.
- **2/2010 Dekretua**, urtarrilaren 12koa, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzkoa.

Prestazioaren helburua garbi adierazten da dekretuan, «oinarrizko premiei lotutako gastuei estaldura ematea, halakotzat hartuz bizirauteko oinarrizkoak diren gastuak» eta horretaz gain, «diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemari egitura koherentea, pitzadurarik gabea, emateko premiari erantzunez, gizarteratzeko edo laneratzeko prozesutik eratorritako gastuak deitutakoetara hedatzen du bere babes-eremua e.a. prozesu hau benetan gauzatzeko ezinbestekoak diren gastutzat definitzen

⁴³ Aurrerantzean, termino nahasketa ekiditeko, Hiritartasun Oinarrizko Errenta (HOE) erabiliko dugula eskubide unibertsala, teorikoa izendatzeko, eta aldiz, EAEko prestazioari erreferentzia zehatza egiteko, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE).

dira, eta kontzeptu horretan sartu daitezke, besteak beste, lantokira joateko garraio-gastuak eta prestakuntza-gastuak, dagokion gizarteratze-hitzarmenean gastu horiek ezartzen diren terminotan».

Definizio horretaz haratago benetan funtsezkoa dena ondorengoa da; legediak DBE «aldizkako eta eskubide subjektiboko prestazio ekonomiko»⁴⁴ gisa aintzatesten duela. Prestazioaren izaera subjektiboa, beraz, definizioan bertan aitortzen da eta hauxe da preseski indarra ematen dion elementu nagusietako bat. Prestazioa jasotzeko eskubidea duen orok, dagokion modalitatearen barruan betiere, prestazioa jaso ahal izango du prestazioa eskuratzea inongo aurrekontu mugari lotuta ez dagoelako⁴⁵.

Helburuetan zehaztu bezala, prestazioaren definizioan bertan ere oinarrizko premiei aurre egiteko dela baieztatzen da, baina horretaz gain *laneratze prozesua* aipatzen da. Izan ere, prestazioaren helburuen artean onuradunen oinarrizko premiak estaltzeaz gain, lan merkatuak insertzioan berebiziko arreta jartzen baita, batez ere 2011ko legearen eraldaketaren ostean. Kapitulu honen hasieran aipatu dugu lan merkatuak, eta beraz, laneratze prozesuak jokatzen duten paper nagusi hori, Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten (GGE) ezaugarri bereizgarria dela, eta aldi berean benetako HOE sistema batetik aldentzen duena. Lan merkatuaren zentraltasun hori, batik bat geroago jorratuko dugun ere Gizarteratze Aktiborako Hitzarmenak (GAH) egiten du nabarmen.

2.2.1. DBEren ardatz nagusiak eta betebeharrak

Puntu honetara iritsita, DBEren funtzionamendua zehazten duten hiru ardatz bereizgarrienak aurkezteko moduan gaude, prestazioaren mamia ulertzeko ezinbesteko direnak. Era berean, hiru ardatz hauen inguruan harilkatzen dira prestazioaren onuradun izateko betebeharrak nagusiak:

- Bizikidetzaren unitatea: Prestazioaren onuradun den pertsona integratzen deneko bizikidetzaren unitatea izango da prestazioaren zenbatekoa markatuko duena, eta DBEren ardatz nagusietako bat da berau.

⁴⁴ 11. Artikulua, 4/2011 Legea azaroaren 24koa.

⁴⁵ 2008ko Legea, 12. Artikulua.

2. Kapitulu

- Etxebizitza: Bizitokiaren erregulazioak zehaztu egiten du zein eratan determinatzen den onuraduna, eta bera integratuta dagoen bizikidetzaren unitatea bizi den bizilekua. Hau da hortaz, prestazioaren bigarren ardatzetako bat.
- Gizarteratze Aktiborako Hitzarmena: DBEren egiturari itxura ematen dion hirugarren ardatza dugun honek laneratzeko prozesuan betebeharrak batzuetara lotzen du prestazioaren onuraduna.

Bizikidetzaren unitatea

Bizikidetzaren unitateak hartzen dira orokorrean, honako pertsonak eta pertsona-taldeak:

- Etxebizitza edo bizitoki batean bakarrik bizi diren pertsonak.
- Familian bizi diren pertsonak: ezkontuta edo antzeko harreman iraunkorrean bizi direnak eta haien laugarren mailarainoko odol ahaideak, etxebizitza berean bizi direnean⁴⁶.
- Familia kide ez diren beste pertsona batzuekin bizi diren pertsonak, haiek bakarrik osatuko dute bizikidetzaren unitatea : errentamendu-kontratu baten titularra den pertsona, legeak aurreikusitako loturaren batekin lotuta ez dagoen beste pertsona batzuekin etxebizitza edo bizitoki berean bizi dena, premia larriko benetako egoeren ondorioz⁴⁷.

Bizikidetzaren unitatearen zehaztapena giltzarria da prestazioaren zenbatekoa zehazterako orduan. Izan ere, bizikidetzaren unitate bakoitzari aplikatu dakioken prestazioaren hileko zenbatekoa honela kalkulatu da: «eskatailearen bizikidetzaren unitatearen ezaugarriak dituzten bizikidetzaren unitateentzat prestazioak bermatutako diru-sarreraren

⁴⁶ Dekretuaren 5b artikuluan, familiaren definizioa zehazten da: «etxebizitza edo bizitoki berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, elkarren artean ezkontzaren bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez batuta daudenean, edo laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunagatik edo bigarren mailarainoko ezkon ahaidetasunagatik, edo familia-harrerako harreman iraunkor bategatik edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman bategatik batuta daudenean».

⁴⁷ Etxebizitza berea, bizikidetzaren unitate desberdinak bizi diren kasuetan, garrantzitsua da, etxebizitza bakoitzeko ezartzen den muga: bi titular etxebizitza bakoitzeko. Tutoretzapeko etxebizitza eta egoitzak salbuetsita geratzen dira dekretuaren 5c artikuluan.

zenbatekoaren eta eskatzailearen bizikidetz-unitateak eskura dituen baliabideen arteko diferentziaren arabera» (13.1.a artikulua, dekretuan).

Horrela, bada, prestazioaren zenbatekoa eskaera egiten den unean indarrean dagoen Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) portzentaje gisa zehazten da. Portzentaje hau, hazkorra da bizikidetz-unitatearen kide kopuruarekiko: LGSren %88a dagokio kide bakarreko bizikidetz-unitateari, %113 bi kidekoei, eta %125 hiru kide edo gehiagoko bizikidetz-unitateei.

Bestalde, bizikidetz-unitatearen osaerak ere badu zeresana prestazioaren zenbatekoa erabakitzerako orduan. Era horretan, dekretuaren 5.2.a artikuluan zehazten diren bizikidetz-unitateen kasuan, gorago aipaturiko portzentaje horiek handiago dira - %100, %125 eta %135, hurrenez hurren-. Besteak beste, multzo honetan sartuko lirateke pentsiodunak⁴⁸, etxeko tratu txarren biktima izanik ohiko bizilekua utzi duten pertsonak, edota beren kargura %45etik gorako ezgaitasun kalifikazioa edo mendekotasun maila jakin bat duten pertsonak dituztenak.

Bizikidetz-unitatearen konposizioari dagokionez, xehetasun garrantzitsu bat nabarmendu beharra dago: guraso bakarreko familiak jomuga berezia dira, eta dekretuaren helburuan espresuki zehazten da. Hortaz, guraso bakarreko bizikidetz-unitateen kasuan, prestazioa urteko LGSren %6,4ren baliokidea den diru-laguntza batekin osatuko da.

«Pobrezia-tasei eusteko eta fenomenoaren modurik muturrekoenak eraginkortasunez prebenitzeko gai izan zen balantze positiboa onartu arren, ezinbestekotzat jotzen du politika publikoen ahaleginak berrorientatzea, bilakaera horren ezaugarri kualitatiboak ezarri dituzten hainbat joera kontuan izanik, bereziki pobrezia-aren feminizazioa – egoerekin zuzenean lotua – eta, beharbada garrantzi handiagoarekin haren egitura-profila dela medio, soldata-maila baxuei lotutako pobrezia»⁴⁹.

Azkenik, azpimarratu behar da 2012ko Aurrekontuetan DBEren prestazioen gaineko %7ko murrizketa ezarri zela. Era horretan, goian aipatutako kasu bakoitzean dagokion

⁴⁸ Kontributiboak ala ez, zahartasun, elbarritasun edota alarguntasuneko pentsioen onuradunak.

⁴⁹ Alde batetik, «Gizarteratzeko eta Gizarte-Babeserako Oinarrizko Errenta», eta bestetik, lan errentak dituztenentzat «Laneko Diru-Sarrerak Osatzeko Errenta» (azken helburua betetzeko)

2. Kapitula

portzentajea atxiki ostean lortutako zenbatekoari %7ko gutxitzea aplikatu behar zaio⁵⁰.

Etxebizitza

Ezinbestekoa da, bizikidetza-unitatea eta etxebizitzaren artean dagoen lotura azaltzea, erlazio horren inguruan legeak muga nabarmenak ezartzen dituelako. Dekretuaren 6. artikuluan aurreikusten da etxebizitzatzat jotzen diren bizitoki-modalitateen zerrenda. Muga, baina, etxebizitza bakoitzean egon daitekeen prestazioaren onuradun kopuruaren aldetik dator. Hau da, etxebizitza berean bizikidetza unitate bat baino gehiago egon daitezkeen kasu guztietan, etxebizitza edo bizitoki bakarra dagoela ulertzen da eta kasu horietan etxebizitza horretan eman daitekeen DBE prestazioaren gehieneko kopurua bikoia izango dela zehazten da (Dekretuaren 10. Artikulua).

Egoera jakin batzuetan bizitoki kolektiboko zenbait esparrutan -aldi baterako harrera zentroen kasuan nagusiki- ez da muga hori ezartzen, eta hortaz, bertan bizi diren bizikidetza-unitate guzti-guztiek dute prestazioa jasotzeko eskubidea⁵¹.

Bi ñabardura hauek argitzeak badu bere garrantzia, izan ere aurrerago ikusiko dugun bezala landa-ikerketan elkarriketatuko diren pertsonen artean zenbaitzuk egoera hauexetan egongo baitira. Zenbait kasutan prestazioa jasotzeko ezintasuna izango dute pisua beste pertsona batzuekin konpartitzen dutenetan, eta beste batzuetan berriz, hirugarren sektoreak -GKEak, Fundazioak- eskainitako bizitokietan bizi direnetan, ez die muga honek eragingo.

DBEren onuradun izateko baldintzak prestazioa jaio zenetik aldatuz joan diren arren, funtsean elementu berdinen inguruan definitzen dira eskubidea izateko betekizunak, eta horien artean bai bizikidetza-unitateak, eta baita etxebizitzak ere pisu esanguratsua dute. Baldintza nagusien artean, hurrengoak zerrendaratuko ditugu:

⁵⁰ 2011 eta 2012rako LGS 748,30 eurokoa da (hilerokoa, urteroko 12 ordainketa), eta 2012rako DBEren kantitateak, %7ko murrizketa aplikatu ostean, 612,41€, 786,39 € eta 869,90€koak dira, bizikidetza unitatearen arabera, eta 696,85€, 869,90€ eta 939,49€ pentsiodunen kasuan, baita ere bizikidetza unitatearen kide kopuruaren arabera.

⁵¹ Dekretuaren 6.2 artikuluan ezarritako kasu zehatzetan.

- Prestazioaren eskaera aurkeztu baino urtebete lehenagotik gutxienez, bizikidetzaren unitate bat osatzea. Beste batzuen artean, pentsiodunak eta tratatu txarren biktimak betekizun honetatik salbuesita daude.
- Benetako bizilekua EAEn eduki beharra dago eta bertan erroldatuta egon, azken 3 urtetan etenik gabe⁵².
- 23 urte baino gehiago edukitzea, salbuespenak salbuespen⁵³
- Baliabide ekonomiko gutxiegitasuna egiaztatu beharra dago. Zehazki, hileko diru-sarrerak ezin dute bizikidetzaren unitatearen arabera dagokion DBEren hileko zenbatekoa gainditu. Lan erretegi dagokionez, prestazioa bateraezina da lanaldi-murriztuarekin, nork bere borondatez hartua ez denean izan ezik. Ondarearen gainean ere muga zehatzak ezartzen ditu legeak, azken erreformekin gainera zorrotz egin direnak⁵⁴.
- *Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena eman eta Gizarteratze Aktiborako Akordio* bat sinatu beharra dago.

Betebehar nagusiekin ari garela, esan beharra dago denborarekin aplikatu diren aldaketak baldintza hauek zorrotz joan direla, eta erreforma desberdinen ondorioz, zenbait pertsona eta kolektibo jakinentzat -etorkinak, besteak beste- onuradun izatea zailago bilakatu dela. Ildo honetatik, goian aipatutako baldintzetako batzuk 2011ko azaroko erreformak ezarri zituenak dira.

Aldaketa horien aurka agertu dira zenbait kolektibo, sindikatu eta alderdi politiko eta beste hainbat mobilizazioaren artean, dokumentu bateratua ere argitaratu zuten. (Hainbat Autore 2011). Idatzi honetan gaitzesten diren erreformaren hiru ardatz nagusiak izendatzea komeni zaigu, aldaketa hauek piztu zuten polemika hobeto ulertu nahi bada.

⁵² 2008ko dekretua aldatu zen arte, epe hau urtebetekoa zen. Hiru urteko baldintza hori betetzen ez bada, eskaera aurkeztutako datatik gutxienez urtebeteko errolda onartuko da, 5 urteko lan-jarduera ordaindua froga badaiteke. Pentsio publikoa jasotzen duten pertsonak edo genero-indarkeria jasan dutenak izango dira salbuespena, eta urtebeteko errolda izatearen baldintza soilik bete beharko dute.

⁵³ 2000 urteko Gizarte Eskubideen Gutunaren onarpena ekarri zuen Herri Ekimen Legearen bultzatzaileak, muga gisa adin nagusitasuna zuten helburu.

⁵⁴ Ohiko bizilekua den etxeaz gain (etxea, garajea eta trastelekua) edo lan-jarduera garatzeko erabiltzen den higiezinaz gain, beste jabetzarik ez edukitzea (salbuespenak salbuespen).

2. Kapitulu

Lehenik eta behin, murrizketa eta eraso gogor gisa antzematen da urte batetik hiru urterako errolda-eparen luzapena. SOS arrazakeriaren arabera, gizarteko kolektibo jakin batzuk prestazioaren esparrutik at geratzen baitira automatikoki: etorkin heldu berriak eta paperak erregularizatuta ez dauzkatena besteak beste.

Bigarren osagai gisa, prestazioa lan munduko insertzioarekin are gehiago lotzeko legeak emandako bira behatzen da. Batetik *Lanbide* bere gain hartzen dituen eskuduntzengatik; bigarrenik erakunde honekin sinatu beharreko hitzarmenarengatik eta bestetik, *egokia* den enplegu aukera bat errefusatzea prestazioa galtzeko motibo bihurtzen delako.

Hirugarren eta azken elementu gisa, erreformak duen kutsu atzerakoia salatzen da. Iruzuraren aurkako borroka aitzakia gisa jarritz, baldintzen zorrozteek pobrezia kriminalizatu baino ez dutela egiten balioesten dute dokumentuaren sinatzaileek, «etengabeko iruzurraren susmopean jartzen baitu gizarte prestazioren bat jasotzea»⁵⁵.

Gizarteratze Aktiborako Hitzarmena

GAHrekin erlazionatuta dagoen azken baldintza hau, DBEren hezurdura osatzen duen hirugarren ardatza dugu. Elementu hau 2011 urte bukaeran Eusko Jaurlaritzak aurrera atera zuen lege erreformarekin bereziki lotuta dago. Hitz gutxitan, ordura arte hiru administrazio maila ezberdinen artean bideratzen zen lana eta DBEren gestio osoa *Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren*⁵⁶ eskuetara bideratu da, bide batez GAHri⁵⁷ zentraltasun handiagoa emanaz.

⁵⁵ Beste askoren artean, ELA, LAB, CCOO, UGT Euskadi, ESK, CNT, CGT eta STEE-EILAS sindikatuak, Aralar, Alternatiba, Izquierda Unida, EQUO Bizkaia ...alderdi politikoak, eta elkarteen artean, La Posada de los Abrazos, SOS arrazakeria, Harresiak apurtuz...

⁵⁶ Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, Eusko Jaurlaritza. 2011ko Urtarrilaren 1etik aurrera, Enplegurako Politika Aktiboen gaineko eskumena EAera eskualdatu zen, 1978ko Estatututik transferitzeke zegoena. 4/2011 Legearen zioen azalpenean, horrela zehazten da DBEren kudeaketaren transferentzia: «Eusko Jaurlaritzak, bereziki *Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren* bitartez, eskumenak eskuratuko ditu zuzenbidezko prestazio ekonomikoak, hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria, tramitatzeko eta ebazteko; eskumenak, baita, GAHk egiteko, proposatzeko, negoziatzeko, harpidetzeko eta horien jarraipena egiteko».

⁵⁷ 4/2011 Legean, 65.2 artikulukoaren berridazketan: «Gizarteratze aktiborako hitzarmenak dira dokumentu batzuk zeinek diseinatzen baitute gizarteratze-prozesu edo ibilbide pertsonalizatu bat, titularrare edo, hala badagokio, haren bizikidetzaren unitateko beste kide batzuen beharrianetara egokitua, eta zeinek eragiten baitie parte hartzaileei konpromiso bat obligazioak dakartzana».

Hitzarmen honen bitartez onuradunek lan-merkatura txertatzeko prestutasun osoa dutelako konpromisoa sinatzen dute. Lanerako prest egoteak «barne hartzen du etengabe izena emanda egotea enplegu-eskatzaille gisa», eta legearen arabera *egokia* den enplegu bati uko ez egitea. Horretaz gain, egoerak hala eskatzen duenean, GAHren titularrek lan sozialetan jarduteko prest egon behar dute. Betekizun honek bete-betean jotzen du Raventosen *existentziarako eskubidearen* aurka.

Enplegu eta Gizarte gaietako Saitetik azpimarratu izan da eraldaketa honen helburua, «enplegua gizarteratzearen osagai bihurtzea» dela. Gainera, prestazioaren kudeaketa erakunde bakar baten esku uzteak, sistemari ekar diezazkiokeen efizientzia eta kontrol abantailez profitatu nahi da. 4/2011 Legeak, era berean, onuradunen gaineko kontrol neurriak eta jarraipen neurriak zorrotz egiten ditu, besteen artean, berrikuspen epeak intentsifikatu egiten dira.

Erreformaren alderdi hau bereziki salatu dute gizarte eta sindikatu mugimenduek, alde batetik GAHri ematen dion protagonismo horrek, prestazioaren berezko izatea urratzen duelako, eta bestetik, eskuduntza transferentzia horrek berekin ekarri dituen kudeaketa arazoak direla eta⁵⁸. Besteak beste, *Lanbideri* egotzitako irregulartasunen artean, prestazioen ebazpenean 8-10 hilabete arteko atzerapenak ohartarazi dituzte.

2.2.2. Prestazioaren beste zenbait elementu

DBEren funtzionamenduaren berrikusketari itxiera emateko, beste bi elementu garrantzitsu nabarmendu nahi dira: beronen bi modalitateak eta etxebizitza gastuei aurre egiteko laguntza osagarria.

Hasteko, DBEren baitan finkatzen diren prestazioaren bi modalitate espezifikoak aipatu nahi dira, prestazioaren erregulazioaren elementu berritzaileetako bat biltzen dutelako (Dekretuaren 4. Artikulua).

Gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako Oinarrizko errenta, laneko errentetatik

⁵⁸ Argilan, Asamblea Abierta en Defensa de las Prestaciones Sociales, Ikusezinen Asanblada, Berri-Otxoak, Euskadiko Gazteriarren Kontseilua, Danok Lan, Elkartzen, Munduko Emakumean, Posada de los Abrazos, SOS Arrazakeria, ELA, LAB...

2. Kapituluia

eratorritako baliabide ekonomiko propioak ez dituztenei zuzenduta dago, prestazioaren zenbatekora iristen ez diren diru-sarrerak jasotzen ez dituzten pertsoneri eta bizikidetzak unitateei, alegia.

Bestetik, *Laneko diru-sarrerak osatzeko errenta*, laneko errentak izan, badituztenei bideratuta daude, betiere hileroko diru-sarrerak prestazioaren zenbatekoa gainditzen ez dutenean. Kasu hauetarako enplegurako pizgarriak aurreikusten dira. Hala, epealdi mugatu batean zehar, lan errenten portzentaje bat DBE eskuratu ahal izateko egiten den baliabideen zenbaketatik at geratzen da. Hau da, lan errenten zati bat DBE jasotzearekin bateragarria da, guztirako diru-sarrerak prestazioa jasotzeko eduki daitezkeen baliabide maximoak gainditzen dituzten arren. Pizgarrion iraupena 24 hilabetera mugatzen du 147/2010 dekretuak, eta kasuaren arabera, *Lanbidek* hala permititzen duenetan, beste 12 hilabetez luza daiteke epe hau.

Pizgarrion iraupena mugatzea, mugimendu sozial eta sindikatu ezberdinek behin baino gehiagotan salatu duten beste elementu bat da. Izan ere, bide honetatik DBEren onuradun diren eta aldi berean lanean diharduten pertsonen prekaritate egoera betikotzeko arriskua areagotzen baita. Horrela, pertsona hauen lan egoera prekarioak dirauen bitartean, une jakin batean lanerako pizgarriak etetearekin batera, DBEren onuradun izateko eskubide gal dezaketelako.

Bigarren osagai adierazgarri gisa, Etxebizitza Gastuetarako Prestazio Osagarria (EPO) daukagu. Prestazio hau pintzelada gutxitan aurkeztu ahal izateko beste behin ere dekretura jo beharra dago. Izan ere, dekretuan markatutako helburua iritsi ahal izateko, *Gizarterako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema* jartzen da indarrean. Sistema honi funtsezko bi elementu esleitzen dizkio araudiak: prestazio ekonomikoak batetik, eta gizarteratzera eta laneratzera bideratutako tresnak, bestetik.

Prestazio ekonomikoen barruan, DBEaz gain Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria⁵⁹ (EPO) aurreikusten da. Funtsezkoa da bigarren prestazio osagarri honen garrantzia azpimarratzea, etxebizitza gastuek familien gastu totaletan izan ohi duten berebiziko pisua aintzat hartuta. Izaera subjektiboa esleitzen zaio EPOari ere, eta halaxe

⁵⁹ 2/2010 Dekretuak garatzen du Etxebizitza Gastuetarako Prestazio osagarri hau. Onuradunak baldintzak betetzen dituen kasuetan, prestazio osagarri honek ohiko DBE konplementatzen du.

definitzen du dekretuak bere bigarren artikuluan: «prestazio ekonomikoa, aldizkakoa, eta DBE... otsatzeko eratu da, prestazio horien titularren ohiko etxebizitza edo bitokiarekin zerikusia duten premiei aurre egiteko helburuz...»⁶⁰.

18/2008 Legea da izaera subjektibo hau ematen diona. Era horretan, ordura arte *Gizarte Larrialditarako Laguntzen* baitan murgilduta zegoen laguntza asistentzial bati, subjektibotasun izaera horrek berarekin dakarren sendotasun hori atxikitzen zaio. Prestazio honen bitartez, «biztanleriaren talde zaugarrienetako bati etxebizitzarekin loturiko gastuei aurre egitea» ahalbidetu nahi da.

Labur esanda, EPOren onuradun izateko betebeharren artean DBEren titular izateaz gain, alokairu-gastuei aurre egiteko premian egon beharra dago, eta salbuespenak salbuespen etxebizitza alokatzeko eskatzaile gisa *Etxebide* zerbitzuan erregistratuta egotea derrigorrezkoa da. Ideia bat egitearren, 250 eurokoa da EPOren hileroko zenbateko orokorra. Baldintza oso jakin batzuk betetzen direnean soilik 320 eurora iritsi daiteke, bere kargura bi seme-alaba edo gehiago dituzten bizikidetzaren unitateen kasuan, esate baterako.

2.3) Inguruko testuingurura ikusmira irekiz

Aztergai dugun DBE politika eremu zabalago batean kokatu ahal izateko, nahitaezkoa da Europako testuingurura gerturatzea. Maila akademikoan Hiritartasun Oinarrizko Errentaren (HOE) inguruko literatura eta eztabaida bizia da, eta mugimendu sozialen esparruan ere pil-pilean dagoen gaia da.

Aipatua dugu dagoeneko BIEN erakundea (*Basic Income Earth Network*); 1986 urtean Europa mailan sortutako elkartearen jatorria (*Basic Income European Network*)⁶¹ eta 2004tik mundu mailan jarduten du. Nazioarteko sare honek HOEren inguruan interesa duten pertsona eta talde sozialen arteko zubi lana egiten du, eta gaiarekin lotutako eztabaida eta argitalpenak hedatzen ditu munduan zehar. Besteak beste, *Basic Income Studies* aldizkari akademikoa bultzatzen dute eta bi urtero Kongresu bat antolatzen da.

⁶⁰ 2/2010 Dekretuan, 2. Artikulua.

⁶¹ Argibide gehiagorako, kontsultatu sarearen web orrialdea, <http://www.basicincome.org/bien/>

2. Kapitulu

Kideen artean, akademia munduko pertsonak, ikerlariak, ikasleak eta gizarte mugimenduetan murgilduta dauden pertsona eta taldeak aurki daitezke, afiliazio politiko eta diziplina desberdinetan jatorria dutenak. Beste askoren artean, Claus Offe, Guy Standing, Philippe Van Parijs, David Casassas eta Yannick Vanderborght nabarmendu genitzake⁶². Den denak adituak dira gai honen inguruan, nazioarte mailan sona handia dute, eta nola ez, kapitulu honetan burututako literatura berrikuspenaren parte izan dira.

Honetaz gain, interesgarria da Europako beste zenbait herrialdetan indarrean dauden Gizarteratzeko Gutxieneko Errentei (GGE) begiratu bat botatzea. Horretarako baliagarria da oso, Busilacchik (2008) burututako lan konparatiboa aztertzea. Italiar ekonomialariak, Europako Batasunean martxan dauden GGE erregimen ezberdinak aztertu eta alderatu ditu, haien artean antzeman litekeen eredu sorta identifikatu asmoz⁶³.

Herrialde hauetako bakoitzak konbinatzen dituen ongizate-erregimen eta gizarte-politika sareak oso ezberdinak direna jakinik, konplexua da bakoitzak garatu izan dituen gutxieneko errenta politikak konparatzea. GGEez ari denean, diru-transferentzia batez ari da, *«onuradunak eta bere familiak oinarrizko beharrianak ase eta bizitza duina aurrera eraman ahal izateko behar duen zenbatekoa minimoaz»*, alegia (Bussilachi 2008).

GGEak aztertu ahal izateko unibertsaltasunaren printzipioa barneratu du Bussilachik, gizarte kolektibo jakinetara mugatzen diren politikak erabat baztertuz -erretiro-pentsioak, edota zenbait zerga-kenkari esaterako-. Hau da, hautakortasuna esparru ekonomikoan gertatzen denean baino ez du onartzen: gizarte politika jakin baten balizko onuradunak, maila batetik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona guztiak

⁶² Betiere HOEren inguruko gaiekin erlazionatuta, autore hauen lanen batzuk aipatzearen: *Justice fiscale, lutte contre la pauvreté et accès à l'autonomie*, (Van Parijs eta Vanderborght, 2010); *La Renta Básica, una medida eficaz para luchar contra la pobreza* (Van Parijs eta Vandreborght 2006); *The Precariat, The Dangerous Class* (Standing 2011) eta *La renta básica en al era de las grandes desigualdades* (Casassas 2011).

⁶³ Análisi horretan Grezia, Italia eta Hungaria kanpo uzten ditu, herrialdeok ez dutelako inolako gutxieneko errenta politikarik garatu. Era berean Norvegia barneratu du bere ikerketara, gai sozial eta ekonomikoan konparaketak egiterakoan herrialde honen berezitasunak kontutan hartzea interesgarria delakoan.

direnean, alegia. Kasu honetan, unibertsaltasun printzipioa ez da *erabatekoa*, HOEren defentsan aldarrikatzen den bezala. Horrek agerian uzten du indarrean dauden gutxieneko errenta politiken artean, gehien jota, unibertsaltasuna aplikatzen den kasuetan «hautakortasun ekonomikoaren» gerizpean izan ohi dela.

Europa mailan hauteman daitezkeen eredu ezberdinak identifikatu asmoz, Busilacchik bere lanean aztertutako ardatzeko bi laburbildu dira 4. taulan (atzealdean begiratu): errenta politiken zurruntasuna batetik –sarbide eta baldintza terminoetan neurtua- eta eskuzabaltasuna bestetik.

Bertan ikus daitekeenez, denen artean Erresuma Batua eta Finlandia dira eredurik mesedegarriena ordezkatzeko dutenak. Busilacchik «hiritartasun eredu» izendatzen duena da hauexek, errenten zenbateko altua eta sarbide baldintza leunak konbinatzen dituzten heinean. Eredu honetatik gehiegi urrundu gabe, Norvegia eta Suediako ereduak izango genuke. Zenbatekoaren maila zertxobait apalagoa izan arren, estaldura maila altua bermatzen da herrialde hauetan eta hortaz, eredu aski «inklusiboa» irudikatzen dute.

Estaldura maila altuko errenta programak dituzten herrialdeekin jarraituz, aurreko herrialdeek baino sarbide baldintza estuagoak ezartzen dituen herrialde sorta daukagu. Irlanda, Austriako zenbait *Land*, Malta, Txipre, Alemania eta Holandako kasuak lirateke, eta herrialdeon artean desberdintasunak nabarmenak diren arren, den-denek eredu «mesedegarria» garatu dutela adierazten dute Busilacchiren emaitzek.

Bestetik, Danimarka, Luxenburgo eta Belgikan ere errenta-politika eskuzabalak antzeman daitezke, baina kasu honetan, sarbide baldintza zurrunagoekin konbinatuta: zenbateko altuak bermatzen dira, baina derrigorrezkoa da gizarteratze-programa zorrotz bat jarraitzea. «Merezimenduen arabera ereduaren» aurrean gaude beraz, errenta programa mesedegarriak diren arren, onuradunei zenbait betebeharrak exijitzen zaizkielako.

4. Taula: Gizarteratzeko Gutxieneko Errentak Europan: Ereduen laburpena.

Zurruntasuna Eskuzabaltasuna	Zurruntasun baxua	Zurruntasun ertaina	Zurruntasun altua
Eskuzabaltasun baxua	-	Bulgaria, Lituania, Polonia.	Frantzia, Letonia.
Eskuzabaltasun ertaina	Norvegia, Suedia	Eslovakia, Estonia, Portugal, Txekiar Errepublika, Errumania eta Austriako zenbait <i>Land</i> .	Espainia, Eslovenia
Eskuzabaltasuna handia	Erresuma Batua, Finlandia	Irlanda, Austriako zenbait <i>Land</i> , Malta, Txipre, Alemania, Holanda	Danimarka, Luxenburgo, Belgika

Iturria: (Busilacchi 2008)-tik moldatuta.

Frantzia eta Letonia dira sailkapen honetan kokapen okerreka daukatena, errenta baxuko pertsonak eta familiak nolabait «zigortzen» dituzten neurrian: zenbatekoen maila apala izanik ere, errenta eskuratzeko baldintzak zurrunak dira.

Taularekin amaitzeko «hondar eredu» delakoa osatuko lukete Bulgaria, Lituania eta Poloniak, eta gainontzekoek «erdiko eredu». Espainiar estatuaren kasua aldiz, Esloveniarekin batera aztertzen du italiarrak, biak ala biak «eredu zurruna» delakoaren isla direla eta: onuradunek eskuratu duten zenbatekoa ez da altua eta sarbiderako baldintzak zurrunak dira. Puntu honetan, kontuan hartu behar da Espainiar estatuan, GGEen eskumena autonomia erkidegoen esku dagoela. Emaiza nahiko sinplista da beraz, hamazazpi erregimenen berezitasunak goiburuko bakarraren atzean ezkutatu direlako.

Honekin eta gutxieneko errenta politiken eskuzabaltasunekin lotuta, aztertutako Europako herrialde hauei eta Espainiako autonomia erkidego ezberdinei dagozkien zenbatekoak zifretan bistaratzea komeni da, desberdintasunak agerian uzteko.

5. **Taula: Gizarte-babes gastua Europako Batasunean.**

EBko herrialdeak	Seme-alabarik gabeko pertsona	Hiru seme-alabadun bikotea	Gizarte-babes gastua, biztanleko, erosahalmen parekotasunaren arabera	
			Euro/urteko	Zenbaki indizetan
Alemania	345	1243	8159	122
Belgika	644	1639	7933	119
Danimarka	1201	3524	9241	139
Erresuma B.	742	2095	7451	112
Errumania	28	83	1844	28
Eslovakia	157	357	3150	47
Eslovenia	205	534	4921	74
Espainia	Batazbestekoa: 500etik behera		5955	89
Finlandia	389	1390-1452	7891,4	118
Frantzia	441	1102	7947	119
Irlanda	805	1625	7926	119
Polonia	109	109	2762	41
Suedia	385	1388	8853	133
EB (27)			6667	100

Iturria: (Busilacchi 2008)-tik moldatuta.

4. taulatik abiatuta, Busilacchi ikertutako herrialde guztien artean aukeraketa bat egin da eta sintesi gisa aurkeztutako eredu bakoitzetik adibideren bat proposatzen da 5. taulan. Zenbatekoen arteko desberdintasunak nabarmenak dira; erregimen eskuzabalak dituzten herrialdeetan -Finlandia, Irlanda, Danimarka eta Belgika-, familia

2. Kapituluia

ugarien kasurako, zifrak 1300 eurotik gorakoak dira, eta Danimarkaren kasuan, 3500 euroak gainditzen dira. Beste muturrean, GGE maila umilagoa duten herrialdek ditugu. Horien artean, Poloniaren kasua begi-bistakoa da, gehienera ere hiru seme-alabadun familia batek 100 euro inguru jasotzen dituela kontuan hartuta.

Gerturatze bat egiteko datu baliagarriak dira, baina edozelan ere aintzat hartu behar da herrialde bakoitzak bizi-maila jakina duela, eta zenbateko hauen esanahia erlatiboa dela erabat. Taulako eskumako zutabeen, gizarte-babes gastuetan herrialde bakoitzak biztanleko bideratzen dituzten zenbatekoak aurkezten dira, erosahalmen parekotasuna kontuan hartuta eta zenbaki indizeetan adierazita. EBko batezbesteko indizea 100 izanik Finlandia, Frantzia, Irlanda, Alemania, Belgika, Danimarka eta Erresuma Batua dira gizarte-gastu maila altuenak eskaintzen dituzten herrialdeak. Kontrako muturrean, erreferentzia den indizetik gehien aldentzen diren herrialdeen artean, 50 zenbaki indizearen azpitik, Errumania, Eslovakia eta Polonia izango genituzke. Bestetik, ez dezagun ahaztu sarbide baldintzen aldagaiak ere pisu handia duela, eta adin, jatorri, bizitoki, eta lan egiteko prestutasunarekin lotuta onuradunei eska dakizkiekeen betebeharrak zorrotzak izan daitezkeela.

Espainiar estatuari dagokionez, gutxieneko errentak autonomia erkidegoen eskuduntza diren heinean, lurralde bakoitzak bere sistema propioa garatu du 90ko hamarkadaz geroztik eta orokorrean, EAEren kasuan bezala, frantziar ereduan inspiratuta daude. 6. taulan ikus daitekeen moduan, zenbatekoak EAE eta Nafarroan baino dezente baxuagoak dira gainontzeko erkidegoetan.

EAEren kasuan, gutxieneko zenbatekoa LGSren %88an ezarrita dagoen bitartean, Andaluzian LGSren %62an finkatuta dago -hileroko 397,67 euro-, eta Madril, Katalunia eta Gaztela eta Leonen %66an. Erkidego bakoitzak oinarri gisa indize ezberdinak hartu ditzake -LGS, Ondorio askotarako errenta adierazle publikoa e.a.- eta portzentaje desberdinak aplikatzen dizkio. Zenbatekoek gain, kontuan izan behar dira ere gutxieneko errenta jaso ahal izateko baldintzak zeintzuk diren. Zentzu honetan, EAE ez ezik gainontzeko komunitate autonomoetan, onuradunek 25 urte beteta izan behar dituzte, zenbait kasutan erroldatze epe luzeagoak eskatzen dira, eta prestazioaren iraupena mugatu egiten da -Andaluzia eta Errioxan, 6 hilabetez, eta Murtzia eta

Valentzian urtebete-.

6. Taula: Gutxieneko errenten zenbatekoak Espainiar estatuan

Gutxieneko errentak Espainiar estatuan (2011-2012)	
Andaluzia	397,67
EAE	612,41
Errioxa	372
Gaztela eta Leon	426
Katalunia	423
Madrilgo komunitatea	426
Nafarroa	641
Valentzia	385

Iturria: tokian-tokiko gobernuen web-orrietatik.

Frantziako kasuak ere arreta berezia merezi du. Hasteko, EAEko DBE politikak Frantziako RMIan dauka jatorria, eta azken urteotan burutu diren erreformek -Frantzian eta EAEn- antzerako joera izan dute. Zentzu honetan, aintzat hartu behar da herrialde jakin batek izan duen ibilbide historikoa *-path dependence-* eta bide horretan garatu duen ongizate-erregimen erdua. Bestetik, gutxieneko errenta politikak barneratu zireneko abagune jakinak ere badu zeresana (Busilacchi 2008).

Frantziako ongizate erregimena tradizio kontinentalaren erregimenen barruan kokatzen da. Belaunaldi eta klaseen arteko solidaritatea bideratzen duen egituraren oinarritzen da; lanetik eratorritako eskubide sortarekin konbinatuta, hiritartasuna bermatzen duten zenbait berme unibertsal ziurtatzen dira -hezkuntza, osasuna, ura, energia-. Eskubide hauen bermea, estatuaren esku-hartze sendoan eusten da, ideia errepublikanoetan oinarritua dago eta herrialde anglosaxoiarretan eta mediterraneotan baino indartsuagoa da (Zubiri 2009).

2. Kapituluia

RMIren jaiotza (1988an), beste zenbait neurriekin batera testuinguru jakin batean kokatu beharra dago. Ordura arteko politika publikoen mekanismo asistentzialak egoera iragankorrei aurre egiteko diseinatuta zeuden. Frantzia XX. mende bukaeran jazotako langabeziaren igoerak bazterkeriaren arazoa gizartearen sektore zabalagora hedatu zuen, hala, biztanleriaren zati geroz eta handiago bat -%10etik gora- sistema kontributibotik at utziz. Egoera horretan, garaiko gobernu sozialistek bultzatuta – Mitterrand, Jospin- kutsu sozialdemokrata zuten politikak bideratu ziren; RMI bera eta *Maladie Universelle*⁶⁴ neurri unibertsalistak besteak beste (Zubiri 2009).

2008ko erreformak aurreko beste prestazio batzuk desagerrarazi zituen Frantzia, RMI bera eta guraso bakarreko familiei zuzenduriko *Allocation de Parent Isolé*, besteak beste. Bere lekuan RSA -Revenu de Solidarité Active, Elkartasun Aktiborako Diru-sarrerak- sistema ezarri zen. RSAk pobrezia atalasea estali arteko diru-sarrerak bermatzen ditu, familia-unitatearen barruan eskubide kontributiborik ez duen kideren bat edota «langile pobrea» den norbait dagoenean. Hortaz, gizarte asistentziaren onuradun diren pertsonen zuzenduta dago, baina baita, lana izanik ere, pobrezia atalasea gainditzen ez duten haiengana. RMIrekin alderatuz, RSAren lanerako estimuluak are handiagoak dira, prestazioa eta lan-errenten arteko bateragarritasuna dela eta.

Era berean, ikusi dugun bezala, 2008ko erreformaz geroztik DBEk bi modalitate gordetzen ditu. Alde batetik, lan errentarik ez duten pertsonen zuzenduta, *Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta*. Bestetik, *Laneko diru-sarrerak osatzeko errenta*, laneko errentak dituzten baina hilean gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren zenbatekora iristen ez den diru-sarreraren maila duten pertsonen zuzendua.

DBEren dualizazio horrek daukan esanahiaz hausnartzen hasita, baliagarri gerta daiteke Frantziako erreformaren aurrean planteatu diren auziak gurera ekartzea. RSAren ezarpenak, hurrengo kezka piztu dio Paugam soziologoari: «gizarteko pobreenak, lan merkatuko sektorerik degradatuenetan» kokatzeko prozesuan izan dezakeen eragina

⁶⁴ Osasun-estaldura unibertsala.

(Paugam 2008). Izan ere, ekonomiaren sektore jakinetan gisa honetako lanpostuak mantentzea «zilegiago» izango da eta RSAren onuradunen artean ere, zenbait lanpostu baztertua onartuko ez delako. Testuinguru honetan, ekar dezagun gogora Robert Castel langilegoaren ordezkari erabiltzen zuen beste kontzeptu hau: *prekarietatea* (Castel 2007)⁶⁵, zeinak prekarietatearen instituzionalizaziori egiten dion erreferentzia.

XX. mende hasieran Georg Simmelek⁶⁶ adierazi zuen «pertsonek baten pobrezia estatusa» zehazten duena «gizartetik jasotzen duen laguntza publikoa» dela; asistentzia, alegia. Bestela esanda, Paugamen arabera, langile-sektoreari estatusa eman izan diona lan merkatuan betetzen duen aktibitatea izango litzateke, gizarteak oro har, baliagarri kontsideratuko duen aktibitatea.

Frantziako RMIren lehen urteetan zehar lanean ari zirenak onuradunen zati txiki bat baino ez ziren. Baina XX. mendearen bukaeran, RMIren onuradunen artean lan merkatuan sartu-irtenean ari diren pertsonen presentzia hazkorra egiaztatu dute, «asistentzia sozialean lanean diharduten erakundeek» (Paugam 2008). Simmelen definizioarekin erabat hautsiz, esan liteke «langabetu-asistituaren irudi tradizionala», eskuarki, figura berri batek ordezkatu duela. Langile-asistituaren irudiak, alegia.

RSA ezarri aurretik, RMIren onuradunen artean ere baziren merkatuko lana eta laguntza soziala tartekatzen zituzten pertsonak. Baina RSAren ezarpenak langile asistituaren estatusaren iraunkortasuna ekarri du, era honetan, gizarte laguntzak eduki zezakeen salbuespeneko izaera kolokan jarritz.

Bernard Gazierren arabera, gaur egun lan arloko politika aktiboen artean bi eredu daude aurrez aurre. Batetik beheranzko aktibazioa, zeinaren bitartez langileei soldata baxuagoak eta kualifikazio txikiagoko enpleguak onartzeko presioa egiten zaien. Berrero

⁶⁵ «Gaur egun, prekarietatea, instalatzen den heinean, garatu egiten da. Era horretan, lanaren antolaketan normaltzat jo genezakeen baldintza bilakatzen da, bere ezaugarri propioekin, eta bere berezko izate-erregimenarekin. Soldatapeko egoeraz (*condition salariale*) hitz egin dezakegun ere berean (soldatapeko gizartean, ezaugarri nagusi, enpleguak eskaitzen duen estatusa duelarik izanik), prekarietate-egoeraz (*condition précaire*) ere hitz egin beharko litzateke, hau ere, langilegoaren izateko berezko erregistroa den heinean. Prekarietate iraunkorra da, salbuespenezkotik, edota behin-behinekotik ezer ez duena. Prekarietate (*precarité*) izenarekin jaso genezake egoera hau, prekarietatearen lanaren antolakuntzan baita, berezko erregistro bilakatzen deneko egoera» (Castel 2007).

⁶⁶ «The poor person, sociologically speaking, is the individual who receives assistance because of the lack of means» (Simmel 1908).

2. Kapitulu

ere, prestazioaren onuradunen erantzukizunean jartzen da arreta. Bestetik, goranzko aktibazio eredu, langileen kualifikazioa eta lanaren kalitatea hobetzea bilatzen da, eta langile hauen goranzko ibilbidea da helburu (Gazier 2005).

Aurrez aurre dauden bi eredu hauen artean, herrialdez herrialde dagoen aniztasuna zabala da. Joera liberalenetik hasita, Erresuma Batuko *workfare* politikak daude mutur batean, eta bestean, eskuzabalago eta unibertsalagoak diren Danimarkako politikak, *flexiseguritatearen* ideian datzatenak (Zubiri 2009). Honen harira, Chantal Euzebyk, bi hauen erdigunean kokatzen du Frantziako Bermatutako Gutxieneko Errenta politiken aktibazio eredu:

«Frantzia eredu daniarrera gerturatzen da, prestazioen eskuzabaltasunari dagokionez, eta formazioaren alde egiten duen postura direla eta ... baina era berean, lan merkatuan aurrera eramaten ari den desarautze prozesuak ... *workfare* ingelesaren tankera handiago hartzen du ... eta lan prekarioaren hedatzea gizartean onargariagoa izan dadin bilatzen du» (Euzeby 2007).

Interesgarria da RSA gisako aktibazio politiken eta eredu liberalaren artean egin ohi den identifikazioaren inguruan Jon Bernat Zubirik egiten duen hurrengo irakurketa. Bere ustetan *lanaren errentabilizaziorako politikak* (RSA) eta korrante liberala bat datoz, era bakar eta eksklusiboan aplikatzen direnean soilik. Hots, haien helburua bestelako prestazio ekonomikoak osatzea izan ordez, berauek desagertu araztea denean, formazio eta enplegu politikekin batera, eta lan merkatuaren eta soldaten arauketan estatuak izan duen esku-hartzearekin amaitu nahi denean (Zubiri 2009).

Edozein kasutan, ikustear dago bizi dugun krisia dela eta etorkizun laburrean zein kutsutako erreformak eramango diren aurrera. Testuinguru honetan, EBren baitan burutzen ari diren egiturazko doikuntzetan fokatuta, hausnarketa interesgarria proposatzen da Foessa eta Caritas fundazioak 2012an argitaratutako *Exclusión y Desarrollo Social* txostenean (Foessa eta Caritas 2012).

Batetik, txostenak kontraesan itzela antzematen du Europa 2020 estrategiaren eta gaur egungo krisiari aurre egiteko martxan jarri diren neurrien artean. Desoreka honek agerian uzten du EBak egoera berrien aurrean bere politikak moldatzeko erakutsi duen

malgutasun eza.

2011ko ekainean sinatutako Europa Plus ituna, 1997ko Egonkortasun eta Hazkunde Itunaz haratago doa. Zor nazionalari aurre egiteko desoreka fiskalak era zorrotzean kontrolatzera bideratuta dago ituna. Defizitaren murrizketak bermatu ahal izateko, aurrekontu publikoak eta gizarte babes sistemak ahultzera bideratuta dauden politika ekonomikoak bultzatzen ari dira. EUROSTATEko datuek erakusten duenez, Gizarte Babeserako Politikek 35 milioi pertsona baino gehiago ateratzen dituzte pobrezia eta bazterkeria egoeratik Europako Batasuneko eremuan. Zentzu honetan, Europako Kontseiluak Espainiar estatuari gomendatu dion defizitaren 70.000 milioi euroko murrizketak –BPGren %7aren parekoa-, ordainean gastuaren doikuntza dakar berekin. Hala izatekotan, pobrezian dagoen biztanleria urtero milioi erdi pertsonan igoko dela aurreikus daiteke (Foessa eta Caritas 2012).

Aurreko belaunaldietako doikuntza politikekin alderatuz, gaur egungo murrizketen berritasuna soldaten aldetik datorrela azaltzen du txostenak. Soldata baxuko enplegu poltsa handi bat sortzen ari da eta horren ondorio zuzena, enplegu bat izan arren pobrezia egoeratik irten ezinean dagoen biztanleria sektore baten metaketa da.

Euro Plus itunak onartu egiten du haur eskolen prezioa altuek bultzatutako lan aktibitate ezak edota partzialtasunak eragina izan dezakeela haurren pobrezian. Era berean, aldizkako enpleguak eta langabezia tartekatzeak, enplegu bat dutenen artean pobrezia tasa altuak dakartzala adierazten du. Aitzitik, ez du inolaz ere aintzat hartzen arazoa, enplegu horietan ordaintzen diren soldata baxuetan egon daitekeenik.

Hori bera ematen dute aditzera INEko datuek, izan ere 2010eko *Bizi Baldintzen Inkestak* erakutsi duenez 2007-2010 urte bitartean %9an erori da Espainiar estatuan pertsonako errenta erabilgarria termino errealean. Bi joera nagusik egin dute bat emaitza honetara iristeko; batetik errenta nominalaren beherakadak eta bestetik prezio mailaren igoerak.

Are gehiago, *Biztanleria Aktiboaren Inkestari* erreparatzen badiogu ohartuko gara *mileuristek* langile sektorearen artean duten presentzia ez dela batere baztergarria. Euskadi eta Nafarroan, lanean ari direnen artean %21 inguruk 1218 eurotik beherako

2. Kapituluia

soldata jasotzen dute trukean. Espainiar estaturako batzbesteko emaitza kezkarria da, portzentaje hau %30era iristen delako (INE 2011).

Soldaten bidetiko doikuntza honi langabeziaren gorakada gehitzen badiogu, oraindik nabarmenago geratzen da enpleguak pobrezia egoerak saihesteko duen gaitasun eza. 2012 urte amaierako datuek %16,8ko langabezia tasa zenbatu da Hego Euskal Herrirako, EBko %10,7a luze gaindituz. Espainiar estaturako emaitzak, beste behin ere, nabarmen okerragoak dira. Langabezia tasak %25eko gailurra jo eta %26,2raino iritsi da 2012 urte bukaeran. Tasa honen hazkundera bera ere, Europakoa baino biziagoa izan da; Europako langabezia 0,8 puntuan igo den bitartean, Espainiar estatuan 2,9 puntuko gorakada izan du urtebetean. Datu guzti hauekin batera, ELA sindikatuak doikuntza politikek eta lan erreformak guzti honetan izan duten eragina salatzen du 2012ko abenduko buletinean (ELA 2012).

Honenbestez, atalari itxiera emateko hasiera-hasieratik heldu diogun kontu bat berreskuratuko dugu. Kapituluia abiatzearekin batera garbi utzi da HOE politiken eta GGEren arteko ezberdintasun nabarmenetako bat, lan merkatuari eta enpleguari atxikitzen zaion funtzioan dagoela. Izan ere, EAEko Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) politikak GGE programen barruan sartzen baitira zalantzarik gabe, prestazioa jasotzeko eskubidea lan merkatuan txertatzeko prestutasunari lotzen zaion heinean. Hemendik berehala ondoriozta daiteke, beraz, DBE politikek ez dutela HOEren definizio hertsia betetzen.

Frantzian RSA prestazioren baitan aurrera eramandako erreformak behatuta eta gurean, azken erreformak lanerako insertzioari eman dion zentraltasuna kontuan hartuta, badugu zer pentsatua. Soldata bidezko egiturazko doikuntza, soldata errearen beherakada eta langabeziaren gorakada izan ditugu mintzagai. Paugamek Frantziaren kasurako bataiatu duen *langile asistituaren* ideia testuinguru zabalago batera hedatu daiteke (Paugam 2008).

3. Kapitulua

Metodologia kualitatiboa ikerketa ekonomikoan

«Elkarrizketa egiteko ausardiaren eta konfesatzeko anbizioaren artean»

Manuel Vazquez Montalban⁶⁷

«... sakoneko elkarrizketak ezin dira ulertu elkarrizketa etnografikoen eredu aintzat hartu gabe, ezta elkarrizketa biografikoak kontuan hartu gabe ere. Ezin dira ulertu, kazetaritzaren berezko egiteko modu batzuetan erreparatu gabe ...»

(Valles 2003)

Elkarrizketa kualitatiboa, ikerketarako metodologia gisa, hainbat diziplinetatik edan duen eta elikatzen den teknika da: psikologia, antropologia, etnografia, kazetaritza eta filosofiatik edaten du besteak beste. Bere aurrekarien artean, elkarrizketa terapeutikoa (Ernest Dichter eta Carl Rogers) eta elkarrizketa fokatua (Robert K. Merton eta Patricia Kendall) aipatu litezke. Etnografiaren kasuan gertatu zen bezala, ikerketa kualitatiboaren inguruko hausnarketak ere testu eta monografikoetan sistematizatu ziren 90eko hamarkadan zehar. Carol A.B. Warrenek (Warren 2001), monografiko hauen artean, James A. Holstein eta Jaber F. Gubriumek *The Active Interview* (1995), Kvaleren *Interviews: An Introduction Qualitative Research Interviewing* (1996), eta Rubin-darren *Qualitative interviewing, the art of hearing data* (1995) aipatzen ditu besteak beste.

Ikerketa kualitatiboaren arautze prozesu hori ezinbestekoa da ikerketa metodo gisa kontsolidatu dadin. Steinar Kvaleren ustetan, «geroz eta hedatuago dago ... elkarrizketa kualitatiboaren erabilera», eta elkarrizketa kualitatibo hauek «zuzenbide propioa duen ikerketa metodo gisa», elkarrizketa bidez burututako ikerketa sistematikoari buruzko literatura metodologikoan oinarritzen dira (Kvale 1996).

Metodologiari eskainitako atal honetan, beste askoren artean autore horiexek landuko dira elkarrizketa kualitatiboaren muinera iritsi eta ikerketa teknika honen ezaugarri bereizgarriak, berezkoak eta berebizikoak aurkeztu ahal izateko. Zeregin honetan abiatu aurretik, ekar dezagun gogora Warrenen hurrengo aipua, ikerketa kualitatiboaren sistematizazioan hain garrantzitsu diren beste bi autoreen hitzak dotore biltzen dituen:

⁶⁷ Manuel Vazquez Montalban idazleak Juan Ramón Iborra-ren liburuaren prologoan idatzitakoa. Iborra, J.R. (2001), *Confesionario*, Ediciones B, Bartzelona.

3. Kapitulu

«Elkarrizketa kualitatiboa solasean oinarrituta dago (Kvale 1996), eta enfasia jartzen du elkarrizketatzaileak egiten dituen galderetan eta entzuteko jardueretan, eta bestetik, elkarrizketatuaren erantzunetan (Rubin eta Rubin 1995)» (Warren 2001).

Aipamen honetan bertan, ikerketa kualitatiboaren zenbait ezaugarri nagusi nabarmentzen dira, alde batetik, solasaren garrantzia, eta bestetik, elkarrizketatzaileak erantzunetan zentratzeko eta entzuteko agertzen duen jarrera.

3.1) Elkarrizketa kualitatiboaren ezaugarri nagusiak

Elkarrizketa kualitatiboaren izaera hobeto ezagutu ahal izateko, bere ezaugarri eta elementu bereizgarri nagusiak jorratuko dira atal honetan. Helburu horri ekiteko, hurrengo taulan ikerketa metodologia hau definitzen duten ezaugarrien aurkezpen laburra eskaintzen da (7. taula). Bertan jasotakoak, Steinar Kvaleren (Kvale 1996) lanean oinarritzen dira.

7. Taula: Ikerketa kualitatiboaren ezaugarriak

Ikerketa kualitatiboaren ezaugarriak
<u>Bizitako mundua (Life World)</u> Elkarrizketa kualitatiboaren muina, elkarrizketatuaren eguneroko bizitza eta subjektuak harekin duen harremana dira. «Bizitako mundua, eguneroko bizitzan topatzen dugun bizitza hori da, eta topatu dugun modu horrexetan, era zuzen eta berehalakoan ematen den esperientzia da, alde zuzeneko azalpenekiko independentea dena» (Kvale 1996).
<u>Esanahia</u> Subjektuaren bizipenen artean funtsezkoak diren gaien esanahia interpretatu ahal izatea da elkarrizketaren helburua. Elkarrizketatzaileak, elkarrizketatuak esandakoa jaso eta interpretatu egiten du, baita esateko modua ere. Hau da, ekintzen eta esanahiaren inguruan ikertu nahi da, bigarrena jasotzea zailagoa den arren. Lerro artean esandakoen eta mezu inplizituen garrantzia.
<u>Kualitatiboa</u> Elkarrizketak jakintza kualitatiboa bilatzen du, lengoia arruntaren bidez espresatzen den jakintza, eta ez dago kuantifikazio helbururik. Tresna kualitatiboekin ari garenean, elkarrizketetako «deskribapenaren zehaztasuna eta interpretazioaren esanahiaren zorrotasuna» (Kvale 1996), tresna kuantitatiboek eskaintzen duten «doitasunaren parekoak dira».

Metodologia kualitatiboa ikerketa ekonomikoan

<u>Deskriptiboa.</u> Elkarrizketaren asmoa subjektuen bizipenen artean aspektu desberdinen ñabardura eta deskribapen irekiak eskuratzea da. Aniztasun kualitatiboa definitzen duten ñabarduren deskribapenean zentratzen da, hau da, fenomeno jakin baten aldaera anizteta, eta ez aurrez zehaztutako kategorizazioetan.
<u>Espezifikotasuna</u> Egoera konkretuen deskribapenak eta akzioen ondorioak eskuratzen dira, ez iritzi orokorrak. Iritziak entzun eta jaso egiten dira, baina deskribapen zehatzen menpean, bigarren plano batean geratzen dira.
<u>Xalotasun deliberatua (<i>Deliberate Naïveté</i>)</u> Elkarrizketatzaileak, espero ez dituen edota berriak diren fenomenoekiko jarrera irekia erakusten du, eta albo batera utzi eskema edota kategoria zurrunik, eta aurre-suposizioak.
<u>Fokatua</u> Elkarrizketa topiko zehatzetan fokatuta dago, ez dago <i>zuzendu gabe</i> ezta galdera estandarizatuekin guztiz egituratuta ere.
<u>Anbiguitasuna</u> Elkarrizketatuaren adierazpenak anbiguoak izan daitezke, kontraesanak islatuz.
<u>Aldaketa</u> Elkarrizketaren prozedurak ezaguera berriak ekar ditzake, eta horregatik elkarrizketan zehar subjektuak gaiarekin lotutako deskribapen eta esanahiak alda ditzake.
<u>Sentiberatasuna</u> Elkarrizketatzaile ezberdinek adierazpen ezberdinak egin ditzakete gai beraren gainean, elkarrizketako gaiarekiko daukaten sentsibilitate eta ezagueraren arabera.
<u>Pertsonen arteko egoera</u> Eskuratutako jakintza, elkarrizketan zehar garatutako pertsonen arteko elkarrekintzaren bitartez lortzen da.
<u>Esperientzia positiboa</u> Ondo bideratuta dagoen elkarrizketa aparteko esperientzia izan daiteke elkarrizketatzailearentzat eta bere bizitza egoerarekin lotuta entendimendu berriak jaso ditzake.

Iturria: (Kvale 1996)-tik moldatuta.

Taulan bildutako ezaugarriak nolabait osatzeko, elkarrizketa kualitatiboak definitzen dituzten hiruzpalau elementu nabarmendu eta sakondu nahi dira hurrengo puntuetan, ikerketetarako metodologia honi izaera propioa ematen diotenak: sakontasuna, egunerokotasunarekin duten harremana, aitortzaren presentzia eta elkarrizketako partaideen jarrera aktiboa.

3.1.1. Sakontasuna

Elkarrizketa kualitatiboak informazio sakona bilatu ohi du, inkesta, elkarrizketa informal eta *focus group* teknikekin bilatu ohi den informazioa baino sakonagoa. Informazio hau, oso kontu pertsonalekin lotuta egon ohi da; norberari buruzko informazioa, bizitako esperientzia edota jakintza kulturalarekin esate baterako (Johnson 2002).

Horren harira, Carol A.B. Warren (Warren 2001) baieztatzen du ikerketa kualitatiboa metodologiaren egokitasuna, ikerketa gaiaren naturaren menpe dagoela. Hau da, ikasten ari garen gaiaren inguruan bilatzen ari garen informazioa erlatiboki eskasa bada, pentsa liteke inkesta edota *focus-group*ak metodologia egokiak direla. Aitzitik, gai sakonagoen gainean ikertu nahi denean, eta bilatzen den ezagutza emandakotzat hartzen denean, sakoneko elkarrizketa, hurbilketa biderik egokiena izan daiteke. Ikerketa-galderek bere baitan gatazkan ari diren emozioak gordetzen dituztenean, edota fenomeno beraren inguruan inplikaturik dauden pertsona eta talde desberdinek ikuspuntu anitz eta konplikatuek dituztenean, elkarrizketa kualitatiboa tresna egokiena izan daiteke (Warren 2001).

3.1.2. Egunerokotasuna, eguneroko solasak eta elkarrizketa kualitatiboa

«Eguneroko solasaldien eraldaketa eta hedapenak dira elkarrizketa kualitatiboak, baina ezberdintasun garrantzitsuak dituzte».

Herbert eta Irene Rubin (1995)

Zazpigarren taulan jasotako lehen ezaugarriak –*Life World*- ikerketa metodologia honek elkarrizketatuaren egunerokotasunarekin duen harremanari egiten dio erreferentzia. Sakoneko elkarrizketa, elkarrizketatuaren eguneroko bizitzan zentratzen da, eta orokorrean eraginkorrak eta erabilgarriak izan daitezkeen, intimitatearen gainean garatu eta eraikitzen dira.

Eguneroko elkarrizketan antza edota lagun minen arteko elkarrizketan antza hartu

dezaketen arren, ezberdintasunak nabarmenak dira. Sakoneko elkarrizketetan lortutako informazioa, helburu jakin baterako erabiliko den bitartean, lagun arteko elkarrizketetan ez dago bestelako helburu pragmatikorik. Hau da, elkarrizketa sakon batean, elkarrizketatzaileak informatzailearekin hitz egiten duenean, informazioa jasotzea du helburu (Johnson 2002).

Steinar Kvaleren ustetan ikerketa helburuekin egindako elkarrizketa kualitatiboek bi ezaugarri nagusi dituzte eguneroko solasaldietatik bereizten dituztenak⁶⁸ (Kvale 1996).

Metodologia aldetik, galderen formari dagokionez, metodologia jakin bat erabiltzen denaren kontzientzia sumatzen da. Eguneroko solasaldi inprobisatuetan arreta hizketaldiaren gaian zentratu ohi da, eta ez horrenbeste beronen helburu eta egituran - *methodological awareness of question forms*-. Elkarrizketa kualitatiboetan aitzitik, elkarrizketatzailea eta elkarrizketatuaren arteko elkarrekintzaren dinamikan zentratzen da, lehenengoak bigarrenak esaten duenaren gainean jarrera kritikoa duela ahaztu gabe.

Bestetik, ikerketarako elkarrizketetan botere asimetria egon ohi da: profesionalaren ardura da galdeketa egitea. Eguneroko solasaldiekin konparatuz -hauetan elkartrukea aldebikoa da- elkarrizketa kualitatiboetan aldebakarreko galdeketa egon ohi da, profesionalak subjektuari egiten diona.

Rubindarren ustetan, elkarrizketa kualitatiboak eguneroko solasaldien eraldaketa eta hedapena dira, baina ezberdintasun garrantzitsuak dituzte elkarren artean. Autore hauek, ezberdintasun hauen artean, entzutearen intentsitatea nabarmentzen dute, elkarrizketatzaileak elkarrizketatuak esaten duena entzutean jarri behar duen arreta markatzeko. Entzute arrunta gaindituz, elkarrizketaren esanahia entzutera iritsi behar dela irizten dute. Era horretan, eguneroko solasaldietan atera daitekeen topiko-sorta baino eremu estuagoan sakondu daiteke eta detaileak eskuratu (Rubin eta Rubin 1995).

⁶⁸ Liburuan, elkarrizketa kualitatiboa, saio terapeutikoarekin ere alderatzen du Kvalek. Bai saio terapeutikoa eta baita ikerketarako elkarrizketa ere «entendimendu handiago batera eta aldaketara bideratuta egon daitezke, baina terapia saioak aldaketa pertsonalean du enfasia, eta eta ikerketa elkarrizketak, entendimendu intelektualean. Saio terapeutikoen helburua, pazienteari bere sufrimendua gainditzen laguntzea den arren, alboko efektua, giza kondizioaren/egoeraren gaineko jakintza orokorra da» (Kvale 1996).

3. Kapitula

Puntu honetan, komenigarria da sakontasuna eta egunerokotasunaren ezaugarri biak lotzen dituen hurrengo aipamenean erreparatzea:

«Elkarrizketa, solasaldiaren antzekoa da, baina ez da solasaldia. Elkarrizketak, informala eta desjosia izan behar du, solasaldiak bezala, baina elkarrizketan, beste pertsona da hitz egiten duena. Zeu zara entzuten ari dena. Zure ezagutzak eta ahotsak, bigarren maila batean geratu behar dute, gehienbat, sostengua eta animoak luzatzeko. Elkarrizketaren bidez detaile handiagoko galderak egiteko aukera dago ... modu propioa dauka, alde batetik sakontasun handiagoa permititzen duena eta bestetik, bistako denaren azalpena bera» (Atkinson 1998).

3.1.3. Aitortzaren presentzia

Zenbait autoreren ustetan aitortzak egunerokotasunean duen presentzia, eta hortaz, sakoneko elkarrizketetan duena, nabarmendu beharrekoa da (Ibañez, Valles, Gubrium eta Holstein). Hots, *aitortza* egunerokotasunaren eremura ailegatu dela adierazi dute. Jesus Ibañezen hitzetan, «testuinguru laiko batean, aitortza errito judizialeetatik teknika zientifikoetara pasatzen da: pedagogia eta medikuntza inbaditzen ditu, baina baita egunerokotasuna ere» (Ibañez 1979). Autore berak iradokitzen du, delituak, bekatuak, pentsamenduak, desioak, iragana, haurtzaroa, miseria e.a. publikoki nahiz era pribatuan konfesatu egiten direla, nork bere buruari aitortu ezin dakizkiokeenak.

Aitortza eguneroko solasaldietara hedatu den heinean, eta elkarrizketa kualitatiboa egunerokotasunean zentratzen den neurrian, aitortza elkarrizketa kualitatiboetara bertara ailegatu da:

«Elkarrizketaren ezaugarri konfesionalak, norbanakoaren subjektibotasuna eraikitzeaz gainera, subjektuen *esperientzia-egiak* sakontzen ditu. Ez dugu honezkero kosmosera jotzen, ez jainkoengana ... ez apaizengana ... egiatzko ezagutzaren bila ... Benetakotasuna sakoneko elkarrizketen bitartez bilatu ohi dugu» (Gubrium eta Holstein 2002).

Hau da, sakoneko elkarrizketen itxura hartuz, aitortza ikerketa sozialerako teknika bilakatu da. Psikoanalisi saioa litzateke bere berehalako aurrekaria, gerora Robert

Mertonek barneratutako fokatutako elkarrizketen bitartez⁶⁹, eta Ernest Dichteren eskutik hedatu zen, elkarrizketa terapeutikoaren itxuran⁷⁰. Baina bi teknika berezitan banatu zen berehala, sakoneko elkarrizketa eta eztabaida taldeetan *-focus group-* hain zuzen ere (Ibañez 1979).

3.1.4. Jarrera aktiboa

Autore ugari hausnartzen dute elkarrizketa kualitatiboetan elkarrizketatzaileak jokatu behar duen rol aktiboaz (Warren, Kvale, Pujadas, Holstein eta Gobrium). Holstein eta Gobriumek ekarpen nagusia, elkarrizketa kualitatiboekiko duten berezko ikuspegi epistemologikoa da. Elkarrizketa prozesuaren berkontzeptualizazioa egiten dute, horretarako elkarrizketatu eta elkarrizketatzailearen arteko hurbilketa aktibo bat proposatuz. Elkarrizketatua ez da iritzi eta informazio gordailu soila, ezta emozioen iturburu soila ere: elkarrizketatzailea subjektu aktibo eta aktibagarri baten aurrean dago, aurrez definituta ez dagoen subjektuaren aurrean (Holstein eta Gobrium 1995).

Elkarrizketa aurrera doan heinean, elkarrizketatzailea eta elkarrizketatua, etengabeko garapenean murgilduta dauden subjektuak dira. Zentzun honetan, jarrera aktibo honen alde bikotasunari egiten dio erreferentzia Joan J. Pujadasek (Pujadas 1992), jarrera aktiboa eta ez-neutrala bere gain hartuz, elkarrizketatzaileak ere subjektuarekin eta egoerarekin berarekin inplikatu behar duela esaten duenean. Galdetegia salbatzeaz gain, etika profesionalak exijitzen duen elkarrekotasunari sor zaio. Osterantzean,

⁶⁹ Robert K. Merton soziologo EEBBarrari eta Patricia Kendall-i sor diogu, *focused interview* terminoaren erabilera, 1946an izen berarekin publikatutako artikuluekin kointzidituz. Ikerketa kualitatiboaren aitzindari kontsideratu daitekeen honek, egoera bertsua bizi izan duten pertsonen bizipen subjektiboa du aztergai, eta ikertzaileek aztertzen duten esperientzia hori, aurretik ikasi eta aztertu egiten dute. Hau da, gertaera zehatz baten aurrean, elkarrizketatuek izan dituzten erreakzioen iturri emozionalak eta kognitiboak bilatzen ditu. Merton, R.K. eta Kendall P. (1946), *The focused interview*, *American Journal of Sociology*, 51, 541-547 orr.

⁷⁰ Ernest Dichter eta Carl Rogersek, elkarrizketa terapeutikotik abiatuta, elkarrizketa kualitatiboaren aurrekari izan diren metodologiak aplikatu zituzten haien ikerketetan. Hain zuzen, elkarrizketa terapeutiko irekiaren aitzindari kontsidera daiteke Rogers, Freuden psikoanalisiaren oinarrituta. Kvaleren ustetan, Rogersen lana, inspirazioa iturria izan da ikerketa helburua duten elkarrizketa kualitatiboaren garapenerako. Grabaketa eta saio osoaren transkripzioan ere izan zen aitzindari, era horretan saioen baitako elkarrekintza terapeutikoa eta galdeketa teknikak azterketa publikoaren eskura utziz. Dichter berriz, Rogersen jarraitzaile izandakoa, elkarrizketez baliatu zen kontsumoa ikertzeko, betiere ikuspuntu psikoanalitiko batetik. Dichter, E. (1960), *The strategy of desire*, New York, Doubleday.

«prozesuaren bi aldean arteko feedback harmoniatsu eta positiboaren ezean, azken emaitza on bat iragarri ahal izatea zaila» baita (Pujadas 1992).

3.1.5. Elkarrizketa kualitatiboen sailkapena

Estandarizazio mailaren arabera, egituraren araberako sailkapen paralelo bi aurkezten dira 8. taulan. Bestalde, Angel Olazek elkarrizketak klasifikatzeko bestelako moduak proposatzen ditu. Elkarrizketa egiteko moduaren arabera, ahozkoa, idatzizkoa, edota auto-administratua izan liteke, eta parte-hartzaileen arabera, banakakoak edota taldeko elkarrizketak izango genituzke (Olaz 2008), (Mayntz 1975).

Taulan jasotakoak sinplifikatu asmoz, esan genezake elkarrizketa kualitatiboen zakuan bi adar nagusi desberdindu daitezkeela. Alde batetik, forma estandarizatua dutenak izango genituzke, irekita egon daitezkeen arren, nolabaiteko egitura bat erakusten dutenak. Bestetik forma estandarizatua ez dutenak dauzkagu: hauetan ez dago aurrez ezarritako galdera-sorta irekirik ez, estandarizazioa ez baita helburu (Valles 1997), (Denzin 1970).

8. Taula: Elkarrizketa kualitatiboen sailkapena

Mayntz, Olaz	Gorden, Richardson...
Galdetegi egituratu bidezkoak	Estandarizatu programatuak
<p>Norman K. Denzinek (1970:122-143) kolokan jartzen du elkarrizketa mota hauen izaera estandarizaturik, hurrengo irizpideak beti betetzen ez direlako:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elkarrizketa guztiek estimulu berbera jaso behar dute - Galderen esanahiak berdina izan behar du guztientzat - Galderon ordenak berdina izan behar du, pareko testuingurua sortzeko. 	
<p>Intentsiboak / Sakonekoak</p> <p>Elkarrizketatuak inprobisazio marjina txikiagoa edo hutsa dauka, galderak era zehatzean formulatuta daudelako, askotan, aukera askoren artean erantzun bat hautatzeko eskatuz. Era berean, erantzunak elkarren artean konparatzea erraztu egiten du.</p>	<p>Estandarizaturik, ez programaturik</p> <ul style="list-style-type: none"> - Estandarizaturik: elkarrizketa guztiak, informazio multzo berdinean fokaturik daude. - Ez programaturik: elkarrizketaren estiloa, galderen formulazioa eta ordena elkarrizketaren arabera moldaturik.
<p>Zuzendu gabekoak</p> <p>Zuzendu gabeko elkarrizketak erabilgarriak dira, aurre-arakatze pauso gisa, hau da, ikerketa gaia guztiz zehaztu aurretik lehen informazio arrastoak bilatzeko</p>	<p>Ez estandarizaturik. Raymond L. Gordenek bitan banatzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - elkarrizketa estandarizaturako prestatze-elkarrizketak, ez estandarizaturik: hurbilketa gisa egiten diren aurre-elkarrizketak. - elkarrizketa ez estandarizaturik independentea: ez da prestatze-elkarrizketa, ikerketa funtzio propioa dauka

Iturria: (Olaz 2008) eta (Valles 2003)-tik abiatuta, norberak eginda.

3.2) Positibismoari kritika eta izaera konstruktibista

Elkarrizketatua subjektu aktiboa deneko ezaugarriak bidea ematen digu elkarrizketa kualitatiboan metodologia positibismo kuantitatiboarekin aurrez aurre jartzeko. Izan ere, elkarrizketa kualitatiboak estandarizatutako elkarrizketen edota inkesten antza duen arren (metodo kuantitatiboak), ezberdintasun nabarmenak dauzkate. Hau da, «galdetegi estandarizatuetan ez bezala, ikerketa kualitatiboan epistemologiak, positibista baino, konstruktibistagoa izateko joera du» (Warren 2001). Elkarrizketatuaren jarrera aktiboaz ari da hain zuzen, eta esanahia eraikitzeke duten gaitasun eta funtzioaz.

Jakintza politikoki eta sozialki neutrala dela dute gogoan positibistek eta delako *jakintza* hau lortzeko bidea, hurbilketa zehatz eta aurredeterminatua jarraitzea litzatekeela (Rubin eta Rubin 1995). Ikerlari positibistek *egia* den ekintzen bertsio bakarra dagoela uste dute eta beraien ikuspuntutik «onartezina da ikerketa kualitatiboaren baitan hain garrantzitsua den ideia: errealitate ezberdinak egon daitezkeenaren ustea, hau da, parte-hartzaileek ekintzen gainean eraikitzeke dauzkaten modu ezberdinak» (Rubin eta Rubin 1995).

Bestetik, emaitzei dagokienez, elkarrizketa bidezko ikerketa kualitatiboaren helburua solasalditik interpretazioak eratortzea da, eta ez lege edota gertaerak ondorioztatzea ikerketa positibistetan izan ohi den moduan (Warren 2001).

Interpretazioaren ikerketa sozialaren (*interpretive social research*) ikuspuntuak ere, positibismoa gaindituz, baloreen garrantzia onartu eta ikasi egiten du. Horretaz gain arreta jartzen du giza bizitzaren konplexutasunean. Ikuspegi hau defendatzen duten autoreentzat garrantzitsua da gizabanakoak bere mundua ulertzeko duen modua aztertzea. «Denbora eta testuingurua garrantzitsuak dira eta bizitza soziala, etengabe aldakorra den zerbait bezala ikusia da» (Rubin eta Rubin 1995).

Atal honekin amaitzeko, esan beharra dago ikerlari kritikoek sarritan talde ahulenak ikertu ohi dituztela (Jim Thomas 1993). Era horretan, ikerketa kualitatibo kritikoak, hitza ematen die krimen biktimei, langile etorkinei, gutxiengo sozial eta politikoei, botererik ez duten pertsoneri ahotsa emanez. Landa-ikerketan ikusiko den bezala, kasu

honetan ere egunerokotasunean ahotsik ez duten pertsoneri, pertsona anonimoei emango zaie bizi.

3.3) Kritika feminista eta elkarrizketa feminista

Ikerlari kualitatiboen artean etnia, arraza, nazionalitatea, sexu-identitatea eta adina bezalako aldagaiak geroz eta arreta handiagoa jaso izan dute elkarrizketen inguruko literaturan. Baina guzti hauen artean genero aldagaiak berebiziko garrantzia bereganatu du, elkarrizketa kualitatiboen teorizazioan eta erabilera praktikoan gai transbertsala eta eztabaidagai bihurtu den arte (Benney, Hughes, eta Starr 1956), (Luff 1999).

Hau da, Chicagoko eskolaren hastapenetan ez zen generoaren esparruan arreta berezirik jartzen, elkarrizketatzailearen generoa ere datu ezezaguna izaten zen, edota ustez, gizonezkoa izaten zen. Ikerketa etnografikoetan, ikertzailea *edonor* izan zitekeen modu berean, elkarrizketa kualitatiboetan elkarrizketatzailea «generorik gabeko» subjektua zela jotzen zen (Warren 2001). Baina denborarekin, XX. mendean zehar generoa kontutan hartzen zuten joera anitz ernatu ziren, sarritan elkarren artean kontrajarri zitezkeenak: gizonezko elkarrizketatzailearen defendatzaileak (Cresse 1986), emakumezkoak elkarrizketatzeko emakumeak nahi zituztenak (Oakley 1981) edota edukazio oneko edozein elkarrizketatzailearen alde egiten zutenak (Palmer 1928).

Bestetik, korrante feministak bete-betan egiten du talka ikerketa kuantitatibo positibistarekin eta zentzu honetan bateragarriago da aurreko atalean aipatutako ikuspegi konstruktibista eta interpretatiboarekin.

Ikuspegi feministak ikertzen duenaren ondorioak hedatu egin ditu ikerketa egiteko metodoetara, honela, ikuspegi positibista indarrrik gabe uzten duten ikerketa eredu propioa garatuz. Eredu horretan arreta berezia jartzen zaie dominazio eta men egite egoerei eta positibismoa kritikatzeko orduan, hurbilketa honek duen kutsu menperatzaileari egiten zaio erreferentzia. Alegia, bai-ez moldeko galdetegiak nolabait ikerketa testuingurutik atera eta informazioa zenbaki-laburpenetara murrizteak,

3. Kapitula

ikerketa desgizartiatzen duela argudiatzen dute, eta zenbait gai sakon lantzeko, paradigma feministarekin bateragarriagoa den ikuspegi konstruktibista/interpretatiboa egokiago dela irizten dute (Rubin eta Rubin 1995).

Behin eta berriz ikerlari positibistak darabilen jarrera autoritarioa ekiditeko beharra azpimarratzen dute, eta berariaz berdintasunezkoa den jarrera batera pasatzeko ahaleginak egiten dituzte (Kvale, Warren, Rubin eta Rubin).

Era horretan, feministek leunagoa eta atseginagoa den metodologia landu dute ikuspegi positibistari erantzun ahal izateko. Ikerlari kritikoek botererik ez zutenei ahotsa ematen dieten era berean (Thomas 1993), ikerlari feministek ere gizartean ahotsik ez dutenengan jartzen dute arreta, bai ikerlaria eta bai elkarrizketatua gizatiartzen dituen metodologia aplikatuz. Hots, «positibistek elkarrizketatuei nolabait botera kentzen bazieten, feministek apropos ematen diote jabekuntza elkarrizketatuari» (Rubin eta Rubin 1995).

Hartara, 1970ko hamarkadatik aurrera genero enpatiaren ikuspuntutik emakumezkoak adoretu nahi ziren beste emakumeak elkarrizketatzera, eta 80ko hamarkadarako elkarrizketa feminista ikerketa molde berezitua ezaguna egin zen. Ikerketa feminista zer den, taxuz islatzen du Kvalek egiten duen Sara Scotten aipuak (Kvale 1996): «emakumeek emakumeengan egindako ikerketa kualitatiboa da, emakumeen bizitza eta esperientziari zentzua emateko helburuarekin egindakoa ... oinarritzko balizkoa izan behar du emakumearekiko zapalketak» (Scott 1985).

Ikerketa feminista bat dator emakumeen eguneroko bizitza erdigunean kokatze horrekin, eta emakumeen eguneroko egoera hauek hobeto ulertzeko metodo egokiak erabiltzen dituzte (Kvale 1996). Bestela esanda, generoaren eraikuntza soziala ikerlanaren erdigunean jartzean datza, emakumeen esperientziak agerian jarri eta ezberdintasunak gainditzeko helburu bikoitzarekin (Lather 1991).

Emakumezkoak elkarrizketatzen dituztenak emakumezkoak izan behar direla argudiatu dute zenbait feministek (Ann Oakley, Marjorie DeVault). Are gehiago, elkarrizketaren emaitza arrakastatsua izan dadin, generoaz gain kultura eta posizio sozial jakin bat ere konpartitu beharra dagoela defendatu duenik ere badago. Bi joera hauek zalantzan

jartzeko arrazoiak ugariak dira, eta gogor eztabaidatuak izan dira.

Alde batetik ikerketa kualitatiboaren ikuspegian beronen muga sozialak gainditzeko gaitasuna barneratzen bada, emaitza egokiak jasotzeko ez da derrigorrezkoa emakumeek emakumeak elkarrizketatzea. Uste honetakoak dira Irene eta Herbert Rubin, eta hain zuzen ere, ikerlariak muga sozialak gainditzeko moduko jarrerak bereganatu behar dituela zehazten dute. Elkarrizketa egitera doan testuinguruan elkarrizketatua ezjakina baldin bada, berari dagokio komunikazioa oztopatu litzaketen muga kultural horiexek aztertzea eta aurre egitea.

Bestetik, elkarrizketatua eta elkarrizketatzailea emakume izateak ez du zertan jarduera komunikatibo jariotsua ziurtatu behar, emakumeek emakumeak elkarrizketatzeko jarduera bera ere aski konplexua delako (Warren 2001). Izan ere, biak emakume izateak ez du esan nahi identitatea osatzen duten beste esparru batzuetan aurrez aurre egon daitezkeen izaerak gurutzatuko ez direnik, eta elkarrizketa oztopatu ezingo dutenik.

Donna Luff ikerlari feministaren ustetan⁷¹, sarritan emakume ikerlarien ikuspuntuak, izaera laikoa, anti-homofobikoa eta ezkerreko joera politikoa izan ohi dute, eta jarrera hauek kaltegarriak izan daitezke elkarrizketatua «gehiengo morala» izenez ezagutzen den korrontean mugitzen bada. Hau da, ikerketa feministak botere-gabekoei hitza emateko duten bertutea aipatu badugu aurretik, puntu honetan esan genezake, zenbait kasutan, ikerketa feminista ez dela hain aproposa boteretsu diren pertsonak elkarrizketatzeko. Hori horrela denetan, ikerketa feministak ez du ondo funtzionatzen. Ildo beretik, Rosanna Hertz⁷² ikerlari feministak ere aitortu zuen emakumeak elkarrizketatzean izan zituen oztopoak (Hertz 1996).

Edozein kasutan, gakoa, elkarrizketatuari ahotsa ematean datza, eta elkarrizketatzaile

⁷¹ Donna Luff elkarrizketak egiterakoan konturatu zen, elkarrizketatuek ez zituztela berarekin jarrera laiko eta ezkertiarrik konpartitzen. Erlatiboki boteretsuak ziren personal elkarrizketatu zituen, erligiosoak zirenak, antifeminista edota homofobikoak izan zitezkeenak, eta sarritan politikoki eskumako korrontekoak. Elkarrizketatuak eta baita berak ere, nork bere identitatean ezaugarri diren element kontrajarriak azaltzen zituen elkarrekintzan zehar, (Luff 1999).

⁷² Gizonezko militarrek eta haien emazteak elkarrizketatu zitueneko ikerketa batean, trabak izan zituen emakumeekin, haiekin emakume estatusa konpartitzen zuen arren, bestelako ezaugarriek nabarmen urruntzen zituelako (hezkuntzak, klase sozialak eta ezkontza harremanak). Hertz, R. (1996): "Guarding against Women? Responses of Military men and their wives to Gender Integration", *Journal of Contemporary Ethnography* 25: 251-84 orr.

3. Kapitulu

eta elkarrizketatuaren artean egon litezkeen desberdintasun sozial, kultural eta generozkoak gainditzean, komunikazioan oztopo izan ez daitezten. Elkarrizketatzaileak ez du zertan emakumea izan emakumeei ahotsa emateko; ikerketan genero ikuspegia barneratzeko ikerlaria ez da emakumea izan behar, ez eta genero desberdintasunak kontuan hartu eta bistaratzeko ere.

Emakume zein gizonezko, elkarrizketaren arrakastarekin erlazio zuzena izango duena ikerlariak elkarrizketan erakusten duen enpatia gaitasuna da. Ildo honetatik, Francisco Sierrak helburua elkarrizketarako baliabide kognitiborako oinarritzko teknika garatzea dela uste du. Enpatia, alegia. Bestearen ikuspuntutik elkarrizketaren garapena eta osoko egoera ulertzeko gaitasuna (Sierra 1998).

3.4) Prozesu komunikatiboaren bi eredu: Gorden eta Wengraf

Raymond L. Gordenek *testuinguruaren komunikazio eredu*a proposatu zuen 1969an, zeinaren arabera prozesu komunikatiboa hurrengo bi faktoreen menpe dagoen. Alde batetik, komunikazio prozesua, elkarrizketatua, elkarrizketatzailea eta elkarrizketa gaiaren artean konfiguratzeko den erlazio hirukoitzaren menpe dago. Bestetik, kanpoko zenbait elementuren arabera izango da, hots, elkarrizketa gizartearekin, komunitatearekin eta kulturarekin lotzen dituzten kanpoko elementuen arabera. Egoera *makro* horren baitan, elkarrizketatu eta elkarrizketatzailearen arteko egoera *mikro*a ere ematen da, prozesu komunikatiboan eragiten duten zenbait faktore psikosozialen arabera izango dena.


Jarduera komunikatiboaren helburua informazioa maximizatzea izanik, informazio esanguratsuenaren fluxua ez dago soilik elkarrekintzaren baitako faktoreen menpe egongo. Aitzitik, elkarrizketaren egoerak komunitate lokala eta gizarte zabalagoarekin duen harremanaren menpe ere badago, hau da, esfera *mikro* eta *makro* horien menpe.

Eredu honek daukan inplikazioetako bat hurrengoa da: Gordenek *erlazio triadikoa* izendatzen duen honetan, aukera gutxi dago hiruko-erlazio horretan eragiteko behin elkarrizketa abiatu denean. Horregatik, elkarrizketatzailearen lana errazteko, aurrez

aurreko topaketaren aurretik elkarrekintzaren zati handi bat prestatu daiteke. Bestek beste, informazio esanguratsua emateko gai izan daitezkeen elkarrizketatuak hautatzea gomendatzen du, eta harekin ondoen moldatu daitekeen elkarrizketatzailea aukeratzea. Garrantzitsua izan daiteke baita ere komunikazio prozesua gertatuko den lekua eta momentua ondo aukeratzea.

Gordenek proposatzen duen eredu komunikatiboaren bigarren ondorioa ekintza komunikatiboan garatzen den jarduera-errepikakor ziklikoa da, aurrerago aurkezten den 13. irudian ikus daitekeen moduan. Zikloari hasiera emateko, elkarrizketatzaileak elkarrizketatuari zein motatako informazioa nahiko duen jakinarazten dio. Lehen esku-hartze honetan, elkarrizketatzaileak ahozko komunikazioaz gain, ez-ahozko komunikazioa ere igortzen dio elkarrizketatuari, hau da, zeinu eta intentsitate jakina izango duen *motibazio transmisioa*. Eskatu zaion informazioaren arabera, elkarrizketatuak interpretatu egiten du zein informazio emango dion elkarrizketatzaileari, betiere, berak nahi duen informazioa gorde edo ezkutatuz.

13. Irudia: Gorden-en eredu komunikatiboa



Iturria: (Valles 2003)-tik moldatuta.

3. Kapitulum


Zikloa ixteko, elkarrizketatuak jasotako informazioa ebaluatu egiten du nolabait garrantzizkoa den informazioa eta garrantzizkoa ez dena bereiziz. Era berean, elkarrizketatzaileari sumatu dion motibazio maila ere baloratzen du, ondorengo pausua definitu ahal izateko: gai berarekin jarraitzera anima dezake elkarrizketatua, beste galderaren jaurtiz, edota, ostera, bestelako taktikaren bat jarri dezake martxan.

Ziklo errepikakor honi Raymond L. Gordenek *interviewing performance cycle* deitzen dio, *elkarrizketa-jarduera zikloa* eta bere hitzetan «elkarrizketaren aparteko itxuraren baitan (jarduera bakar gisa) jarduera errepikatuaren ziklo orokorra dago» (Gorden 1975).

Eredu honen ondoan eta Charles Briggsen lanetan oinarrituta, Tom Wengrafek eredu antropologiko eta historikoagoa aurkeztu zuen, bizitza errealaren testuingurua kontuan hartu nahi duena (14. taula). Ekintza komunikatiboko partaideak, elkarrizketatzailea eta *informatzailea* dira (Wengraf 2001), eta beraien artean emozio-zirkulazio prozesua ematen da, metatzen diren zenbait faktorek baldintzatuta:

- Denbora eta espazio inguruabarrak, *social setting*-a determinatzen du, hau da, establezimendu edo doikuntza soziala.
- Ekintza komunikatiboaren arauak ez dute zertan berdinak izan elkarrizketatzaile eta informatzailearentzat. Elkarrizketatzailearentzat, ikerketa helburuarekin burutzen den sakoneko elkarrizketa den bitartean, informatzailearentzat lagun bati egindako mesedea izan liteke.
- Elkarrizketaren elkarrekintzaren *kutxa beltza* deitzen duen horretan, *power balance* kontzeptua irudikatzen da, hots, elkarrizketatzaile eta informatzailearen arteko botere erlazioa, elkarrizketan zehar aldatu daitekeena. Gordenek ere erlazio abantaileri buruz hausnartu zuen, nagusitasun/berdintasun/gutxiagotasun harremanei buruz alegia. Wengrafen *power balance* honetan ere, erlazio abantaila horiek barneratuta daude, botere oreka baldintzatzen duten faktoreak izendatzen dituenean (parte-hartzaileen rol sozialak, biografiak, helburu eta estrategiak).

14. Irudia: Wengraff-en eredu komunikatiboa



Iturria: (Valles 2003)-tik moldatuta.

13 eta 14. irudietan grafikoki jazotzen diren bi eredu hauek aurkeztuta, elkarrizketa prozesuan nahasten diren faktore eta elementu sorta laburbiltzea komeni da, ikerketa lan honetan garatuko diren elkarrizketei dagokigunez. Alde batetik, aurrez ezarrita dagoen testuingurua daukagu, espazio mikroan eta makroan definitzen den doikuntza sozial hori. Honekin lotuta, garrantzitsua da oso aurreikuspen gaitasuna garatzea, jakinik betiere, elkarrizketatzaileak ez dituela zertan aldez aurretik emanda datoz testuinguru faktore horiek ezagutu behar.

Edozein kasutan, Raymond L. Gordenen erlazio triangeluar horren gainean jardun eta jokatzeko espazioa badu elkarrizketatzaileak. Hau da, prozesu komunikatibo horretan elkarrizketatuak, ikerketa helburuekin jokatzen duela jakinik, elkarrizketa gidatu, zuzendu, birgidatu edota birzuzentzeko gaitasuna eta funtzioa dauka. Era berean, ikerketa xedeak mugitzen duenaz jakitun delarik, Tom Wengraffek deskribatzen duen botere-oreka horretan ere nolabaiteko abantaila izan dezake.

3. Kapitulu

Zentzu horretan, zikloaren ideia azpimarratzekoa da eta ziklo horretan deskribatu den etengabeko ebaluazioaren nozioa. Komunikazioa aurrera doan heinean, ahozko eta ez-ahozko lengoia kontuan hartuta, bi parte-hartzaileen artean ematen den emozio zirkulazioa eta feedbackak prozesu komunikatiboaren gain nolabaiteko kontrola izateko bidea ematen dio elkarrizketzaileari. Aldi berean, zikloaren ideiak, prozesu komunikatiboa irekita uzten du, hots, eraldatu egiten duen prozesua deskribatzen du.

Prozesu komunikatiboaren jokoan, *performance*-an alegia, elkarrizketzailearen senak ere zeresan handi du. Ideia hau indartu eta atal honi itxiera emateko, ekar dezagun gogora Jack Douglasen lana (Douglas 1985). Elkarrizketa eta sormenaren inguruko bere lanean, era naturalean burutzen diren elkarrizketen alde egiten du. Hots, «egunerokotasunean, sen ona eta esperientziak» gidatuta burutzen diren elkarrizketa motaren aldeko apustua egiten du.

3.5) Elkarrizketa kualitatiboa eta bizitza-ibilbideen teoria

Elkarrizketa kualitatiboekin lotuta, dokumentu pertsonalen bilketan eta zehazki autobiografia eta bizitza-istorioen elaborazioan elkarrizketek oso paper garrantzitsua jokatzeko duela uste dute R. Bogdan eta J. Taylorrek (Bogdan eta Taylor 1975). Zentzu honetan, tradizioz handieneko elkarrizketa kualitatiboa, bizitza kontakizun edota elkarrizketa autobiografikoa litzateke. Atal honetan bizitza kontakizunetara murgildu asmoz, bizitza-istorioen ikuspegia edo paradigma aurkeztuko da.

Bizitza zikloaren ikuspegiak errealitate pertsonal eta sozialaren ikasketan *espazioaren* eta *denboraren* garrantzia hartzen du kontutan. Alde batetik, pertsonen bizitzak testuinguru sozial batean kokatzeko beharretik dator *espazioan* arreta jartzeko eskaera hori, ikuspuntu holistiko batetik, etengabeko elkarrekintzan ari diren elementu sozial, biologiko eta psikologikoak uztartu ahal izateko. Bestetik, denbora dimentsioaren ikuspuntu antzua gaindituz, pertsona eta komunitateen denboran zeharreko ibilbideak aztertu nahi dira. Bi hauexek dira bizitza ibilbidearen ikuspegiaren ardatz nagusiak. Ikuspegi honen helburua, pertsonen testuinguru sozial, politiko eta ekonomikoaren etengabeko hartu-emanetik abiatuz, eta bizitza ibilbidea jarraituz beraien bizitzak

konprenitza da (Ezquerria, Elorrieta eta al. 2011)⁷³.

Bizitza ibilbideen teoria (*Life Course Theory*), sarritan bizitza zikloaren teoria izenez ezagutzen dena, diziplina ezberdinetatik elikatu bada ere, gehienbat soziologia, historia, psikologia, demografia eta antropologia jakintzagaietatik indartu da. 1970ko hamarkadan hasi zen garatzen eta orduetik, ikuspegi honen sortzailerik garrantzitsuenetakoa Glen Elder⁷⁴ izan da (Blanco eta Pacheco 2003)⁷⁵.

Oro har, ikuspuntu honen muina hurrengoa da: indar sozial nagusiek, edo indar makrosozialek, bizitza-ibilbideak -indibidual eta kolektiboak- zein modutan moldatzen dituzten ikastea.

Bizitza ibilbideen teoriak eta ikerketak jaso egiten du, gizarte sistemen errealitateak norbanakoaren bizitza estutu, mugatu egiten duenaren nozioa. *Mundu erreal* horretaz ohartarazten du bizitza ibilbideen teoriak. Bakoitzak ahal duen moduan ebazten du bere ibilbide propioa eta ibilbide horren garapena. Ikuspegi honetatik, bizitzak *bizituak* dira. Denbora historiko eta biologiko jakin batean sozialki antolatuta gaude, eta horren emaitza den gizarte ereduak pentsatu, sentitu eta gure jarduteko moduari eragiten dio. «Giza garapena bizitza ibilbide eta testuinguru historikoan errotuta dago» (Elder 1998).

Testuinguru historiko eta sozialaz gain, beste indar sozial batzuk ere paper garrantzitsua jokatzen dute bizitza ibilbideen konfigurazioan, familiak, hezkuntzak eta lanak besteak beste. Elderren teoriaren ildo nagusi hauek laburbildu dira 15. irudian, oso era bisualean. Alabaina, Elderren beraren hurrengo paragrafoak adierazten du hobekien:

«indar-historikoen familia, heziketa eta lanaren giza-ibilbideak itxuratzen dituzte, azken hauek, era berean, norbanakoaren jokabidean eta ibilbideetan dute eragina. Gizabanako

⁷³ *Families, exclusió social i disruptcions en els cicles de vida. Una mirada a les polítiques socials des de baix* ikerlanean helburu nagusia familia mota ezberdinek politika publiko eta erakundeekin bizi dituzten harreman eta bizipenak aztertzea da, tresna metodologiko gisa ikerketa kualitatiboaz baliatuz.

⁷⁴ Glen Holl Elder, Jr., Ipar Karolinako unibertsitatean soziologia eta psikologia irakaslea da. Bere ikerketa interes nagusiak, psikologia soziala, soziologia, demografia eta bizitza-ibilbideen ikerketa dira. Bere lanik ezagunena, 1974ko "Children of the Great Depression" (EEBBtako Depresio Handiko Umeak).

⁷⁵ *Trabajo y familia desde el enfoque del curso de vida: dos sub-cohortes de mujeres mexicanas* artikuluan, lana eta familiaren arteko denboran zeharreko artikulazioa aztertzen da. XX. mendean zehar Mexikoko Errepublikan jaiotako emakume belaunaldi desberdinak ikertzen dira, momentu historiko ezberdinetan bizi izan diren emakumeak. Horretarako, Bizitza-ibilbidearen teoria jorratzen da, bizitza-ibilbideen teoria gidatzen duten zenbait printzipioen berreskuratutako asmoz.

- **Ibilbidea.** Bizitzan zeharreko bidea da, bizitza lerroa edota lasterketa. Bide hau norabidez, mailaz edota proportzioz alda daiteke (Elder 1991). Ikuspegi honen arabera, ibilbide honek ez dauka segida aurre-determinaturik, ezta abiadura jakin bat ere. Ibilbideek elkarren artean menpekoak diren eremu anitzak barnebiltzen dituzte, lana, bizitza erreproduktiboa, eskola, eta migrazioa besteak beste. Bizitza ibilbide indibidualak, familia eta familiaz kanpoko gainontzeko ibilbideekin gurutzatzen direneko puntuan aztertzen dira. Hauxe da ikuspegi honen aspekturik berritzaileena, giza-ibilbideen arte korapilatzea jorratzen delako, korapilatze horretan jatorrizko familiak eta erreprodukzioak jokatzeko duten papera azpimarratuz (Blanco eta Pacheco 2003).
- **Trantsizioa.** Bizitza ibilbidean zehar, une jakinetan ematen diren gertakari zehatzak dira. Gertakari hauek ez dute zertan aurre-determinatuak egon behar, edozein unetan gertatu daitezke, baina dena den, badaude adinaren araberako espektatiba batzuk, talde sozialen arabera. Trantsizioek egoera aldaketak markatzen dituzte, kokapen aldaketak bizitza-ibilbidearen barruan (adibide gisa, lan merkaturako sarrera-irteerak izan litezke, ezkontza edo bikote-hausturak...)
- **Puntu-erabakigarria (*life event*).** Bizitza-ibilbidean zehar bereziki esanguratsuak diren uneei egiten dio erreferentzia, bereziki garrantzitsuak diren aldaketa uneei. Aldaketa nabarmenak ekar ditzaketen trantsizio-puntuak dira, bizitza-ibilbidean norabide-aldaketa ekar ditzaketenak. Aldaketa hauek, kutsu positibo zein negatiboa izan dezakete. Beste askoren artean, bizitoki aldaketaren kasua izan liteke.
- **Inflexio-puntua.** Pertsona, edo talde baten bizitza ibilbidean gertatzen diren aldaketa sakon eta iraunkorrei egiten die erreferentzia. Hitz gutxitan, puntu-erabakigarriak baino are esanguratsuagoak diren uneak liriateke. Adibide gisa, familia-kide baten galera edota dibortzioa aipa genitzake (Elder, Pacheco, Blanco).

3. Kapitula

- **Kohortea.** Denbora tarte jakin bat aztertzen denean, luzetarako ikerketa denean, garai historiko berean jaiotako pertsona-taldea ikertzen da, gizarte eta kultura testuinguru eta aldaketa berdinak bizi izan dituztenak. Horrek, antzerako gertaerak bizi izan dituzten pertsonen bizitzetan eragiten duten aldagaien konparaketa egitea permititzen du: gerrak, krisialdiak, migrazioak...

Era paraleloan, bost kontzeptu hauen osagarri dira Elderren teorioaren bost printzipio nagusiak ere. Printzipio eta kontzeptuak nahitaez, estu lotuta daude elkarren artean. Printzipioen artean, Elderren teorizazioan eta praktikan oinarrituta, denboraren zeharreko garapena, testuinguru eta garai historikoa, bizitzaren *timinga*, bizitzen elkarmenpekotasuna eta giza agentzia aurkezten dira 16. Irudian.

Bizitza ibilbideen azterketan eta berauen interpretazioan desabantaila edota trantsizio puntuen metaketan eta kateaketan ere jarri beharra dago. Azken batean, perspektiba hau bereziki erabilgarria da norbanakoaren bizitzaren, errealitate familiarren eta eraldaketa sozialen arteko loturak aztertzeko, esperientzia pertsonaletatik abiatzen garela aintzat hartuta (Ezquerria, Elorrieta et al. 2011).

16. **Irudia: Bizitza ibilbideen teoriaren printzipioak**

"Bizitza ibilbideak denboraldi aski luzeak aztertzen badira, aldaketa soziala eta norbanakoaren garapenaren artean ematen den hartu-eman potentziala areagotzen da. Hau da, epe luzeko ikuspegia izan behar du bizitza-ibilbideen teoriak". (Elder et al, 2003:11)

- Denboran zeharreko garapena

"Gizabanakoaren bizitza-ibilbideak garai eta testuinguru historiko jakin batean errotuta daude eta testuinguru horretan, bizi izandako esperientziak perfilatzen dituzte bizitza ibilbideak" (Elder et al 2003:12)

- Garai eta testuinguru historikoa

Gertaera edota bizitza-transizio segiden garapenak bizitza-ibilbidean izan dezakeen inpaktua, pertsona horren bizitzan transizio horiek gertatu diren unearn menpe daude. (Elder 2002)

- Bizitzaren *timinga*

Bizitzak era inter-dependentean bizi dira, eta eragin historiko eta sozialak elkarbanatutako harreman sare hauen bitartez adierazten dira (Elder 2002).

Era interdependentean bizi direlako, trantsizio indibidualek beste pertsona batzuen bizitza-trantsizioengan ere eragin dezakete

- Bizitza inter-dependenteak

«Gizabanakoak bere bizitza-ibilbidea eraikitzen du egindako hautaketa eta akzioen arabera, eta azken hauek testuinguru historiko eta sozialak markatutako aukera eta mugen menpe daude» (Shanahan eta Elder, 2002:176).

- Giza-Agentzia (agency)

Iturria: Elder (2003) eta (Blanco eta Pacheco 2003)-tik moldatuta.

3.6) Elkarrizketa kualitatiboa zientzia ekonomikoetan

Ikerketa kualitatiboak ekonomian zer leku duen aztertzeke, Michael Pioreren lana aztertzea komenigarria da oso. Horretarako, bereziki interesgarria da ekonomista estatubatuarraren *Qualitative Research: does it fit in economics?*⁷⁶ artikulua. Bertan, erdi-egituratutako elkarrizketetan oinarritutako landa ikerketek zientzia ekonomikoetan jokatzen duten rolaz egiten du gogoeta. MITeko irakasle honek, besteak beste lanaren ekonomia, immigrazioa eta berrikuntzaren inguruko gaiak ikertu ditu⁷⁷ eta gai-sorta anitz honetan garatu izan duen hurbilketa teknika, landa-ikerketaren bidezkoa, nahikoa trinkoa izan da autorearen beraren ustetan.

Orokorrean, zientzia sozialen praktikan landa-ikerketan lortutako emaitzetatik datu empirikoak ateratzeko joera dagoen arren, Piorek bere landa ikerketatan lortutako emaitzak ez ditu «ebidentzia empiriko gisa erabili, baizik eta, teoria eraikitzeke osagai edo input gisa» (Piore 2006). Ekonomian konbentzionalagoak diren eredu matematikoak eraiki litezke, baina ostera, «teoria hori era narratiboan garatzea» aukeratu du, «ikerketaren zapora kualitatiboa indartuz» (Piore 2006).

Hasiera batean zuzendu gabeko elkarrizketak egiazko ikerketa lanaren aurre-fase bezala ulertzen zituen⁷⁸, baina teknika hau erabili ahala ohartu zen aurre-fase honetan burututako elkarrizketa irekietan lortutako emaitzak, ondorengo galdetegi formaletan jasotakoak baino aski esanguratsuagoak zirela. Zentzu honetan, gisa honetako deskubrimenduak sortutako *harriduraz* mintzo da, hau da, elkarrizketa ez-zuzenduek, harritu arazteke duten gaitasunaz.

⁷⁶ *Ikerketa kualitatiboa: bat al dator zientzia ekonomikoarekin?* (Piore 2006).

⁷⁷ Besteak beste, tamaina handiko manufaktura-enpresen barneko lan merkatuak ikertu izan ditu, teknologiak enpleguan izan dituen ondorioak aztertzeke, eta ostean, egiturazko langabeziaren eztabaidan murgildu da. Lan merkatuaren dualtasuna ere ikertua du, horretarako, manufaktura enpresa handietako langileen soldata eta soldata baxuagoen arteko desberdintasunak ikasiaz. Kolektibo afroamerikarrean zentratuta, lan eta formazio politiken hutsegitea landu zuen. Lan merkatuaren baitan ere, mobilizazio politikoarekin lotuta, generoak eta jatorriak jokatzen duten papera ere aztertu izan ditu.

⁷⁸ Piorek *The Second Industrial Divide* liburuan, Italia erdialdeko industria distrituen sorrera aztertu zuen. Bertako manufaktura industrietara egindako bisitetan, lantegietan zehar bisitaldi gidatua egin ohi zuten. Gidariarekin sortutako solasaldi inprobisatuetatik, itxuraz ikerketatik kanpo leudekeen hizketaldi hauexetatik, galdetegi formalen bitartez lortu ezingo luketen informazioa antzeman zuten: italiar industria distrituen baitan, belaunaldi artean, aita semearen lorpenez harro egoteak jokatzen duen pisua.

Emaizta horiek ikusirik, galdetegi zuzenduak edo egituratuak burutu aurretiko fase ez-zuzenduak luzatzeko baimena ematen zion bere buruari, nahiz eta hasiera batean ez zituen ikerketa prozesuaren berezko elementu gisa antzematen. Teknika hau erabiltzen hasi eta berehala konturatu zen elkarrizketatuak, elkarrizketa irekia zeneko aurre-fasean errez konprometitzen ziren bitartean, galdetegi formala burutzen hasteko momentuan ez zituztela galderak era berean toleratzen edo jasaten.

Elkarrizketen protagonistek, istorio bat kontatzeko gogoaz zuten, eta elkarrizketetan horrek bultzatuta hartzen zutela parte iruditzen zitzaion Pioreri, galdetegi formaleko galderak istorio hori kontatzeko aitzakia baino ez zirela. Zentzu horretan, istorio horiei eutsi ahal izatearen garrantziaz ere mintzo da «istorioak ekiditen saiatzen nintzenean, elkarrizketa galdu egiten nuen» esaten duenean (Piore 2006). Bere ustetan, istorio hauexek dira zuzendu gabeko elkarrizketen fruiturik garrantzitsuenak, kontakizun horiek ikerketa prozesuaren behaketa diren heinean.

Hau da, alde batetik, protagonistek ikerlariarekin konpartitu ditzaketen istorio hauengan arreta berezia jartzen du, eta bestetik, honek dakarren berezkotasuna azpimarratzen du. Honekin lotuta, Michael Piorek onartzen du elkarrizketan egingo diren galderak aurrez diseinatu behar direla, baina, era berean, elkarrizketatuak dakarren berezkotasun horixe dutela abantaila; izan ere, «elkarrizketatuak guk sekula egingo ez genituzkeen erantzunak ere erantzun ohi dituzte». Pioreren kasuan, kontakizun hauen erabilera ikerketa prozesuan ez da datu estatistikoetan gauzatzen, baizik eta istorio hauek duten egitura narratiboari jarraiki interpretatu egiten ditu, eta teoria berrikusteko argudio gisa erabili ohi ditu.

Elkarrizketa gidatu hauetan lortutako emaitzak, teoria berrikusteko input gisa erabiltzeak, bere oztopoak ere badituela onartzen du Piorek, eta eragozpen hori elkarrizketen idiosinkrasiatik etor daitekeela. Elkarrizketa erdi-gidatuen emaitzen izaera pertsonal hori, nagusiki hiru elementuren menpe dagoela antzematen du. Batetik, ikerlariak *harridura* sortzeko duen gaitasunaren menpe; bestetik, antzeko ereduak antzemateko duen gaitasunaren menpe eta azkenik, eredu hauek teoria forman eraikitzeko duen gaitasunaren menpe egongo da. Guzti honekin, «elkarrizketaren berezko helburu edo muinetik urrun dauden detaileen menpe egon daiteke


3. Kapitulu

interpretazioa». Gerta daiteke elkarrizketatzailea bera ere detaile hauen garrantziaz kontziente ez izatea elkarrizketa abiatzeko unean. Ñabardura hauek eta elkarrizketen emaitzek duten izaera pertsonal hori dela eta, ez da komenigarria, landa-ikerketaren faseetako bat beste inoren esku utzi edo delegatzea, dela elkarrizketa burutzearen ardura bera, edo dela transkripzio fasea.

Elkarrizketa ez-zuzenduen bidezko ikerketa metodoa eta ekonomia zientzia bezalako diziplina bat datozela azaltzeko, beraz, elkarrizketa hauen emaitzak teoria berreraikitzeke duten erabilera eta gaitasuna aipatzen ditu. «Kateatuta datozen faktoreen bitartez erretzen da interpretazioa, sarritan epifania baten legez eta besteetan, jasotako materialak ikertzailearen buruan ezkutuan egon ostean» (Piore 2006). Teoriaren eraikuntza honetan zeresan handia dute, espektatibek, ezustekoek, eta bi hauek elkar elikatzeke duten gaitasunak. Teoriatik praktika eraiki, eta oster, praktikatik teoria eraikitzeke etengabeko prozesua, edota teoria-praktikaren elkar-elikatze harreman hau da Michael Pioreren ekarpenik nabarmenena. Jarraian datorren aipuak eta ondorengo irudiak ere (17. irudia), oso modu argian jasotzen dute ideia hau bera.

«Diziplina orok sortzen ditu espektatibak eta azken finean, espektatiba hauek teoriatik eratortzen dira» (Piore 2006). Baieztapen horretatik eratortzen dira elkarrizketa ez zuzenduetan hartzen diren berezko jarrerak: *sorpres*a bilatzeko ohitura, sorpresaren jatorria teorian bilatzea, eta ostean, berriro ere *sorpres*a hori teorian integratu ahal izateko zelan moldatu behar den aztertzea. «Jarrera hauek ... orokorrean zientzia sozialetan aplikagarri diren heinean, ekonomian ere aplika daitezke». Jarrera hauek, orokorrean zientzia sozialetan aplikagarri diren heinean, ekonomian ere aplika daitezke (Piore 2006).

17. Irudia: Ikerketa kualitatiboa eta teoriaren berreraikuntza



Iturria: (Piore 2006)- tik abiatuta, norberak eginda.

Puntu honetaraino, ekonomia eta elkarrizketa kualitatiboen arteko bateragarritasuna justifikatzerako orduan lehen pausua emana du horrela, baina bigarren urrats batean, ekonomiak, zientzia soziala den heinean, metodologia honetaz baliatzeko dituen dohain bereziak nabarmentzen ditu.

Alde batetik ekonomia oso egituratuta dagoen diziplina dela balioesten du, eta bestetik, gaitasun normatibo indartsua duela. Bi ezaugarri hauetatik eratortzen da hurrengo baieztapena:

«Gizarte zientzien edozein diziplinaren baitan, posiblea izan beharko litzateke elkarrizketen interpretazioa estimulatzeke teorian baliatzea (...) baina nire ustetan, Ekonomian are errazagoa eta garrantzitsuagoa da (...) ekonomiaren bi ezaugarri jokoan jartzen direlako» (Piore 2006).

Michael Piorek ekonomia «gorputz teoriko sendoa» duen zientzia dela argudiatzen du, eta era berean sendoa den teknika enpirikoekin jarduten duela. Aipatzen duen bigarren berezko ezaugarria, normatibitatea da, eta zentzu honetan, ekonomiaren antolaketaren ebaluazioa eta hobekuntza dira xede. Optimizazio helburu hau Paretoren teorian oinarrituta dago, oso zehatz definituta datozen irizpide normatiboak jarraituz. Teoria

3. Kapitulu

ekonomikoak norbanakoak erabakiak arrazionaltasunez hartzeko duen gaitasunean du euskarria, eta prezioen seinaleei jarraituz, nork bere interesari erreparatuz jarduten du merkatu lehiakorrean. Era horretan, emaitza gisa oreka egonkorrak bilatu ohi dira, hain justu, hortxe identifikatzen du Piorek gaiaren mamia. Ekonomia aplikatuaren ikerketa, zehaztuta eta azken finean oso ondo finkatuta dauden arazo sozial multzoei irtenbidea ematera zuzenduta dago. (Piore 2006). Hain zuzen ere arazo sozialekin duen lotura horreketan, antzematen du ekonomialariak zientzia honen zaugarritasuna. Izan ere zaugarritasun hori, ekonomiak munduko arazoetara gerturatzeko egiten duen saiakera horretan datzalako.

Bestela esanda, teoria eta errealitatea aurrez aurre jarritz, egituratu gabeko elkarrizketek ikerketa metodologiko gisa, kolokan egon litezkeen teoria konbentzionalen irizpideak identifikatzeko aukera eman diola azaltzen du. Nolabait finkatuta dauden teoriak egiaztatzeko, eta behar denean, zuzenagoak direnak antzemateko.

Egituratu gabeko elkarrizketetan oinarritutako bere metodologiak aukera ematen du kolokan egon litezkeen teoria konbentzionalaren irizpideak identifikatzeko eta era berean, zuzenagoak direnak antzemateko. Arazoetara zuzenduta dagoen metodologia den heinean, metodologiak funtzionatu egiten duela uste du, arreta arazoetan eta baita ere, «arazo» hauen protagonista nagusi diren aktore eta beraien portaera jartzen delako.

Thomas Kuhnek diziplina praktikaren bidez definitzen zela iradoki bazuen, Piorek, elkarrizketa bidezko metodologiak, ekonomiaren berezko mugak gainditzea ahalbidetzen duela baieztatu du, antropologia eta hermeneutikaren erreinura hedatuz. Hau da, diziplinaren mugaraino heldu eta beste zientzia sozial batzuen eremuetan barneratzea, bat dator ekonomiaren egungo bilakaerarekin, eta beraz dagoeneko eboluzioan dagoen paradigmarekin. Alde batetik, ekonomia zientzia inperiala kontsidera daiteke, giza portaeraren ikuspegia bereganatzen duena, giza portaera oro ulertzeko aplikagarria den teoria orokor saiakera gisa⁷⁹ (Piore 2006).

⁷⁹ Piorek esanda, Becker (1976) aipatuz).

Metodologia kualitatiboa ikerketa ekonomikoan

Metodologia honek izan ditzakeen mugak aintzat hartuz, kontuan hartu behar da, ekonomiaren funtsezko kezka izan diren arazoetara beste diziplina batzuen bitartez gerturatzearen garrantzia.

Bestalde, ekonomiak dagoeneko hein batean inplikazio honi erantzun dio, psikologia sozialaren gainean erakusten duen interes hazkorrari erreparatuz. Ibilbide hori imitatuz, antropologia eta hermeneutika bezalako eremuetara salto egin liteke. Azken finean, hedatze prozesu onetan, ekonomia derrigortuta dago terreno berri hauetara moldatzera, ekintza berriek metodo eta teoria berriak estimulatzeko dituzten heinean (Piore 2006).

4. Kapitulu

Landa lana: elkarrizketen diseinua
eta emaitzak

Hurrengo atal honetan ikerketa garatzeko burututako kasu praktikoa aurkezten da. Aukeratutako metodologia elkarrizketa kualitatiboa izan da, analisiaren erdigunean DBEren onuradun diren pertsonak dauzkagula.

Helburua, hurbilketa kualitatibo honen bidez prestazio hau jasotzen duten pertsonengana gerturatzea da, bazterkeria sozialaren testuinguruan harremanen esparruak jokatzeko duen papera aztertzeko. Hau da, lehen pertsonan bizi dutena jaso, pertsona hauen harremanen sarean sakondu nahi da batez ere familia-egitura eta familia-harremanetan murgilduz, baina baita lagun eta elkarteekiko harremanak kontuan hartuz ere.

Honela, DBEren onuradun diren pertsona hauengan fokua jarritz eta esparru ekonomikoan izan ditzaketen mugak aintzat hartuz, pobrezia ekonomikoa eta gizarte bazterkeria –hala den kasuetan- nola perfilatzen diren ikastea da lan honen xedea. DBEren onuradun izateak, pertsona horren baldintza ekonomikoaz arrastoren bat ematen digu, baina horrek ez du zertan esan nahi gizarte bazterkeria egoeran bizi denik. Zehazki, DBE jasotzen duten etxeetan familia eta harremanen esparruak zaugarritasuna zein eratan leundu dezakeen ikusi nahi da, edota kontrara, zein bidetatik indartu daitezkeen bazterkeria prozesuak.

Izan ere, pertsonen bizitza ibilbidean zehar familia harremanen esparruak pobrezia ekonomikoa eta gizarte bazterkeriaren artean betetzen duen zubi-zimendu funtzioa behatzea ikerketako helburuetako bat da. Zentzu honetan, subjektuaren bizitza esperientzian harremanen esparruak jokatzeko duen babes papera ulertu nahi da, pobrezia ekonomiko eta gizarte bazterkeriaren arteko mugarri gisa batzuetan, edota bazterkeria kasu larrienen indartzaile gisa besteetan.

Bide beretik, bigarren ikerketa galdera bati erantzunez, gure protagonistek prestazioa jasotzearen esperientzia nola bizi duten eta nola bizi izan nahi duten antzeman nahi da; onuradun izateko duten eskubidea ondo ezagutzen duten, eskubide denaren kontzientzia barneratuta ote duten edota, haien larrutan nolabaiteko estigmatizazioa pairatzen duten. Hain zuzen ere, zaugarritasun ekonomikoa eta -hala denean- zaugarritasun soziala bizi duten pertsonak, bere ingurune sozialean paira dezaketen

estigmatizazio edo onarpen maila, beste faktore batzuen artean, DBE prestazioaren eta eskubidearen beraren inguruan duten ezagutza eta kontzientziaren araberakoa izango dela estimatzen da, eta baita ere, beren inguruneak prestazioari buruz duten ezagutzaren arabera. Azkenik, bizitzako une esanguratsuek edota *haustura* puntuek gure bidaideen ibilbideetan izan dezaketen eraginaz hausnartu nahi da.

4.1) Elkarrizketa kualitatiboa: Gizarte Bazterkeriaren ikasketan murgiltzeko tresna

Bizitza-kontakizunen metodologia bereziki erabilgarria da gizarte bazterkeriarekin lotutako pertsona eta familien ibilbideak aztertzeko. Era berean, baliagarria da oso bazterkeriaren fenomenoaren egungo ezagutza hobetzeko (Alfama Obradors 2005), (Subirats 2006) eta ikerketan barneratutako gizarte bazterkeriaren ikuspegi multidimentsionalak, harremanen esparrua oinarritzko dimentsioetako bat dela onartzen du.

Bazterkeriak pertsonen kontakizunei eragin egiten die eta metodologia honek ahalbidetu egiten du subjektuentzat esanahi berezia duten elementuak eta ulertzeko moduak barneratzea. Hauek aintzat hartzeak ez du esan nahi «bazterkeria *psikologizatu* edo *subjektibizatu* egiten denik». Aitzitik, bazterkeriak pertsonak «astintzen dituela ulertzea inplikatzan du, eta pertsonak prozesu ororen erdigunean egon behar duela onartzea» (Vidal 2009). Hau da, ikuspegi honen helburua pertsonen bizitzak konprenitzea da, bazterkeria sozialean eragina izan dezaketen faktoreen hartu-emanetik abiatu eta bizitza-kontakizuna jarraituz.

Ikerketa teknika honen esperientzia pertsonalari dagokionez, esan beharra dago, Kataluniako IGOP institutuko ikerketa talde batekin elkarlanean, Bartzelonako Diputazioarentzat egindako ikerketa lan batean parte hartzeko aukera izan nuela. Lan horren ikerketa helburua, familia mota ezberdinek erakunde eta politika publiko ezberdinekin bizi izan dituzten harreman eta esperientziak aztertzea izan zen, metodologikoki elkarrizketa kualitatiboetan oinarrituz. Erdi-egituratutako elkarrizketa hauen bitartez, bizitza ibilbidean zehar identifika daitezkeen zikloen eta hausturen

subjektibitatea ere jazo ziren⁸⁰.

Metodologia kualitatiboa barneratzeak ikerketa aberasteaz gain, pentsamenduaren eta ezagutzaren berezko arkitektura eralda dezake (Vidal 2009). Gainera, krisialdi garai honetan egoerak berak ere bazterkeriaren itxura aldatzean eragina izan dezake. FOESSA eta Caritasentzat Garciak egindako txostenean (Garcia 2012) krisialdiaren garaiko premia eta zaugarritasun egoera berriak aztertzen dira. Krisiak gizarte bazterkerian eragin txikitzaileak izateaz gain, gizarte bazterkeria berreraikitze indarra baduela ere azpimarratzen da bertan.

Edozelan ere, elkarrizketa kualitatiboaren bidez bazterkeria faktoreak antzeman daitezke eta kasu bakoitzean faktore hauetako bakoitzak bazterkerian daukan pisua ulertu. Gizarte bazterkeria definitzen duten kategoria analitikoak aurkitzea da asmoa, baina, bazterkeria sufritzen duten pertsona jakinen mailan dauden kategoriak.

Jim Thomas etnografoaren arabera etnografia kritikoak talde ahulenei edota kolektibo zigortuei ematen die ahotsa, era horretan, ikerketa kualitatiboa *botere-gabekoengana* gerturatzeko lanabesa bilakatuz (Thomas 1993). Gainera, tresna hori erabili egin daiteke talde hauengan burujabetze helburuak lortu edota indar menperatzaileak leuntzeko. Ikerketaren parte diren pertsona horien ahotsa ordezkatzeko dute nolabait ikerlari kritikoek, subjektuon ahotsari autoritate gehiago emanaz eta beraien jabetzaren alde lan eginez. Bide honetatik, eguneguneko bozirik ez duten pertsona anonimoei hitza ematea, ikerketaren parte ere bada.

Bestalde, geroz eta gehiago dira azken urteotan elkarrizketa kualitatibo edota bizitza-ibilbideen metodologia barneratu izan duten ikerketak. Horien artean, «pertsona kaltetuen iritzia agertu beharrak» bultzatuta, FOESSA Fundazioak 2008an Gizarte Bazterkeriari buruz egindako txosten mardula aipa genezake (2008). Edota, Gurutze Gorriak gizarte zaugarritasunaren inguruan 2007an egindako beste ikerketa bat (Gurutze Gorria 2007) ere, zeinak kapitulu oso bat hamazortzi pertsoneri burututako

⁸⁰ Lanaren izena euskaraz, «Familiak, gizarte bazterkeria eta bizitza ibilbidean jazotako hausturak. Behetiko begirada» litzateke. Erreferentzia osoa: Ezquerria, S., Elorrieta, A. et. Al, (2011): "Famílies, exclusió social i disruptcions en els cicles de vida". Una mirada a les polítiques socials des de baix. Diputació de Barcelona.

4. Kapitula

bizitza-ibilbideei eskaintzen dion. Subirats soziologoak hirietako bazterkeria sozialaren perfilak ikertu zituen Katalunian, bizitza-kontakizunetan oinarrituta (Subirats 2006). Azkenik, Gorka Moreno soziologoak ere antzerako ikuspegiari heldu zion *Historias de vulnerabilidad: la inestabilidad en el día a día*⁸¹ artikuluan, egunerokotasunean zaugarritasuna bizi duten pertsonengan fokatuz (Moreno Marquez 2010b).

4.2) Kasu praktikoaren diseinua: elkarrizketatuen profila eta galdetegia

Kasu praktiko hau diseinatzerako orduan, hainbat elementu hartu dira kontuan. Lehenik eta behin, elkarrizketen helburu diren pertsonen anonimotasuna hasiera-hasieratik bermatu nahi izan den puntua izan da, haien parte-hartzearen konfidentzialtasun osoa ziurtatzea, alegia.

DBE erakunde publikoak kudeatzen duen prestazioa izanik, elkarrizketak egiteko kontaktuak lortzerako orduan topa litezkeen oztopoak gogoan eduki behar dira; izan ere, administrazio publikoaren bulegoak dira haien erabiltzaileen pribatutasuna gordetzen duten lehenak. Balizko traba hori nolabait aurreikusita administrazio publikoarekin kontaktuan jartzeaz gain, gizarte-mugimendu, elkarte, fundazio eta GKE ezberdinekin harremanetan jartzea lehenetsi da, betiere hauengana profesionaltasun eta diskrezio osoz hurbilduz. Asko dira bategatik edo besteagatik hurbil hurbiletik DBEren onuradun diren pertsonekin lan egiten duten elkarreak; etorkinen elkarreak, emakumeen elkarreak, drogamenpekotasun arazoak dituzten pertsonen alde egiten duten elkarreak, e.a. Pentsatzekoa da, bide honetatik joz errazago irits daitekeela prestazioaren onuradunengana.

Erabaki beharreko beste kontu bat, zein gizarte mugimendu eta elkarterengana hurreratzea komeni ote zen deliberatzea izan da. Horretarako, lehen urrats gisa, bestelako GGE (Gizarteratzeko Gutxieneko Errenta) ezberdinak aztertzen dituzten

⁸¹ *Zaugarritasun istorioak: ezegonkortasuna egunerokotasunean*. Artikulu honetan gizarte bazterkeria pairatzen dutenen iritzia jasotzen da, haien bizipenak hobeto ezagutzeko eta maila teorikoan lantzen dena benetan errealitatean nola gauzatzen den irudikatzeko.

txosten eta artikuluetara jo da. Izan ere, GGEtan arreta jarri duten hainbat ikerlanek, gizarte bazterkeriarekin lotutako ibilbide, perfil eta kolektiboak identifikatu ohi dituzte.

9. Taula: Bazterkeria ibilbideak

1) Seme-alaben ardura duten guraso bakarreko familiak	
	Banaketa prozesu baten ostean, familia betebeharre aurre egin behar dieten emakume helduak izan ohi dira gehienetan. Talde honetan sartuko lirateke baita ere umeak dituzten ezkongabeko emakumeak edota alargunak -pentsio oso baxuak edo pensiorik ere ez dituztenak-. Sare eta kontaktu sozialei esker mantendu ohi dira, haien egoera ekonomiko prekarioak eta haurren ardurak isolamendu prozesu hazkor batera eramanez ditzakeela ahaztu gabe.
2) Bakarrik dauden pertsonak: gizonezkoak.	
	Gutxi gora-behera <i>normalizatutako</i> egoeretatik abiatuta, narriadura prozesu azeleratu batean murgiltzen dira, faktore ezberdinen metatze prozesuaren ondorioz: haustura familiarrak, alkoholismoa, buruko gaixotasunak, droga menpekotasunak . . .
3) Bakarrik dauden pertsonak: emakumezkoak.	
	Banandutako nukleotatik -banaketa, dibortzio- datozen emakumeak. Sarritan adinekoak diren pertsonak izan ohi dira, lan merkatuarekin harreman eskasa, edo harremanik ere ez dutenak. Harreman sozialen babesak, ekonomia irregularerako sarbidea erraz diezake, eta isolamendua gainditzeko sostengu emozionala. Talde honen barruan sartuko lirateke, hil diren arte gurasoen zainketaz arduratu diren emakumeak, Sarritan buruko gaixotasunen bat, edo gaixotasun fisikoren bat izan ohi duten emakumeak izaten dira, lan merkatuarekin sarrera oztopatzen diena.
4) Langabezia arazodun familiak	
	Familiako kideren bat -sarritan, diru-iturri nagusia zena- lan merkatuan integratuta egotetik, lan merkatuan era normalean ezin integratzera pasatu denean. Bestelako laguntza sozialak agortuta, ohiko familia perfila, familia nuklearra da, bestelako arazoak izateko aukera handiak dituztenak - gaixotasunak, espero gabeko gastuak, zorrak...

Iturria: (Raya 2004)-tik moldatuta.

Goiko taulan laburtzen dira Madrileko GGEren onuradunen artean antzemandako bazterkeria ibilbide nagusiak (Raya 2004) (9. Taula). *Exclusión Social y Ciudadanía, Claroscuros de un concepto*⁸² ikerlanean emaitza interesgarriak aurkitu zituen Rayak eta Madrileko prestazioaren onuradunen artean bederatzi bazterkeria ibilbide bereizi zituen. Taulan horietako lau azpimarratzen dira; guraso bakarreko familiak, bakarrik dauden gizon eta emakumeak eta langabezia arazoa duten familiak. Guraso bakarreko familien artean, emakumeak izan ohi dira nagusi, eta kasu horietan sare eta gizarte harremanek eduki dezaketen pisua nabarmentzen da.

Bestetik, bakarrik dauden gizonezkoen artean, bazterkerian zeresana duten faktoreen

⁸² *Gizarte Bazterkeria eta Hiritartasuna, kontzeptu baten argi-ilunak.*

4. Kapituluia

metatzea aipatzen da, hala nola, alkoholismoa, familia hausturak eta buruko gaixotasunak pilatzen direneko perfilak. Langabezia arazoak dituzten familien artean ere, diru-sarrera nagusia agortzen denean bestelako arazoak izateko aukera handiak dituzten kasuak aurreikusten dira. Azkenik, bakarrik dauden emakumeen artean, berriro ere harreman sozialen garrantzia gailentzen da. Zenbait emakumeri harreman horien babesak ekonomia irregularrerako sarbidea erraz diezaieke, lan merkatu formalean integratzeko izan ditzaketen oztopoak ikusita.

Hein handi batean, osagarria da Kataluniako hiri testuingururako Subiratsek egindako ekarpena (Subirats 2006). Genero dimentsioarekin lotuta eta betiere testuinguru urbanoan, guraso bakarreko familien buru diren emakumeak ere antzeman ditu soziologoak bazterkeria profil nagusietako bat gisa. Familia egoera honi sarritan arazo ekonomikorik eta sare sozial mugatuk gehitzen zaizkio.

Emakumeen perfilekin lotuta baita ere, tratu txarren biktima diren edo izan diren emakumeak taldekatu ditu katalanak. Kasu hauetan, tratu txarrek dakarten ondorio fisiko eta psikikoei sarrera ekonomiko propioak lortzeko ezintasuna batzen zaienean, egoera zeharo larritzen da eta biolentzia egoeratik ihes egiteko aukerak zailagotu egiten dira.

Bestetik, bere gain gehiegizko familia-ardurak dauzkaten emakumeen artean ere, bazterkeria prozesuak garatu daitezke, gehienbat bikotearekiko independentzia ekonomikorik ez dutenean eta lan merkatuan barneratzeko oztopoak dituztenean.

Taulako azken ibilbidearekin bat dator Subiratsek gizonekin lotuta identifikatzen duen profila: bere ustez, gizonen artean, bazterketa soziala zehazteko orduan pisu gehien jokatzen duten faktoreak enpleguarekin lotutakoak dira, azken-finean, «familiaburu» izatearen funtzioa kolokan jartzen dituenak. Egoera hauek izan daitezke, epe luzeko langabezia, aldez aurreko erretiro eta lan-istripuetatik eratorri daitezkeenak. Katalanaren aburuz, «gure gizartean, lan egiteko adinean dauden eta familia buru diren gizonak, gizarte inklusioaren paradigma dira».

Generoak markatutako perfil hauen ondoan, adina eta jatorria dira beste bi desberdintasun ardatz nagusiak eta aldagai hauexetatik bazterkeria ibilbide ezberdinak

eratortzen dira; egoera administratiboa erregularizatuta ez duten etorkinak, bizi baldintzen narriadura nabaria pairatzen duten adineko pertsonak e.a.

Era honetan, bazterkeria perfilen ikasketa zorrotza eskaintzen digu; genero, adina eta jatorria aldagai transbertsalak gurutzatu egiten ditu gizarte bazterkeriaren esparru anitzekin, metatze faktorea erabat presente dagoela.

Gizarte bazterkeria zehazten duten profil eta ibilbideak identifikatze honetan, FOESSA fundazioren 2008ko txostenean⁸³ bederatzizko perfil nabarmentzen dituzte Laparra eta Perezek, gizarteko aniztasunaren irudi; kale gorrian bizi diren pertsonak, buruko gaixotasunak dituzten pertsonak, beste herrialdeetatik etorritako etorkinak, ijitoen komunitatea, droga kontsumoarekin lotutako perfilak, prostituzio munduan dabilzanak, espetxe sistemarekin harremana dutenak, nolabaiteko ezintasun edota ezgaitasunak dituzten pertsonak e.a. Azkenik, bederatzigarren multzo gisa eta genero dimentsioa azpimarratuz, guraso bakarreko familiak zerrendaratzen dira.

Zalantzarik gabe, pertsona jakin batek bazterkerian amiltzeko duen arriskuak badu osagai kolektibo bat, gizarte bazterkeria prozesuaren ibilbidea era batean edo bestean markatzen duena. Horretxegatik, landa ikerketa diseinatu eta elkarte/gizarte-mugimenduekin harremanetan jartzeko orduan, gogoan izan den elementua da.

Baina era berean, ikerketa lan honen helburua pertsona jakinek bazterkeria prozesua nola bizi duten ulertzea da, pertsonarengan zentratuz. Horretxegatik, aipatutako profilak aintzat hartu diren arren, elkarrizketetan parte hartzeko pertsonen profilak ez dira alde aurretik inongo kolektibotan sartu. Azken finean, ez pertsonak, ez familiak, ezta kolektiboak ere, ez dira talde homogeneoak.

Ondorengo irudian erakusten den moduan, landa-ikerketa diseinatzerako orduan DBEren onuradunak elkarrizketatzea finkatu da helburu gisa; hain zuzen ere, familia esparruan egitura eta harreman desberdinak dituzten gizon-emakumeak. Hala nola, guraso bakarreko familiak, bakarrik bizi diren pertsonak, seme-alabadun bikoteak ... Aurrez kolektibo zehatzak definitu gabe eta pertsonak kolektibo jakin horien arabera


⁸³ Miguel Laparra eta Begoña Pérez «VI Informe sobre exclusión y desarrollo social en España» liburuan, ondorioen atalean argitaratutako lana, 53-88 orr (Foessa 2008).

4. Kapitulu

bilatu gabe, nolabaiteko aniztasuna eta oreka ziurtatu asmoz, jarraibide batzuk errespetatu dira.

Elkarrizketatu-gaiak bi ardatzen inguruan antolatuta aurkezten dira irudian (18. Irudia). Horren oinarrian, marko teorikoaren eraikuntzan landutako Robert Castelen *desafiliazio* kontzeptua dago. Hau da, lanaren eta harremanen bidezko integrazio ardatzak egituratutako espazio horretan kokatzen dira elkarrizketatu nahi diren pertsona horiek. Esparru ekonomikoari dagokionez, den denak DBE prestazioaren onuradunak dira eta irudian ere halaxe markatzen da.

18. Irudia: Elkarrizketak egin aurretiko perfilak



Iturria: (Castel 2000)-tik abiatuta, norberak eginda.

Bestetik, 30 urtetik gorako pertsonak elkarrizketatuko zirela erabaki zen eta horien artean, erretiroan dauden bizpahiru pertsona. Bestalde, elkarrizketak Bilbo inguruan burutuko zirela jakinik, parte-hartzaile guztien artean beste herrialderen batetik

datozen etorkinengana ere heldu ahal izatea espero zen. Egiteko elkarrizketa kopurua 18an finkatu zen.

Elkarrizketa bideratzeko galdetegi-gida Gaikako Ikerketa Galderak (GIG) eta Elkarrizketa Galdera Dinamiko (EGD) blokeetan banatuta dago. GIGen bitartez ikerketa helburuak enuntziatzen dira eta galdetegiari hezurdura ematen diote informazioa taldeetan antolatuz. Ikerlariak berarentzat gordetzen ditu GIG hauek, baina berauetatik eratortzen dira gero elkarrizketan erabiltzeko galdera posibleak, EGD alegia (ikus 2. eranskina).


EGD hauek elkarrizketan zehar erabil litezkeen galderak dira, solasaren erritmoaren eta elkarrizketatuaren parte-hartzearen arabera aktiba litezkeenak. Hau da, elkarrizketa kualitatiboen bidez pertsonen bizitza kontakizunera heldu nahi da, eta ez dira zertan galderak bata bestearen atzetik joan behar. Elkarrizketaren bilakaeraren arabera galtegia joko da, testuinguruak hala eskatzen duenean (Valles 2003).

Galdetegiko GIGak gizarte bazterkeriaren esparruen arabera antolatuta daude, betiere, harremanen esparruan zentratuta. Era horretan, esparru ekonomikoa, lan merkatuaren esparrua, etxebizitzaren esparrua, osasuna, ikasketen esparrua, eta harremanen esparruen arabera antolatutako galderak aurreikusten dira. Galdetegi osoa lehen eranskinean ikus daiteke, baina hurrengo irudian, GIG batzuen inguruan antolatuta dauden EGD batzuk erakusten dira adibide gisa (19. Irudia).

Harremanen esparruko lau ikerketa galdera nagusi planteatzen dira bertan eta galdera hauetatik EGD sorta abiatzen da. Lehenik eta behin, familia egituren eta familia harremanen nolakotasunean arakatu nahi da. Elkarrizketatuak familiarekin zer-nolako erlazioa duen jakin nahi da, eta haiengandik zein eratako babesa jasotzen duen. Horretaz gain, norbere familia egitura ezagutu nahi da eta egitura horretan familia hurbilena nortzuk osatzen duten.

(atzealdean begiratu)

19. Irudia: Gaikako ikerketa galderak eta Elkarrizketa galdera dinamikoak



Iturria:norberak eginda.

Bigarren GIG familia esparruak eman dezakeen babesaren inguruan fokatzen da, eta era berean familiaren baitan egon daitezkeen arduraren inguruan. Bestek beste, etxeko ardura eta zainketen banaketa nola antolatzen den aztertu nahi da, eta bikotea dagoen kasuetan banaketa horretan orekarik dagoen. Honekin lotuta, familia ardurak eta lan merkatuko ibilbideak uztartzerako orduan egon litezkeen oztopoak ere ikustarazi nahi dira. Era berean, familia esparruan laguntza bilatu den une jakinei buruz arakatzea galdera dinamiko gisa proposatzen da.

Irudian proposatzen den adibidean, familia arduretan zentratzen da berriro ere hirugarren ikerketa galdera, eta hain zuzen ere, ardurei aurre egite horretan zer eratako laguntzak jaso ahal izan diren ikasi nahi da; administrazio publikoaren aldetik, familia edota lagunen aldetik ...

Azkenik, adibidearekin amaitzeko, familia harremanekin lotutako hausturak aztertu nahi dira laugarren ikerketa galderan. Horretan sakontzeko bizpahiru galdera dinamiko markatzen dira aukera gisa; bizitza profesionalean etenik egon al den, familia kideekin berebiziko hausturarik bizi izan den, eta hausturak izatekotan norberaren ongizatean izan diren eraginak posibleak miatzea.

Galdetegian zehar gizarte bazterkeriaren beste esparruen inguruko ataletan ere, harremanen esparruarekin lotutako galderaren batzuk ere tartekatzen dira, baina adibide honetan zehazki harremanen esparruan fokatuta dauden haiexek erakutsi dira. Bestetik, gizarte bazterkeriaren esparru nagusiez gain ere, prestazioaren beraren inguruko galdekizunak ere proposatzen dira; pertsonen prestazioari buruz dituzten balorazio eta sentipenak jaso asmoz, eta zehazki pertsona hauek gizartean bizi dezaketen estigmaren inguruko bizipenak identifikatu ahal izateko.

Azkenik, Miguel S. Vallesek elkarrizketa kualitatiboan monografikoan proposatzen dituen elkarrizketa kualitatiborako teknikak bildu dira 10. Taulan, elkarrizketa aurretiko fasean, elkarrizketan zehar eta baita ondoren ere kontutan hartzeko gomendatzen dituenak eta landa ikerketan aintzat hartu direnak (Valles 2003).

(atzealdean begiratu)

10. Taula: Elkarrizketa kualitatiborako teknikak

Elkarrizketa aurretikoak: gidoia lantzerakoan aurrera litezkeenak
Gidoia lantzerakoan elkarrizketan zehar zenbait puntu <i>nola</i> jorratuko diren aurreikusi daiteke: Elkarrizketa nola abiatu, gaiaren aurkezpena nola egingo den, gai aldaketak zelan egin litezkeen, elkarrizketatua zelan motibatu daitekeen...
Elkarrizketan zehar kontutan hartzeko taktikak
Isiltasunaren taktika (<i>silent probe</i>): Isiltasun uneak, ondo dosifikatuz gero, elkarrizketatuari berarentzat zentzu gehien duen norabidea jarraitzeko aukera ematen dio. Gaiaren batetan sakontzera, detaile gehiago ematera animatu daiteke...
Animazioa eta elaborazioa: - Animazioa: arreta eta interesa erakusteko soinu eta keinuak. Ahozkoa ez den komunikazioa: «Ah», «mmmmmm»... - Elaborazioa: arreta eta interesa erakusteko, ahozko komunikaziora egiten da salto, baina neutraltasuna mantenduz.. - Berehalakoa: momentuan erantzuten zaio elkarrizketatuak esandakoari: «eta orduan?», «zer gehituko zenuke?» - Atzera begirakoa: aurretik irtendako gaiak birgogoratzen dira, eta berriro ekartzen dira harira sakontze handiagoa behar duten gaiak. Taktika hau errazteko, <i>probe notes</i> direlako ohartxoak hartzea gomendatzen zaio elkarrizketatzaileari, elkarrizketatzaileak esandako hitz gakoak jasotzeko.
Berreste eta errepikatzea (<i>reflexive probe</i>): Informazio gehigarria eskuratzeko teknikak dira, galdera zuzenak erabili gabe, elkarrizketatuak aurretik esandakoak errepikatuz (oihartzunaren taktika) edota honek esandako hitzengan esanahiren bat asmatzen saiatuz (interpretazioa).
Laburbiltzea (<i>recapitulation probe</i>): Elkarrizketatua kontatu berri duen pasarteren batean birkokatzean datza. Galdera zuzenak saihesteko bidea da, elkarrizketari naturaltasuna ematen diona, eta elkarrizketatuak esandakoaren ordena kronologikoa egiaztatzeko ere balio dezake. Teknika honen bidez ere, aurreikusi gabeko informazio esanguratsua eskura daiteke.
Argitze taktikak: Elaborazio taktikak puntu hilera iristen direnean, argibideak eskatu dakizkioke elkarrizketatuari. Honek elkarrizketaren norabidearekiko kontrol handiagoa eskatzen du.
Trantsizio eta gai aldaketak (<i>transitional questions</i>):

Elkarrizketa hauen irekitasun izaeraren aurka doa hein batean. Trantsizioa bistakoa izan daiteke (*cued transition*) edota atzera buelta duen trantsizio galdera (*reversional transition*).

Elkarrizketa ondorengo taktikak

Elkarrizketa formala amaitzerakoan topaketa luzatzean datza, egoera nolabait birbaloratzeko. Helburua bikoitza da: elkarrizketatuak oroitzapen positiboa gorde dezan animatu nahi da horrela, eta bestetik, elkarrizketan zehar honek erakutsi duen inhibizio maila baloratu nahi da.

Iturria : (Valles 2003) eta (Kvale 1996)-tik abituta, norberak eginda.

4.3) Gizarte egituraren aldaketak eta DBE

Harremanen esparruan zentratuko bagara, ezinbestekoa da elkarrizketatuen artean, familia egitura eta hartu-eman desberdinak dituzten pertsonak batzea. Zentzu honetan, EAEn familien egiturak izan duen bilakaera aztertzeke, interesgarria da 1986-2006 urte tarterako horren harira EUSTATEk argitaratutako txostenera jotzea; izan ere, berehala antzematen baitira joera nabarmenenak.

Denbora tarte honetan biztanleria ia iraunkor mantentzearekin batera -2.131.000 pertsona 2006an-, familien kopurua %32an hazi da. Horrek derrigorrez, familien batezbesteko tamaina murriztea ekarri du berekin; 3,6 pertsonatik 2,6 pertsonara jaitsi da hain zuzen, EAEn 1986-2006ko epealdian. alegia. Urte berean, Europako batazbesteko familiaren tamaina 2,4 pertsonakoa zen.

Azpimarragarria da alde batetik, familia tradizionalak izan duen beherakada. Hau da, familia nuklearrak -seme-alabak dituztenak eta ez dituztenak-, familia guztien hiru laurdenak izatetik erdia baino zertxobait gehiago izatera pasatu dira. Era berean gora egin du pertsona bakarreko familien kopuruak, eta baita seme-alabarik gabeko familien kopuruak ere: aztertutako hogeitun urteotan lehenak hirukoiztu egin dira eta seme-alabarik gabeko bikoteak berriz, bikoiztu. Honen atzean dauden arrazoietako bi; ugalkortasunaren beherakada eta bizi-itzaropenaren hazkundea izan dira. Joera hauexek ondoko taulan ikus daitezke, 1991 eta 2006ko urteko datuei begiratuz.

Bestalde, guraso bakarreko familien kasua daukagu: nukleo anitzeko familiekin batera,

4. Kapituluia

hauek ei dira «familia molde» berrien adibide argiena. Aztertutako epealdi honetan guraso bakarreko familien ereduak gora egin duen arren, 2001 urtean lortu zuen kopuru maximoa, batzbesteko pisua %9aren bueltan mantendu da, 2006an % 8,3 balioa hartuz.

Ostera, familia horien eratzea eragiten duen arrazoia izan da benetan aldatu dena. Batetik dibortzio edo banatze prozesuak geroz eta ugariagoak dira, oraindik ere alargunduen kasuak ohikoenak diren arren. Izan ere, guraso bakarreko familien artean, dibortziatu direnen ehunekoak gora egin du; 1986 urtean guraso bakarreko familien %8a izatetik 2006an %25ra iritsi arte. Gorakada nabarmena den arren, oraindik ere Europako batezbestekoetatik urruti dago -Europar guraso bakarren erdia baino gehiago dago dibortziatuta-.

Europako beste zenbait joerari erreparatuz eta orain arteko bilakaera demografikoak eta sozioekonomikoak mantentzen badira -ugalkortasun tasa baxuak, bizi-esperantza altua, gazteek gurasoen etxean uzteko batezbesteko adin berantiarra- pentsa daiteke pertsona bakarreko edota seme-alabarik gabeko bikoteek osatutako familien kopurua geroz eta handiagoa izango dela datozen urteetan ere (EUSTAT 2006).

Horretarako, aintzat hartu behar da familia ereduaren hauen proportzioa are handiagoa dela Europako Batasunean. Azpiatalaren amaieran 11. taulan jasotzen den moduan, 27ko Europako testuinguruan, pertsona bakarreko familiak %29 inguru ziren 2006an, eta seme-alabarik gabeko bikoteek osatutako familiak berriz, ia %28a. Guraso bakarreko familien balizko igoera hori, izatekotan, dibortzioen edo banantzeen areagotzearen bidetik etorriko litzateke. Aipatu bezala, alargunek familia eredu hauetan duten pisua beherantz baitoa, bizi itzaropenaren hazkundea dela eta.

Honen harira, Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) 2011an argitaratu zuen txostenak, mendebaldeko herrialdeen artean familia ereduetan emandako aldaketa nagusiak aztertu ditu, eta hein batean EAEn eta Europar jazoetako joera markatuenak testuinguru zabalago honetan egiaztatu egin dira (ELGA 2011). ELGAko herrialde gehienek ere ugalkortasun tasa baxuak erakutsi dituzte azken 30 urteotan, eta ondorioz, batzbesteko familien tamaina murriztu egin da.

Bestetik, familia ereduen aldaketa fenomeno orokortua izan da herrialde hauetan ere, beraien intentsitatean desberdintasun nabariak dauden arren. Beste askoren artean, amatasunaren atzerapena aipatzen da eta horrela adierazten digu lehenengo umea izaterakoan emakumeen batzbesteko adinaren gorakadak: 24 urtetatik 28 urtetara igo da 1970-2008 urte tartarako. Zehazki, 30 urteren bueltan dago Alemania, Italia, Espainia eta Suitzan, eta 30 urteetatik gora Erresuma Batuan.

Amatasuna atzeratzeaz gain, familiako seme-alaba kopurua ere txikitu egin da Mendebaldeko herrialdeen artean. Hain juxtu ere, seme-alaba bakarra duten sendien proportzioa eta bi dituztenena oso parekoa da -%40 ingurukoa-. Seme-alaba bat baino ez duten familiak are gehiago dira Espainia, Austria, Hungaria, Portugal, Italia eta Alemania bezalako herrialdeetan.

ELGAko herrialdeen testuinguruan ere, guraso bakarreko familiek nabarmen egin dute gora, ezkontzen beherakada eta dibortzioen gorakada tarteko. Aztertutako txostenean, familia eredu honek berak kezka pizten du, gizarte bazterkeria edota pobrezian erortzeko duten arrisku handiagoa dela eta.

Berrero ere EAEko esparrura itzuliz eta familia-moldeekin lotuta, esan beharra dago DBEren onuradunen artean prestazioaren ia titular guztiak direla haien etxeetako familia buru edo erreferentziazko pertsona. Halaxe erakusten dute Eusko Jaurlaritzak 2006an argitaratutako txosteneko datuek (Eusko Jaurlaritza 2008).

Dokumentu berean adierazten da baita ere, prestazioaren onuradunen artean ezkontuta edo bikotearekin daudenen proportzioa, biztanleria osoan baino txikiagoa dela; familia eredu hau DBE jasotzen duten familien laurden den bitartean, biztanleria osoan erdira besterik ez dira iristen (EUSTAT 2001). Aitzitik, pertsona bakarreko familiek onuradunen %33,5 ordezkatzen dute, biztanleria osoan suposatzen duten portzentajea baino dezente gehiago -%20,28 urte berean, 2001ean-. Honek agerian uzten du, gizarte bazterkeriaren balizko profilak aztertzean, bakarrik dauden pertsonak arrisku-kolektibo bat osatzen dutela, eta hein batean, datu hauek baieztatu egiten dute.

Generoari erreparatuz, prestazioaren onuradun diren emakumeen artean pertsona bakarreko familia gehiago dago, gizonen artean baino. Seme-alabak dituzten familien

4. Kapitulu

artean ere gauza bera gertatzen da; ohikoagoak dira DBEren onuraduna emakumeak direneko egoerak. Beste era batean esateko, emakumeek dute familia ardura handiena; izan ere, prestazioaren titularren artean hiru emakumetik bik familia-zamak izan ohi dituzte. Bestetik, txostenak erakusten du familia-zamek batez ere kontraturik gabeko emakume langileei eragiten diela, arduraldi osoz etxekoandre direnei baino.

Familia klasikoaren egiturak biztanleria osoan atzera egin duela ikusi den bezala, prestazioaren onuradun direnen artean ere antzeko joera izan da. Hau da, etxe berean elkarrekin bizi diren bi belaunaldi edo gehiago biltzen dituzten etxeak. Azken finean, baieztatu genezake, DBEren onuradunen artean, zenbait familia ereduak pisu handiagoa dutela, gizartearen osotasunean dutenarekin alderatzen badugu.

Hurrengo taulan beraz, puntu honetan aipatutako zenbait datu bildu dira (11. taula):

11. Taula: Familia ereduaren bilakaera EAEn.

	EAE		Espainia	Europako Batasuna
	1991	2006	2006	2006
Bakarrik dauden pertsonak	11,7	21,56	16,7	29,1
Nuklearra (seme-alaba gabe)	15,8	20,93	27,1	27,9
Nuklearra (seme-alabekin)	57,8	38,03	27,8	23,7
Guraso bakarreko familiak	1,5	8,32	1,9	4,1
Beste batzuk Zabaldua, nukleo anitza, eta konposatua	13,8	11,17	26,5	15,2
Guztira	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT eta EUROSTATen 1991 eta 2006ko datuetatik abiatuta.

4.4) Gure protagonistak: elkarrizketatuen aurkezpena

Lorea Bilbon bizi da, bere bi urteko alabarekin. Aspaldi berak muntatutako negozio batek ekarri zizkion zorrei aurre egin behar izan zien. Egoera horretan, lanpostu on bat lortu zuen, baina orain lau urte daramatza langabezian eta DBEren onuradun da ordutik. Bere adinean, eta haur txiki batekin, lan merkatutik kanporatuta sentitzen da erabat. Alokairua ordaindu ostean geratzen zaion dirua gutxiarekin, estualdiak pasatzen ditu bere oinarrizko gastuak estaltzeko. Zorionez, familia eta lagunak babesarekin kontaktatzen du, eta amiltzekotan badauka «non erori». Duela hiru urte eta erdi, alkohola utzi zuenetik, bere bizitzako eremu anitz berreskuratatu ditu. Ama izateak eman dio aurrera egiteko indarra, baina une honetan, amatasuna bere emakume identitateaz jabetu dela sentitzen du, eta horixe da errekuaratzeko falta zaion espazioetako bat.

(Lorea, Elkarrizketatuen aurkezpen paragrafoak)

Guztira burututako hamazortzi elkarrizketen artean, gure protagonistetako baten aurkezpen testua da gorakoa. Argazki-erretratu motz hau landa-ikerketan zehar elkarrizketatuek elkarbanatu dituzten bizipen, ikuspuntu, esperientzia eta egoera anitzen irudia da.

Aurreikusitako bezala, kasu gehienetan elkarte eta GKE ezberdinen bitartez lortu da pertsona guzti hauengana heltzea. Administrazio publikoaren bulegoetan *erabiltzaileen* –hau DBEren onuradunak izendatzeko erabiltzen duten terminoa- anonimotasuna une oro babestu asmoz, zaila zuten inoren datu edota kontaktuak luzatzea.

Gehienera ere, udal bulegoek DBEren onuradunekin lan egiten duten elkarteetara desbideratu dute informazio eskakizuna, zeina zalantzarik gabe laguntza garrantzitsua izan den. Edozelan ere, erakunde publikoek DBEren onuradun diren pertsonekin duten erabateko tratu profesionala eta administratiboa islatzeaz gain, erakunde hauek prestazioaren onuradun diren pertsonetikiko duten urruntasuna eta hoztasunaren irudi ere bada, pertsona hauek *erabiltzaile soil* gisa tratatzen dituztenean edota askotan, txosten zenbaki jakin batekin uztartutako kasuak direnean.

Ulertzekoa da, ez bairik gabe, DBEren onuradun diren pertsonen pribatutasuna bermatu nahi izatea, eta une oro ikerketan zehar presente egon den printzipioetako bat izan da. Era horretan, bada, kontaktatutako elkartearen izenak eta elkarrizketatutako pertsonenak anonimotasunean gorde dira, baita pertsona bat identifikatzen lagun dezaketen zenbait datu ere. Honenbestez, pertsonak ezizenekin aurkezten dira kasu guztietan eta jatorria

4. Kapituluia

-probintzia, herrialdea- bezalako datuak ere eraldatu egin dira zenbaitetan, elkarrizketatuek halaxe nahi izan zutenetan. Aldaketa hauek ez dute gure analisisian eragiten eta gure lagunen identitatea zertxobait gehiago kamuflatzeko bidea baizik ez da. Izan ere, pertsona hori Perun jaio ordez Kolonbian jaio zela esaterakoan ezer gutxi aldatzen baita beronen kontakizunaren gainean egingo den azterketa.

Elkarte, fundazio, edota GKE bakoitzak, bere kide edo partaideen artean DBEren onuradunak sobera ondo ezagutzen dituzte, eta elkarrizketetan parte-hartzeko baldintzak betetzen zituzten ala ez. Hartara, elkarrizketatuak izateko borondatea zuten pertsona haiexen kontaktua erraztu dute. Beraz, kasu guztietan alde aurretik ikerketan parte hartzeko nahia erakutsi duten pertsonengana jo da.

Era berean, elkarteek proposatutako balizko parte-hartzaileen artean, aurretik zehaztutako jarraibideak errespetatu dira. DBEren onuradunen artean, gizon-emakume kopuru parekoa elkarrizketatu nahi izan da, eta alde horretatik nolabaiteko oreka mantendu da. Pertsonen jatorriari dagokionez, beste horrenbeste: etorkinengana iristea ezinbestekotzat jo da, baina betiere etorkin ez direnei ere lekua utziz.

Atzean familia eredu desberdinak dituzten pertsonengana iritsi asmoz ere, aniztasuna bermatu gura izan da. Arrazoi hauengatik guztiengatik, zenbaitetan elkarteek proposatutako balizko elkarrizketatuak elkarrizketatzea uko egin zaie, emaitza osoari begira.

Segidan ikerketa lan honetako protagonisten elkarrizketa-fitxak aurkezten dira elkarrizketak burutu zireneko ordena errespetatuz. Taula bakoitzaren goiburuan, aurkezpen testu labur batek parte-hartzaile bakoitza aurkezten du. Ondoren, gizarte bazterkeriaren esparru anitzetan pertsona bakoitzak bizi duen egoera era oso laburtuan jasotzen da; harremanen esparrua, maila ekonomikoa, ikasketa maila, lan merkatuan izandako ibilbidea, etxebizitza esparrua e.a. Taula hauek aurkezterako orduan homogeneotasun handiena bilatu den arren ez da erabatekoa izatea lortu. Azpialdian bakanen batzuk ez dira fitxa guzti-guztietan agertzen izenburuko horren inguruan elkarrizketatuak aparteko ezer esan ez duen kasuetan, hain zuzen ere.

Elkarrizketen hizkuntzari dagokionez, Amaiari egindakoa izan da euskaraz burutu den

bakarra. Gainontzekoak gaztelania hutsean burutu dira baina hala ere, aurrerago landuko diren pasarteak euskaratzea erabaki da.

Elkarrizketa guztiak elkarrizketatuek beraiek proposatutako lekuetan edo haiekin adostutakoetan burutu dira: kafetegi, plaza, elkarteen bulegoetan, eta gutxiagoetan, beraien etxeetan. Bestetik, tauletan ikus daitekeen bezala, elkarrizketa gehien-gehienak ordu beteko iraupenaren bueltan ibili dira, zehazki 53 minutuko batezbesteko iraupena izan dute. Orokorrean, ez da denbora faktorea mugatu, eta elkarrizketa bakoitzaren eritmo eta norabideak markatu du.

Dena den, aipatu beharra dago, bi elkarrizketa jakinetan elkarrizketatuek denbora muga handiak izan zituztela eta horrek elkarrizketaren iraupenean eragina izan duela. Kasu hauetan, elkarrizketa egoerara moldatu behar izan zaio, denbora gutxiagoan elkarrizketaren muinera iritsi ahal izateko, baina bestela ere, bi elkarrizketa hauek emandako fruitua era oso positiboan baloratu da.

Bi kasu horietaz gain, ez da aparteko oztoporik topatu elkarrizketak burutzerako orduan, kasu zehatz bakar batean izan ezik. Egoera konkretu horretan, elkarrizketatuaren jarrera hasieratik oso mesfidatia eta defentsiboa izan zen. Pertsona honek, elkarrizketaren hasieran, DBErekin lotuta dauden zenbait betebeharrekin lotutako irregulartasun bat aitortu zuen. Faktore honek elkarrizketaren jariaortasuna mugatu du nolabait, gainontzeko elkarrizketetan nagusi izan den hurbiltasun, konfiantza eta naturaltasunarekin kontrastean.

(atzealdean begiratu)

12. **Taulak: Elkarrizketatuen aurkezpen fitxak.**

<p>ITSASOk 56 urte ditu eta bere nebak utzitako pisuan bizi da, Bilbon. Bere kasuan, DBEren onuradun izatea, maila handi batean hautu pertsonala izan dela aitortzen digu, gehienbat merkatuz kanpoko harreman eta bideak jorratzeko bidea ematen diolako. Osasun-sektorearen lan egin izan du urte askoan, eta bolada luze batean atzerrian bizi ostean Bilbora itzuli denetik ez du lanik izan. Bere desioa ikasten jarraitzea da, eta ahal izatekotan lau orduko lan bat topatzea. Bizitza independentea daramala ematen du aditzera, baina era berean, kontziente da familiari esker ere bizi dela bizi den moduan.</p>
<p>Elkarrizketaren Iraupena eta Lekua: 00: 57 h, leku publikoa (kafetegi, parke, plaza...).</p>
<p>Adina eta sexua: 56 urte, emakumezkoa.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Bilbon jaioa, Bilbon bizi da.</p>
<p>Bizikidetzta-unitatea: bera bakarrik.</p>
<p>Etxebizitza: senide baten pisuan, etxebizitza gasturik ez du.</p>
<p>Familia-egitura: gurasoak, neba-arrebak (2).</p>
<p>Familia-harremanak: bizitza independentea darama, harreman onargarria du familiarekin. Harreman sarea: lagun sarearen garrantzia handia, babes handia eskaintzen dio.</p>
<p>Familia-babesa: Laguntza ekonomikorik ez. Amaren babesa beti izan du. Hartu-emana alde bikoa. Nebak utzitako pisuan bizi da. Gurasoen zainketa ardurak bere ahizpak darama. 3. sektoreko erakundeak: aktiboa da elkarteren batzuetan, baina ez du inongo laguntzarik jasotzen.</p>
<p>Maila ekonomikoa: 456 euro jasotzen du, ez du zenbateko osoa jasotzen bateraezintasun baten bategatik. Familiarekiko independentzia ekonomikoa duela baieztatzen du.</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: lanik ez luzaroan, ez du modu aktiboan bilatzen. Lanaldi partziala nahiko luke, merkatuz kanpoko harremanak eta ekintzak jorratu ahal izateko.</p>
<p>Ikasketa maila: goi mailako ikasketak burutu ditu; gradua atera zuen eta Masterra egitekotan dago.</p>
<p>DBE iritzia: DBE eskubidearen izatearen kontzientzia eta HOE unibertsalaren defentsa. Onuradun izatea, bere aukera pertsonala da. Estigmatizazioa gizartean nabari du, berak ez du bizi.</p>
<p>DBE ibilbidea: 3-4 era urtez jarraian jaso du, urte asko atzerrian egon ostean EAera itzuli zenean.</p>

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

<p>60 urterekin bere borondatez erretiratzea erabaki zuen BEGOÑAK. Orduetik, hileroko pentsioa DBE prestazioarekin osatzen du, gutxieneko soldata mailara iritsi arte. Azken bi hamarkadatan ere, langabezia eta lan boladekin aldizkatu izan du prestazioa. Aktibismo politikoak bere bizitzaren esparru garrantzitsua betetzen du, eta bere bizitzaren ardatz nagusietako bat izan da. Grina hau bere senarrarekin konpartitu du urte askoan zehar, baina orain banatuta daude. Haustura honek berarentzako txoko bat bilatzera behartu du, baina askatasuna berreskuratzea aurkikunde handia izan da. Alabak aitaren etxean geratzea erabaki zuen, eta horrela, berarekin zuen harremana ere gozotu dela nabari du. Dirurik gehiegi ez du izango, baina oso garrantzitsua den kapitala baduela azaltzen digu: lagunak.</p>
<p>Elkarrizketaren Iraupena eta lekua: 00:57 h, elkarte baten lokala.</p>
<p>Adina eta sexua: 67 urte, emakumezkoa.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Burgosen jaioa eta txikitari Bilbora etorria. Bilbo Handian bizi da.</p>
<p>Bizikidetzaren unitatea: bera bakarrik.</p>
<p>Etxebizitza: babestutako alokairuan gaur egun. Azken urteetan, alokatutako gela batean bizi izan da.</p>
<p>Familia-egitura: neba-arrebak (6), alaba adinez nagusia, dibortziatuta dago.</p>
<p>Familia-harremanak: harreman ona orokorrean, neba-arrebekin. Amarekin hausturak izan ditu. Dibortziatuta dago. Amaren zainketa ardura neba-arreben artean banatzen dute.</p> <p>Harreman sarea: lagun sare oso garrantzitsua, militantzia politikoaren inguruan.</p>
<p>Familia-babesa: independentzia ekonomiko dauka, baina badaki familiaren babes osoa duela.</p> <p>3. sektoreko erakundeak: militantzia oso aktiboa izan du bizitza osoan zehar.</p>
<p>Maila ekonomikoa: 600 euro (erretiroa + DBE). Independentea da ekonomikoki.</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: 60 urterekin erretiratu zen. Sektore askotan lan egin izan du.</p>
<p>Ikasketa maila: 12 urterekin lanean hasi zen lanean. Batxilerra, gau-eskolatan.</p>
<p>DBE iritzia: HOE unibertsalaren defentsa. Merkatuk kanpoko bestelako proiektuak garatzeko.</p>
<p>DBE ibilbidea: lana eta DBE tartekatuta, azken 20 urteetan. Gaur egun, erretiroa eta DBE osagarri.</p>

4. Kapitulu

<p>AITOREk 41 urte ditu eta duela zortzi urte jaso zuen lehenengoz prestazioa. Lan zirkuituan etengabeko sartu-irtenean dabil, lan prekarioak, langabezia eta dagokionean, prestazioa tartekatuz. Lagunik ez zaio falta, ikasketak ditu, familiaren babesa, gizarte mugimenduetan parte hartzen du, eta ez dauka inongo menpekotasun edo osasun arazorik. Berea, gizarte bazterkeria egoera baino, pobrezia ekonomikoa dela azaltzen du. Hilean, bere diru-sarreraren kantitate garrantzitsua alokairua ordaintzera bideratzen du eta prestazioa jaso ezean, familiaren etxera jo beharko luke. Orokorrean, pobrezia eta bizitza guztiz osasuntsua bateraezinak direla uste du, betiere, norberaren barrenean zerbait urratzen delako.</p>
<p>Elkarrizketaren Iraupena eta lekua: 00:56 h, elkarte baten lokalean.</p>
<p>Adina eta sexua: 41 urte, gizonzkoa.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Bilbon jaioa, Bilbon bizi da.</p>
<p>Bizikidetzaren unitatea: bera bakarrik.</p>
<p>Etxebizitza: EPO jasotzen du alokairua ordaintzeko zailtasunak, pisua galtzeko beldurra.</p>
<p>Familia-egitura: ama, neba-arrebak (3), ilobak. Dibortziatuta dago.</p>
<p>Familia-harremanak: oso harreman ona, oso gertu ditu, asko elkarbanatzen dute.</p>
<p>Harreman sarea: lagun asko ditu, baina jarrera independentea, ez die laguntza eskatzen.</p>
<p>Familia-babesa: babesa dauka, eta laguntza eskatu die une puntualetan. Independentea da. Aitaren gaixotasuna, zainketa familia kideen artean banatu.</p>
<p>3. sektoreko erakundeak: militantzia oso aktiboa elkarte baten barruan, DBEren inguruan orientazioa eta aholkularitza legala eman diote.</p>
<p>Maila ekonomikoa: 650 euro (DBE + EPO) + lan errentak (dauzkanean), gehienez 1000 euro. Larritasunak pasatzen ditu, DBEren atzerapenen bat badago.</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: behin-behineko kontratuak, partzialak. Sartu-irten asko hilean zehar.</p>
<p>Ikasketa maila: lanbide heziketa, eta kurtso osagarriak.</p>
<p>DBE iritzia: HOE unibertsalaren aldekoa, diskurtso politiko garatua du, informatuta dago. DBE eskubide denaren kontzientzia. Estigmatizazioa badago, baina norbere jarreraren datza.</p>
<p>DBE ibilbidea: orain 8 urte lehenengoz. Ez du era jarraian jaso, 5 urtez lanean egon da. Orain lana eta DBE batera, tarteka. Fluktuazioak dituenean, familiarengana jotzen du.</p>

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

<p>Bere familia gogoan duela, etxeokak banan-banan galdu izana zeinen golpe latza izan den azaltzen digu MERTXEK. Oso familia elkartua izan da bilbotarrarena, baina nerabea zela aita hil zitzaionetik, ama eta ahizpa ere bata bestearen atzetik galdu ditu. Gainera, aitaren galerak, egoera ekonomiko deserosoan utzi zituen bera eta etxeokak. Sektore domestikoan ibili izan da Mertxe gehienbat eta hogeit hamar urte darama, DBE prestazioa eta honen gisakoak jasotzen. Orain 52 urte ditu eta Bilbon bizi da tutoretzapeko pisu batean. Alokairua ordaindu ostean, ozta-ozta iristen zaio jana eta arropak erosteko. Baina kale gorrian bizitako pasarte laburraren ostean, aterpe bat edukitzeak nolabaiteko lasaitasuna ematen dio. Ez da jende askorekin erlazionatzen eta bere burua isolatuta ikusten du</p>
<p>Elkarrizketaren Iraupena eta lekua: 00:53 h, elkarrizketatuaren etxean.</p>
<p>Adina eta sexua: 52 urte, emakumezkoa.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Bilbon jaioa, Bilbon bizi da.</p>
<p>Bizikidetz-unitatea: bera bakarrik.</p>
<p>Etxebizitza: EPO jasotzen du, tutoretzapeko pisuan bizi da emakume gehiagorekin.</p>
<p>Familia egitura: ez du familiarik, gurasoak eta ahizpa hil zitzaizkion</p>
<p>Familia-harremanak: familiakoak biziren zeuden garaiko oroitzapen onak.</p>
<p>Harreman sarea: gutxitan ikusten ditu lagunak. Isolamendu sentimendua.</p>
<p>Familia-babesa: familiaren garrantzia azpimarratzen du sarri.</p>
<p>3. sektoreko erakundeak: elkarte baten babesa jaso izan du urte askoan (tutoretzapeko pisua)</p>
<p>Maila ekonomikoa: DBE 650 euro + EPO = 900 euro. Ozta-ozta estaltzen ditu bere gastuak.</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: gazte garaian; zainketa, garbiketa lanak. Urte asko lan merkatutik kanpo, osasun oztopoak.</p>
<p>Ikasketa maila: oinarri-oinarrizkoa.</p>
<p>DBE iritzia: galtzeko beldurra dauka, ez dauka DBE eskubide izatearen kontzientziarik.</p>
<p>DBE ibilbidea: 20 urte baino gehiago darama prestazioak jasotzen.</p>
<p>Haustura nabarmenak: familiako kideen galerak, golpe latza izan dira. Estualdi ekonomiko handiak.</p>
<p>Oztopoak: hitz egiteko oztopoak, buruko osasun arazoak. Arreta, diskurtsoa galdu. Denbora dimentsioa, ez beti argia.</p>

4. Kapitulu

<p>Ez dizkigu Kontxik ez bere jatorria, ezta adina ere aitortu. Bere kontakizunean zehar, denbora dimentsioa ez da batere argia, eta zulo asko nabari dira. Biolentzia pasarte ugari bizi izan ditu, bikote izandakoekin gehienbat. Bere lehen umea bortxaketa baten ondorioz jaio zen, baina gaur egun bere bi seme-alaben zaintza galduta dauka, eta ez du haien berririk. Bere familiarekin ere harremanak etenda ditu, ahizpa batekin izan ezik. Biolentzia-girotik ihesi heldu zen Bilbo aldera, Espainia barnealdeko probintzia batetik. Lau urte pasatu dira ordutik, eta azken urte honetan DBE prestazioa jaso du. Prozesu honetan zenbait elkarteren babesa jaso du, eta elkarte hauetako batek kudeatutako pisu batean bizi da orain. Buruko-osasun arazoak ditu, eta alkoholarekin harreman korapilatsua izan duela iradokitzen digu. Bakarrik eta isolatuta sentitzen da Mertxe. Musika klasikoa entzutea da bere arnasbideetako bat.</p>
<p>Elkarrizketaren Iraupena eta lekua: 01:20 h, elkarrizketatuaren etxean.</p>
<p>Adina eta sexua: adin zehatza ez, 50 urtetik gorakoa, emakumea.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Espainia barrualdeko probintzia baten jaioa, Bilbon bizi da duela 3 urte.</p>
<p>Bizikidetzaren unitatea: bera bakarrik.</p>
<p>Etxebizitza: EPO jasotzen du, tutoretzapeko pisuan bizi da emakume gehiagorekin. Kalean ere bizi izan da.</p>
<p>Familia-egitura: ama izan nerabe zela. Gerora, familiarekin haustura; seme-alaben zaintza galdu (2), bestea ahizparekin bizi da (1). Harremanak erabat hautsita ditu.</p>
<p>Familia-harremanak: ahizpa batekin mantendu nolabaiteko kontaktua. Familia dirudunekoak zen. Tratu txarrak jaso ditu hainbat bikote-kideengandik.</p>
<p>Harreman sarea: isolamendua, lagunik ez, babesik ez.</p>
<p>Familia-babesa: ez du harremanik. Seme-alabetako bat bere ahizpak hazi du.</p>
<p>3. sektoreko erakundeak: elkarte baten babesa jaso, DBE aholkularitza, aterpea ...</p>
<p>9Maila ekonomikoa: 900 euro (650 + 250 EPO). Prekarietate ekonomikoa.</p>
<p>Ikasketaren maila: oinarri-oinarrizkoa.</p>
<p>DBE ibilbidea: duela urtebete jaso, Bilbora heldu eta baldintzak bete arte.</p>
<p>Osasuna: depresioa, menpekotasunak izan ditu, tratu txarrak, buruko osasun arazoak.</p>
<p>Oztopoak: buru-osasun arazoak, kontakizunaren haria desbideratu egiten du.</p>
<p>Hausturak: ama gazte, biolentzia harremanak, seme-alaben zaintzaren galera, egoitza aldaketak, salaketak.</p>

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

<p>LOREA Bilbon bizi da, bere bi urteko alabarekin. Aspaldi berak muntatutako negozio batek ekarri zizkion zorrei aurre egin behar izan zien. Egoera horretan, lanpostu on bat lortu zuen, baina orain lau urte daramatza langabezian eta DBEren onuradun da ordutik. Bere adinean, eta haur txiki batekin, lan merkatutik kanporatuta sentitzen da erabat. Alokairua ordaindu ostean geratzen zaion dirua gutxiarekin, estualdiak pasatzen ditu bere oinarrizko gastuak estaltzeko. Zorionez, familia eta lagunen babesarekin kontaktzen du, eta amiltzekotan badauka «non erori». Duela hiru urte eta erdi, alkohola utzi zuenetik, bere bizitzako eremu anitz berreskuratu ditu. Ama izateak eman dio aurrera egiteko indarra, baina une honetan, amatasuna bere emakume identitateaz jabetu dela sentitzen du, eta horixe da errekuperatzeko falta zaion espazioetako bat.</p>
<p>Elkarrizketaren Iraupena eta lekua: 01:17 h, leku publikoan (kafetegia, plaza).</p>
<p>Adina eta sexua: 41 urte, emakumea.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Bilbo Handian jaio eta bizi da.</p>
<p>Bizikidetzta-unitatea: bi urteko semearekin.</p>
<p>Etxebizitza: alokairua ordaintzeko EPO jasotzen du. Aurrekontuaren zati handia doakio.</p>
<p>Familia-egitura: neba-arreba eta gurasoak.</p>
<p>Familia-harremanak: alkohola utzi ostean hobetu da berriro. Aitarekin harreman urratua, aita ere alkoholikoa. Hurbil ditu eta sarri egoten dira.</p> <p>Harreman-sarea: lagunen babesa ere badu (semea zaintzeko). Funtsezkoa da berarentzat.</p>
<p>Familia-babesa: babesa dauka, baina ez du haien menpekoea izan nahi. Laguntza ekonomiko ez, baina semearen zainketan bai lagundu. Neba-arrebek soloko produktuak ematen dizkiete. Laguntza ekonomiko puntuala ahizpak. Familiarekiko menpekoea dela uste du, hala ere.</p> <p>3. Sektoreko erakundeak: ez du harremanik.</p>
<p>Maila ekonomikoa: 800 DBE (bi pertsona) + 250 alokairua (1050). Ez zaio iristen, ezin du gastu berezirik ordaindu (etxeko aseguru).</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: autonomo gisa lan egin du, eta soldatapeko ere. Lana aurkitzeko oztopoak ditu orain; amatasuna eta adina ditu oztopo.</p>
<p>Ikasketa maila: lanbide heziketa, euskara ikasten ibili da laguntzak murriztu diren arte.</p>
<p>Osasuna: depresioa eta alkoholismo arazoak izan ditu. Tratu txarrak bikote harremanean (aldebikoa).</p>
<p>DBE iritzia: denborarekin barneratu du dagokion eskubidea dela</p>
<p>DBE ibilbidea: duela 4 urte jaso du era jarraian.</p>
<p>Haustura nabarmenak: alkohola, harreman haustura handiak, lanaren galera, amatasuna.</p>

4. Kapitulu

<p>AMAIAri prestazioa eten diote berriki. Prestazioa jasotzen zuen bitartean, bi umeren ama izanda hilabete bukaerara iristea gogorra egin bazaio, oraingo egoera zoramena da. Bere pisuko gela bat alokatu behar izan du egoerari aurre-egiteko eta diru-iturri hori, bikote ohiak seme-alabengatik ematen dion laguntzarekin konbinatzen du. Goi-mailako ikasketak ditu, baina duela zortzi urte langabezian geratu zenetik, boladaka lan egin izan duen arren, geroz eta zailago ikusten du bere adinean eta ama izanda lana topatzea. Horregatik, ezinbestekoa izan da berarentzat denboraldi honetan, laneko diru-sarrerak eskasak prestazioarekin uztartzea. Funtsezkoa da baita ere familiak eta lagunek ematen dioten babesa. Horrelako egoera hauskorretan, emakumeak nolabait eskizofreniko bihurtzen direla uste du, eta bere ere halaxe ibili dela, eskizofreniko.</p>
<p>Elkarrizketaren Iraupena eta lekua: 01:10 h, leku publikoan (kafetegia, plaza ...)</p>
<p>Adina eta sexua: 55 urte, emakumea.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Bilbo Handian jaioa, Bilbon bizi da.</p>
<p>Bizikidetzaren unitatea: bera eta bi seme.</p>
<p>Etxebizitza: pisua bere da, ez du etxebizitza gasturik, baina gela bat azpi-alokatu du.</p>
<p>Familia-egitura: bi seme, gurasoak, eta neba-arreba asko.</p>
<p>Familia-harremanak: oso harreman ona du gurasoekin, familia zabala da</p> <p>Harreman sarea: jende asko dauka inguruan, lagunak, babes garrantzitsua (moral).</p>
<p>Familia-babesa: era puntualean familiaren laguntza, beti izan du haien babesa eta badaki hor dituela. Orain nagusiak dira, zainketa lanak bere nebekin banatu, berak gehiago.</p> <p>3. sektoreko erakundeak: ez du harreman sakonik inongo elkarterekin.</p>
<p>Maila ekonomikoa: prestazioa eten diote. Sarrerak: senar ohia (370), logela eta lonjaren alokairua. Lehen 800 euro (prestazioa + senar ohia). Orain arte independentzia ekonomikoa izan du.</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: langabezian, lana bilatzeko oztopoak (adina eta emakumea izanagatik)</p>
<p>Ikasketa maila: psikologia ikasketak eta masterra.</p>
<p>DBE iritzia: eskubide denaren kontzientzia, defentsa.</p>
<p>DBE ibilbidea: duela zortzi urte lehengoz, ez du era jarraian jaso (lana tartekatu), orain eten egin diote.</p>

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

<p>Aita hiltzerakoan egoerak hala bultzatuta, gazterik hasi zen lanean JOSEBA. Bizi maila oparoa izan du autonomo gisa lan egin duen bitartean. Ez omen ditu ordea erretiroa jasotzeko baldintzak betetzen, eta orain 71 dituela, pentsio ez kontributiboak eta DBEren prestazioak ematen dionarekin moldatu beharra dauka. Lau seme-alaba izan ditu, baina emaztearengandik bananduta dagoenetik, bere ama zenarekin bizi izan da Bilbon alokatuta zuten pisuan. Gaur egun on hilero bere arrebak ematen dion eskupekoa oso lagungarri zaio. Lagunekin irten eta txokoan elkartzea gustatzen zaio, baina ez die haiei bere egoera ekonomikoaren berri ematen.</p>
<p>Elkarrizketaren iraupena eta lekua: 00:44 h, leku publikoan (plaza, kafetegia ...)</p>
<p>Adina eta sexua: 71 urte, gizona.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Bilbo handian jaio eta bizi da.</p>
<p>Bizikidetzaren unitatea: Bakarrik, duela gutxi ama hil zenetik.</p>
<p>Etxebizitza: Alokairuan (kontratu zaharra) orain eteteko arriskua. 183 euro, osagarria jaso.</p>
<p>Familia-egitura: neba-arreba, koinatu-koinatak, eta 4 seme alaba (eta ilobak)</p>
<p>Familia-harremanak: harreman ona seme-alabekin, independenteak dira. Txikiak zirenean, emazteak zaindu.</p> <p>Harreman sarea: lagunak bai, baina bere independentzia azpimarratu. DBE jasotzen duela ezkutatu . Ez du lagunengan laguntzarik bilatzen.</p>
<p>Familia-babesa: arreba batengandik diru kantitate bat jaso hilero (300 euro)</p> <p>3. sektoreko erakundeak: ez du harremanik.</p>
<p>Maila ekonomikoa: 347 pentsio ez kontributiboa, DBE osagarri, 650 era heldu gabe. Baina, independentzia ekonomikoa duela aldarrikatu (nahiz arrebaren dirua jaso).</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: autonomo gisa lan egin du gaztetatik, 69 urte arte. Arazoak sozioekin.</p>
<p>Ikasketa maila: ingeniari-tza ikasketak hasi, familia egoeragatik eten.</p>
<p>DBE iritzia: ezkutatu jasotzen duela, estigmatizazioa.</p>
<p>DBE ibilbidea: duela bi urte, erretiratu ostean.</p>
<p>Hausturak nabarmenak: gazte zela aitaren heriotza, dibortzioa, eta erretiroa (egoera ekonomikoa)</p>

4. Kapitulu

<p>IRATXEK 44 urte ditu eta hogeitertirik gorako darama DBE prestazioa eta honen aurrekari izan direnak jasotzen. Lanbide heziketa egin zuen, eta inoiz lanik egin duen arren, lan merkatuan ibilbide eskasa izan du. Lau umeen ama da, eta ibilbide profesionala garatu baino, horixe izan da bere desio nagusia: ama izatea. Etxean asko dira, eta prestazioa hilaren 26an jasotzen badu biharamunerako sosik ez duela azaltzen digu. Zailtasun uneetan, inoiz DBE eten diotenean adibidez, elkarteren batengana jo izan du laguntza eske. Izatez, umeen aitarekin ez du harremanik, eta bere familiarekin ere erlazioa nahikoa urratuta dago. Dena den, aitak merke alokatzen dien pisuan bizi dira oraintsu, Bilbo inguruko herri txiki batean. Lasaitasuna eman dio horrek, azken urteetan, etxerik etxe ibili direlako, inolako egonkortasunik gabe, sarritan lagun edota ezagunek alokatutako pisuetan.</p>
<p>Elkarrizketaren iraupena eta lekua: 00:49 h, leku publikoan (plaza, kafetegia ...)</p>
<p>Adina eta sexua: 44 urte, emakumea.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Bilbo Handian jaio eta bizi.</p>
<p>Bizikidetzaren unitatea: bera eta hiru seme-alaba, laugarren semea aitarekin bizi da.</p>
<p>Etxebizitza: EPOren onuraduna. Lagunek alokatutako etxeetan, eta orain aitak alokatzen dion etxean.</p>
<p>Familia-egitura: 4 seme alaba, senar ohia, gurasoak, neba-arrebak...</p>
<p>Familia-harremanak: gutxi, urratuak, etenak.</p>
<p>Harreman-sarea: nolabait lagun baten eta elkarten babesa du. Lagunek utzitako pisuetan bizi izan da, eta laguntza ekonomiko puntualak lagunei.</p>
<p>Familia-babesa: babesik ez duela esaten du, dirurik jaso ez, baina orain aitarena den pisu batera instalatu berriak. Semearen aitarengandik ez du inongo babesik izan inoiz. Ez du laguntzarik eskatzen.</p>
<p>3. sektoreko erakundeak: GKE/fundazioen laguntza une puntaletan, baliabideak eskatzeko, prestazio eten ziotenean salaketa jartzeko-</p>
<p>Maila ekonomikoa: urtean 14.000 bat euro guztira.</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: sukalde lanak, denetarik, gehienbat ama izan aurretik.</p>
<p>Ikasketa maila: lanbide heziketa.</p>
<p>DBE iritzia: estigmatizazioa bizi izan du hurbiletik, baina bere eskubidea defendatzen du: ama izan eta lan merkatuara joan behar izateko eskubidea.</p>
<p>DBE ibilbidea: urte asko darama prestazioak jasotzen, DBE aurretik ere. Etenak izan ditu.</p>
<p>Haustura nabarmenak: aita eta nebeekin, bikote ohiarekin hitz egin ez (ume baten aita), urratua. Bikote bizitza, amatasuna, haustura.</p>
<p>Oztopoak: elkarrizketatuaren jarrera mesfidatia izan zen oztopo.</p>

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

<p>MANU garraio sektorean ibili izan da urte askoan, baina azken aldian ez du lanik aurkitzen. Berrogeita hamar urte pasata ditu galdakarrak, eta etsita dago. Duela urte eta erdi, jasotzen du prestazioa, langabeziagatik diru-laguntza amaitu zitzaionetik. Tarte horretan, bere emaztearengandik banatu da eta gela bat alokatu behar izan du prestazioa kobratzen jarraitu ahal izateko. Seme txiki bat dauka, eta ekonomikoki lagundu ezin duen arren, oso inplikaturatuta dago bere zainketan eta berak zaintzen du arratsaldero. Anaiarekin duen harremana ez da guztiz ona, baina dena den, estualdiren baten aurrean harengana jo izan du, laguntza puntuala eskatzeko.</p>
<p>Elkarrizketaren iraupena eta lekua: 00:50 h, leku publikoa (kafetegia, plaza) ...</p>
<p>Adina eta sexua: 51 urte, gizona.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Bilbon jaioa, Bilbo Handian bizi da.</p>
<p>Bizikidetzta-unitatea: bera bakarrik. Prestazioa jasotzeko, gela bat alokatu behar izan du.</p>
<p>Etxebizitza: gela bat alokatzen du, laguntza gehigarria jasotzen du 250 euro.</p>
<p>Familia-egitura: semea emazte ohiarekin bizi da, bi anai.</p>
<p>Familia-harremanak: emaztearengandik banatuta, anaiekin ez harreman oso ona. Semearen zaintzan asko lagundu, ez ekonomikoki. Aita zaindu zuen hil aurreko urteetan.</p> <p>Harreman sarea: lagun asko. Inoiz laguntza eskatu die, baina ez da ohikoena.</p>
<p>Familia-babesa: une puntaletan (banatzerakoan) familian dirua uzteko eskatu bestela ez du familiarekin kontaktatzen. Zor txikia du anaiari itzultzeko.</p>
<p>Maila ekonomikoa: DBE (650) + 250 etxebizitza gehigarria, laneko diru-iturri puntualak.</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: langabezian, ez du aurkitzen. Puntualki, antzerki-lanak. Urte askoan, garraiolaria izandakoa.</p>
<p>Ikasketa maila: derrigorrezko hezkuntza, eta antzerki eskolak.</p>
<p>DBE iritzia: eskubide denaren kontzientzia du, baina inguruan estigmatizazioa.</p>
<p>DBE ibilbidea: urte eta erdi daraman jasotzen, langabezia eta laguntzak agortu zitzaizkionean.</p>
<p>Hausturak: anaia batekin harreman urratua, emazte ohiarengandik banatuta. Aldaketa asko bizitzan, lana, aita izatea, aitaren heriotza...baina ez dramatikoak.</p>

4. Kapitulu

<p>Hogei urtetik gora pasatu dira AHMED Euskal Herrira heldu zenetik. Merkatuz merkatu lan egin izan du hamalau urtetan zehar, autonomo gisa. Baina negozioak hondoa jo zuenetik, prestazioa jasotzen dabil eta lanik ez topatzeak erabat zapuzten du. Etxean, sei dira guztira, eta bere emaztea da etxeko lanekin eta umeekin arduratzen dena. Zenbait neba-arreba eta senide hurbil dituzte, baina urtero egiten dute bidaia haien herrira. Bueltako bidaian, autoa janariz beteta ekartzeko aprobetxatzen dute, urtean zehar janari freskoa besterik erosi behar ez izateko. Alokairu baxua ordaintzen dute, baina kontratua berritzeko oztopoak direla eta kalean geratzeko arriskuan daude. Ahmed baikor agertzen da hala ere, eta txarrean, bolada batez anaiarenean bizi beharko dutela esaten digu.</p>
<p>Elkarrizketaren iraupena eta lekua: 00:32 h, leku publikoa (kafetegia, plaza ...).</p>
<p>Adina eta sexua: 53 urte, gizona.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Aljerian jaioa, Bilbo Handian bizi dela duela 20 urte.</p>
<p>Bizikidetzaren unitatea: emaztea eta 4 seme-alaba.</p>
<p>Etxebizitza: Alokairu baxua, 134 euro. Galtzeko puntuan eta kalean geratzeko arriskua.</p>
<p>Familia-egitura: emaztea, seme-alabak, anaia (3) eta senideak Bilbon, gurasoak Aljerian.</p>
<p>Familia-harremanak: harreman ona, baina bakoitzak bere bizitza du. Emaztea arduratu seme-alaben zaintzaz.</p>
<p>Familia-babesa: ez du laguntzarik eskatu behar izan. Urtero, Aljeriara oporretan, handik janari asko ekarri, urte osorako.</p>
<p>3. sektoreko erakundeak: umeengatik subentzio modukoren bat jasotzen dute, arropak erosteko, eta eskolan laguntzeko</p>
<p>Maila ekonomikoa: 935 euro, DBE. Lan egiten zuen garaian, maila ekonomiko nabarmen altuagoa.</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: epe luzeko langabezian. Autonomo gisa ibilia urte askoan, eta diru-sarrerara onak zituen.</p>
<p>Ikasketa maila: ikasketarik ez.</p>
<p>DBE iritzia: estigmatizazioa. Lan egin nahiko luke, eta ez du DBE eskubide denaren kontzientzia.</p>
<p>DBE ibilbidea: 5 urte, langabezian geratu zenean.</p>
<p>Oztopoak: denboraren muga, presaka zebilen.</p>

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

<p>ERNESTO bi urte zituela heldu zen Galiziatik Bilbora, bere familiarekin. 42 urte ditu orain eta bere bizitza gehiena bertan pasatu du. Nerabea zela, ikasketak utzi eta droga munduan sartu zen leporaino. Bidean, dena galdu du, lagunak, zenbait lan eta baita familia ere. Ezkonduta egon da, eta Espainiako hegoaldean bizi izan den bolada batez, emaztea eta semearekin. Harremana hautsi zenean baina, Bilbora itzuli zen, arrebaren etxera. Drogekin nahastuta jarraitzen zuela eta, arrebak etxetik bota zuen, eta urtebete eta erdi pasatu zituen kale gorrian. Orain, elkarte batek kudeatutako egoitza batean bizi da eta duela hiru hilabete DBE prestazioaren onuradun da. Menpekotasunak gainditzeko prozesuan droga-menpekotasun unitatearen laguntza jaso du. Horretaz gain, arrebaren sostengua berreskuratu izana funtsezkoa izan da. Droga uztea lortu du, baina kontsumoarekin lotutako buru-osasun arazoak ditu.</p>
<p>Elkarrizketaren iraupena eta lekua: 00:33 h, elkarte baten lokala.</p>
<p>Adina eta sexua: 42 urte, gizona.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia. Galiziatik, umetan familiarekin etorria, Bilbo Handian bizi da.</p>
<p>Bizikidetzta-unitatea: bera bakarrik.</p>
<p>Etxebizitza: erresidentzia batean bizi da 450 euro ordaintzen du gela eta janariarengatik.</p>
<p>Familia-egitura: bi neba-arreba ditu, besterik ez.</p>
<p>Familia-harremanak: harreman ona, arrebarekin nagusiki. Gurasoak hilda daude, arrebak zaindu zituen. Harreman sarea: harreman gutxi, droga munduarekin lotuta. Droga uztean hautsi ditu. Isolamendua.</p>
<p>Familia-babesa: arrebaren babesa, nagusiki. Laguntza ekonomikorik ez, baina babes moral handia. Drogak utzi ostean, arrebaren babesa berreskuratu. 3. sektoreko erakundeak: DBE jasotzen hasi arte laguntza handia; aterpea eta drogak uzteko laguntza. Gaur egun elkarte batek daraman erresidentzian bizi da.</p>
<p>Maila ekonomikoa: 900 euro inguru, etxebizitza gehigarria barne, bere gastuak estaltzeko adina.</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: urteetan autonomo gisa, salmentan. Drogak direla eta, lan merkatutik kanpo.</p>
<p>Ikasketa maila: derrigorrezko ikasketak amaitu gabe.</p>
<p>DBE iritzia: eskubide denaren kontzientzia eza. Klean bizitzetik salbatzen duen laguntza da berarentzat.</p>
<p>DBE ibilbidea: duela 3 hilabete.</p>
<p>Osasuna: buruko osasun arazoak. Drogamenpekotasuna.</p>
<p>Haustura nabarmenak: drogek haustura asko ekarri diote: bikotea eta semea, lana, lagunak...</p>
<p>Oztopoak: buruko osasun arazoak mugatutako elkarrizketa gaitasuna.</p>

4. Kapitulu

<p>MARTINen solasa lausoa da. Familia dirudun baten altzoan jaio eta hazi zen, Bilbo inguruko herri batean. Unibertsitatean ikasi eta familia negozioetan lan egiteko aukerarik ez zaio falta izan, baina ez du bide hori jarraitu. Orain 63 urterekin, Bilboko egoitza batean bizi da, eta buruko isuri batek utzi dizkion ondorioak bistakoak dira. Hiruzpalau urte darama egoitza honetan eta DBE prestazioa jasotzen du. Tartean bizitakoak, kontakizun nahaspilatuak dira. Gaztetatik alkoholarekiko izan duen menpekotasuna gainditu duela azaltzen digu, baina familiarekin dituen harremanek hautsita diraute. Etena hain izan da irmoa, egoitzan sartu aurreko azken hilabeteak kale gorrian egon zituela. Neba-arreba asko ditu, baina bakar batekin baino ez du izan nolabaiteko gerturatzea. Martinek lasai bizi nahi du, hori besterik ez. Prestazioari esker, badu behintzat zer jan eta non bizi.</p>
<p>Elkarrizketaren iraupena eta lekua: 00:55 h, elkarte baten lokalean.</p>
<p>Adina eta sexua: gizona, 63 urte.</p>
<p>Jaiotze lekua bizitokia: Bilbo Handian jaioa, orain Bilbon bizi da.</p>
<p>Bizikidetzaren unitatea: bera bakarrik.</p>
<p>Etxebizitza: elkarte baten erresidentzian bizi da, bere errentaren %70 inguru ordaintzen du (400 euro inguru) Erresidentzian sartu aurretik hilabete batzuk kalean.</p>
<p>Familia-egitura: lau arreba eta neba. Erlazioa hautsita arrebekin. Gurasoak, biak hilda. Jatorriz familia diruduneko da, ikasteko aukera eta familiako enpresa lan egiteko. Nebarekin mantentzen du nolabaiteko harremana.</p>
<p>Familia-harremanak: arrebekin hautsi zuen erabat. Alkohola dela eta gurasoekin ere harreman zaila izan zuen.</p> <p>Harreman sarea: lagunak baditu, lagunduko luketenak. Lagunen bitartez, erresidentziara sartu zen, kale gorritik.</p>
<p>Familia-babesa: etxetik alde egin zuen arte, familiaren etxean bizi zen, eta familiaren dirua zuen.</p> <p>3. sektoreko erakundeak: elkartearen babesa jaso izan du.</p>
<p>Maila ekonomikoa: 658 euro inguru jasotzen ditu.</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: etxeko negozioan lan zuen gaztetan.</p>
<p>Ikasketa maila:ingeniaritza ikasketak hasi eta utzi.</p>
<p>DBE ibilbidea: duela 3-4 urte, elkarte baten bidez egin zuen prozesu guztia.</p>
<p>Osasun esparrua: alkoholismoa arazoak, lan eta familia esparruetan eragina batez ere. Buruko odol isuriaren ondorioak.</p>
<p>Hausturak: familiarekin hautsi, etxea utzi, kale gorrian bizi izan zen hilabete batzuek.</p>

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

<p>ALBERTOK 43 urte ditu, eta badira hogeit hamar urte eskizofrenia diagnostikatu ziotenetik. Orduetik pentsio baxu bat jaso izan du, azken bost urteetan bere kontura bizi denetik, DBE prestazioarekin osatzen duena. Funtsezkoa izan da buruko gaixotasunak dituzten pertsonekin jarduten duen elkarte batek ematen dio laguntza. Haiei esker lortu du babestutako pisu bat alokatzea Bilbo inguruan, eta familiarengandik gertu. Bere burua pertsona normaltzat ikusi nahi du, eta bakarrik bizitzeak prozesu horretan laguntzen diola uste du. Ez digu argi uzten neba-arrebekin zein arazo izan dituen, baina orain hobeto moldatzen omen dira. Gurasoen sostengua beti izan da garrantzitsua, esparru emozionalean bereziki, eta haiekin pasatzen ditu asteburu gehienak.</p>
<p>Elkarrizketaren iraupena eta lekua: 00:43 h, elkarte baten lokala.</p>
<p>Adina eta sexua: 43 urte, gizona.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: galiziarra jatorriz, Bilbo Handian bizi da umetatik.</p>
<p>Bizikidetzaren unitatea: bera bakarrik.</p>
<p>Etxebizitza: babestutako alokairuan bizi da, (horregatik ez jaso etxebizitzarako gehigarria). Sarrerren %30 horretara. Aurreko 8 urteetan, lagun baten pisuan, ordaindu gabe.</p>
<p>Familia-egitura: guraso eta neba-arrebak (6)</p>
<p>Familia-harremanak: gurasoekin beti izan du ona, neba-arrebekin hobetuz ari da gaur egun. Harreman-sarea: lagun bat badu eta folklore talde bateko kide da. Harreman gutxi ditu.</p>
<p>Familia-babesa: langabezi momentu puntualetan, gurasoei dirua eskatu. Babes moral garrantzitsua. 3. sektoreko erakundeak: elkarteren baten laguntzarekin lortu du DBE eta etxebizitza.</p>
<p>Maila ekonomikoa: 350 pentsio ez kontributiboa, beste 350 euro DBE.</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: elkarteko tailerrean ari da. Lan egiteko ezintasun partziala, ez totala. Urteetan, lan egin du etenaldiekin, langabezia ere kobratuz.</p>
<p>Ikasketa maila: lanbide heziketa, lanean hastea nahiago izan zuen, 17 urterekin.</p>
<p>DBE iritzia: eskubidearen kontzientzia txikia, ez daki ondo zer den berez DBE.</p>
<p>DBE ibilbidea: duela 5-6 urte, bakarrik bizitzen hasi zenetik (elkartearen laguntzarekin).</p>
<p>Osasun esparrua: eskizofrenia, pentsioduna. Drogamenpekotasun arazoren bat izan ditu.</p>

4. Kapitularia

<p>Duela hilabete gutxi, tutoretzapeko etxebizitza batean bizi da NURIA bere alaba txikiarekin. Hogeita hamalau urte dituela, bere bizitzako unerik zailenean ikusi du bat-batean bere burua: lanik gabe eta DBE prestazioa bolada batez etenda, gela bat alokatzeko ere iristen ez zitzaiola. Aspaldiko ezagun bat izan da orain dagoen pisura sarbidea erraztu diona, eta elkarteari esker prestazioa berreskuratu ahal izan du. Senarrarengandik bananduta dago eta ez du honen aldetik inolako laguntzarik jasotzen. Harreman korapilatsua izan dute eta tratu txarrak ere izan dira tarteko. Bere familia biologikoarekin harremanik ere ez du ia. Ostera, adopziozko familiarekin zorte handia izan duela deritzo. Zoritxarrez, bai aita eta baita ama ere gaixotasun luzeen ondoren hil zitzaizkion, berak etxean zaindu ostean. Gaur egun pertsona gutxirekin du harremana Nuriak, eta bere osaba bat da babespezko pisuan bizi dela dakien bakarra.</p>
<p>Elkarrizketaren iraupena eta lekua: 01:29 h, elkarrizketatuaren etxean.</p>
<p>Adina eta sexua: 34 urte, emakumea.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Espainiako probintzia batetik umetan familiarekin etorria, Bilbon bizi da.</p>
<p>Bizikidetzaren unitatea: semea eta bera. Tutoretzapeko etxebizitzan bizi dira beste pertsona batzuekin ...</p>
<p>Etxebizitza: tutoretzapeko etxebizitzan, bere sarreraren %10 inguru bideratzen du. Bakarrik bizitzeko desioa.</p>
<p>Familia-egitura: Guraso bakarreko familia bezala.</p>
<p>Familia-harremanak: senar ohiarengandik banandua, Tratu txarrak ere izan ziren. Harremana soilik osaba batekin. Adopzio-gurasoak hilik, familia biologikoarekin arazoak.</p> <p>Harreman-sarea: lagunei laguntza eskatzean ez du jaso ezer jaso. Harreman gutxi. Isolamendua.</p>
<p>Familia-babesa: ez du familiarengandik inolako laguntzarik jasotzen.</p> <p>3. sektoreko erakundeak: une larrietan, hona elkarrekin jo du. Lagun baten bitartez, lortu zuen kontaktua elkarrekin, eta DBE eskatzeko.</p>
<p>Maila ekonomikoa: 748 euro hilean, legokiokoen maximoaren azpitik, senar ohiak hilero eman behar liokeen dirua dela eta baina ez du senar ohiaren pentsioa jasotzen.</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: zainketa eta garbiketa lanak. Umearekin bateragarri. Lana aurkitzeko zailtasunak.</p>
<p>Ikasketa maila: gizarte-zerbitzuetan laguntzaile</p>
<p>DBE iritzia: DBE eskubide denaren kontzientzia txikia. Atzerritarrekiko diskurtso gogorra dauka.</p>
<p>DBE ibilbidea: tarteka kobratu du, etenekin eta arazoekin.</p>
<p>Haustura nabarmenak: Senarrarekin hautsi eta hiriz aldatu zen. Tratu txarrak egon dira tarteko. Haustura larriena orain bizi du: DBE jaso eta tutoretzapeko etxean, lanik gabe.</p>

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

<p>DJAMEL, magrebtar gazteak bi urte darama Bilbon, lana aurkitu ezinik. Elkarte baten laguntza eta orientazioa jaso du DBE eskuratu ahal izateko. Prestazioa jasotzeko bidean zailena, bere ustez, gela bat alokatu eta errolatuko zaituen inor topatzea da. Bere herrian unibertsitate ikasketak hasi zituen eta Bilbon ere ikastaro desberdinak egin dituen arren, ez du ezelako lanik topatzen. Gozogintzan arituko litzateke gustura, edo aukera izango balu, unibertsitatera itzuliko litzateke. Momentuz baina, bere oinarrizko gastuak estaltzeko iristen zaio, justu-justu., Bakarrik egotea gustatzen zaiola azaltzen du, lasai egotea, eta oso pertsona gutxirekin erlazionatzen da. Familia urrun du eta faltan botatzen dituen arren, ez du oraingoz itzultzeko asmorik. Etorkizun hobea baten bila etorri da Bilbora.</p>
<p>Elkarrizketaren iraupena eta lekua: 00:51 h, leku publikoan (kafetegia, plaza ...).</p>
<p>Adina eta sexua: 30 urte, gizona.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Marokon jaioa, Bilbon bizi da duela bi urte.</p>
<p>Bizikidetzaren unitatea: bera bakarrik.</p>
<p>Etxebizitza: etxebizitza konpartituan bizi da DBE jasotzeko. Alokairu kontratua izateko oztupoak.</p>
<p>Familia-egitura: familia handia du jatorrizko herrian: guraso, neba-arreba, ilobak e.a.</p>
<p>Familia-harremanak: familia harreman onak, denak Marokon.</p>
<p>Harreman sarea: jende gutxirekin egoten da, nahiko isolatua sentitzen da.</p>
<p>Familia-babesa: ez dio familiari laguntzarik eskatzen, urrun ditu.</p>
<p>3. sektoreko erakundeak: babesa eta orientazioa jaso du elkarte baten eskutik.</p>
<p>Maila ekonomikoa: 850 guztira, EPO barne. Orain eten diote etxebizitzarako laguntza.</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: ez du lanik aurkitu, Bilbon dagoenetik, eta lana topatzeko da bere desioa.</p>
<p>Ikasketa maila: goi-mailako ikasketak hasi eta utzi Marokon, hemen baliorik ez. Lana bilatzeko kurtsuak Bilbon, gaztelania ...</p>
<p>DBE iritzia: bere desioa lana egitea da, ez prestazioa jasotzea. Eskubidea ondo ezagutzen du.</p>
<p>DBE ibilbidea: eten diote prestazioa.</p>

4. Kapitulu

<p>GABRIELA, perutar emakumea, duela zortzi 8 urte heldu zen Bilbora. Hasiera bakarrik egin zuen arren, handik hilabete gutxira iritsi ziren senarra eta haien hiru seme-alabak. Une horretan, eta gerora ere bizi izan dituzten estualdi puntaletan, elkarte batengana jo zuten. Etenaldi txikiekin tartekatuta, 2006tik DBEren onuradun da Gabriela. Gehienbat sektore domestikoan egiten dituen lan partzialekin konbinatu ohi du prestazioa. Dibortziatu denetik, egoera zaildu egin da, baina senar ohiaren sostengua jasotzen du umeen ardura eta gastuak banatzeko. Seme nagusia, laugarrena, Perun bizi da amonaren etxean. Horregatik, ahalegintzen da hilero bere etxera dirutxoren bat bidaltzen. Une gogorrek bizi izan dituela aitortzen du, itota eta hutsik sentitu izan dela. Azken hilabeteotan, kongregazio erlijioso batean bilatu du arnasbidea.</p>
<p>Elkarrizketaren iraupena eta lekua: 00:43 h, elkarte baten lokalean.</p>
<p>Adina eta Sexua: 38 urte, emakumea</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Perun jaioa, Bilbora heldu zen 2004ean.</p>
<p>Bizikidetzaren unitatea: hiru seme-alaba eta bera.</p>
<p>Etxebizitza: alokairuan, etxebizitza laguntza jaso.</p>
<p>Familia-egitura: banatuta dago. Senideak Bartzelonan eta Perun. Neba-arrebak dauzka Espainian, baina ez Bilbon bertan. Senide gehienak Perun ditu, seme nagusia, ama ...</p>
<p>Familia-harremanak: banatuta dagoen arren, senarra kargu egiten da banaketan.</p> <p>Harreman-sarea: erlijioan topatu du arnasbidea, jendearekin harremanak izateko, zeukan hutsunea betetzeko.</p>
<p>Familia-babesa: seme nagusia bere gurasoen etxean, Perun, eta dirua bidaltzen die.</p> <p>3. sektoreko erakundeak: jaso izan du laguntza, eta jasotzen du. Zailtasun egoeran, elkarte batera jo zuen; Orientazioa, DBE jasotzeko aukeraren berri.</p>
<p>Maila ekonomikoa: 1500 euro inguru, etxebizitza laguntza barne.</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: lan domestikoa, ez du guztiz gustukoa. Autonomia nahiko luke izan.</p>
<p>Ikasketa maila: 16 urtera arte ikasi, Perun.</p>
<p>DBE ibilbidea: duela 5 urte jaso prestazioa, etenekin. Senarra ere unitatean zegoen.</p>

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

<p>Hogeita hamar urte ozta-ozta beteta, hirugarren umearen esperoan dago AMINA. Duela zortzi bat urte heldu zen Bilbora senarrarekin batera, honen gurasoen etxea atzean utzita. Aldaketak askatasuna ekarri diola nabari du, baina baita erantzukizun handiak ere. Une honetan, DBE prestazioa konbinatzen du lau orduko lanaldiak ematen dion soldatarekin. Senarrak urteetan denda batean lan egin duen arren, bolada luzea darama langabezian. Langabeziarako laguntza jasotzen du, baina familiaren aurrekontuaren gestioa Aminaren esku geratzen da. Gainera, etxeko lanen eta umeen ardura nagusia berak daramala aitortzen du. Azkenaldian baina, senarrari geroz eta gehiago eskatzen dio etxean laguntzeko. Nekatuta dago, eta bere buruarentzako astirik ere ez dauka. Haurdun egonda ere, ahal duen bitartean lan egiten jarraitu nahi du. Alokairu babestua duten arren, etxebizitza galtzea da bere beldur nagusia.</p>
<p>Elkarrizketaren iraupena eta lekua: 00:27 h, elkarte baten lokala.</p>
<p>Adina eta sexua: 31 urte, emakumea.</p>
<p>Jaiotze lekua eta bizitokia: Aljerian jaioa, Bilbon bizi da duela 8 urte.</p>
<p>Bizikidetzaren unitatea: senarra, 2 seme-alaba, eta haurdun.</p>
<p>Etxebizitza: babestuko alokairuan bizi dira (430 euro), ez jaso gehigarria.</p>
<p>Familia-egitura: neba-arreba, koinatu-koinatak Bilbon bertan.</p>
<p>Familia-harremanak: bera arduratu seme-alabez, baina senarra ari da ardurak hartzen. Bere neba bat dute etxean.</p>
<p>Harreman sarea: senide batzuek gain, jende gutxirekin egoten da, lagun askorik ez. Denborarik ez.</p>
<p>Maila ekonomikoa: 1000 euro inguru (lana + DBE + senarraren langabeziagatikoko diru-laguntza)</p>
<p>Lan merkatuarekiko harremana: lanaldi erdia, zainketa-garriketa sektorean. Senarra langabezian.</p>
<p>Ikasketa maila: ez du ikasketarik. Nahiko luke, denborarik ez du.</p>
<p>3. sektoreko erakundeak: elkarte batekin harremanetan dago. Orientazioa, tailerrak ...</p>
<p>DBE iritzia: estigma bizi du, senarrak baita ere.</p>
<p>Oztopoak: oztopoak, presa. Denboraren muga.</p>

4.5) Elkarrizketetan barrena

Aurreko elkarrizketa-fitxak argigarriak dira gure protagonisten irudi azkar bat hartzen laguntzen digutelako, bai aurkezpen testuak, baita gizarte bazterkeriaren esparru ezberdinei buruz eskaintzen diren informazio multzoak ere. Elkarrizketen analisi sakon bati ekin ahal izateko ezinbesteko abiapuntu dira era sintetizatuan aurkezten diren profil hauek.

Gainera, elkarrizketatu bakoitzari buruzko fitxa hau une oro eskura izatea helduleku garrantzitsua da. Izan ere, ondorengo atalean zehar landu diren gizarte bazterkeriaren esparru desberdinak jorratuko dira -ekonomikoa, lan merkatua, harremanena- eta baita elkarrizketetan ardatz izan diren beste zenbait elementu ere: aurreko esparruetako aniztatan desabantailak metatzen direnean bizi diren bazterkeria egoera gordinak; bizitza-kontakizunean antzematen diren haustura eta trantsizioak; eta, DBEren onuradunek prestazioari buruz egiten dituzten balorazioak eta gizartean horrek eragiten duen estigma.

Egituraketa honen baitan gure protagonisten bizipenak txertatuta datoz, haien bizitza-kontakizunak, alegia. Partaide bakoitzaren ekarpenak analisiaren atal ezberdinetan aterako diren arren, pertsona bakoitzaren ibilbidea atal jakin batean landuko da, kasuaren arabera. Adibide bat aipatzearen, Josebaren esperientzia prekarietate ekonomikoaren atalean jorratuko da gehienbat, bere bizitzako beste hainbat esparru iraunkor mantendu diren bitartean, azken urteetan bizi izan duen aldaketarik garrantzitsuena eremu honexetan izan delako.

Honenbestez, bada, atal batetik bestera salto egiterakoan istorio hauen ildoak ondo jarraitu ahal izateko euskarri funtzioa ere badute elkarrizketa fitxek.

4.5.1. Prekarietate ekonomikoa: baliabide ekonomiko eskasia

«Berdin du zer itxura duzun ... edo orain bezala kafe bat hartzen ari ote zaren ... Berdin du. Ez da ikusten kafe hori hartu ahal izateko atzean egin beharreko ahalegina, ... ulertzen?»

(Lorea)

Ikerketan barneratu dugun gizarte bazterkeriaren ikuspegiak esparru anitz gordetzen ditu bere baitan. Esparruetako bakoitza ez da eremu iragangaitz eta hermetikoa, edo bestela esanda, berauen artean dagoen muga lausoa da oso. Elkarrizketa kualitatiboa, lan honetan zehar azpimarratu den gizarte bazterkeriaren izaera multidimentsionalean arakatzeko tresna optiko gisa erabiliko da; kaleidoskopio gisa, alegia. Aparatu honen erdigunean, ispilu bakoitzaren atzean dauden kolore eta formak gainontzeko ispiluen bestaldean dagoenarekin nola konbinatzen diren ikusi nahi da. Indar handikoa izanik ere, leiar arrunt batek suma ezin ditzakeen indar eta itzalak begiztatu nahi dira horrela.

Azken finean esparru batean gertatzen dena gainontzekoetan gertatzen denarekin oso lotuta dago, eta esan liteke, engranaje-makineria baten antzera dihardutela. Atal honetan, bada, gure protagonistek esparru ekonomikoan bizi duten prekarietate egoerari helduko diogu, esparruen bazterrak gandututa daudela aintzat hartuta. Are gehiago, esparru ekonomikoan aztertutako bizipenek hartzen dituzten forma eta argi printzak aztertuko dira, beste esparruetatik datozen izpiekin bat egiten dutela ahaztu gabe.

Ezin uka daiteke, jasotako bizipen eta egoera-sorta aberatsa eta anitza izan dela. Baina, hautemate hori bezain agerikoa eta orokortua izan da beste behaketa hau ere: gure pertsonaiek nozitzen duten baliabide ekonomikoen gutxiegitasuna. Egia da bakoitzak dakarren ibilbidea zeharo ezberdina dela eta zenbaitentzat DBE prestazioaren onuradun izateak hobekuntza ekarri dien bitartean, beste batzuentzat egoeraren okertzea irudikatzen duela. Ezberdina da era berean, pertsona bakoitzak egoerarekiko duen onarpen maila.

Baliabide eskasia hau era ezberdinean bizi dute; egoerari eutsi eta aurre egiteko bide

4. Kapituluia

gutziz desberdinak garatu eta jorratzen dituzte eta babes, laguntza eta alternatiba ezberdinekin kontaktzen dute. Baina inongo zalantzarik gabe, bai zaurgarritasun gordinena pairatzen duten pertsonak, baita pobrezia ekonomikoan bizi arren erabat gizarteratuta dauden horiek ere, esparru ekonomikoan gabezia eta oztopo nabarmen eta objektiboak bizi dituzte.

Prekarietate honek itxura eta aurpegi anitzak hartzen ditu, eta forma ugari begiztatzen dira. Guztietan bistakoena oinarri-oinarrizko beharrizanak estali ahal izateko elkarrizketatuek erakusten dituzten zailtasun edota, ezintasunak dira:

«gauzak kostatzen dute pilo! Orduan ... oinarrizkoak, gasa, argindarra, eta hori ... jateko, gero, klaro, semeak ari dira biak ikasten ... kurtso hasieran bakarrik, erosi behar izan nuen urteko metro txartela ... 500 euro! Eta horrela dira gauzak ... nik ez dakit jendeak nola egiten duen, baina benetan desesperaturik egon behar da» (Amaia, bi seme eta 800euroko diru-sarrerak)

«aspaldian arroz gehiago jaten dut ... -barrez-, merkea da eta ... lehen txuleta jatea nuen gustuko, baina ez dut aspaldian txuletarik jan ... dirutza da!» (Manu, epe luzeko langabetua, 900 euro)

«ez da 600 eurotara iristen, zertarako iritsiko zait horrekin? Ozta-ozta, jateko, neuk prestatzen dut nire janaria ... eta heltzen ez bazait, neuk egiten dut irits dakidan!» (Joseba, erretiratua, 600 euro)

«ezin dut arropaz aldatu ... bigarren eskuko denda batera joan behar dut ... ezin dut dendatara joan» (Ernesto)

Argindarra, jatekoa, arropak erostea edota garraio gastuei aurre egiteko zailtasunak bizi dituzte askok. Elkarrizketatuen artean badira hein batean DBEren onuradun izatea aukera pertsonal gisa erabaki dutenak ere, motibo desberdinek bultzatuta. Haien beharrizanak estali egiten dituzte nolabait, bizitza oso maila apala eramanaz, baina hauen begietan ere zaila da prestazioarekin aurrera egitea:

«nire beharrak ase ditzaket agian, baina ez du balio ... prestazioak ez du balio oinarrizko gastuak estaltzeko ... hau da, familia batek ... edo pisua ordaindu behar duen norbaitek, beste baliabiderik ez badu ... ezin du ... Baldintza oso gogorretan bizi direnak ezagutzen ditut ... Ni ez naiz inoiz larri bizi izan, baina, beste batzuk ez dakit nola egiten duten!» (Begoña, erretiratua)

Gutxiegitasun honekin lotuta batek baino gehiagok esplizituki adierazi du, prestazioaren zenbatekoa gastuak ozta-ozta estaltzeko dagoela diseinatua, berariaz.

Hau da, horretarako estudiantuta dagoela, justu-justu mantentzeko. Azalpen hauek agerian uzten dute prestaziorekiko nolabaiteko desadostasuna, zenbaitek aurrerago diskurtso kritiko landuagoarekin garatuko dutena:

«Egia esan ez du ezer estaltzen, nire beharrezana koman egotea bezala da, bizirik mantentzen zaituzte, sedatuta zauzkate ... arnastu arnasten duzu, baina ez zaude bizirik. Hori da DBE sistemak dakarrena...hortxe-hortxe, mugan mantentzen zaituzte, edo mugatik behera. Gertatzen dena zera da, jendeak egoerari eusteko gaitasun itzela duela, eta argi eta garbi, familia, lagun edota gizartearen babesa ...» (Aitor)

«joe, ez dut goserik pasatzen ... arropa gutxi erosten dut ... oso gutxi! Baina bueno, biluzik ere ez nabil ... Heldu egiten zait. Baina justu, justu-justu. Heltzen zait, besterik ez dagoelako. Gutxiago ordainduko balidate ere helduko litzaidake, zer erremedio! ...» (Manu)

Eguneroko gastuak alde batera utzita, pertsona hauek aparteko gastuak egiteko dituzten zailtasunak dira prekariedade ekonomikoaren beste adierazle garbi bat. Zentzu honetan, gastu guztiak neurtu eta aurreikusi beharra dutela aitortzen dute eta horrek ustekabe edota gastu bereziei aurre egin ahal izateko tarterik gabe uzten ditu:

«Zuk duzuna, zenbateko zehatz bat da, gastu finkoetarako nahikoa dena. Baina aparteko gasturen bat izatekotan, ez da nahikoa, argi dago!» (Aitor)

«aparteko gastuak dituzun ala ez, horren araberrakoa da ... seme-alabek beti eskatzen dute zerbait ... hilabete guztiak ez dira berdinak» (Gabriela)

«nik 26an kobratu eta 27rako ez daukat zentimo bat ere. 26an hartu eta dena gutun-azaletan gordetzen hasten naiz: hau honetarako, hau besterako ... hilabete osorako janari erosketa egitera joan, eta ez zait dirurik gelditzen ... ez dut inoiz dirurik ezusteko gastu baterako» (Iratxe)

Aipatutako gastuon izaera apartekoa izan arren, gehienetan oinarritzko beharrezan estaltzeko bideratzen direla aintzat hartu behar da: etxebizitzaren aseguru ordaintzera, seme-alaben gastuak estaltzera, konponketak egitera e.a. Egoera honetan, asko dira egoera gainditzeko martxan jartzen dituzten estrategiak, sarritan familia harremanen esparruan garatzen direnak.

Harremanen esparruari eskainitako atalean itzuliko gara hauetara, baina une batez, hurrengo pasartean pausatuko gara. Primeran islatzen ditu elkarrizketatuek oinarritzko zenbait gasturi aurre egiteko bizi dituzten estualdiak eta egoerak bultzatuta abian

4. Kapituluia

jartzen dituzten trikimailuak. Amaiak, prestazioa eten zaion unean biziraun ahal izateko hartu beharreko erabakia azaltzen digu eta horrek berari eta bereziki norbere auto-estimuari dakarkion higadura goraipatzen dizkigu:

«batzuetan onartu dizkidate ... urtean behin aurkeztu zitezkeen gastu bereziak. Esate baterako dentista! Nola egingo diezu bestela aurre gastu hauei? ... Niretzat oso baliagarria izan da, kristoren lasaitasuna eman dit, eta horrek ez du esan nahi primeran bizi naizenik ... Kendu egin didate, eta nire etxean gela bat alokatu behar izan dut! Eta hori niretzat izan da «de otro nivel», oso gogorra ... Momentuz ez dut beste irtenbiderik ikusten» (Amaia)

Bide batez, pasarte honek aztergai dugun prekarietate ekonomikoaren hirugarren aurpegia plazaratzen digu: ziurgabetasun egoeran bizitzeak ezinegon eta frustrazio sentimenduak areagotu egiten dituela, alegia. Hau da, baliabide ekonomiko eskasekin bizitzeak alderdi materialean inplikatzeko dituen mugak bezain garrantzitsua da, berarekin dakartzan narriadura emozionala eta segurtasun falta. Itomena, beldurra, zoramena, hilabete bukaeran prestazioa ez jasotzearen beldurra, eta antzerako sentimenduak adierazi dituzte elkarrizketatuek:

«larritasunean egotea da: etengabe erortzeko zorian egotea ...» (Iratxe)

«nik ez dakit jendeak nola egiten duen, baina desesperatuta egon behar da» (Amaia)

Azken finean, sentimendu hauek guztiak gure elkarrizketatuek bizi duten zaugarritasun ekonomikoaren isla garbia dira; hauskortasun egoera nabarmentzen dute eta *gaitasunaren segurtasuna* kontzeptua ekartzen digute gogora. Zaugarritasun ekonomikoaren alderdi hau, norberaren auto-estimua eta gizarte estigmaren gaiekin eskutik helduta doana, aurrerago jorratuko da. Bestalde, ziurgabetasun hau biziagotu egiten da prestazioa bera edota EPO eten egiten denean, edo eteteko arriskua sumatzen den uneetan:

«zoratu egingo naiz, bi hilabete dirurik gabe, ezin dut kafe bat ere hartu, ezin dut eskolara joan ... Oinarrizko errenta? Bizitzeko, jateko, beharrianak, eta zure burua non sartu edukitzeko. Besterik ez. Besterik ez. ... liburuak erosi behar ditut ikasteko, garbiketa produktuak ... arropa erosi behar dut hotzerako ... eta kafe bat hartu, gizakia naiz!» (Djamel)

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

«prestazioa jasotzea gogorra da ... Ari gara esaten, errenta kobratzerakoan! Ez duzunean kobratzen? Orain? zoramena!» (Amaia)

Prestazioaren gutxiegitasuna salatzeaz gain, kasu honetan erakutsi egiten dute prestazioaren etenak zeinen estatus apurkorrean utz dezakeen bat. Prestazioa moztearen arrazoia ez du ezagutzen Djamelek, edo halaxe aitortzen du, baina susmoa DBEren alde borrokatzen duten zenbait kolektibok etengabe denuntziatzen dutenaren ildotik doa. Hain zuzen ere, 2011an DBEren 18/2008 legea aldatzen zuen erreforma onartu zenez geroztik, kolektibo hauek erreformaren joera murriztailearen aurka egiteaz gain, irregulartasunak eta prestazioren bidegabeko eteteak salatu dituzte.

Erreforma honek ekarritako aldaketen artean, onuradunek izan ditzaketen ondasun higiezinak mugatzen dituen da haietako bat: ohiko etxebizitzaz gain beste edozein ondasun higiezinaren jabe direnek, ondasuna saldu ezean prestazioa jasotzeko eskubidea galdu egiten dute, edozein delarik ere ondasun horren merkatu balioa:

«Izan daiteke ganbara bat edo zure amonak utzitako, Burgos aldean, ortu bat! Balio ez duena, eta ezin duzuna saldu! ... Bueno, nire kasuan, bai emango zidan zerbait, baina niri beldur izugarria ematen dit daukadan apurra saltzea. Ni oso egoera larri batean, edo zerbait gertatzen bazait, nik ez daukat besterik. Horrela izan da, eta horrexegatik kendu didate. Horregatik, nahiz eta parooan egon, ez didate errentarik emango» (Amaia)

Egoera honek agerian uzten du prestazioaren balizko onuradunen ondarearen gaineko kontrola zentzugabea izatera heldu daitekeela kasu batzuetan, delako ondasun higiezinaren jabegoak aparteko onurarik ez dakarrenean ere, prestazioa jasotzeko eskubidea galdu egin daitekeelako.

Gizarte bazterkeriaren esparru ekonomikoa aztertzen ari garen honetan, protagonistetako bat aurkezteko garaia iritsi da. Elkarrizketatu guztien artean bikain islatzen du hurrengo egoera: esparru ekonomikoa bizi dituen mugez gain, bere burua erabat gizarteratuta ikusten duen pertsonarena.

Josebak 71 urte ditu eta bere egoera zeharo aldatu zen duela bi urte erretiroa hartu zuenean. Autonomo gisa lan egin du urte askoan eta aditzera ematen digunez, urte

4. Kapituluia

horietan diru-sarrera maila oparoa izan du. Arazoa baina, erretiratzeko unean heldu zen berak espero zuenaren kontra pentsio kontributiboa ukatu zitzaionean, nahikoa kotizatu ez izana alegatzen ziotela eta. Hori dela eta arazo judizialak izan ditu bere bazkide ohiekin, baina momentuz behintzat pentsio ez kontributiboa eta honen osagarri den DBE prestazioarekin moldatu behar du, guztira 600 euro ingururekin.

Gertaera honek bete-betean egin du talka bere independentzia ekonomikoarekin eta oraingoz bere arreba batek hilero ematen dion *eskupeko* txikiarekin konpontzen da. Azken urteetan bere emazteaz dibortziatu zenez geroztik, amak Bilbon alokatzen zuen pisuan bizi izan da. Orain, ama hil eta gerora ere bertan bizitzen jarraitzen du; errenta zaharreko alokairua izanik, ordaindu beharreko kopurua ez da 200 eurotara iristen.

Bere bizimodua ez da gehiegi aldatu ostantzean, itxuraz behintzat, eta bere burua gizarteratuta ikusten du. Harreman ona dauka bere neba-arreba, seme-alaba eta koinatu-koinatekin; lagun-artean bizitza sozial aktiboa izaten jarraitzen du, eta sasoi onean dago.

Ez dio momentuz bere prekarietate ekonomikoaren berri inori ematen, inori axola ez zaion kontua dela uste baitu. Hala ere, elkarrizketa egindako egunean etxebizitza galtzeko arriskuan zegoela azaldu zigun, alokairu kontratua berriztatzeko dituen arazoak direla eta. Hala izatekotan, bere burua kinka larrian jarriko litzateke: bere diru-sarrera mailarekin pisu oso baten alokairua ordaintzea guztiz ezinezkoa litzaioke.

Bistan da beraz, gaur egun bizi duen zaugarritasun ekonomikoa bere bizitzaren beste zenbait esparrutara iragazi litekeela eta pobrezia ekonomiko soila zitekeena gizarte bazterkeria egoera larriagoa bilaka litekeela. Horixe baita, zaugarritasunaren beste alderdietako bat: esparru ekonomikoaren mugak gainditu eta amiltzeko dagoen arriskua.

Gure elkarrizketatuen artean ere, behin eta berriz egingo dugu topo zeharkatu egiten diren esparruen arteko mugekin. Elkarrizketatutako beste lagun batek ere argi ikusten du pobrezia ekonomikoak norbere bizitzaren gainerako esparruak nola baldintzatzen dituen. Marko teorikoan definitu dugunarekin bete-betean bat eginez, gizarte bazterkeriaren kontzeptuaren muinera iristen da. Berebiziko ekarpen honek, bada, era

single eta gordinean azaltzen digu pobrezia ekonomikoak bizitzako beste hainbat aspektutan eragin dezakeen kaltea:

«pobreziak beti urratzen ditu harremanak ... ez bakarrik bikotearekin, baita familiarekin, lagunekin ... zapuztu egiten da bat, osasuna ere hondatu egiten da ... zure hezkuntza, auto-estimua ... Argi eta garbi, pobrezia eta bizitza osasungarria, ez dira bateragarriak ...» (Aitor)

Pobrezia ekonomikoak harremanak, auto-estimua, hezkuntza eta osasuna hondatzen ditu, baina harremana aldebikoa da, esparru hauen efektua ere esparru ekonomikora hedatzen den heinean. Hain zuzen ere, gure protagonisten kontakizun eta balorazioetatik jaso ahal izan dugunaren arabera, baliabide ekonomikoen urritasuna eta baliabide eskas hauen kudeaketa gehien baldintzatzen duen esparrua, etxebizitzarena dela baloratzea da:

«azken finean, etxebizitzaren arabera izango da dena. Dena dago horren menpe ... etxebizitzaren prezioa bidezkoa balitz ... DBE geuretzat izango guke gure gastuak eta mantenua ordaintzeko ...» (Lorea)

« ... beti, alokairua lehenbizi, berdin zait ezer gabe geratzen bagara. Lehenengo etxea, eta gero gerokoak ...» (Amina)

Hau da, aztertzen ari garen pertsona eta familiek dituzten diru-sarrera ekonomiko urritasuna bezain garrantzitsua da beraien aurrekontuetan etxebizitza gastuek duten pisua kontuan hartzea. Gure protagonisten ulertzeko moduaren arabera, hau da haien esparru ekonomikoa modurik zuzenenean erasaten duen eremua.


Jarraian aurkezten den irudian bizikidetzaren unitate bakoitzak gutxi gorabehera hilabetearen duen diru-sarrera maila jasotzen da, bi ardatzetan antolatuta (20. Irudia). Batetik, ardatz bertikal batek erdibituta, DBE jasotzen duten bizikidetzaren unitateak ageri dira eskumako aldean. Ezkerrean berriz, etxebizitza gastuetarako prestazio gehigarria ere (EPO) jasotzen dutenak.

Ardatz horizontalak berriz, beste bi multzotan banatuko luke gure irudia. Goiko aldean bizikidetzaren unitatea pertsona bakarrak osatzen duten kasuak jaso dira eta behean aldiz,

4. Kapitulu

bi edo pertsona gehiagoko bizikidetzak unitateak. Gainera, parentesi artean dagoen zenbakiak maiztasuna adierazten du; diru-sarrera maila bakoitzeko zenbat bizikidetzak unitate antzeman diren, alegia.

20. Irudia: Bizikidetzak-unitateen diru-sarrera maila, kide kopuruaren arabera.



Iturria: elkarriketa kualitatiboetatik abiatuta, norberak eginda.

Ahalik eta era laburtuenean jaso nahi izan da aztertutako pertsona eta familien hileroko diru-sarrera maila. Esan beharra dago, kantitate horien atzean, DBE prestazioarekin konbinatzen diren bestelako diru-iturri batzuk ere badirela: besteak beste, erretiro pentsioak Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren (LGS) mailara iritsi arte DBEekin konbinatzen diren kasuak, edota, legearen mugen barruan, prestazioarekin uztartzen diren lanarengatik diru-sarrerak.

Aurrez pentsa genezakeen bidetik, diru-sarrerak handiagoak dira bizikidetzaren unitatearen tamaina handiagoa den heinean edota EPO batzen zaionean. Guztira lau dira pertsona bakarreko bizikidetzaren unitatean bizi eta prestazioa jasotzen dutenak eta hauen sarrera-maila 600 euroren bueltan dago, 500 eta 700 euro artean hain zuzen. Aldiz, EPO jasotzen duten pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateek 800-900 euro inguruko sarrerak dituzte eta gure elkarrizketatuen artean zazpi izan dira.

Landa ikerketaren izaerari erreparatuz, helburua ez da zifra hauek inora estrapolatzea, ezta inongo estatistikarik eraztea ere, laginaren tamaina eta konposizioa dela eta esangura-maila ezdeusa izango lukeelako. Baina taulak begi-kolpe iradokitzen digu orotara elkarrizketatuek hilabete bukaeran duten diru-sarrera maila baxua dela, bereziki, kantitate horiei gehienetan 350 eta 600 euro artean dabilzan etxebizitza gastuak kendu behar zaizkiola kontuan hartuta.

Datu kuantitatibo hauek osatzera dator aldagai kualitatiboak biltzen dituen hurrengo taula (21. Irudia). Etxebizitza esparruarekin lotuta gure elkarrizketatuek bizi duten kasuistika zabala bi lerro nagusitan antolatuta erakusten da, hau da, bi aldagai nagusiren inguruan.

Hasteko etxebizitza gastuei aurre egin ahal izateko, gure protagonistek inolako babesik jasotzen ote duten eta jasotzekotan, laguntza hori norengandik datorren, horixe azaltzen digu irudiaren lehenengo bizkarrezurrak.

Bestetik bigarren lerro nagusiari kasu eginez, etxebizitza beste pertsona batzuekin elkarbanatzen duten bizikidetzaren unitateak dauzkagula ikusiko dugu, eta aurrez aurre, inorekin konpartitu gabe, bere kaxa bizi diren bizikidetzaren unitateak – jakinik bizikidetzaren unitatea betiere pertsona bakar batek edota horrela denean berarekin bizi diren senideek osatzen dutela⁸⁴.

Erdiguneko taulan etxebizitza beharrezanezi aurre egiteko bide anitz daude ikusgai; badira EPO osagarria jasotzen dutenak eta ez dutenak, bakarrik bizi direnak, pisua elkarbanatzen dutenak, alokairu sozialean bizi direnak, familiaren babesa jasotzen dutenak, tutoretzapeko pisuetan bizi direnak e.a.

⁸⁴ Bizikidetzaren unitateari buruzko argibide gehiago, lanaren 2.2 atalean.

21. Irudia: Bakarrik bizi direnak vs. elkarbanatzen dutenak

	Sektore publikoaren babesa		
Bakarrik + Familiaren laguntza (2)	Bakarrik + EPO Osagarria (4)	Bakarrik + Alokairu Babestua (3)	Bakarrik + Alokairu oso baxua (1)
Konpartitua + Elkartearen babesa (2)	Konpartitua + Elkartearen babesa + EPO Osagarria (3)	Konpartitua + EPO Osagarria (2)	Konpartitua + Norbere pisuan logela azpialokatuz (1)
Harremanen esparruaren babesa: familia eta elkarteak			
	Sektore publikoaren babesa		

Iturria: elkarriketa kualitatiboetatik abiatuta, norberak eginda.

Baina kasu-saltsa honen erdian galdu gabe, aurretik aipatu ditugun bi lerro nagusien ildotik eskuratuko ditugu ondorioz interesgarrienak. Lehendabiziko emaitza erdiko taulan honi itzala egiten dioten inguruko laukietan ageri da. Izan ere, etxebizitza esparruko beharrianak asetzeko nolabaiteko babesarekin kontaktzen duten egoerak azpimarratzen baitira.

Batetik, familiaren eskutik laguntza jasotzen duten bi pertsona dauzkagu; senideren batena den pisuan bizi diren heinean etxebizitza gastuak aurrezten dituztenak. Bestalde familiaren laguntzarik ezean, era batera edo bestera elkartearen aldetiko sostengua jasotzen dutenak dauzkagu, bost pertsona guztira; elkarte ezberdinek kudeatutako pisu

edota egoitzatan bizi direnak, nagusiki. Denera, zazpi dira familia eta elkarteei esker etxebizitza beharriaz aurre egiten dietenak.

Bigarren talde batean berriz, sektore publikoaren aldetik nolabaiteko laguntza jasotzen duten pertsonak dauzkagu; alokairu sozialean bizi diren hiru unitate, eta gehienak, bederatzia, DBE prestazioarekin batera jaso daitekeen etxebizitzarako laguntza osagarriarekin (EPO) kontatzen dutenak.

Gauzak honela, erabat orokortua izan den joera bat beha daiteke: elkarrizketatuen artean gehien-gehienek familia, elkarte edota sektore publikoaren laguntzara jotzen dutela. Bi dira salbuespenak, baina kasu hauetan ere aparteko egoerak dira. Kasuetako batean, familia batek pisu batengatik ordaindu beharreko alokairua ez da 200 eurotara iristen. Alokairu kostu apala da hori, pisu konpartituetan bizi diren askok gela bakar batengatik 300 eurotik gora ordaintzen dutela aintzat hartuz. Bigarren salbuespen gisa, berea den pisuan gela bat azpi-alokatzen duen familia daukagu, prestazioa eten diotenez geroztik bestelako diru-sarrerarik ez duelako. Azken finean, bestelako laguntzarik ezean hilabete bukaerara iritsi ahal izateko unitate hau ere pisua konpartitzera behartuta dago.

Emaitza hauek iradokitzen diguten ondorioa ezin da bazter batera utzi: elkarrizketatuek prestazioa bestelako babes-iturri gehigarriekin konbinatzen dute -familia, elkarteak, sektore publikoa- etxebizitza beharriaz ahal izateko. Honek berriro ere, pertsona hauek ekonomia eta etxebizitza esparruan bizi duten zaugarritasun egoera bistaratzen digute, bai eta bi esparru hauen arteko harremana ere.

Puntu honetara iritsita, gogora dezagun bizikidetza unitate bakoitza etxebizitza independente batean bizitzea, prestazioaren oinarriko baldintzen artean dagoela. Etxebizitza berean bizikidetza unitate bat baino gehiago dauden kasuetan etxebizitza bakarra egongo dela ulertzen du legeak. Horixe litzateke pisu konpartituen kasua eta etxebizitza bakoitzeko bi prestazio onartzen ditu legeak gehienez. Legeak, salbuespen bat aurreikusten du: bizitoki kolektiboko zenbait esparrutan – tutoretzapeko pisuetan, zenbati egoitzatan- bertan bizi diren bizikidetza-unitate guzti-guztiek jaso dezakete

4. Kapituluia

prestazioa⁸⁵.

Honen harira, ez dira gutxi elkarrizketatuen artean GKE, elkarte edota fundazioek kudeatutako, gidatutako edota babestutako etxebizitza eta egoitzatan bizi direnak; bost pertsona hain zuzen ere. Pertsona hauek ezingo lukete seguruenik haien kabuz etxebizitza bat alokatu eta ondorioz ez lituzkete prestazioa jasotzeko baldintza nahikoak beteko. Hala izanda ere, nekez egingo lituzkete prestazioa eskuratzeko beharrezko tramite guztiak. Aurrerago ikusiko den bezala, aintzat hartu behar da pertsona hauexek osasun mental, drogamenpekotasun edota bestelako arazoak dituztela, eta gidarik ezean ez lirakeela gai izango haien kaxa etxebizitza bat alokatzeko ardura hartzeko.

Hitz gutxitan, elkarteek nolabaiteko babes legala eta orientazioa eskaintzen dizkiete, egoitza edota etxebizitza batean gela bat alokatu eta prestazioaren baldintzak bete ahal izateko. Zenbaitetan, ezer ordaindu gabe sartzen dira bizitoki hauetan eta egin-beharreko izapideak burutu ostean, prestazioa kobratzen hasten diren unean, elkarteari kantitate bat ordaintzen diote gelarengatik. Behatutakoaren arabera, pertsona hauek hilabetean etxebizitza gastuetara bideratzen duten kopurua eta inolako elkarteren laguntzarik gabe etxebizitza batean logela bat alokatzen dutenek ordainduko luketena, ez daude hain urruti.

Moneta terminoetan elkarteek kudeatutako pisuetan bizitzeak onura edota abantaila nabarmenik ekartzen ez dien arren, termino orokorretan elkarten babesak ematen diena hil ala bizikoa da: etxebizitzarako sarbidea eskaintzen die eta horrekin batera prestazioa bera eskatzeko bete beharreko baldintzak konplitzeko bermea.

Irudira itzuliz, hel diezaiozun aurretik aipatutako bigarren ildoari, etxebizitza elkarbanatu behar dutenen eta ez dutenen arteko muga irudikatzen duen horri. Honen harira, etxebizitza konpartitzen dutenen artean gailentzen den desio eta ezintasun bat aipatu beharra dago: bakarrik bizitzeko nahiak dakartzan gastuei aurre egin ezina. Hurrengo pasarteek horixe bera erakusten dute:

«lasai ... hemen ezin da inoiz lasai egon ... iskanbila handia dago ... nahiko nuke bai ganbaratxo

⁸⁵ Zehaztasun gehiagorako kontsultatu 147/2010 Dekretua edota jo lan honen lehen kapitulura.

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

bat alokatu ... baina, badakizu? Gero argia eta halakoak ordaindu behar dira ... eta 900 euroekin ... jan ere, egin behar da!» (Mertxe, tutoretzapeko etxebizitzan bizi da)

«Nahiago nuke bakarrik biziko banintz! Noski! Pisu konpartitu batean bizitzea baino! Zalantzarik gabe! Baina ezin dut, nola ordainduko nuke 500 euro? Gero ura, argia ... tira, ez zait iristen. Ordaindu ahalko nuke, baina gero ez nuke jango» (Manu, etxebizitza elkarbanatzen du)

« ... jabearekin arazoak ditugu, kontratua dela eta ... inork ez die alokatu nahi laguntza kobratzen dugunoi ... orain bi gara. Lehendabizi kontratua, gero laguntza. Ezin dut kontratu gabeko gela bat alokatu ... Jendearekin bizi behar dut. Ezin dut. Nik lasaitasuna behar dut, eta gauzak egin» (Djamel, etxebizitza elkarbanatzen du)

Zaurgarritasun ekonomikoak har ditzakeen forma ezberdinen artean ziurgabetasuna eta beldurra bezalako sentimenduak aipatu ditugun bezala, etxebizitzaren eremuan ere etxebizitza galtzeko beldurrak edota mehatxu hutsak dakarren ezinegona azpimarratu beharra dago:

«Batuetan beldur naiz. Orain berdin zait nekatuta nagoen -haurdun dago- baina lanean ari naiz. Beldur naiz, lana utzi, pisua galdu eta kalean geratuko ote naizen, beldur naiz. Hor dago arazoa ... Alokairua ordaintzea, beti da lehen gauza. Berdin zait ezer gabe geratzen bagara. Lehen-lehenengo etxea ordaindu ... eta gero ...» (Amina, babestutako alokairuan bizi da)

Aminaren kasuan, pisua galtzeko beldur hau ez dago mehatxu erreal batean oinarrituta, baina hala ere etxean bizi dituzten estualdien erakusle da eta ez da gutxietsi behar. Hirugarren umearen esperoan dagoela, arduraldi erdiko lanaldiak ematen dizkion sarrerak eta prestazioa konbinatzen ditu. Senarrak kobratzen duen langabeziagatik diru-laguntzarekin guztira ozta-ozta heltzen dira 1000 eurotara. Ordaintzen duten alokairua 400 eurotatik gorakoa da eta beraz, diru-iturrietako bakarren batek huts egitekotan, zailtasun handiak biziko lituzkete.

Ostera, aurretik aipatu dugun Joseba -71 urteko erretiratua- eta Ahmed mehatxu larriagoen itzalpean bizi dira, izan ere egun bizi direneko etxebizitza galtzeko zorian ezagutu baititugu:

«orain, etxetik botako gaituztela eta, eskubidea dut udaletxean paperak aurkezteko, ez Etxebiderako, baizik eta udalak kudeatzen dituen pisuentzako ... etxebizitza eskatzeko eskubidea dut orain, baina paperak, diru-sarrerak, eta paper gehiago eskatzen dizkirate ... gutun bat iritsi

4. Kapitulu

behar zaidala. Ez zait oraindik ezer iritsi, eta hilaren 9an⁸⁶ kalean egongo gara ... Jabeak ez digu berriztatu nahi, pisua bere aitarena zen ... Gure gauzak lonja batean utzi eta, besterik ez badut, nebarenera joan beharko dugu» (Ahmed, emaztea eta lau seme-alabak, alokairu baxuko pisu batean bizi dira)

Ahmedek patxada osoz azaltzen digun hau ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Kasurik larrienean nebaren laguntzarekin kontaktzen du eta ez da gutxi. Azken finean, familia esparruak edota lagun sareen babesa izaten baita kale gorrian amaitzea eragozten digun azken irtenbidea:

«Kalean! Prestaziorik gabe, kalean nengoke, argi eta garbi! Ez dut beste diru-sarrerarik, ez dut ... ezer ere ... etxebizitzarik ere ... Pisu bat izatekotan? Familiarenean janez, akaso ... Baina ez da nire kasua. Kale gorrian egongo nintzateke, edo bestela, senide edo lagun baten etxera joan beharko nuke» (Aitor)

Izan ere, elkarrizketatuen artean iraganean kale gorriko esperientziak bizi izan dituzten pertsonekin egin dugu topo eta bazterkeriaren faktoreen metatzeari eskainitako atalean ikusi ahal izango dugun moduan, familia harremanen gabezia edota harremanen haustura izan dira, beste faktore askoren artean, muturreko egoera horretatik libratu ahal izan ezin dituen.

Alabaina, iraganean kalean bizi izan direnei buruz zera azpimarratu nahi da atal honetan: gaur egun pobrezia ekonomikoan bizi diren arren eta kasuak kasu muga zorrotzagoekin bizi badira ere, zentzu honetan prestazioak ematen dien lasaitasuna goraiatzen dute. Nahiz eta sarritan prestazioaren gutxiegitasuna kritikatzan duten, kontraesanetan erori gabe, gutxieneko diru-sarrera honek etxebizitzaren esparruan ematen dien arnasa izugarri balioesten dute. Hori bera adierazten digute inoiz kalean bizi izan direnek edota bazterkeria egoera larrienean bizi izan diren elkarrizketatuek:

«orain, prestazioarekin etxebizitza ordain dezaket ... ez dut kalean bizi behar ... nire gastuak estaltzeko iristen zait, janaria erosteko ... orain ez dut hainbeste beldur pisua galtzeko, lasaiago nago, pisu honetan nagoelako, eta ez da urte baterako, ez birako ... urteetarako da! Irauten duzun arte!» (Ernesto)

⁸⁶ Denbora erreferentzia, elkarrizketa egin eta bi astera.

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

«nire etxebizitza beharrianak aseta daudela uste dut ... pentsioaren osagarri gisa prestazioa jasoko ez banu, pentsioarekin ezingo nuke Etxebideren pisu hau ordaindu ... orduan beste baliabide batzuetara jo beharko nuke, jantoki sozialetara, adibidez ...» (Alberto)

Puntu honetara iritsita, une aproposa da Nuriaren kontakizuna harira ekartzeko. 34 urte ditu eta bere 10 urteko semearekin tutoretzako pisuan bizi da duela pare bat hilabete. Azken honek berriki prestazioa jasotzeko eskubidea berreskuratzea permititu dio. Bere bizitza ibilbidean zehar lan merkatuan eta harremanen esparruan izandako bizipenak elkar artean txirikordatzaren diren arren, bereziki esparru ekonomikoan eta etxebizitzarekin lotuta bizi dituenak dira bere burua egoera zaurgarrian ikusi arazten dutenak:

«Hau da nire bizitzako unerik esanguratsuena. Hazi nauten jaun-andereei esker, umetan ez zait inoiz ezer faltatu izan ... beti egin izan dut lan nahi nuena eduki ahal izateko ... eta horrelako egoera batean, ate guztiak itxita topatzen dituzu, eta horrelako lekuetara jo behar duzu ... Eta lotsa ematen dizu, besteek esango ote dutenarengatik ... Ez nuen horrelakorik gertatuko zitzaidanik espero ...» (Nuria)

Bere kontakizunean atzera bagoaz adopzio familia batean hazia dela jakingo dugu. Hauek izan ditu benetako gurasotzat, baina duela urte gutxi hil zitzaizkion bai ama eta baita aita ere. Ama ezkongabetzat ikusten du bere burua, semearen aitak ez baitu inoiz ardura handirik hartu bere gain eta banatuta daudenetik ez dio legeak finkatutako pentsioa ematen. Bikote ohiak momenturen batean tratu txarrak eman zizkiola azaldu digu eta horretxegatik bolada baterako izeko baten etxera egin zuela ihes.

Lana aurkitu eta behin-betiko kontratua eskuratzeko aukera izan zuen, baina semearen zaintza eta arduraldi osoko lana bateraezinak zirela eta Bilbora itzuli behar izan zuen, langabezia kobratu ahal izateko. Langabezia eskubidea agortu zitzaionean hasi zen DBE errenta jasotzen.

Egoeraren korapilatzea, alokatzen zuen pisuko jabeak erroldatik bajan eman zionean etorri zen, berehala galdu baitzuen prestazioa eskuratzeko eskubidea. Hilabete batzuek pisu bila ibili zen, bertan erroldatu eta berriro ere prestazioa jaso ahal izateko. Alokatu, alokatu zuen gela bat, baina ez zuen bertan erroldatzeko aukerarik izan. Bere azken

4. Kapitulu

aurrezki apurak agortzera zihoazenean ezagun baten bidez lortu zuen gaur egun bizi den pisua daraman elkartearekin kontaktuan jartzea.

Pisu honetan sartzeak beraz, prestazioa jasotzeko eskubidea eman dio berriro ere. Ez du etxebizitzarako gehigarria jasotzeko eskubiderik eta senar ohiak hileroko kantitate bat ordaindu beharko liokeenez ez du ere prestazioagatik legokiokeen zenbateko maximoa jasotzen, baina 750 euroekin behintzat, minimoak estaltzeko adina badauka. Pisu honetan etxebizitza gastuak diru-sarreraren %10era iristen dira, izan ere, elkartetik hileroko kantitate bat aurreztera bultzatzen dituzte gero haien kaxa beste pisu batean gela bat aloka dezaten:

«Orain babestuta sentitzen naiz, ondo sentitzen naiz, ez zait ezer falta ... ez daukat etxebizitza galtzeko beldurrik, baina bai nire kabuz pisu bat alokatzera ez iristeko beldurra. Gehiegizko kantitateak eskatzen dituzte orain ... Gela bat aurkitzeko ... ze, gehienez pisu batean bi familiak jaso dezakete laguntza! ... edo, gela alokatzen dizuten, baina kontraturik egin gabe ...» (Nuria)

Elkarrizketaren une horretan etorkinen eta bereziki hegoamerikarren aurkako diskurtsoa atera zuen Nuriak. *Pantxitoek* eskuratzen omen dituzte bere ustetan etxebizitza, lan eta prestazio gehienak. Aurreiritzi hauen atzean okerkeria baino, desinformazioa dagoela ikusten da eta era berean, norbere egoera zaurgarri eta ahularen isla.

Atal honi itxiera emateko, pasarte esanguratsu bat ekarri nahi izan dugu gogora. Disimulu handirik gabe, Albertoren hitz hauek etxebizitza duina izatea oinarrizko eskubidea izateaz gain, norberaren auto-estimurako zeinen garrantzizkoa den azaltzen digute:

«Beste maila batean ikusten duzu zure burua. Ez maila baxuago batean. Gaur egun, beste edozein hiritar dagoen maila berean sentitzen naiz. Nire pisu propioarekin! ... pentsioa jasotzen dut gero, baina garrantzitsuena, etxebizitza da. Eta hori, konponduta dut!» (Alberto)

Ez al da ba hau ere, zaurgarritasun ekonomikoaren eta bazterkeriaren aurpegi bat? Norberak bere burua zein ispilutan ikusten duen eta ispiluak, zein irudi errebotatzen

dion. Gizartearen begirada eta norberarena dira ispiluaren atzean daudenak, eta azken irudia islatzen dutenak. Albertori, bada, bere burua *beste edozein hiritar legokeen maila berean* ikustea lagatzen diona, etxebizitza da.

4.5.2. Prestazioaren onuradunak eta lan merkatua

«gehiengoak, lanaren inguruan duen iritzia albo batera utzita, gauzak egiteko gogo du, lan ibilbide bat izateko ...» (Aitor)

Beste esparruetan gertatzen den bezala lan merkatuari dagokionean ere ibilbide zeharo desberdinekin egin dugu topo. Xedea ez da lan merkatuaz edota lan merkatuaren prekarizazioaz jardutea, baizik eta gehienbat gure protagonistek lan merkatuarekin duten harremana aztertzea, analisi horretatik ildo nagusi batzuk eratzeko helburuarekin.

Elkarrizketatuen artean gehiago dira lan merkatutik at daudenak enplegu bat dutenak baino eta horrek, nola ez, jasotako emaitzetan eragina izan du. Elkarrizketatuko gizonen artean gaur egun lan merkatuarekin nolabaiteko harremana duen bakarra Aitor da, harreman hori prekariora eta aldizkakoa izan ohi den arren. Denetariko lanak egin izan ditu: administrazio lanak, supermerkatu handietan, okindegi batean e.a. Bere kasuan prestazioa eta lan errentak -dauzkanean- nola konbinatzen dituen azaltzen digu eta baita bi horiek bateratzeko daukan premia bera ere:

« ... azken bost urteotan, bi hilabetez izan ezik, beti izan dut lana. Beti mileurista soldatak, baina asko estutuz gero, eta gauza askori uko eginez, badago bizitzerik. Gehiago edo gutxiago, lana eduki izan dudanez, ba batera edo bestera, egoerari eutsi diot ...» (Aitor)

Prestazioaren helburuetako bat onuradunen artean lana sustatzea da eta maila jakin batera arte lanarengatiko sarrerak eta prestazioa bera bateragarriak izaten dira. Lan errentak dituenean, beraz, bere hileroko sarrera maila 1000 euro ingurura iritsi ohi da. Oztopoa baina, lana-langabezia-prestazioa txandakatzeak prestazioaren kobrantzan

4. Kapituluia

dakartzan atzerapenetatik dator. Horrek finean, zaugarritasun egoera biziagotu baino ez du egiten, batez ere lan merkaturako sartu-irtenak maizkoak direnean:

«Gorabehera guzti hauek nahastu egiten dute bat ... asko ... eta batzuetan familiarengana jo beharra dago. Nire kasuan esaterako, hilabete honetan kobratzen ez dudana, datorren hilean itzuliko didate. Baina nik hilabete honetan ere jan egin behar dut!» (Aitor)

«lan zirkuituan hiruzpalau aldiz egiten dut sartu-irtena, ezin dut inolaz geldi egon, prestazioarekin bakarrik nahikoa ez delako. Nahitaez, gustatu ala ez, lanaren alde egon edo ez suertatzen zaidan lana onartu behar dut» (Aitor, 41, bakarrik bizi da)

Azken pasarte honek prestazioaren inguruan dagoen eztabaida bizi batean barneratzeko bidea irekitzen digu: prestazioaren onuradunek lan egiteko jarrera edo aurre-disposizio egokia duten ala ez eztabaidatzen duena. Gai hau hizpide hartuta, elkarrizketatuen artean jasotako jarrera esanguratsuenak aipatu nahi dira. Abiaburu gisa, Aitorrek berak azaltzen digu gustatu ala ez, lan egin beharra duela eta kontua ez dela lanaren aldekoa izatea ala ez.

Langabezian egoteak erabat blokeatuta dauka Ahmed, gure lagun Aljeriarra. Badarama hogeit bat urte Euskal Herrian bizitzen eta urteetan autonomo gisa lan egin izan du, herriz herriko merkatuetan. Egun 53 urte ditu eta merkatuetako lanak okerrera egin zuenetik eta birikietatik operatu zutenez geroztik ez du lanik topatzen. Harrezkero prestazioa jasotzen du eta dagoeneko badira bost urte DBEren onuradun dela. Emaztea eta seme-alabekin guztira sei pertsona dira etxean, eta gainera koinatuari ere egin diote harrera, honek lana bilatu bitartean. Ahmed eta bere familiak etxeko diru-sarrera mailaren beherakada nabarmendu dute merkatuetako lana ondo zihoaneko garaiekin alderatuz eta orain 935 euroekin moldatu beharra dute.

Emazteak ere ez du enplegurik eta hura arduratu izan da beti etxeko lan guztiez eta seme-alabak zaintzeaz. Ez dio horrek denbora libre askorik uzten, ez kalera irteteko, ezta seniderik bisitatzeko ere. Horretan alde handia dago senar-emazteen artean: Ahmedek leku guztietako lagunak dituela azaltzen digu, gaztelaniaz eta hitz-jario handiaz. Emaztea berriz, ez da apenas etxetik irteten eta ez daki gaztelaniaz.

Daukatenaekin moldatu beharra dute baina edozer laguntza txiki garrantzizkoa da.

Besteak beste, umeentzako arropa erosteko GKE baten eskutik subentzio bat jasotzen dute. Ordaintzen duten alokairua baxua da, baina aipatu dugu aurretik Ahmed eta bere familia etxebizitza galtzeko zorian daudela. Dena den, badirudi Ahmed gehien ernegatzen duena lana topatzeko ezintasuna dela. Politikaz ezer gutxi dakiela esaten digu, ezin digula eskubideez hitz egin eta ezingo lukeela esan DBE jasotzea berari dagokion eskubidea den ala ez. Ostera, prestazioa jasotzearekin erabateko deseroso sentitzen da:

«Ez dago niretzat egina, ulertzen? Ez zait DBE kobratzea gustatzen. Bizi guztia daramat lan egiten, ez zait gustatzen errenta hau kobratzea! ... ez da etorkizuna! Etorkizunean pentsatzen dut nik, eta DBE niretzat, ez da inongo etorkizuna! Ulertzen? Irtenbideren bat bilatu behar dut ... Etorkizunean, DBE kenduko balute, zer jango dugu, harriak?» (Ahmed)

Djamel gazteak ere arazoak ditu enplegu bat aurkitzeko eta duela bi urte Marokotik Bilbora heldu zenetik, ez du inongo lanik topatu. Ahmeden aldean, eskubide sozialen eta prestazioaren inguruan jantziagoa da, eskubide zibil eta sozialak ondo ezagutzen ditu, eta DBEri buruz hurrengoa errepikatzen digu: *«oinarrizko errenta hau, aldizkako prestazioa da, izaera ekonomikoa duena»*.

Jaioterrian unibertsitate ikasketak amaitzeke utzi eta 27 urterekin etorri zen Bilbo aldera, etorkizun hobe baten bila. *Lanbideren* eskutik ikastaro ugari egin ditu, besteak beste gozogintza eta iturgintzako zenbait kurtso. Izan ere bere Marokoko ikasketek ez dute baliorik gurean eta gau-eskolan ari da eskola graduatua atera ahal izateko:

«Aldatu nahi dut, ez dut gosez hil nahi ... Ezin da lanik egin, orain ez dago lanik. Zer, eraikuntza? Gehiago ikasi nahi dut, baina ez dut astirik ... sei urte? Beste sei urte? Ezin dut itxaron. Lan egin behar dut. Hona etorkizun bila etorri naiz, etorkizun bat ereitera ...» (Djamel)

Aukeran, prestazioa jaso baino Djamelek nahiago luke lan egin. Bere kabuz atera ahalko luke bizimodua hartara, buruhausterik gabe eta inork kargurik hartu gabe:

«Lan egin nahi dut, badakizu? Prestazioaren orde, 400 euroko soldata eskainiko balidate, onartuko nuke ... Ez nuke gela bat alokatu beharriko izango, ez nuke erroldarik ez kontraturik beharko ... Orain, prestazioarekin, alokairu kontraturik gabe ...» (Djamel)

4. Kapituluia

«Oraintxe bertan, ez dakit prestazioa kobratuko dudan ere ... esaten dizut, lan egin nahi dut. Ez dut etxean egon nahi, hilaren 25ean, 26an ... al 23an kobratuko ote dudan egiaztatzeke ... zoratuko naiz! Lana izango banu? Ez nuke pentsatuko. Hilabete bukaeran? Kobratuko nuke (Djamel).

Prestazioaren eta lanarenganako jarrera hauei kontrajarrita baditugu bestelako uste eta ideiak dauzkatenak ere. Itsaso eta Begoñak neurri handi batean behintzat, prestazioaren onuradun izatea haiek beraiek hautatu dute eta DBE prestazioa sutuki defendatzeaz gain, oinarrizko errenta unibertsal baten (HOE) aldeko apustu garbia egiten dute.

Begoñak 60 urterekin hartu zuen erretiratzeko erabakia irmoa, goiz jubilatzeak zekarkion pentsio galera bere eginez. Erretiro pentsioa %60ra murriztuta beraz, 650 euro ingurura iritsi arte DBE prestazioa jasotzen du osagarri gisa. Beste bost urtez lan egiten jarraitu ordez gizarte mugimenduetan boluntario aritzea nahiago izan du. Ez da kasualitate hutsa, Begoñaren ibilbide pertsonala militantzia politikoari eta aktibismoari zeharo loturik baitago.

Gazterik hasi zen lanean eta sektore askotan ibili izan den arren, sektore aski feminizatueta aritu izan dela azaltzen digu: besteak beste, tailerretan eta alkandora fabrika batean gaztaroan eta garbiketa sektorean, erretiratu aurreko azken urteetan. Militantzia politikoak bere ibilbide profesionala ere baldintzatu izan du; gaztea zela enpresa handi batean zuen lanpostua utzi zuen tailer txikiago batean langile arrunt gisa lan egiteko. Militantziak elkartu zuen gaur egun bere senar ohia denarekin, eta baita, bolada batez erbestera eraman ere.

Mugimendu sozialen inguruan murgilduta, lotura oso sendoak eratu ditu kideekin: baliabide ekonomiko gutxi izan arren, adiskide-kapital garrantzitsua izateaz harro dago.

Ez du inoiz gastu handirik izan, bere oinarrizko printzipio bat gutxirekin bizitzea izan delako beti; diru asko izateko beharrik gabe eta horregatik inorekin borrokatu beharrik gabe. Senarrengandik banatzerako unean, esaterako, ez zuen gehiegizko aldaketarik sumatu maila ekonomikoari dagokionez:

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

« ... orduan beste pisu batera joan nintzen, etxeko ataria eta eskailerak garbitzen nituen eta pisu bat utzi zidaten bertan ... ez nuen ordaindu behar beraz ... eta lanarekin eta orduan jasotzen nuen diru-laguntzarekin ... horrekin bizi nintzen, nire gastuak ez dira neurritz kanpokoak! ... Lehen ere ez nuen gauza handirik behar» (Begoña)

Lan merkatuan eta elkarteen munduan eskarmenturik falta ez zaion emakume hau, gizartean sustraituta ikusten duen «*lan egiten ez duena, alperra da*» esaldiarekin ez dago bat ere ados eta gaur egun balioa galtzen ari dela uste du:

«lanak ez gaitu ez duin egiten, ez gaitu pertsona bezala garatzen ... ez gara alperrak ... oraingoa bezalako garai batean, lanik ez dago eta! ... Jendeak lan egin behar duela, ez daitezela prestazioa jasotzera ohitu? Lotsagabeak! Ez dago lanik eta! Ez lanik, ezta ikastarorik!» (Begoña)

Itsasoren posizioa ez da gehiegi urruntzen Begoñarenetik, baina baditu bere ñabardurak. 56 urte dituela gazteagotan eskuratu zuen lizentziatura osatzeko master bat hastekotan dago. Urte asko eman ditu atzerrian, Hego Amerikan, berak azaltzen digunez *lumpen* mundu batean. Badira hiruzpalau urte EAera itzuli zenetik eta harrezkero prestazioa jasotzen du. Bi garai hauetako esperientziak berak hartutako erabakien fruitu izan direla adierazte digu:

«nire bizimodua, minimoetan oinarrituta dago. Gustuko dut ... dirua edukita ere halaxe egingo nuke. Gutxienekoarekin bizi ... Aukera pertsonal gisa bizi izan ditut, inoiz ez obligazio gisa ... Beti bizi izan dut erabaki bat bezala» (Itsaso)

Askotariko lanak egin zituen gaztetan: adineko pertsonak zaindu, ostalaritzan, garbiketa lanetan e.a. Ameriketara ere lan merkatu araututik kanpo, baina irakasle lanak egin zituen. Azken urteotan ostera, ez dabil lan bila: ikasten jarraitzea da bere desioa, eta ikasketekin lotutako gaien inguruan saiakerak idaztea. Ez du hala ere lan egitearen aurkako inolako jarrerarik erakusten. Aitzitik, lanordu gutxiagoko lanaldiaren aldeko diskurtsoa agertzen digu:

«Benetan interesatuko litzaidakeena, lau orduko enplegu bat litzateke. Bizitza erraztuko lidake ... maila emozionalean ere, egunerokotasun honetan helburu bat markatzeak. Nik asko irakurtzen dut, pelikulak ikusi ... baina uste dut lau orduko lan batek, norbere mundua beste era batean

4. Kapituluia

martxan jartzea permititzen duela ... Lau orduz, alderdi arautu bat jar nezake martxan ... eta gainontzeko orduetan, bestelako bizipenak eta esperientziak landu nitzake...» (Itsaso)

Pentsamolde hau atal teorikoan aurkeztu dugun Hiritartasun Oinarrizko Errentak (HOE) defendatzen duenarekin bat dator erabat. Azken finean, lan merkatutik kanpo, gizarteari eta norberari balio erantsia dakarkioten aktibitateak garatzeko eskubideez ari da:

«niri errentak bizirauteko balio izan dit ... eta azken lauzpabost urteotan aire freskoa eman dit ... lan merkatutik pasatzen ez diren harremanak landu ahal izateko ...» (Itsaso)

Horretaz gain, elkarrizketetan jaso izan den beste ideia garrantzitsuetako batek lan merkatuan bizi den lehia hazkorrari egiten dio erreferentzia. Ildo horretatik, gure protagonistetako askok lan merkatu horretan sartzeko dituzten oztopoak azaldu dizkigute. Amaiak adibidez, gertutik bizi du bere ikasketekin bat datorren enplegu bat bilatzea edota zuzenean, edozein enplegu bilatzea. 55 urte ditu eta lizentziatura bat izateaz gain amaitua du masterra ere. Langabezian dago orain eta lana aurkitzea ezinezkotzat jotzen hasita dago:

«(lan merkatuan) borroka handia da, exigentzia maila altua, eta geroz eta marjinatu gehiago egongo da ... erronka asko gainditu beharra dago, edozein lanetan ... denetarik eskatzen dizute, titulu hau, beste hori ... eta jende asko merkatu horretatik kanpo geratuko da!» (Amaia)

«(lana) nolabait orain arte bai ... 6 hilabete handik ... dirutxo hau hemendik ... baina bueno, ez dakit noiz arte ... bai, txarto ikusten dut ... ez dakit zer egingo dudan. Gainera ikusten dudalako gauzak gero eta txartoago daudela. Eta nik daukat, emakumea izatea, gehi adina...» (Amaia)

Lorea gazteago da, 41 urte ditu eta lau urte darama prestazioa jasotzen. Aurretik autonomo eta soldatapeko gisa ere lan eginda dago baina azken lana galdu zuenetik eta ama izan denetik ez du enplegurik aurkitzen. Azken urte hauetan bizi izan duen zurrunbiloan alkoholarekin izan duen arazoak ere eragina izan duela azaldu digu. Edozein kasutan, elkarrizketa egiterako unean mendekotasuna ondo gaindituta duela esan digu. Oztopoa lan merkatuaren prekarietatean ikusten du eta bi urte baino ez

dituen bere semea izateak konkurrentzia horretan dakarzkion mugetan:

«Ba oso txarto, ama ezkongabea izanda, oso txarto ikusten dut. Ez baldin bada ... etxe bat garbitzen? Ez zait axola, e? Baina noski, ez zaituzte aseguratatu nahi ... ze nik lan egin nahi dut, berdin zait zertan ... baina lan hor trukean, lan horrek balio duena irabazi nahi dut! Ederrak gaude!» (Lorea)

Bai Amaia eta bai Lorea ere, guraso bakarren familien buru dira eta lan merkatuarekiko beraien harremana familia egitura eta betebeharrei estu lotuta dago, baita haien emakume eta amatasun kondizioari ere. Horretxegatik hurrengo atalean itzuliko gara haien kontakizunetara. Ikerketa aurrera doan heinean, gizarte bazterkeriaren esparruen arteko harremana geroz eta konplexuagoa dela sumatuz goaz.

Aurreko bi lagunak bezala, Amina eta Gabriela ere emakume eta ama dira. Harremanen esparrua aztertzerakoan haiengana itzuliko garen arren, elkarrizketatuek lan merkatuarekiko duten erlazioa aztertzen ari garen honetan geldione txiki bat egitea komeni da. Izan ere, Aitorren kasuarekin batera, hauek baitira emakumeen artean enplegua eta prestazioa uztartzen dituztenak.

Aminak lanaldi erdiko kontratua dauka eta garbiketa sektorean egiten du lan. Aurretik ere antzerako enpleguak izan ditu, baita pertsona nagusien zaintzarekin lotutakoak ere, eta ez beti kontratuarekin. Badira 8 urte Aljeriatik heldu zirela eta lauzpabost prestazioa jasotzen dutenetik. Bera da DBEren titular nagusia; senarrak orduan soldata txikia zuen eta orain berriz langabezian dago. Honekin lotuta senarrak langabezia eta etxeke egoera nola bizi duen azaltzen digu Aminak, horrek gizonari sortzen dion frustrazioa, alegia:

«Orain ez du lanik. Duela bi urte. Langabezian dago. Egunero doa lan ekintzara, Lanbidera, baina ezer ez ... ez da ezer irteten, ez diote deitzen ... eta aspertuta dago. Ez zaio gustatzen. Lan egin nahi du ... eta dirua behar dugu! ... Lana izango balu, burua ere lanpetuta izango luke ... osasunarentzat ere, hobe!» (Amina)

Ikuspegi hau berau erakusten digun hirugarren bizipena da; den-denak gizonezko etorkinekin ahotik irtendakoak. Ezin da hain erraz orokortu baina bederen esan

4. Kapitulu

genezake Ahmed, Djamel eta Aminaren senarrak bizi duten langabezia egoera, antzerako termino eta sentimenduak plazaratuz ematen dutela aditzera. Hau da, oso era bertsuan komunikatzen dute lan merkatutik at egoteak dakartzkien sentipenak. Eta esan badaiteke, ezinegona.

Bestetik, Gabrielak bost urte darama prestazioa jasotzen, kontratupeko edota kontraturik gabeko lanaldi partzialeko enpleguak tartekatuz. Azken lau urteotan esaterako, zainketa-garbiketa lanetan dihardu etxe batean, lanaldi erdiko kontratuean. Duela sei bat urte Bilbora iristerakoan egoera legala zen oztopo nagusia baina gaur egun formazio nahikoa falta zaiola nabari du. Etorkizunera begira bere negozio propioa jarri nahiko luke martxan baina horretarako prestakuntza beharko lukeela uste du:

«zenbait kurtsotan eman izan dut izena, baina ordutegi arazoengatik ... berriz ere saiatu naiz ... beti daukat ilusio hori. Niri lan egitea gustatzen zait ... eta agian, etorkizunean ... nire negozioa muntatzerik banu ...» (Gabriela)

Senarrarengandik banatuta dago baina harengandik laguntza ekonomikoa jasotzen du elkarrekin dituzten bi seme-alabak hazteko. Zainketa ardurak ere banatu egiten dituztela adierazten digu.

Atala itxi eta harremanen esparrura salto egin aurretik beste pertsona bat aurkeztea falta zaigu: Manu. Honek lotura garbia egingo digu lan merkatuaren eta harremanen esparruaren artean. Igarobide lana, alegia. Epe luzeko langabetua eta prestazioaren onuradun izanik, dibortziazuta egotea eta bost urteko semeaz arduratzea nola bateratzen duen azaltzen digu. Bere kontakizunak bete-betean erakusten du lan eta familia esparruko egoera banaezinak direneko adibide bat. Bide batez gainera, hurrengo atalerako bidea irekiko digu.

51 urte ditu Manuk eta langabezian geratu zenetik bost urte darama DBE kobratzen. Urte askoan garraio sektorean autonomo gisa ibilia da, baina enplegu anitz izan ditu bere bizitzan zehar. Oraindik ere, tarteka espektakulu munduarekin lotutako saio txikiak suertatzen zaizkionean, uda-sasoian gehienbat, ez du aukera galtzen diru-sarrera gehigarri bat eskuratzeko. Bere maila ekonomikoa nabarmen narriatu da prestazioaren

onuradun denetik eta ez du momentuz lanik topatzen:

«etsita nago. Egia esan, erabat etsita nago. Nire sektorean ari den norbait ezagutzen dudanean, esaten diot ... aizu, norbait beharko bazenute ...» (Manu)

«gizarte-laguntzaileak lanean jarri nahi ninduen ... baina zertan, ostalaritzan? Berehala jarri nahi ninduen lanean, baina ez dut sekula horretan lanik egin eta! Ez daukat ideiarik ere! ... Nire nahia lan egitea da ... baina ez dut ezer aurkitzen ...» (Manu)

Errenta jasotzeko tramiteak egiten hasterako emaztearengandik banatuta zegoen arren, etxe berean bizi ziren oraindik ere. Legearen aurrean bizikidetzaren unitate propioa zuela frogatu beharra zuen eta gela bat alokatu behar izan zuen beste pisu batean. Semea amarekin bizi da eta Manuk lanik ez duen arren, umearen amak lan esparruan duen egoerak asko lasaitzen du:

«eskerrak bere amak lan egiten duen ... zoritxarrez, ama ere langabezian geratuko balitz ... gorriak ikusiko genituzke. Nirearekin, ezin dut familia lagundu ... Niretzat, ozta-ozta. Ezinezkoa semea mantentzea!» (Manu)

Beraz, maila ekonomikoan dauzkan mugak direla eta ezinezkoa zaio dirutan laguntzea. Aldi berean paradoxikoa dirudien arren, langabezian egoteak uzten dion denbora librearen giltzarria da bere familia erantzukizunak gauzatu ahal izateko:

«nik ezin dut ekonomikoki lagundu. Denbora, denbora eskainiz lagun dezaket. Eta horrekin laguntzen dut, ze ekonomikoki ... ezin dut. Sosik banu, pozik lagunduko nuke gehiago!» (Manu)

«semea jaio zenean ere. Ederto ba, langabeziarekin eta aseguruarekin, banuen dirua eta semea zain nezakeen. Hiru urtez egon nintzen semea zaintzen ... bere ama ni baino lehen hasi zen lanean ... hiru urtez egon nintzen umea zaintzen. Uste nuen, lana aterako zitzaidala ...» (Manu)

Azken finean Manuren ustetan benetan paradoxikoa dena, berak lau sos irabazteko semea zainduko duen norbaiti soldata bat ordaindu beharra da. Halaxe bizi izan du egun solteetarako lana suertatu izan zaionetan.

Gazteagotan garraio-sektorean aritu aurretik, oraindik aitarekin bizi zenean arratsaldean egiten zuen lan, antzerki munduarekin lotuta. Ordu gutxiko lana zen, egunaren zati

4. Kapitulu

gehiena libre uzten ziona. Egoera horretan aita gaixotu zitzaion eta hil zen arte, bere zainketaren kargu egin zen neurri handi batean:

« ... hamar urte horiek, gogorak izan ziren ... ni berarekin bizi nintzen ... denetarik, diabetearen kontrola, xiringak ... zauriak sendatu ...» (Manu)

Une batez atzera begira, bizitzan zaindu behar izan dituen pertsoez hausnartzen du Manuk eta paralelismo hunkigarria jaurti digu barren-barrenetik:

«nire semea karroan eramaten nuenean ... bai, lehen nire aita eramaten nuen aukitxoan. Esaten nuen, gauza bera da, lehen aita, orain semea, aukitxoan. Baina ez dut beste inor zaindu behar izan, ze hori, putakeria galanta da ...» (Manu)

4.5.3. Harremanen esparrua: familiaren babesean

Jarrai dezagun bada, gure hamazortzi lagunek eskaini dizkiguten bizitza-kontakizunetan murgiltzen. Honezkerok pertsona bakoitzaren istorioan zehar aztergai ditugun gizarte bazterkeriaren esparruak elkarren artean nola kateatzen diren haztakatu dugu. Oraingo honetan harremanen esparruan zentratutako gara, aurreko ataletan ehundutako zenbait hari nagusi errekueratuz eta berriekin josiz, hari gidaria betiere harremanen esparrua izanik.

Ildo honetatik, gai ezberdinak jorratuko dira hurrengo paragrafoetan. Familia esparruak eman dezakeen babesetik abiatuta, babes horrek gure protagonistengan duen garrantzia azpimarratuko da hasteko. Jarraian, familia egiturak aztertzen hasi baino lehen, norbere autonomia mailaz hausnartu nahi da. Izan ere, ikusiko den bezala, familia egituren arabera gure lagunek ardura ezberdinak izango dituzte bere gain. Análisi horretan ezin ahaztu daiteke amatasun-aitatasunak duen berebiziko garrantzia eta, nola ez, genero aldagaiak duen pisua. Azkenik adiskidetasun harremanei helduko zaie eta baita etxeko eremu pribatuaz kanpo gizartean parte hartzeko dauden aukera desberdinei.

Abiatzeko bada, has gaitzen elkarrizketatuen artean orokorra izan den emaitza bat aztertzen: baliabide ekonomikoekin estali ezin diren beharrianak askotan familiaren eskutik jasotzen duten laguntza edota babesari esker ase behar dira. Laguntza ekonomiko soilaz haraindi, itxura anitz hartzen ditu familiak emandako laguntza honek. Zenbait kasutan familia ondoan dagoela jakite hutsa gure protagonisten zaugarritasun egoera leuntzen duen faktore bilakatzen da, nolabaiteko segurtasun faktorea:

« ... hor ikusten dut diferentzia. Nik badakit erori ahal naizela, baina badekat nolabait sare bat. Beste batzuk ez dute izango ezta sarerik ere » (Amaia)

Azken batean sare honek eskaini dezakeen babes morala eta psikologikoa ere giltzarria dira, zentzu pertsonalean aurrera egin ahal izateko funtsezko euskarria eta batez ere une edo egoera zailak gainditzeko gakoa:

«Bizitzeko, fundamental ... jende asko daukat inguruan ... familia zabala ... eta eskerrak ba lagun asko ditudan eta bueno, dudarik gabe horrek asko laguntzen du ... momentu gogorrek izan ziren lanik gabe geratu nintzenean, banandu nintzenean ... eta ingurua ... niretzako izan da oso, oso inportantea ...» (Amaia)

«laguntza handia da, edozein arazorekin lagun zaitzakete ... laguntza psikologikoa ere bada, ez? Gurasoak, neba-arreba ... luzaroan egon daitezela! Gaur egun, gehienbat laguntza psikologikoa ematen didate ... ekonomikoan, laguntza hauekin, ez nabil txarto ...» (Alberto, eskizofrenia)

Batera edo bestera, familia esparruak sostengatzen du neurri handi batean elkarrizketatu askoren egoera prekario eta hauskorra. Argi eta garbi goiko pasarte biak berme emozionalaz ari diren bitartean, hurrengoek dirutan edo jenerotan emandako laguntzari egiten diete erreferentzia, bide batez beste behin ere prestazioaren gutxiegitasuna ageri-agerian utziz:

« ... ematen didatena nirea da, beno, familiarena. Nire arrebak ... ba begira ... barne-oinarrizko errenta bat ematen dit, bestela ez zait iristen » (Joseba, 300 bat euro ematen dizkio)

« ... malarabismoak eginez heltzen zait dirua ... Baina egia esan, janaria ematen didatelako, eta janaria erosten didatelako ... bestela dirua eskatu beharko nieke ... nire anaiek ere solotik ekartzen dizkidate barazkiak ... Etxeko aseguruia ordaintzeko dirua eskatu behar diet ... Uste dut, ekonomikoki haien beharra dudala, baita jateko ere ... » (Lorea)

4. Kapituluia

Lorearen kasuan esan beharra dago bere gurasoen egoera ekonomikoa ere nahiko prekariora dela, gutxieneko pentsioaren onuradun diren heinean. Neurri handi batean horrexek zehazten du laguntzaren izaera ez monetarioa. Horrek baina, ez dio inongo balorerik kentzen laguntza fluxuari eta janaritan edo semearen zainketan eskaintzen dioten laguntzak berebiziko garrantzia du gure lagunarentzat.

Zentzu honetan interesgarria da aztertzea familia esparruaren aterpean eskuratu daitekeen babes eta norberaren autonomia elkarren artean nola erlazionatzen diren. Izan ere, familiarekiko menpekotasun edota autonomia maila bateraezina izan daitezke gure elkarrizketatuek eduki nahi luketen independentzia mailarekin. Hau da, norbere beharrianak estali ahal izateko derrigorrez familiarengana jo beharrak, burujabetasuna urratu dezake. Lorearen hurrengo hitzak horren testigantza garbia dira:

« ... Familia handia dut, eta badakit hor ditudala ... beti lagunduko nautela, edozer gertatzekotan. Baina beti lagundu izan naute, nire bizi osoan. Orduan, nire familia da, baina ez dut haien beharra izan nahi ... neure familiaz arduratzeko ordua da, nire semeaz» (Lorea)

Hitz gutxitan, bere bide propioa izateko gai izan nahi du eta bizitza autonomoa garatu. Aldi berean desio eta behar horrek bultzatu zuten bere momentuan DBE prestazioa eskatzera, nolabait familiarekiko menpekotasun hori gainditzeko:

«errenta eskatu nuenean, ez zitzaidan bizitzeko iristen ... eta kobratzen nuenean, alokairua ordaintzeko zen! Eta mundu guztiak esaten zidan, "zoaz gurasoenera!". Ba ez dut, nahi 36 urte ditut ... ez dut berriro hasi nahi!» (Lorea)

Urrats hori eman ahal izateko zenbait barne kontraesan gainditu behar izan zituen eta barne prozesu horretan ezinbestekoa izan zen prestazioa jasotzea berari ere bazegokion eskubidea zela ondo barneratzea. Aurrerago ere, eskubide honen kontzientzia hartzeak zenbait elkarrizketaturengan dituen inplikazioak ikusiko ditugu. Azken finean, ahalik eta bizitza autonomoena eraman ahal izateko urrats erabakigarria izan da prestaziora jotzea Lorearentzat, oraindik ere familiarekiko menpekotasuna duela aitortzen digun arren:

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

«Kristoren lotsa ematen zidan prestazioa eskatzeak. Beti uste duzu, zu baino behar handiago duten pertsonak daudela. Nik familia nuenez, esaten nuen ... zerbait behar izatekoan hortxe izango ditut! Baina gizarte laguntzaileak esan zidan ... eskubide osoa nuela» (Lorea).

Ildo beretik azaltzen digu Amaiak orain arte nolabait ekonomikoki familiarekiko independentea izan dela eta egunen batean laguntza ekonomikoa eskatu behar izatekotan, horrek bere autonomiarekin egingo lukeela topo:

«nahiz eta oso zaila izan, espero dut eskatu behar ez izatea ... asko kostatuko litzaidake ... ze, bakoitzak dauka bere istorioa, eta niri ez litzaidake gustatuko nire nebei dirua eskatzea» (Amaia)

Menpekotasun honi buruz egiten du hausnarketa Aitorrek ere. Bere kasuan ezinbestekoa du une jakinetan familiarengana jotzea, errentaren kobrantzan atzerapenen bat izaten duenetan esate baterako. Laguntza puntual horien beharra duen arren, esparru ekonomikoan bere burua familiarekiko independentea dela irmoki defendatzen du:

«egoera oso aldakorra da, eta une jakinetan ... familiari laguntza ekonomikoa eskatu beharrean zaude, baina nire kasuan, ez da menpekotasunera iristen ... aparteko gastu bat datorrenean ... edo bat-bateko gastu bat, norbaitek lagundu behar zaitu, bestela ez dizu ematen» (Aitor)

Alberto ahalik eta bizimodu autonomoena eramaten saiatzen da eta borroka horretan, bere independentzia, familiaren babesa eta elkarte baten eskutik jasotzen duen laguntzaren arteko oreka aurkitu du. 43 urte dituen gizon honi eskizofrenia diagnostikatu zioten duela hogeitun bat urte eta harrezkero pentsio ez kontributiboa jasotzen du. Gaur egun eskizofrenia duten pertsonekin lan egiten duen elkarte baten babesa jasotzen du eta besteak beste eskulangintza tailer batean hartzen du parte. Elkarteari esker lortu du hein handi batean gaur egun bizi den etxebizitzarako sarbidea. Hain zuzen ere, alokairu babestuko pisu batean bizi da duela bost urte eta bizikidetzaren unitate propioa osatzen duen heinean, DBE prestazioa jasotzen du bere pentsioa osatzeko.

4. Kapituluia

Izan ere familiaren etxean bizitzeko aukera baztertu egin du, kasu horretan ez lukeelako prestazioa jasotzeko eskubiderik izango eta azaltzen digunaren arabera, pentsioa bera ere murriztuko litzaiokeelako.

Hori dela eta, ahalik eta autonomia finantzario gehiago eskuratzeko helburuarekin bizikidetzaren unitatea propioa eratzea lortu du, elkarteak eman dion bultzadari esker:

«Prestazioa ezagutzen nuen bai, baina ez ninduten onartzen, elkartean baino lehen lagun batekin bizi nintzelako San Frantziskon, eta han ez nuen alokairurik onartzen ... eta orain bizi naizen etxebizitzan alokairua ordaintzen dudanez, hemen elkartearen bidez ... DBE eman zidaten, onartu egin ninduten, orain nagoen elkartean egonda ...» (Alberto)

Familiaren aldetik ez du gaur egun laguntza monetariorik jasotzen, une puntualetan ez bada, baina gurasoek ematen dioten babesak goraipatzen du. Zentzu honetan behin eta berriz errepikatzen du etxekoekin duen giro harmoniatsua. Gurasoekin duen harremanaz ari da batez ere, izan ere neba-arrebekin inoiz haserrealdi eta urruntzeak izan dituela aitortzen baitigu. Baina betiere senideekin duen harreman aparta gogorazten du, horrek bere oreka emozionalerako duen berebiziko garrantzia azpimarratuz:

«gurasoak astebururo ikusten ditut, asteburu batzuetan haienean geratzen naiz, edo han bazkaltzen dut ... elkarbizitza ona da, familia giroa ... neba-arreben artean, asko gara, eta inoiz haserretu izan gara, baina gaur egun elkartuta gaude» (Alberto)

Azken finean prestazioak bere hileroko diru-sarrerek gutxieneko gastuak estaltzea permititzen diote, maila apal batean bada ere. Asteaz zehar kide den elkarteko jantokian bazkaltzen du eta asteburuetan gurasoenean egiten ditu otordu gehienak. Alokairua ordaintzeaz gain, ez du beraz diru askorik gastatzen janaritan eta egoerara moldatu beharra duen arren, hilero pixkatxo bat aurrezteko gai ere badela esaten digu.

Funtsean, bere autonomia mailarekin pozik dagoela ematen du aditzera, batez ere bere etxebizitza gastuak estaltzeko gai delako eta horrek beste edozein pertsona bezala sentiarazten duelako. Kasu honetan beraz, autonomia eta menpekotasunaren artean

eraiki duen oreka mailarekin eroso dago. Hizketaldian zehar sarritan errepikatzen du bere burua normaltzat ikusten duela:

«oso normal ikusten dut nire burua. Nire mugitzen naizen ingurunean ere, ondo ikusten naute. Ez dit ... arazorik ekartzen ... denborarekin gaintuz joan naiz, eta orain pertsonal normal bat bezala ikusten dut nire burua, edozer egiteko gai» (Alberto)

Horretaz gain, aurreko atalean aipatu dugu zenbait pertsonen neurri handi batean haien borondate propioaz erabaki zutela prestazioaren onuradun bilakatzea. Zalantzarik gabe, horrek eragina du pertsona hauek familiarekiko duten autonomia edota menpekotasun mailari buruz jarduterako unean.

Begoña jakitun da prestazioa eskatzeko erabakia hartu zuen unetik bera egingo zela egoeraren erantzule. Hau da, inguruan harreman sendo asko dituen arren, ez deritzo egokia denik laguntza ekonomiko eske haiengana jotzea:

«Nire ahizpak, noski ... Baina historia horrekin apurtu nahian, beste zirkuitu batzuk bilatu ditut ... Zirkulu estuek ito egiten naute, harreman ugari eta era askotakoak behar ditut ... Laguntza ekonomikoa ez diet eskatu, haiek niri ere ez. Nik uste dut, nire kasuan neuk erabaki dudala nire bizitza mota ... eta ez dut inor nire arazoetan sartu behar!» (Begoña)

Itsasoren kasuan ere, berea izan da errentaren onuradun bilakatzearen erabakia baina egoera honetan, norberak aldarrikatzen duen independentziaren eta benetako autonomiaren artean nolabaiteko kontraesanak sortzen dira. Esparru ekonomikoa aztertu dugun atalean, etxebizitza beharriari aurre egiteko familiarengana jotzen duten pertsonak aipatu ditugu eta horien artean dago Itsaso ere. Senide baten pisuan bizitzeak etxebizitza gastuak aurrezteko ahalbidetzen dio eta horri esker hobeto moldatzen da hilean prestazioarengatik jasotzen dituen 450 euroekin. Azken batean, onartu egiten du familiak ematen dion sostengu hori dela berak aukeratu duen bizimodua aurrera eramatea posible egiten diona. Baieztapen honek kolokan jartzen du neurri handi batean kontakizunean zehar goraiatzen duen bere familiarekiko autonomia:

«Egia esan behar bada, familiari esker ere bizi naiz bizi naizen bezala. Koltxoi moduko bat daukat

4. Kapituluia

... Ziur nago, beste pertsona batzuek ez dutela koltxoi hori ...» (Itsaso)

Helburua ez da kontraesan hauen bidez gure elkarrizketatuak epaitzea baina norbere autonomia idealaren eta errealaren artean familiaren babesak jokatzen duela rola azpimarratzen du. Azken batean zaurgarritasun egoera nolabait sostengatu ahal izateko autonomiari uko egin beharra dagoela argi geratzen da, horrek ekar dezakeen higadura pertsonala albo batera utzi gabe. Elkarrizketatuen diskurtsoan sor daitezkeen kontraesanak guzti horren irudi baino ez dira.

Era bertsuan, Josebak bere gastu eta beharrei aurre egiteko arrebak hilean ematen dion diru-laguntza txikia ezinbestekoa dela diosku, hala ere familiarekiko independentea dela ohartaraziz:

«independentea naiz familiarekiko ... arrebak ematen didana, nirea dela uste dut ... baina prestazioa kendu ez diezadaten ... ezin dut esan beste inor ordaintzen ari zaidanik ... badakizu baina, DBEaz gain, beti dago beste zerbait. Familiakoa ...» (Joseba)

Kasu guzti hauetan, independentzia izateko desioak, benetako independentziak eta familiarekiko harremanek elkarrekin talka egiten dute. Gure hurrengo lagunaren kontakizunak ere, bete-betean irudikatzen du aurreko hirurek bat egiten duteneko egoera.

Iratxek 44 urte ditu eta hogeitertietatik gora darama DBE prestazioa eta honen aurrekariak jasotzen. Lau umeren ama den honek inoiz eta tarteka lanik egin badu ere, egun lan merkatutik aldentuta dago, ez baitu azken urteetan enplegurik izan ezta bilatu ere. Familia harremanei dagokienez, seme nagusienaren aitarekin ez du erlazio onik eta ez du beste seme-alaben aita edo aitei buruz ezer aipatzen. Praktikan beraz, guraso bakarreko familia baten buru da. Bestalde bere aita eta nebarekin duen harremana zeharo urratuta dagoela eta, ez du kontaktu handirik haiekin eta bide batez, haiengandik inolako babesik jasotzen ez duela esaten digu. Zentzu honetan, eta bere ibilbideari begira, prestazioarekiko eta laguntza sozialekiko duen menpekotasun egoeraz hitz egiten digu:

«dependentzia, administrazioarekiko ... ez dut familiaren babesik, gutxi egia esan ...» (Iratxe)

Berehala baina, etxebizitza esparrura jauzi egiterakoan, honekin kontraesankorra den aitorpen bat egiten digu. Azken batean aitarekin apenas harremanik ez izan arren, honek utzitako pisuan bizi da alokairu baxu txiki baten truke:

«alokairu merkea da, pisua nire aitarena delako. Ez lidake kobratu behar, baina 200 euro ordainduko diot ...» (Iratxe)

Izan ere, azken urteetan batetik bestera mugitu beharrean ibili dira, etxerik etxe, inolako egonkortasunik gabe: lagunek utzitako etxeetan, lagunek merke alokatutakoetan eta baserri batean ere bizi izan dira. Zentzu honetan behin-behinekotasuna eta prekarietatea izan dira Iratxeren eta bere familiaren etxebizitza esparrua definitu duten ezaugarriak:

«aitarenean geratuko gara orain. Horregatik nago lasaiago orain, badakidalako, aitarekin dudan harremana oso txarra izanik ere, hemen geratuko naizela. Ez da ausartuko gu botatzera» (Iratxe)

Etxebizitza esparruan bizi izan duen egonkortasun falta hori bere zaugarritasun egoeraren parte banaezina izan da, esparru ekonomikoan eta familiarrean dituen mugak ere aintzat hartuta. Une honetan, familiako kide batek emandako nolabaiteko babesa izan da esparru honetan lasaitasuna ekarri diona. Laguntzaren jatorria bera baloratzen sartu gabe, jakitun da laguntza horrek bere ongizatean duen eragin positiboaz eta agian horrek bere bizitza ibilbidean suposa dezakeen inflexio puntuaz. Baina hein batean, bere diskurtsoa kontraesankorra da, kontakizunean zehar familiaren aldetiko edozein laguntza errefusatzen duelako.

Iratxeren arabera babes falta hori ama izatearen esperientzian ere bizi izan du. Hain zuzen ere, bikote harremanaren hausturaz hitz egiterakoan seme nagusienaren aitak familia ardurak bere gain hartzeko erakutsi duen ezintasunari egiten dio erreferentzia.

4. Kapitulu

Iratxeren kasuan eta hurrengo datozenetan ere, familia-egitura eta familia ardua jakinek norbere egoeran duten inpaktua begi-bistakoa da, zaurgarritasun egoera zizelkatzerako orduan. Zehazki amatasunarekin lotuta bizipen eta ikuspuntu zeharo desberdinak jaso dira elkarrizketatuen artean. Horren ondorioz, era desberdinetan baloratu izan dute amatasunak haien bizitzako beste esparruetan izan duen eragina eta zenbait kasutan horrek ekarri dizkien mugak.

Iratxeren kontakizunera itzuliz, irmoa da berak amatasunari buruz duen ikuspuntua. Lan esparruan anbiziorik izan ez duela esaten digu, eta ostera, ama izatea, horixe izan dela bere xede nagusia. Hots, bere bizitzako elementu zentrala:

«umeek ez didate bestelako gauzak egitea eragotzi, alderantziz dela uste dut ... gizarteari ekarpen bat egiten ari naizela uste dut ... alderantziz ikusten dut. Etxeak garbitzera joan ahal izateko, semeak uztera behartuta ikusten nuen nire burua, burugabea iruditzen zitzaidan ... ez nuen ulertzen» (Iratxe)

Etorkizunera begira, aitak lagatako pisuan instalatutakoan ordu gutxiko lanen bat bilatzeko desioa duela azaltzen digu. Baina batetik, guraso bakarreko familia ugari baten buru den heinean, irtenbideren bat bilatu beharko luke seme txikiak norbaitekin utzi ahal izateko:

«Gutxi, une jakinetan umeekin gera daitekeen lagun bat, badaukat ... baina ez era jarraian. Ezin ditut utzi eta lanera joan. Hori ez daukat» (Iratxe)

Bestetik aurrerago Aitorren kasuan aipatu dugun moduan, prestazioaren onuradun direnek lan errentak tartekatzen dituztenean, lana amaitutakoan berriro prestazio osoa jasotzen hasi arte atzerapenak egon ohi direla salatzen dute. Atzerapen horiek, izatekotan, goitik behera aztoratzen dute familiako aurrekontua:

«lanik suertatuko balitzait ... lanean nagoen bitartean, tira, seme-alabak non utzi, hori konpondu beharko nuke ... arazoa ostean dator ... zer egiten duzu ostean? Bost hilabetez? zer jango dute? Ezin diet esan: itxaron bost hilabete, jateko. Eutsi goseari. Bost hile barru jango duzue» (Iratxe)

Edozein kasutan bai amatasuna lehen pertsona bizi izan dutenek, baita kanpotik

ikusten dutenek ere, ez dute zalantzarik horrek zaugarritasun egoeran duen eragina baloratzerako orduan. Hain zuzen ere, bat datoz errentaren titularrak seme-alabak dituztenean egoera zailgotu egiten dela esaterako orduan:

«zure buruarekin baldin bazaude, noski arduratzen zarela, baina bi seme dituzunean kezka izugarria da, ez?» (Amaia, bi seme-alaba)

«ni bezalako emakume asko, DBE jasotzen ari dira eta Caritasera jotzen dute ... nik ere berdina egin beharko nuke! Ezagutzen ditut, ama ezkongabeak ... bestelako laguntzarik ez dutenak ... eta horixe egiten dute!» (Lorea, seme bat)

«irudika dezaket, batez ere, seme-alabak dituzten emakumeentzat ... prestazioa ez dela nahikoa» (Itsaso, ez du seme-alabarik)

Hau da, nork bere kargura umerik izatekotan, hauskortasuna handiagoa da eta aurrera egiteko zailtasunak topatzen dira. Begoñak 60 urteak beteak ditu eta alaba hazia du dagoeneko, baina atzera begira eta etorkinen kolektiboari so eginez egoeraren krudeltasunaz kontziente da:

«(etorkinak) hauek ez dakit nola egiten duten ... haien herrietara dirua bidaltzen dute ... etxearengatik dezente ordaintzen dute ... eta gero, bizi eta jan egin behar dute! Eta ahal dutenean, ala! Kalera, dantza egitera!» (Begoña, erretiratua)

Beste herrialdeetatik etorri diren elkarrizketatuen artean Gabriela da tarteka Perura dirutxo bat bidaltzen duena. Hiru seme gazteenak berarekin bizi diren arren, nagusiena Perun geratu zen eta ahal duen heinean lagundu egiten dio, lan errentak eta prestazioagatik dagokiona kobratu ostean, aurreztea posible zaionean. Gabrielarena, zainketa global katearen adibide garbia da, azken urteotan literaturan hain ikasia den fenomenoaren isla, alegia⁸⁷.

Amatasunaren ondoan, ez beti, baina aitatasuna edo aitaren irudia ere egoten da. Garrantzitsua da beraz, aitaren figura ere aztertzea gurasoen arteko ardura banaketan oreka edo desoreka irudikatu nahi bada. Lau dira elkarrizketatutako gizonezkoen artean

⁸⁷ Gai honi buruzko xehetasun gehiago ikasteko: Pérez-Oroz, A., (2007): "Global Care Chains", Working Paper 2, *Gender, Remittances and Development*, Santo Domingo: United Nations, In straw.

4. Kapitulu

aita izan direnak: Manu, Ahmed, Joseba eta Ernesto, hain zuzen ere. Orain arte, ez da Ernestori buruzko aipamen berezirik egin, bere kontakizuna aurrerago jorratuko baita.

Manuri dagokionez argi geratu da lan merkatuari eskainitako atalean bere semearen zaintzan duen inplikazio maila. Gogora dezagun ekonomikoki ezin duen arren, emazte ohia umearen zaintzan asko lagundu duela eta bere heziketan parte hartzen duela. Bestetik, Ahmed, lau seme-alabaren aita da eta pasarte labur honek bikain erakusten digu bikotearen arteko ardura banaketa, lana merkatuaren esparruan ere aipatua izan dena:

«Galdera: Orduan dena egiten du emazteak?»

Ahmed: Bai.

Galdera: Seme-alabak ... ?

Ahmed: Bai, denak.

Galdera: Ez duzue elkarbanatzen?»

Ahmed: Ez, ez dit inoiz laguntzarik eskatu ...»

Josebaren kasuan ere, halaxe izan zen bere seme-alabak txikiak zirenean. Gaiari garrantzi handirik eman gabe esan egiten digu bere emazte ohiak ez zuela sekula etxetik kanpo lanik egin eta «nola ez», bera arduratzen zela umeen zaintzetan. Bi adibide hauetan, generoaren araberrako ardura banaketa argia islatzen da. Azken finean, *gizon ogi irabazle* eredu klasikoaren adibide garbiak dira.

Honekin jarraituz, emakumeen artean badira umeak bakarrik izan dituztenak eta baita bikotearekin izan dituztenak ere. Esperientzia guztiak ez dira, noski, berdinak izan baina umea bikotearekin izan dutenek ere gizonarengatik inplikazio falta sumatu dute, haien kasua guraso bakarreko familiekin parekatzeraino.

Begoña esaterako, alaba hazita zuenean banatu zen senarrarengandik eta Amaia berriz, semeak txikiak zirela. Kasu bietan, bikote ohiarekin etxeko arduren banaketan izan duten desoreka faktore azpimarragarria izan da:

Landa lana: elkarrizketen diseinua eta emaitzak

« ... nire kasuan, bueno nire bikotea ez da inoiz semeekin bizi izan ... herri batean bizi da eta orduan beti ni egon naiz bakarrik. Lehenengo urteetan gurasoek lagundu zidaten eta gero ba ni neu bakarrik, pertsona bat neukan, nik lan egiten nuen, goizez eta arratsaldez, 8ak arte. Orduan pertsona bat behar nuen eta horrela moldatu naiz» (Amaia)

«Hasieran "estupendo! Seme bat, nola ez!" Baina asuntua da horri nola aurre egiten diozun, eta nire kasuan hor guztiz bakarrik sentitu naiz. Orduan niretzako hori izan zen oso gogorra eta aurre egin behar izatea, bi semerekin. Eta sentsazioa? Bakarrik» (Amaia)

«ama izaterakoan, arima erori zitzaidan. Ondoan daukazu umea, eta ezin zara berarengandik desitsasi! Bikotearekin eztabaida asko izan nuen ... ardurak banaketaren bere %50ak ez zidan balio ... bestelako aukerak bilatu nituen, adibidez beste bikote batekin elkarbizitzea, gure umeen zaintza ere konpartitzeko ... Lau ginen, bi bikote, eta niri berdin zidan bi umerekin geratzea ... argi nuen, ez niola utziko gustuko nituen gauzak egiteari» (Begoña, bananduta dago.)

Bi emakumeek argitu egiten digute zein bidetatik jo zuten familia ardurei aurre egiterako orduan. Begoñak bereziki, haurra txikia zen bitartean militantzia aktiboan jarraitzeko bizitako oztopoak dakartza harira:

«Haurra besapean nuela joaten banintzen ni batzarretara, zelan ba ezin zuen egin bere aitak? ... Gehienbat, nola egin dugu? eskolara, eta haurtzaindegira bi hilabete zituenetik ... eta gero, ahal izan den neurrian beste bikote batzuekin ardurak banatuz» (Begoña)

Bikotearengandik banatzerakoan alabak aitarekin geratzea erabaki zuen eta harrezkero ama-alaba harremanak adiskidetasun harreman baten ukitua hartu zuen. Azken finean Begoñak amatasuna bizitzeko izan duen ikuspuntuarekin zeharo lotuta dago, izan ere bere askatasuna eta independentzia bere horretan mantentzen saiatu izan da egoerak utzi dion heinean:

«Horixe izan da beti nire apustua. Nik ez nuen ama izan nahi, puf! Amek gauza asko konpondu behar dituzte. Ez, ez, bakoitzak ikas dezala bere bizitza egiten, besteok egin dugun moduan. Nik horrela ikusten dut. Nik ibiliaz ikasi dut ... Gero umeak ez izatearen aldeko propaganda egiten nuen» (Begoña)

Aitzitik, Amaiak lan merkatuan barneratzeko oztopo objektiboak egiten die erreferentzia zuzena. Lan merkatuari eskainitako atalean ere azpimarratu egin da Amaiak bere adina eta emakume izateagatik gaur egun pairatzen dituen trabak. Haurrak txikiak zirela aldiz, bestelako mugak izan zituen; berari interesatzen zitzaion lan

4. Kapituluia

sektore jakin bati uko egin behar izatea, kasurako:

«Aber, eh ... jendeak ez dizu galdetzen ia semerik daukazun. Da, gehienbat zu, batzuetan, ba lan batzuk ia baztertzen dituzula. Esate baterako, zerbitzu sozialen arloan, asko lan egiten da txandaka. Orduan nik, seme txikiak nituenean, lan horiek ez zitzaizkidan burutik pasatzen, ez? Aurkeztea. Orduan bai, nolabait mugatzen dizkizu aukerak ... zuk zeuk ikusten duzulako ez dela posible» (Amaia)

Ildo beretik, Loreak ere lehen pertsonan bizi ditu lan merkatuan txertatzeko zailtasunak eta zalantzarik gabe bere familia egoeran ikusten du kausa:

«Ezkongabe, eta seme batekin? Ahaztu ezazu. Ez zaude merkatuan ... ama ezkongabe izatearen arazoa dut ... lanaldi erdiko lana bilatzen dut, ze osokoa hartuko banu ... umea zaintzeko beste norbaiti ordaindu beharko nioke, eta ez zaizkit kontuak irteten! Nahiago dut umea nirekin badago!» (Lorea)

Zentzu honetan, aurrez aurre jartzen dira berriz ere norbanakoak bere autonomia garatzeko izan dezakeen desioa eta une jakinetan familiarengana laguntza eske jo beharra. Loreak euskara ikastaroak egin ahal izan ditu azken urteetan gurasoek eman dioten babesari esker, baina arreta gehiegi bereganatzen ez ote duen, horrek larritzen du:

«euskara ikastaroak egiteko diru-laguntza eman zidaten iaz, eta kurtsora joan ahal izan nuen egunean bi orduz, nire ama nuen umea zaintzeko ... lagunak ere ... baina aurten ez dut egingo, gehiegi monopolizatzen dudala uste dut, laguntza gehiegi eskatzen ... etorkizunean lana topatzen badut, laguntza beharko dut ...» (Lorea)

Azken batean dauzkan baliabide eskasekin mugatuta, bere burua harrapatuta ikusten du; diruaren faltan, denborarik ere ez duela sentitzen du, denbora izateko dirua behar delako.

Sentimendu honek eta orain arte amatasunari lotuta nabarmendu ditugun gainontzeko elementuek bat egiten dute gure lagun hauek bizi duten gainzama egoera puzterako orduan. Guraso bakarreko familien buru izateak, bikoteen aldetiko konpromiso falta dagoenean, lana bilatzeko oztopoak dituztenean, bakardade sentazioak eta

zaurgarritasun ekonomikoak, nolabait esatearren, itomen eta isolamendu sentrazioak ekar ditzakete berekin. Hurrengo bi pasarteek era gordin eta taxuzkoan adierazten dituzte sentimendu horiek:

«lan bila ari naiz, eremu pertsonalean, emakume moduan garatzeko beharra dudalako, lana egiteko beharra dut, diruagatik baita ere ... Nire bizitzako une honetan, nire emakume identitatea galtzen ari naiz ... ama naiz, ez-dakit-noren ama naiz, ez-dakit-noren ama ... eta kokoteraino nago!» (Lorea)

«ahaleginak egiten eta bueno, horrelako egoeratan, emakumeak nolabait eskizofreniko bihurtzen dira, eta horrela egon naiz eskizofreniko. Oso gogorra izan da, eta gero, ba orain begiratuta ez dakizu nola egin duzun, nola jasan duzun hainbeste tentsio ...» (Amaia)

Azken finean identitatearen galera edota are gehiago, Amaiak egoera eskizofreniko batekin metaforizatzen duena, ez ote dira bazterkeriaren edota gizarte zaurgarritasunaren berezko aurpegia? Bestela esanda, ez al dira bakartze edota isolamendu prozesuen aldeetako bat?

Aminak bestelako hitzez adierazten badu ere, antzerako estualdi egoera bizi duela iradokitzen digu. Bere lanaldi erdiko enpleguaz bestalde, etxeko arduraren guztiak bere gain hartzen ditu eta horrek arnasteko denborarik gabe uste du; bere buruarentzako denborarik txikiena hartzeko betarik gabe.

«nik egiten dut dena. Leher eginda amaitzen dut ... Nik, nik daramat guztia. Beti bere amarekin egon izan da eta ohituta dago. Apurka-apurka irakasten ari natzazio ... ze bestela, ezin da! Ikasten ari da, baina eguneroko borroka da. ... nekatuta nago -eta haurdun- eta ezin dut denarekin! Etxea, garbiketa, bazkariak ...» (Amina)

Etxeko arduren banaketa ez da parekidea eta zalantzarik gabe genero marka nabaria du. Aurreko atalean lan merkatuari buruz aritu garenean Aminaren senarrari langabezian egoteak dakarkion frustrazioa aipatu dugu. Bestela esanda, familia eredu tradizionalari jarraiki, bere gizon ogi-irabazle funtzioa erabat kolokan ikusita bizi duen ezinegona. Bitartean, Amina lan arduraren banaketa hori birnegoziatzen saiatzen ari da. Lan merkatuan eta etxean duen presentzia bikoitz horrek ez dio hirugarren espazio batean parte hartzen lagatzen. Ez dio uzten gizarte zibilean parte hartzen, etxetik kanpo

4. Kapituluia

harremanik garatzen, ezta inolako aisialdirik izaten ere.

«Ni senarrarekin etxean, nire neba etortzen zait bisitan ... eta listo! Nire koinatak, oso gutxitan. Lanpetuta nagoenez ... eta haiek urrun xamar bizi direnez ... eta orain gainera, haurdun! Ezin dut haien etxera joan ... Etxean geratzen naiz, deskantsuan. Zer nahi duzu esatea? Ez daukat astirik ...» (Amina)

Amaiak eginahal handiak egin behar izan ditu berriki amaitu duen masterra burutu ahal izateko. Horrek dirutan suposatu dion esfortzuaz gain, ez da erraza izan horretarako denbora atera ahal izatea. Familia barruan dituen ardurak badu zeresana guzti honetan, eta nola ez, ardura horren banaketak. Izan ere, gurasoak edadetuak dauzka eta bera da neba-arreben artean gurasoengandik gertu egoteko ardura bere gain hartu duena:

«Egiten dut, kristoren ahaleginarekin, ze diru asko balio du eta ... esan nahi dut, besterik? Ba nik interes handiak ditut eta gauza asko egingo nuke, baina bueno denbora ... dauzkat gurasoak oso zaharrak, anaia daukat atzerapen handiarekin ... eta bueno hor dekot lan soberan. Nire bizitzak ez du gehiagorako ematen» (Amaia)

Asteburuetan gurasoen ardura neba-arreben artean banatzen badute ere, egunero-eguneroko zama berak duela azaltzen digu eta horretan, ez du uste kasualitatea denik bera emakumea izatea:

«Nolabait, nork egiten du jarraipena? Nork ikusten du gaur egun txarra dutela? Ba nik, ba nik. Eta ez da kasualitatez. Nolabait ezin naiz kexatu, ze badakit neba-arrebei laguntza eskatu ahal diedala, ez nago bakarrik » (Amaia)

Edozein kasutan Amaiak ez du Aminak besteko estualdia bizi: bere denbora zenbait gauzatarako mugatuta dagoela ikusten duen arren, ez baitio momentuz bere ingurukoekin harremanak izatea oztopatzen. Eskolako gurasoen elkartearekin lotura estua dauka oraindik eta lagun talde batekin bordatxo bat daukate alokatuta inguruko herrixka batean. Zentzu honetan, inguruan jende asko izateak zenbateko indarra ematen dion errepikatu digu sarri.

Inguru eta sare honen beharraz eta garrantziaz mintzo dira gure lagunak hurrengo pasarteetan ere. Bestela esanda, eremu horrek beren bizitzetan duen garrantziaz eta horrek dakarkien orekaz ari dira. Nolabait, zenbaitetan hauskorra izan daitekeen egoerari sendotasun aire bat ematen diona:

«lehen aldiz ... topatu dut leku bat ... inguruan jende asko dut, laguntza ematen didate, babesten naute ... lekuz aldatu beharko banu, zerotik hasi beharko nuke, eta nekatu naiz beti zerotik hasteaz!» (Lorea)

«lagun asko daukat, egia esan. Garrantzitsuak, lagunak garrantzitsu izan daitezkeen neurrian ... Nik oso izaera independentea dut. Gauza bat da, familia ... baina ez zait gustatzen inor nire arazoekin kargatzea» (Aitor)

« ... kapital garrantzitsua daukat: lagunak ... dirua eskatu, bati, besteari, ez dago arazorik. Ez dirua bakarrik, edozer ... frankismo garaitik harreman oso estuak eraiki ditugu. Oso lotura sendoak ... badakit, batorenean edo bestearenean, etxe bat izango dudala» (Begoña)

Lagun eta adiskidetasun eremu honetaz gain azken biek -Aitor eta Begoña- mugimendu sozialetan, elkartetan eta GKEtan ibilbide aski sendoa jorratu dute. Begoñaren kasuan, militantzia hori bere bizitzako esparru askotan norabidea gidatu duena izan dela ikusi dugu. Aitorrek ere gaztetatik parte hartu izan du gizarte mugimendu ezberdinetan eta gaur egun boluntario gisa ari da elkarte batean.

Gutziz ezberdina da gure lagun Nuriak bizi duena. Esparru ekonomikoaren atalean aurkeztu dugun emakume honek azaltzen digun moduan, familia harremanik apenas ez izateaz gain adiskidetasun harreman gutxi dituela baieztatzen digu:

«Galdera: Zein pertsonekin erlazionatzen zara?»

Nuria: (isiltasuna eta etena)

Galdera: Gutxirekin?»

Nuria: Bai. Sasoi batean eskolako aisialdi talde begirale izan zirenekin dut harremana ... gaur egun adiskidetasun harremana da ...Baina lagunik, lagunik ez daukat. Arazoak izan ditudanean, konturatu naiz ez dudala inor izan ... Neure lagunak, baina benetan behar duzunean ... ez zaitu inortxok laguntzen ... Esaten dizute, inoiz ezer behar baduzu, ez kezkatzeko, haiek lagunduko dizutela ... Baina unea heltzen denean? Baten lekuak bik jan dezaketela ... gezur galanta da ... Neure larriak bizi izan dut. Eta egoera honetara heldu naiz! » (Nuria)

4. Kapituluia

Finean, azken paragrafoetan elkarrizketatuek bizitzako esparru batzuetan sentitu dezaketen bakardade edota itoaldi sentsaziotik hasi eta, parte-hartze eremu ezberdinen inguruan jardun dugu. Ikasketaren bat egin ahal izatea, lagunekin denbora pasatzeko astia izatea, ingurunean jendea dagoela sentitzea, gurasoen elkartean parte hartzea, gizarte mugimenduekin harremanak izatea e.a. Bere aldetik edota elkarren artean konbinatuz, hauetako bakoitzak gizartean maila ezberdinetan parte hartzea permititzen du eta partaidetza eremu hau gizartearekin nolabait kontaktuan egoteko bideetako bat ere bada.

Hurrengo bi lagunek, Albertok eta Gabrielak zein motatako ekintzetan edo jardueratan parte hartzen duten azaltzen digute. Alberto adibidez elkarte baten kide da eta Gabrielak berriz, kongregazio erlijioso batean bilatu du ihesbidea:

«Familiaz gain, badut hurbileko sare bat, lagun eta kideak ... haietako batekin San Frantziskon bizi izan nintzen zortzi urtez, eta orain dugun harremana, hilean behi edo ikusten gara, karta jokoan egiteko, taberna batera joan, kafe bat hartu ... folklore talde batean ere murgilduta nago, eta lagunak bat ere badut ... Eremu horietan mugitzen naiz» (Alberto)

«Esan genezake, bizitza berri bati ekin diot. Eliza ebanjeliko batera noa. Igandero kongregazio batera noa, eta astean zehar ere egunen bat ... sostengu handia jasotzen dut. Nire burua geroz eta hutsago sentitzen nuen, hutsik ... irteteko gogoia nuen ... hutsune hori betetzeko beharra nuen. Itota nagoela esan, eta irten egin nahi dudala, barrena askatu ... eliza hau ezagutu dudanetik, goitik behera aldatu zait bizitza, ez dut hutsune hori sentitzen» (Gabriela)

Azken batean, batak zein besteak ingurukoekin harremanak lantzeko balio dute, gizartearekin nolabaiteko kontaktua eraikitzeko. Era berean haien aisialdiaren parte dira eta gehienbat, norbere buruarekin hobeto senti arazteko bidea.

Izan ere, etxetik kanpoko espazioan –eremu pribatuan zein publikoan- inongo zirrikiturik ez izatea gizartetik deslotzeko modu bat da: etxeko arduren gainzama, identitate galera, aisialdirik eza, harreman sare mugatuak e.a. Deslotura hau hortaz, gizarte zaurgarritasunaren alderdietako bat da, beste faktore batzuekin metatzen denean egoera hauskorrago eta gordinago bilakatzen duena.

Harremanen esparrua aztertzen ari garen atal honetan ildo anitz jorratu dira. Familia babesaren eta norbere autonomiaren arteko dialektika, familia ardura eta egitura

jakinek egoera pertsonalean izan dezaketen eragina, amatasunarekin lotuta egon daitezkeen bizipenak e.a. Familia harremanetatik kanpo ere adiskidetasun eta partaidetza loturek gure elkarrizketatuen egoera nola itxuratzen duten jaso da eta lotura hauen gabeziak berarekin ekar ditzakeen isolamendu sentipenak.

Nolanahi ere, pasarte hauetan bildutako testigantzak neurri batean edo bestean familiarekin hartu-emanen duten lagunen ekarpenak dira, familiaren esparrutik nolabaiteko sostengua jasotzen dutenak. Hurrengo atalean oster, inguruabar zeharo desberdinerara egingo dugu jauzi, harremanen esparruarekin konektatzen duen haria eten edo hausten deneko eszenatokira, alegia.

4.5.4. Faktoreak metatzen direnean: familia harreman urratuak.

Ez da xamurra zaugarritasun ekonomiko soilean dagoen pertsona baten artean eta gizarte bazterkeria egoera larriena bizi duenaren arteko labarra zehazten. Helburua ez da baina, bi mutur hauen artean inolako muga finko eta mugiezinik ezartzea, izan ere hasiera-hasieratik azpimarratu baitugu gizarte bazterkeria itxuratzen duten esparruen arteko bazterrak erabat lausoak direla.

Testuinguru honetan, bazterkeria egoera gordinenak bizi dituzten pertsonengana gerturatu asmoz, ezinbestekoa da zenbait elementuren gainean hausnartzea. Senideekiko loturak ahuldu edo eteten direnean eta bestelako faktoreak metatzen direnean, gure lagunen kontakizunek zein forma hartzen duten begiztatu nahi da. Bide honi ekiteko Aitorren testigantza hau indarrez datorkigu eta zer pentsatua ematen digu:

« ... inolako babesik gabe, dela familia, dela babes sozialen bat, elkarreana ... kale gorrian zaude, eta gainera, imajinatzen dut, ez dela erraza izango zenbait tentaziori eustea: alkohola, drogara jotzea, edota zuzenean, prostituzioan erortzea ... izan dudana babes hau gabe ... ez da bakarrik familia babesa, norberak bere buruan duena ere ... dena pikutara bidaltzea otu ahal zitzaidan ... Don Simona erosi 60 zentimotan, eta itsutu arte edan!» (Aitor)

Ez da hau Aitorrek bizi duena, aitzitik, bere solasaldian zehar horri buruz espresuki galdetu gabe naturaltasun eta doitasun osoz bere egoeraren analisi fina ematen digu

4. Kapituluia

aditzera:

*«Adiskideak baditut, ez daukat inolako menpekotasunik, ez arazo psikiko edo psikiatrikorik, ikasketak baditut, mugitzeko gaitasuna ... gizarte proiektuetan parte hartzen dut. Norbaitek bazterkerian nagoela esaten badit ... zera esango diot: baztertua izango da, diru asko daukana eta etxean sartuta dagoena, playstationera jolasten, komunikatzeko arazoak izango ditu. Niri dirua ematen badidazu ... baztertuen kolektibo horretatik atera nazakezu. Dirua falta zait, besterik ez»
(Aitor)*

Hausnarketa hau ezin hobeto datorkigu analisisan aurrera egin eta hurrengo urratsak gidatzeko. Aitorrek familiaren babesarekin kontatzen du, osasuntsu dago eta ez du inongo drogamenpekotasun arazorik. Baina landa ikerketan zehar bestelako egoeratan murgilduta dauden pertsonekin egin dugu topo eta haiei luzatu diegu ahotsa.

Hala, alkoholismo arazoak izan dituzten pertsonengana hurreratu gara, biolentzia giroetan bizitzea tokatu zaien pertsonengana, droga menpekotasun arazoak izan dituztenengana, buruko gaixotasunekin bizi direnengana. Era berean familia esparruarekin harremanak hautsi dituzten pertsonekin solas egin dugu eta kale gorriko esperientzia lehen pertsonan bizi izan duten haiei eman diegu hitza. Orain arte aurkeztu ez ditugun lau lagunak izango dira gure bidaide nagusiak: Kontxi, Mertxe, Martin eta Ernesto.

Ikusiko den moduan, ibilbide zeharo desberdinak izan badituzte ere funtsezko zenbait elementutan bat datoz gure hurrengo lau elkarrizketatuen bizipenak, batez ere familia eta harremanen eremuan jazotakoetan. Era berean, etxebizitzaren esparruan antzerako esperientziak bizi izan dituzte; ia denei egokitu baitzaie bolada labur edo luzeago batez kalean bizitzea.

Mertxe eta Kontxi elkarte desberdinek kudeatutako babespeko etxeetan bizi dira. Elkarte hauen babesari esker prestazioaren onuradun izateko ezinbestekoa den baldintzetariko bat betetzeko gai dira: bizikidetzaren unitate independentea osatzea. Izan ere, gaur egun bizi diren pisuetan ordaindu beharreko gastuak merkatu libreko etxebizitza batean ordainduko lituzketen gastuen antzerakoak badira ere, elkarteon laguntzarik ezean oztopoak izango lituzkete alokairu kontratu baten bidez etxebizitza batera sarbidea izateko.

Mertxeren kontakizuna gertuenekoen ondoz ondoko galerek markatu dute, zalantzarik gabe. Hasteko, oraindik ere nerabea zela aitaren bat-bateko heriotzak hankaz-gora jarri zuen bere familiaren etxeko egoera. Estualdi ekonomikoak bultzatuta, berehala hasi ziren lanean bai bera eta baita bere ama ere. Hurrengo pasarteetan, egoeraren zailtasuna eta bilakaera ematen dizkigu aditzera:

«Aita hil zenean ... goian zerua eta behean lurra, halaxe gelditu ginen ... bera zen lan egiten zuen bakarra ... etxeetan lan egiten jarri ginen, ni, ama ... Ohituta nago, gogor lan egiten zaildua nago ... gero amarena, di-da batean gertatu zen ... gaixotu egin zen ... lan asko egin zuen, bizkarreko mina, ornoetan arazoak ...» (Mertxe)

«Ospitaleak gora, ospitaleak bera, horrela izan da ... nerabezaroa ondo, oso ondo ... eta haurtzaroa baita ere, ederto! Baina gero banan-banan erori dira ... - isiltasun etena - ... Oso familia elkartua izan gara beti ... onena, onena izan da ... oso presente ditut ... baina denak joan dira. Bizitzak eman didan kolpe latza izan da, eman ziguna. Eta arrebarena, akabua! ...» (Mertxe)

Osasuna dela eta, gaitz desberdinek lan egiteko gaitasunik gabe utzi dute; hernia bat, giltzurrunak e.a. Horretaz gain, psikologo eta psikiatrekin dabilela ere azaltzen digu etenez eta hutsunez betetako bere solasaldian zehar. Hala, une batzuetan bere berbaldia lausoa da, jauzi kronologiko handiekin eta zenbaitetan errealitatea bereizteko zailtasunekin egiten dugu topo.

Edonola ere, guztiz argia ez den kontakizun honetan bere bizitza definitzen duten ildo nagusi bi behintzat garbi adierazten dizkigu: familiaren esparruan bizi izan dituen hausturak eta bere egoera zaurgarriaren kronikotasuna. Eta zalantzarik gabe, zaurgarritasun hori bizitzan zehar gizarte laguntzen onuradun gisa egin duen ibilbide luzearen eskutik lotuta doa:

«uf! Urteak izan dira ... oso gazte geratu nintzen aitarik gabe! Zer izango nuen, 17 urte? Orain 52 ditut ... lehen beste izan bat zuen diru-laguntzak ...» (Mertxe)

Era berean, nabarmentzen ari garen prekariedade eta pobrezia egoera iraunkor hau etxebizitza esparruan ere islatua ikusi da. Atal hau landu izan dugunean, etxebizitza beharrianak asetzeko orduan hirugarren sektorea giltzarria izan daitekeela

4. Kapituluia

nabarmendu dugu. Kasu honetan, kale gorriko egoeratik ateratzeraino:

«kalean bizitza ere egokitu zait, ahizparekin ... alokairuan bizi ginen, eta ordaintzeari utzi nion ... etxe hori hondamena zen, bota egin nahi gintuzten ... kalean egon ginen, ez dakit, egun batzuk? Astebete? Ez dakit! Gero egoitzara joan ginen, pare bat aldiz ... eta gero elkartearen pentsioan sartu gintuzten!» (Mertxe)

Kontxi, babespeko etxebizitza batean bizi den beste elkarrizketatua, babes bila heldu zen Bilboko elkarte batera duela hiru urte, Espainia barnealdeko probintzia batetik eta biolentzia istorio batetik ihesi. Bada urtebete prestazioa jasotzeko baldintzak betetzen dituenetik eta halaxe bizi du estualdia:

«Oinarrizko errenta oso-osorik behar dut, bestela ez dakit nora joko dudana. Errentarekin ere ... arropak garbitzeko erosi behar da, medikamentuak, janaria, dena. Lehengoan 650 kobratu nituen, 400 euro alokairuagatik, medikamentuak erosi ... zer geratzen zait? Beldur handia dut, murrizketekiko ... Merkeena erosiz? Frankfurt saltxitxa merke horietakoak? ... niri osasuntsu jatea gustatzen zait ... Neure burua zaintzen saiatzen naiz! Egoera honetan egoteaz gain, ez dut zabor bilakatu nahi! Gureak egin du bestela!» (Kontxi)

Prestazioaren gutxiegitasunaz ari den pasarte hau ez da orain arte ikusi ditugun beste batzuegandik asko bereizten, azken finean minimoak estaltzeko zailtasunak salatzen dituen beste bat baino ez da. Kontxiren istorioa atzean utzi dituen indarkeria pasadizo, drogamenpekotasun eta familia hausturengatik da besteengandik ezberdina. Istorio anitz kateatzen ditu bata bestearen atzetik, ez beti era ulerterrazean, baina oro har bi argazkirekin geratzen gara: indarkeria eta hausturekin.

«15 urterekin bortxatu ninduten, eta 16rekin izan nuen umea ... Nire bizitza kolpez beteta egon da, makina bat egur jasotakoa naiz ... Nire burua oso egoera txarrean ikusi behar izan dut laguntza honetara jotzeko! Nik harrotasuna ere badut, eta familia on batean jaiotakoa naiz ni! ... Hautsi, hautsi egin nuen familiarekin, gaur egun ahizparekin baino ez dut kontaktu txiki bat ... Ez dakizu zelakoak pasatu ditudan nik! ... Nire seme-alabak ez ditut berriro ikusi ... abegi-familia batek hartu zituen ... nire bikote harreman guztietan, kolpeka amaitu dut!» (Kontxi)

Denbora dimentsioa ez da bat ere argia bere solasaldian eta ez da gai izaten koherentzia mantentzeko. Gau solteren bat kalean igaro duela esaten digu eta urteetan

zehar alkoholarekiko izandako menpekotasunari buruzko aipamen xumea ere egiten digu, azalpen sakonetan sartu gabe.

Ñabardura guzti hauek gaur egun Kontxi eta Mertxek pairatzen duten bakardade eta isolamendu egoera deskribatzera garamatzate. Aurreko atalean gai hauek jorratu ditugun arren, oraingo honetan jauzi kualitatibo nabarmena sumatzen da honaino jazotako beste bizipenen aldean. Bi emakume hauek ez daukate inguruan seniderik, etxetik gutxi irteten dira eta orokorrean, oso pertsona gutxirekin dituzte harremanak:

«lagunak izan baditut ... baina asko ez dira hemen bizi ... lehen sarriago ikusten nituen ... baina orain, ez dakit, barruan dudan tristura hau ... benetan, ez dut ezertarako gogorik!» (Mertxe)

Baina aipatutako jauzi kualitatibo hori isolamenduari gehitzen zaion egoera emozionalean hautematen da bereziki, horrek bakardadeari eransten dion larritasuna kontuan hartzen badugu:

«Oso bakarrik, ez daukat lagunik, ez daukat inor ... pisuko besteak ez dira lagunak ... Bidean zehar nire bizitzaren zati bat utziz joan naizela sentitzen dut ... Hiltzeko ordua iristen zaidanean, denoi iritsiko zaigu eta ... ordurako pixka bat hilik egongo naiz jada. Hiltzen joan naiz eta ... gertatu zaidan gauza bakoitzak, pixka bat hil arazi nau ...» (Kontxi)

Hau eta antzerako aitortzak dira gizarte zaurgarritasunaren alderdi krudelena erakusten dutenak. Kasu bietan gainera, urteetako ibilbideak izan dira, gazte-gaztetatik abiatutakoak eta bidean zehar zailtasun gehigarriak pilatu dituztenak.

Martin eta Ernestok ere kale gorriko esperientziak utzi dituzte atzean eta gaur egun egoitza batean bizi dira: lehenengoak alkoholarekin izan ditu arazoak eta bigarrenak berriz, droga kontsumoarekin. Haustura latzak ekarri dizkie horrek, eta zentzu horretan biek egiten diete erreferentzia zuzena familia harremanen galerei:

«nire familia neba-arrebak dira ... baina ez dut haiekin hitzik egiten. Orain hasi naiz anaiarekin hitz egiten ... Lau arreba ditut ... denekin hautsi nuen, nire familia desastre hutsa izan da ... alde egitea erabaki nuen. Bost axola zitzaidan!» (Martin)

4. Kapituluia

«gauza asko galdu dut ... jo, familia galdu dut, dena galdu dut drogaren erruz ... ni drogatu egiten nintzen, emaztea ez, etxetik bota ninduen arte ... han geratu ziren emaztea eta semea ... gero arrebak hartu ninduen, baina drogarekin segitzen nuenez, bota egin ninduen eta urtebete eta erdi egon nintzen kalean» (Ernesto)

Honenbestez argi geratu da aztertzen ari garen lau lagunek familia esparru zeharo desegituratua dutela: haserrealdiak, heriotzak, urruntzeak ... Kasu bitan gainera, seme-alaben zaintzaren galera ere jazo izan da. Mertxek indarkeria pasartez jositako bere kontakizunean zehar, orduko senarrarekin izandako liskar handi baten ondoren seme-alaben zaintza galdu zuela azaltzen digu:

«Nire seme-alabak ez ditut berriro ikusi ... Harrera familia bati eman zizkieten. Hiru eta lau urte zituzten. Bestea nire ahizparen etxean geratu zen, libre ... Osasuntsu egon dira beti, inongo tratu txarrik ez. Dena izan dira niretzat, umeak! ... Zuk ez dakizu zelan pasatu dudan nik, zenbat negar. Inork hartuko ote zituen beldur, inork lapurtu ote zituen ...» (Kontxi)

Ernesto, drogarekin zituen arazoak dela eta, emaztea eta semea utzita itzuli zen Bilbo aldera. Ez du haiekin harreman handirik gaur egun: tarteka semea telefonoz deitzen duela esaten digu eta azkenekoz duela bi urte ikusi zuela. Urteetako eskarmentuaren ostean erabaki zuen Ernestok behingoagatik drogak utzi behar zituela eta gizarte langilearen sostenguari esker oraingo honetan lortzen ari dela esaten digu. Prozesu honetan bere arrebaren babesa berreskuratu du eta familiarekin lotzen duen hari bakar honek laguntza moral handia ematen dio:

«Drogak utzi arte berarekin ez kontatzeko ... Nire ahizpak, orain bai, utzi egin dudalako, dena utzi dudalako, eta 100%ean laguntzen nau, astebururo noa bere etxera bazkaltzera ... asko laguntzen nau moralki» (Ernesto)

Saiakera honetan, drogamenpekotasun modulutik luzatu dioten babesa eta ematen dioten jarraipena goraipatzen ditu eta horrekin batera, gaur egun bizi den egoitzan lekua eskaini dion elkarteak. Bertan beste 30 pertsonekin bizi den arren bere gela barruan ematen du eguna eta kontaktu gutxi du haiekin. Drogen kontsumoaren munduarekin lotutako adiskide askorekin harreman eten behar izan du eta gaur egun,

bere arreba eta elkarteko besteez gain, ez da beste inorekin egoten:

«lagun guztiak drogaren munduan ezagutu nituen ... eta haiekin nuen harremana galdu egin dut. Lagunik ez daukat bat ere, ezin inorengan sostengatu ...» (Ernesto)

Bere ibilbidean baina, sakon-sakon markatu duena kalean bizitako bolada izan da. Kontxi eta Mertxerekin alderatuz, denboraldi luzeagoa izan da hori eta emakumeek ez bezala, argitasun handiagoz mintzatzen zaigu bizipen horren iraupenaz eta gordintasunaz:

«Bai, oso gogorra izan zen, oso oso txarto pasatu nuen. Kanean lo egiten nuen, kartoi artean, eta gero jaiki eta berehala lapurtzen hasten nintzen, edo droga erosteko diru eskean ... oso oso txarto. Urte eta erdiz, oso oso txarto egon nintzen» (Ernesto)

Gaur egun bizi den egoitzan, babesa ematen dion elkarteari esker prestazioaren onuradun izatera iritsi da eta badira hiru hilabete DBE jasotzen duela. Ekonomikoki zenbait muga material dituela aitortzen digu, besteak beste, ez zaiola arropa berririk erosteko dirua iristen eta derrigorrez bigarren eskuko dendetara jo beharra duela. Era berean, prestazioa jasotzeak eta egoitzako gastuak ordaindu ahal izateak ematen dion lasaitua gorai patzen digu. Zalantzarik gabe teilatupe bat izango duela jakiteak ematen dion bermea da gaur egun gehien baloratzen duena, kalean bizitzea zer den lehen pertsonan bizi izan ostean:

«horrela behintzat, badut etxebizitza, ez dut kalean bizi behar ... nire gastuetarako dirua badut, janaria erosteko, badakizu, denerako ...» (Ernesto)

Martin ere gizarte zerbitzuei esker pasatu da kalean bizitzetik egoitza batera bizitzera. Duela lau urte 60 urte betetzetik hurbil zegoela, kalean geratu zen familiarekin erabat hautsita etxetik alde egin zuenean. Familia eta inguru aberats batean jaioa da Martin eta ikasi eta lan egiteko aukerarik ez zaio falta izan. Ingeniaritza ikasketak lehen urtean

4. Kapituluia

utzi zituen eta ez zuen bere aitaren negozioan lan egiten jarraitu nahi izan. Gaztetatik alkoholarekin eta familia kideekin izan dituen istiluak behin eta berriro dakartza solasaldira. Bere familiaren bizkar bizi izan dela aitortzen digu baina egoera jasanezina egin zitzaionean, berak hartu zuen alde egiteko erabakia:

« ... alde egin nuen. Inork ez zekien non nengoen. Bi hilabete eta erdi egon nintzen kalean. Kalea, desgrazia galanta! Zortea izan nuen, egun batean, kalean, gizarte laguntzaile batek ... ia honen semea nintzen esan zidan- ... Kafera batera gonbidatu ninduen ... Aitaren ezaguna ei zen, eta berak sartu ninduen egoitzan ...» (Martin)

Harrezkero bertan bizi da eta prestazioa jasotzen duenetik diru-sarreraren zati bat egoitzaren gastuak estaltzeko bideratzen du. Egoitzako beste pertsonekin ez du apenas trataturik eta irten ere, gutxi irteten da. Izan ere, buruko isuri batek makilarekin ibiltzera behartzen du eta doitasunez hitz egiteko ere oztopoak ditu. Hala ere, bere kontakizuna aski argia da eta bizitzako funtsezko puntuak eta sentipenak taxuz elkarbanatzen ditu.

Bestetik, esan beharra dago lau elkarrizketatu hauek – Mertxe, Kontxi, Ernesto eta Martin- gaur egun lan merkatutik zeharo deslotuta daudela eta kasu gehienetan urteetako urruntzea izan dutela. Gazteagotan egin izan dituzten lanei egiten diete erreferentzia baina bategatik edo besteagatik, denboraldi luzea daramate enplegurik izan gabe:

«erizaintzako laguntzaile ikasten hasi nintzen, eta lan ezberdinak egin ditut, baina ez askorik, egia esan ia beti bikotea izan dut. Nire arazoa larria da, nik ez dut ia gora egiten, behera noa, eta orduan, lan bat? Ezingo nuke jasan, elbarria nago» (Kontxi)

«aitaren estudioan sartu nintzen, eta bota egin ninduen! Ezer ere, ez dut ezer egin, amaren kontura bizi izan naiz» (Martin)

«garbiketa enpresa batean lan egin dut ... baina drogaren erruz utzi egin nuen ... orain curriculumak botatzen ari naiz, badakizu, lana bilatzeko, baina ez didate deitzen, eta lanik topatzen ez dudanez, behintzat prestazioa daukat ...» (Ernesto)

«lanerako noiz deitzen nauten, denbora asko daramat zain ... baina hala ere, ez nago ni lan askorik egiteko moduan! Hernia bat topatu zidaten, giltzurrunak ... medikuarenera joan behar dut ... bi aste daramat medikuekin atzera eta aurrera ... Pertsona nagusiekin lan egin zin dut, eta horrek jota utzi nau» (Mertxe)

Azken finean ez dute bere burua lan egiteko gai edo prest ikusten eta lana aurkitzeko esperantza ere erabat galdua dute. Era argi eta esplizituan esaten ez den arren, gogoaldarteak, auto-estimua eta buruko osasunak muga nabarmenak ezartzen dizkie. Edota, bestela esanda, haien bizitza ibilbideetan zehar izan dituzten bizipen eta haustura gogorrenek haiengan utzi dituen arrastoak, aurrera egiteko oztopo ere badira. Lan merkatutik aldentuta egoteaz gain, bestelako eremuetan ere parte-hartze eskasa edota hutsa erakusten dute. Ez ikastarorik, ez elkarteen munduan ekintzarik eta aisialdiari buruzko erreferentzia gutxi. Esana dugun moduan, orokorrean pertsona gutxirekin erlazionatzen dira:

«Galdera: Pertsona askorekin erlazionatzen zara?»

Martin: Gutxirekin.

Galdera: Egoitzan bizi direnekin?»

Martin: Ikusi behar ditudalako. Batzuekin besteekin baino hobeto»

Hau da, jendez inguratuta bizi diren arren, bizi duten bakardade egoeraz ere mintzo dira eta horixe islatzen dute hurrengo pasarteek:

«30 pertsona gara ... denekin moldatzen naiz, baina ez daukat harremanik, ez dut lagun berezirik ... logelan telebista dudanez, bertan sartu, itxi, eta telebista ikusten egoten naiz, ez dut harremanik haiekin» (Ernesto)

«Ez dago elkartasunik ... Beldurra ematen du. Latza da zure burua bakarrik ikustea inguruan jendea duzunean. Jendez inguratuta zaude, baina badakizu bakar-bakarrik zaudela, eta arazo bat duzula ...» (Kontxi)

«Irteten? Ez, irteten naizenean, etxe guztiak nire gainera jausiko balira bezala sentitzen dut, agorafobia moduko bat ... Bizitza oso monotonoa da hemen, elkartekoek behartzen nautenean soilik irteten naiz ... Badakizu zergatik den? Oso bakarrik sentitzen naiz ... ez dut inor ezagutzen. Zenbaki bat bezala ikusten naute, eta zenbaki bat naiz. Zenbaki bat, beste horrenbeste zenbakiren artean» (Kontxi)

«Ez dut ezertarako gogorik, egia esan ... eta ez naiz nire burua berotzen duen horietakoa. Lagunak, ez daitezela falta, baina benetako lagunak? Bai kaixo, zelan, esaten dizutenak ... baina gero buelta ematerakoan ... atzetik sartzen dizute» (Mertxe)

4. Kapitulu

Atalarekin bukatzeko beste testigantza bi ekarri nahi dira mahai gainera, etorkizunari begira desio duten nolabaiteko normaltasun eta lasaitasunaren irudikatze. Hausnarketa horri Kontxik beste ñabardura bat gehitzen dio, aurretik aipatu dugun isolamendua eta parte-hartze faltarekin lotuta, aisialdiari egiten dion erreferentzia bakanetakoa harira ekarriz:

«moldatu beharra daukat, eta bizimodu honetara moldatu egin naiz. Guztiz ezberdina zen lehengo egoera ... Lasai bizi nahi dut. Eta bizi ahal izateko zer edo zer izan ...» (Martin)

«Bizitza normala izan nahiko nuke, luxu handirik gabekoa ... pisu txiki bat izan, gutxi ordaindu beharrekoa ... eta bakarrik bizi. Nik ez dut dagoeneko gizonik nahi, ez dut ezer nahi ... lagunak bai ... Baina gizonik ez, beldur handia hartu dut. Asko gustatzen zait irakurtzea, Isabel Allende, eta Zoé Valdés. Liburuz beteriko maleta bat daukat ... eta musika entzutea, musika klasikoa gehienbat, Ravel, Vivaldiren lau urtarokak, Beethoven ...» (Kontxi)

Ñabardura esan diogu, baina xehetasun hau ez da inolaz ere txikieria bat. Azken finean, bere kontakizunean zehar etengabe aritu da Kontxi bizi duen bakardade egoeraz, sosegu ezaz eta erabat hondoratuta duen gogo-aldarteaz. Etxetik irten gabe, eta betiere bere bakardadean, bizi duen itomen egoerari nolabaiteko aire-zirrikuita bilatu dio. Pentsa daiteke musika eta liburuek barne-bizitzari bizkortasun eta bake ukitu bat ematen diotela. Bestela esanda, hari fin-fin hori da hauskortasun testuinguru honetan tente eusten duen oinarrietako bat.

4.5.5. Eskubidearen ezagutza: estimua versus estigma

Gutxieneko errenta sistemen defentsarekin jarraituz, azpiatal honetan DBE prestazioaren inguruan gure elkarrizketatuek duten jabekuntzaz arituko gara. Subjektuak prestazioa jasotzea berari dagokion eskubidea dela barneratuta duen ala ez, aintzat hartu beharreko elementua dela egiaztatu da landa-lanean zehar. Hau da, batetik norberak prestazioaz duen ezagutzak eta bestetik, inguruneak horri buruz duen iritziak eragin handia du auto-estimuan, gizarteak sentiaraz dezakeen estigman eta

azken batean, norbere ongizatean edo zaurgarritasun egoeran:

«prestazioa urria da, ez ditu beharrianak asetzen, betekizunetan oinarrituta dago ... administrazioak gainera onuradunen irudi penagarria eman nahi du, onuradunak parasitoak direla, tranpatiak ... Argi eta garbi, zeure buruan ez baduzu argi zure dagokizun eskubide dela, jai duzu ... Gero, norberak daukan babes sozialaren arabera ... arin edo larriki zauritua egongo zara, baina zure barrenean zerbait urratuko da ... beti» (Aitor)

Sentimendu eta aurreiritzi asko nahasten dira auto-estimua eta estigmaren joko honetan. Sarritan gainera, elkarren artean borrokan ari diren sentipenek talka egiten dute. Goiko pasarte horrek azpimarratu egiten du ezinbestekoa dela bakoitzak DBE berari dagokion eskubidea dela ondo barneratzea. Elkarrizketatuen artean hori horrela izan den kasuetan ere, estigma arazoak dituzten pertsonekin egin dugu topo. Izan ere, gizartean errotuta dauden balore eta juizioek oztopatu egiten dute prestazioaren erabateko onarpena – indibiduala eta kolektiboa-:

«gauza bat da nik zer pentsatzen dudana, eta gero beste bat, zuk zer sentitzen duzun horrelako egoera batetik pasa behar duzunean ... ba sentitu izan naiz, nolabait lotsatuta. Zergatik? Igual ez hainbeste jasotzen nuelako diru hori ez nuelako behar, edo ez nuelako eskubide hori eduki behar ... baizik eta, azken finean da nolabait ... nabarmentzen dela gai zarela bizitzeko normal, normaltasun horrekin. Eta normaltasun horrek esan nahi du gai zarela lan egiteko eta hor bai badagoela zure buruarekin horrelako kezka bat. Esaten duzu, "igual ez dut nahikorik egin lana bilatzeko". Ez dut edozein lan bilatzen? Oso gogorra da, ze gainera nire ustetan, gehien bat da hori, nolabait zure auto-estima ... ba hori kolokan ipintzen da, ez= Ez zara kapaza aurre egiteko zure familiarekin ...» (Amaia)

Guzti honetatik, bai ingurune sozialean eta bai norberaren buruan gure ikerketarako indar handia duten kontraesanak sortzen dira eta hain justu, kontradikzio horietan dira gure emaitzak aberasten dituztenak. Gutxieneko errenten zilegitasunaz erabat konbentziturak egon arren norbere barruan dilemak piztu daitezke, gehienbat porrotaren sentimenduak sorrarazita. Normaltasunetik aldentuta eta norbere kabuz aurrera egiteko ezintasunak dakarren sententzioak zapuztuta. Pentsio-sistemak inguru sozialean duen onarpen mailarekin alderatzen badugu, harrera maila ezberdinekin topatuko gara. Esparru publikotik eta mugimendu sozial eta sindikatuen aldetik DBEren aldeko defentsa sutsua bultzatzen den arren, oraindik ere gaitzespena eta mesfidantza

4. Kapituluia

mezuak ugariak dira.

Zentzu honetan, azkeneko lege erreforman uste horiek elikatzen dituzten aldaketak barneratu dira. Zehazki 2011ko azaroan iruzurraren aurkako borroka eta krisi abagunea argudiatuz, prestazioa eskuratu ahal izateko baldintzak zorroztu ziren milaka lagun sistematik kanpo utziz. Gisa honetako erabakiak arriskutsuak izan daitezke prestazioaren onarpen sozialaren hedapena galgatzan dutelako eta batez ere, egoera hauskorrean bizi diren hainbat pertsona estigmatizatzen direlako:

«Gizartearentzat pariak gara ... gizarteak, baliabideak jarri behar ditu martxan jendea, gutxienekoen barruan, ondo bizi dadin ... Baldintzak, ia, maximoak eta minimoak, oso polarizatuta egon gabe ... 10.000 edo 25.000 euro irabazten duen norbait, eta seiehun euro irabazten dituena ... edo nire kasuan bezala, 456 ... Hori astakeria da. Hasteko, horrelakoa den gizarte bat nahiko eztabaidagarria da. Eta gainera, seiehun euro inguru jasotzen duen jendea estigmatizatzea ... zinismo hutsa da ...» (Itsaso)

Funtsezkoa da gizarte ereduaz ari garela ohartzea eta jokoan asko dagoela jakitea. Erreforma honek besteak beste urte batetik hiru urtera luzatu du EAEn erroldatuta egotearen eskakizuna. Horrek etorkinen kolektiboa erasotzen du bete-betean, haietako asko prestazioa jasotzeko eskubidetik kanpo uzten dituelako. Elkarrizketatu ditugun lau etorkinen artean, ez dute denek egoera berbera bizi. Ahmedek -Aljeria- ez du prestazioa eskubide bezala sentitzen; Djamelek ostera -Maroko- ondotxo ezagutzen du berea den eskubidea eta defendatu egiten du. Aminaren hurrengo testigantzak aipamen berezia merezi du, bertan etorkinek neurri handiagoan bizi duten estigma islatzen delako:

«Gu lanean ari gara! Etorkin asko ari gara lanean, eta lanik ez badago, zer egin? Laguntza eskatu! Zer bestela, lapurtu? Ez, ezta pentsatu ere! Eta gaizki begiratzen zaituztenean min ematen du, jakina! Baina hemengoek ere ez dute lanik, eta laguntza jasotzen dute. Baina betiko leloa, etorkinak, etorkina! Eta ez, denak berdinak gara!» (Amina)

DBE jasotzen duten pertsonen artean ere, etorkinen aurkako iritziak ugariak dira eta halaxe erakutsi digu Nuriaren kontakizunak. Berriz ere norbere diskurtsoan sumatu daitezkeen kontraesanak bistaratzen ditu testigantza honek. Ingurunearen aldetik

errespetu bat eskatzen den bitartean, denok izan gaitezkeelako ingurune horren epaile:

«Niri, berdin zait jendeak zer pentsatzen duen ... hori bai, esango dizut, nik uste dut jendeak behar duelako eskatzen duela prestazioa. Hasteko, lanik ez dagoelako, ni neu lan elkarrizketa askotara joan naiz ... Hori bai, badago jende asko ... latinoak, boliviarrak, pantxitoak ... San Frantziskon adibidez, trafikatzailleak, beti lapurretan ari direnak, sekulako etxeak dituzte ... eta prestazioa eskatzen dute ... nik hori ez dut ondo ikusten ...» (Nuria)

Argi utzi dugu atal honen hasieran lan honen xedea ez dela epaile lanak egitea eta pasarte hori aukeratu bada, hain zuzen ere kontraesanak islatzeko izan da. Eta bide batez, etorkinen kolektiboak bizi duen estigma-arrisku gehigarria nabarmentzeko.

Bestetik, elkarrizketatuen artean hiruzpalau pertsonak aitortu digute jasotzen duten prestazioaren inguruko informazio eskasa dutela. Azken batean ez dute prestazioaren izaera bera ezagutzen eta ez daukate DBE eskubide bat denaren kontzientzia. Batez ere zaugarritasun istorio larrienak bizi dituzten elkarrizketatuen kasua izan da, gizarteratze prozesutik urrutien dauden haiexena. Eskizofrenia, alkoholismo eta biolentzia pasarteak bizi izan dituztenek prestazioarekiko ezjakintasuna agertu dute eta beharbada, gizartearekiko duten lotura faltaren edo isolamenduaren seinale izan daiteke.

Ildo honetatik, pertsona hauei estigmatizazioaz galdetu zaienean, ez dute orokorrean horren inguruko hausnarketa sakonik egin. Akaso beste behin ere, ingurunearekiko duten nolabaiteko deskonexioaren isla izan daiteke. Hau da, ez dute estigmarik bizi ez beraiek eta ingurukoek eskubidea ondo barneratuta dutelako, baizik eta ez diotelako haien buruari gizarte eskubide honen eta estigmatizazioaren beraren ideia planteatzen ere.

Horretaz gain, eskubidearen kontzientzia bereganatuagoa duten pertsonen artean bi elementu antzeman dira. Batetik, onarpen eta asimilazio honek duen prozesu izaera daukagu. Badira gure protagonisten artean prestazioa jasotzen hasi baino urte askoz lehenago gizarte mugimenduetan murgilduta egon diren pertsonak -Aitor eta Begoña- eta horren ondorioz, DBEren inguruan duten ezagutza eta onarpen maila ez da berria.

4. Kapitulu

Beste batzuk prestazioa kobratzen hastearekin batera barneratu dira asimilazio prozesu honetan. Ibilbide hori ikasketa prozesu bat bezala ikus daiteke: inguruko enpeiei jaramonik ez egitea izan daiteke abiapuntua, edo agian norberari dagokion eskubide bat dela onartzea. Prozesua urrunago irits daiteke; norberari dagokion eskubidea dela defendatzen hiritar orori legokiokeen eskubidea dela aldarrikatzea.

Elkarrizketatuen artean ez dira gutxi izan Hiritartasun Oinarrizko Errenta (HOE) unibertsalaren aldeko aipuak eta aldarriak egin dituztenak, horren inguruko galdera zuzenik egin gabe. Mugimendu sozialetan dabiltzan bi lagunez gain Manu, Joseba, Itsaso eta Loreak agertu dituzte prestazioaren unibertsaltasunaren aldeko iritziak.

Kontzientziazioaren gaiari bueltak ematen ari garen honetan bigarren elementu bat goraiatu nahi da. Prestazioaren onuradunek prozesu honetan senti dezaketen argibide-estresaz ari gara, hain zuzen ere. Hots, prozesu indibidual bat izateaz gain, prozesu kolektiboa ere bada prestazio-eskubidea gaia gizartean normalizatzearena. Zentzu honetan, inguruko azalpenak zor dizkietela sentitzen dute askok eta ingurukoak konbentzitu beharrak nekatu egiten ditu.

Lorearen hurrengo pasarteak goraiatu ditugun elementu hauek biak dotore biltzen ditu. Gizarte langileak emandako orientabidearekin hasi zuen eskubidearen asimilazio prozesua Loreak hasierako lotsa sentimenduak gaindituta HOEren inguruko ideiak bereganatzea iritsi da, ez bidean indar gutxi galdu gabe:

«momentu jakin batean, gogaitu egiten zara azalpenak emateaz ... eskubidea da! Orain hasi naiz ezagutzen oinarrizko errenta unibertsala zer den, eta denoi dagokigun eskubidea dela pentsatzen dut, aberats zein pobre. Zer egingo diogu ba? Mundua hobeto ibiliko litzateke. Ez dakit zergatik eman behar ditudan azalpenak» (Lorea)

Lehenengo kapitulu HOEren defentsaren inguruan aritu garenean, kontzeptu teoriko honen eta DBE bezalako politikak bereizten dituzten elementuak jorratu dira. Prestazio unibertsal batek diru-sarrera ekonomikoen lorpena askatu egiten du derrigorrez lan merkatutik igarotzearen prozesutik.

Ildo honetatik interesgarria da Raventosek jorratzen duen «existentziarako eskubidea

ren» ideari heltzea (Raventós 1999). Lan merkatuarekiko deslotura honi esker, pertsonak erabaki aukera zabalagoa izango lukete bizitza forma berriak aukeratuz ahal izateko. Era honetan HOErik gabeko egoera batean baztertuta geratzen diren aktibitate eta lan mota batzuk erakargarriago bilaka litezke. Lan boluntarioak, artistikoak edota gizarte mugimenduekin lotutakoak bideragarriago izango liriateke askorentzat, bizirauteko gutxieneko diru-sarrerak bermatzen diren momentuan.

Guri dagokigunez, HOEri buruzko ideiak dituzten elkarrizketatuen artean «existentziarako eskubidea» praktikara eraman duenik ere izan dugu: Itsaso eta Begoña, alegia. Neurri handi batean borondatez erabaki dute biek prestazioaren onuradun bilakatu eta lan merkatuan jarraitu ordez, merkatu horretatik kanpo geratzen diren beste jarduera batzuetara dedikatzea. Begoña GKE baten kide eta militante aktiboa da eta DBE prestazioak erretiroa osatzen dionez geroztik, posible zaio bete-betean aktibitate horiek burutzea bestelako enplegu ordaindurik bilatzera behartuta egon gabe.

Egia da atal teorikoan argi geratu dela EAEn indarrean daukagun DBE prestazioa zentzu hertsia batean HOE bat izatetik urruti dagoela. Besteak beste, Gizarteratze Aktiborako Hitzarmena DBEren ardatz nagusietako bat izanik, prestazioa lan-merkatuarekin lotzen duen elementu nagusietako bat da. Edozein kasutan, positiboki balora dezakegu DBE eta HOEren artean irudikatzen den ebakidura puntua: lan merkatutik kanpoko ekintzak bideragarri bihurtzeko gaitasuna, alegia.


Honek ez gaitu nahastu behar, neurri handi batean prestazioa lan-merkatuarekin uztartuta dagoelako eta gainera, gizartean indartsu sustraituta dagoen ideia delako. Hurrengo pasarte honek nor bere ingurunean prestazioaren zilegitasuna defendatu beharrak dakarren narriadura irudikatzen du, hain zuzen ere lan merkatuarekiko lotura horri erreferentzia eginez:

« ... lagun batekin eztabaidatu izan dut. Ze, jakina, berak ez du zera hau ulertzen. Esaten dit, 900 euro irabazten ditudala, lan egingo banu bezala, baina lanik egin gabe ... Berak kendu egingo lukeela. Hondamena litzateke, denontzat. Nik uste dut jendeak, orokorrean ez duela ulertzen eskubide bat dela, arraioa! Eskubide bat, eta gizarte bare mantentzen nuena, eta ez, txiroen etengabeko iraultza bat ...» (Manu)

4. Kapitula

Berrero ere prestazioak duen eskubide izaeraren aldarri ozena dakarkigu gure lagunak. Edozein kasutan, elkarrizketatuen artean DBEren ezagutza eta onarpen maila oso desberdinak dituzten pertsonak izan baditugu ere, estigmatizazioari egindako erreferentziak ugariak izan dira. Ondorengo laukian estigmarekin lotuta dauden zenbait esaldi eta hitz gako aukeratu dira, gure protagonistek inguruko ahotsetik sentitzen dituzten epaiak (22. Irudia):

22. Irudia: Estigmatizazioa ingurunean



Iturria: elkarrizketa kualitatiboetatik abiatuta, norberak eginda.

Eskubidea ondo barneratuta dutenak ere irainduta senti daitezke taulan ageri diren esaldien antzerakoak entzuten dituztenean eta gizartearen begirada haien gainean sumatzen dutenean. Nork bere buruaz duen iritzia, nahitaez, besteek pentsatzen duten horretan oinarritzen dutela aitortzen digunik ere badago. Edo, arrisku nagusia bere burua ikusteko moduan dagoela konfesatzen digunik:

«Ez nago ondo. Atzeratua sentitzen naiz, ume mongolita bat ... Nik bikoteak ikusten ditut, haien umeekin, eta esaten dut: Beitu, ni ere horrela nengil, eta orain, ez naiz ezer ... kakazaharra naiz. Horrela ikusten dut nire burua, zabor gisa ... Nire buruarentzako naiz ni arriskutsua, ez beste inorentzat. Ni naiz nire burua gutxiesten duena, ulertzen?» (Kontxi)

Guzti honekin bi emaitza nagusi laburbildu nahi dira. Batetik eskubidearen onartze prozesua eta estigmatizazioa, prozesu indibidual eta kolektibo baten artean definitzen direla esan genezake. Joko horretan erakunde publikoek zeresan ukazina dute. Alderdi honetatik, prestazioa arautzen duen legedia diseinatzerakoan, prentsaurrekoak egiterakoan iritzi publikoan eragiten da; administratibotik prestazioaren erabiltzei eman dakiekeen tratua araberan onuradunak gogobetetze maila bat edo beste izango du eta horrek guztiak, dudarik gabe norbere auto-estimuan inpaktu handia du.

Bigarren ideia gisa errespetuak prozesu horietan daukan garrantzia azpimarratu nahi da. Ingrid Robeynsek mendebaldeko gizarteetarako planteatu zuen gaitasunen elementuetako bat da *errespetua*. Auto-estimuan, onarpenaz eta estigmatizazioaz jardun dugun atal honetan, errespetua oinarri-oinarrizko abiapuntu gisa identifikatu da. Nork bere buruari dion begirunea eta gizarteak norbanako bakoitzari zor diona, ongizatea definitzen duen funtsezko gaitasuna da:

«pertsonek batzuk bazterkeria ekonomikoan egonda, gizarte bazterkerian amai dezakete, bat-batean ... heltzen da momentu bat ... ez daukate zeri heldu, gaizki amaitzen duzu. Hori gertatzen da, pertsona harenanako nolabaiteko errespetu falta egon delako, eta ez delako arazoa konpondu nahi izan ...» (Aitor)

4.5.6. Hausturak lotuz

Elkarrizketa kualitatiboaren tresna metodologikoaren bitartez gure lagunen bizitza kontakizunetan murgildu gara. Bidaia honetan barrena gizarte bazterkeria itxuratzen duten esparru ezberdinetan mugitu izan gara -ekonomikoa, lan merkatuarena, harremanena e.a.- baina gehienetan berauen artean zehaztu dugun banaketa, informazioa era txukunagoan antolatze bidea baino ez da izan.

Bizitza ibilbideetan barneratu ahala atal teorikoan aurkeztu diren zenbait

4. Kapitulu

elementurekin egin da topo; hain zuzen ere, Elderren eskutik landutako zenbait kontzepturekin (Elder et al. 2003), (Blanco eta Pacheco 2003).

Trantsizioek, puntu-erabakigarriek eta inflexio puntuek bizitzako gertakari eta aldaketa une esanguratsuenak irudikatzen dituzte teorizazio honen arabera. Inflexio puntuek esaterako, aldaketa sakon eta iraunkorrak irudikatzen dituzte, baina hiru kontzeptu hauen arteko muga lausoa da. Bazterkeria faktoreen eta esparruen inguruan biltzen dira baina honetan ere ezinezkoa da aldaketa une bakoitza gizarte bazterkeriaren eremu bakar batekin lotzea:

«... aldaketa asko egon dira, baina, zer esan ... noski, beti daude aldaketak ... Lanaren inguruko erabakietatik hasita ... aitaren heriotza, nire semearen amarekin bizitzea ... bizitzan hartzen diren erabakiak, semea izatea adibidez ... eta denak eragiten du, baina ez da traumatikoa ... Erabaki batzuk hautatuak dira, besteak emanda datoz ... baina horrelakoa da bizitza, ez?» (Manu)

Azken finean gertakari hauetako bakoitzak subjektuarengan utz dezakeen arrastoa da interesatzen zaiguna. Hau da, aldaketa une bakoitzak bakoitzarentzat duen esangura eta batez ere, aldaketa eta trantsizio une horiek baloratzeko eta sentitzeko norberak duen ikuspegia. Elkarrizketetan zehar bizitzako une esanguratsuez, haustura uneez eta trantsizioez galdetu zaie gure lagunei eta erabilitako terminologiak garrantzia duen arren, erantzunari bakoitzak emandako kolorea da axola zaiguna. Guzti honek elkarrizketen abiapuntuan planteatutako hausturen ikuspegia birformulatzeko balio izan digu.

Hau da, haustura edo trantsizio une batek bizitza ibilbidean izan dezakeen eragina bezain funtsezkoa da aldaketa hori bakoitzak nola bizi izan duen behatzea. Aurreko azpiataletan zehar gizarte bazterkeriaren esparruak aztertzen ibili garenean, haustura-aldaketa une hauek behin eta berriz azaldu izan zaizkigu. Izan ere, haustura uneak bazterkeria egoeren sortzaile edo sustatzaile izan daitezkeen era berean, alderantziz ere zaugarritasun egoerek aldaketa-uneak ekar ditzakete berekin. Kapitulu analitikoari itxiera ematen ari gataizkion azken atal honetan, pena merezi du haustura uneen inguruan gogoeta egitera pausatzea. Hausnartze prozesu honetan harremanen esparruan bildutako haustura uneetan jarriko dugu arreta berezia, beste behin ere.

Esate baterako, Nuriak eta Josebak argi baino argiago adierazten dute haien bizitzako unerik esanguratsuenetako bat elkarrizketa egiteko unean bertan bizi zutena izaten ari zela. Diru-sarrera gutxiegitasunarekin eta prekarietatearekin lotuta, DBEren onuradun bilakatu izanak haien bizitzetan izan duen inpaktuaz aritu dira, bizi izan duten inflexio-puntuaz, alegia. Era berean, ekonomi esparruan dituzten gabeziak bizitzako beste esparruetara nola hedatu diren ere azaldu dute eta Nuriaren kasuan, adibidez, etxebizitza propioa ordaintzeko izan dituen arazoak larritasunez bizi izan ditu.

Josebak, erretiroa hartzerako orduan prestazioa osagarri gisa kobratu behar izanak bere bizitzan ekarri duen aldaketa azaldu digu. Kasu bietan beraz, onuradun izatearen egoera izan da, atzera begira, gehien markatu dituen aldaketetako bat. Beraien burua trantze horretan ikustea, prestaziora jo behar izatea, haien bizi ibilbidean espero gabeko aldaketa izan da.

DBEren hartzaile bilakatze horretan fokatu beharrea eta esparru ekonomikotik zertxobait aldentuz, migrazio-ekintzan antzematen dute Gabrielak eta Aminak haien bizitzetako aldaketarik nabarmenena. Ez dute esperientzia dramatiko eta latz gisa adierazten, baina zalantzarik gabe, garrantzi handiko aldaketa izan da bientzat:

«... Hona etorri aurretik hamar urtez Argentinan egon nintzen, eta oso urte onak pasatu genituen. Horrek markatu nau oraingoak baino gehiago. Hemen gauza desatseginak bizi izan ditut ... bizitzak markatu egiten zaitu ...» (Gabriela)

«Nire herrialdean ez nuen lanik egiten ... senarrak egiten zuen lan ... eta ni, lanik egin gabe, lasaiago nengoen ... Eta hemen, egunetik egunera lan gehiago. Nire etxean, lasaiago nago, baina lan egin beharra dago. Lehen senarraren gurasoenean bizi ginen, denak elkarrekin ... baina lan egin beharrik gabe. Baina beno, orain berdin dit lan egin behar izateak, nahiago dut bakarrik, lasaiago nago» (Amina)

Bestetik drogamenpekotasunarekin lotutako bizitza kontakizunetan, Ernesto eta Germanek droga eta alkoholarekiko izan duten mendekotasuna identifikatu dute haien bizitzetako haustura garrantzitsu gisa. Ikusi dugun moduan, horrek galera handiak ekarri dizkie bizitzaren beste alderdi askotan. Mendekotasunaren erruz *dena galdu izanaren* sentsazioa aitortu dute. Gehienbat harremanen esparruan metatu zaizkien hutsuneei egin diete erreferentzia gure lagunek eta analisisian, gabezia horiek haien

4. Kapitulua

zaurgarritasunean duen inpaktuan zentratu gara.

Mendekotasunak egunerokotasuna betetzen duenean, norbere buruan dagoen muga moduko bat zeharkatu egiten da eta hori, galbidea dela esaten digu Loreak. Egoera horretatik irteteko bizimoduz aldatu beharra dagoela. Bere kasuan iraganean alkoholarekin izan zituen arazoak aitortu dizkigu eta horrekin batera, horrek sortutako *haustura* ikusteko duen berezko modua elkarbanatu du gurekin. Izan ere, *haustura* unea mendekotasuna hasterakoan baino, adikzioa gainditzekoan bizi izan du berak.

«Niretzat, haustura edo aldaketarik handiena, edateari utzi nionean izan zen ... nire familian, aita ere alkoholikoa nuen ... garai horretan gauzak beste era batean ikusten nituen, haietaz pasoa egiten nuen, ez nien garrantzirik eman ... mendekotasun bat duzunean, horrela izaten da ... zure airera zoaz, eta beste guztiak bost axola! Eta nik uste, haustura garrantzitsuena, harremanen esparruan baino, duela hiru urte izan zen. Nire duintasuna berreskuratu nuen. Orduan, hortik abiatuta, gauzak beste era batean ikusten dira ...» (Lorea)

Begirada eraikitzaile honen arabera une esanguratsua alkoholismoak bere inguruan hondatutakoa berreskuratzen hasten den momentuan kokatzen du Loreak. Hitzek, zalantzarik gabe, axola dute. Elkarrizketak diseinatzerakoan gehienbat *haustura* terminoa erabili izan bada ere, ez da balorazio kontuetan sartu nahi izan eta onerako izan diren aldaketa-uneak ere jazo nahi izan dira. Baina Lorearen ekarpenak, hitz horrekin batera berreskuratze-puntu edota lotura-puntua bezalako izenak erabiltzeko aukera iradoki digu.

Trantsizioak eta aldaketak hautemateko dauden ikusmira desberdinen artean, Amaiaren hurrengo ekarpena bi zentzutan zaigu erabilgarri. Batetik bizitza ibilbideen izaera ziklikoa defendatzen delako linealtasun huts baten gainetik. Bestetik, ziklotasun horren erdigunean harreman pertsonalak kokatzen direlako:

«Gauzak axola zaizkit eta pertsonak are gehiago. Igual nire ibilbidea beti egon da oso lotuta pertsonekin, ez? Eta orduan, ikusten duzu, etapa bat eta ... harremanak apurtzen dira. Hori ez nuen nik imajinatzen. Uste nuen gauzak bizitza osorako zirelako, nahiz eta ... hori, ez naiz ezkondu, nire printzipioak horrela direlako, baina horrek ez du kentzen, nik pentsatzea harreman hori, sendotasun hori nolabait ez zela apurtuko ... eta pertsonekin ere horrela pentsatu izan dut. Eta ez, gauzak bat-batean apurtu egiten dira, eta pertsonak desagertu egiten dira nire bizitzatik! Eta grafikoki, zuk aldatzen duzu ... eta etapak egiten dituzu: honaino lagun batzuekin, eta beste etapa batetan, beste lagun batzuekin» (Amaia)

Begirada honen arabera, gertueneko harreman pertsonalek gidatu ditzakete pertsona batek bere bizitza ibilbidean zehar izan ditzakeen ziklo desberdinak. Zentraltasuna harremanen esparruan jartzen ari garen honetan, zinez probetxugarria zaigu Amaiaren formulazio hau. Honek ez du esan nahi, kasu guztietan bizitza-ibilbideak molde honekin aztertu behar direnik, baina aukera ematen digu nahi izanez gero, bizitza-ibilbideak ikusmira zikliko honetatik aztertzeko. Hau da, *hausturak* lerro-itxuran antzeman beharrean, harremanen inguruan kateatzen diren etapa edota zikloen inguruan aztertzeko bidea irekitzen zaigu.

Elkarrizketetan zehar ez da hala ere bizitza-ibilbideen derrigorrezko linealtasun bat planteatu, ez eta kapitulu teorikoetan. Baina edozein kasutan, Aitorrek ere esplizituki egin dio muzin bere ibilbidea era linealean proiektatzeari:

«Bizitzak eraldatu egiten gaitu, eta bakoitzaren pertzepzioaren eta izaeran arabera ... ez ditut aldaketak haustura gisa ikusten, trantsizioak dira ... ezkondu nintzen, gero dibortziatu, ba hausturak egin dira bai, lan hobeak eta okerragoak izan ditut ... baina nire ikuspegia ez da hain lineala, leku ezberdinetatik ibiliz goaz, eta den denak nire bizitza istorioaren parte dira» (Aitor)

Askotan aldaketak eta erabakiak eskutik helduta datoz. Batzuetan hautatuak eta besteetan emanda, bizitzaren naturaltasunaren parte dira. Azken finean ez dira bizitzako aldaketa denak ere modu bertsuan bizi behar; norbaitek era traumatikoan bizi dezakeen esperientzia, beste norbaitentzat aldaketa soil bat izan daiteke.

Edozelan ere, funtsezkoa da *aldaketa-lotura-haustura* une hauek harremanen esparruarekin eta bereziki familiarekin lotzea. Era horretan, aurreko azpiataletan jorratu diren hainbat ideia berreskuratu eta birplanteatuko dira. Bidenabar, era transbertsalagoan barneratu diren genero gaiak ostera ere bilduko dira hemen.

Harremanak urratzen direnean:

Lehen urrats gisa senideen heriotza, haserrealdi eta urruntzeekin lotuta dauden bizipenak multzokatu eta aipatu nahi dira. Laugarren kapituluko laugarren azpiatalean landu diren bizitza-kontakizunetan bereziki begi-bistakoa izan da gisa honetako

4. Kapitulu

hausturen eragina. Halaxe, Ernesto, Martin, Kontxi eta Mertxek gertueneko familia-sarearen falta dute eta egoera horrek neurri handi batean mugatu eta markatu egiten dituela ikusi dugu: alde batetik suma dezaketen babes eta sostengu faltagatik, eta bestetik, guzti horrek sortzen dien bakardade eta isolamendu sentipenagatik.

Honekin lotuta, bada senideren baten heriotzaren inpaktua aipatu digun beste elkarrizketaturik ere. Gehienbat nerabezaroan gurasoetako baten galerak haien bizitza-ibilbidean ekarritako norabide aldaketek ari gara: kolpe emozionalari bizitzako beste alor batzuetan hartu beharreko erabakiak gehitzen zaizkionean – Joseba eta Begoñaren kasuan, besteak beste-. Ez zaie inolaz ere garrantzia kendu nahi horrelako galerei, norbere bizitza goitik behera aztoratu dezaketelako baina aurrekoekin konparatuz, ez dute familia esparruarekiko erabateko deserrotzea irudikatzen, ezta familia-sare osoaren desagertzea ere.

Bigarren multzo batean urrutze fisikoa duten pertsonak sar genitzake, hain zuzen ere, migrazio-prozesuen ondorioz familia-sare nagusia urruti duten pertsonen bizipenak. Amina, Gabriela, Djamel eta Mohammedek familiarekin harreman ona dutela azaldu digute baina jakina, distantzia dela eta familia esparruak eskaini liezaiekeen sostengua falta zaie. Ikuspegi honetatik bizitoki-etxebizitza esparruan izandako aldaketek harremanen esparruan eta zehazki, familia harremanek emandako babesean duten eragina nabarmena da. Beste era batean esanda, egoitza esparrutik harremanen eremura hedatzen diren une esanguratsuen aurrean geundeke.

Azkenik hirugarren zaku batean, bikote-harremanekin eta amatasun-aitatasunarekin uztartuta dauden haustura -eta lotura- unek bildu nahi dira. Bi faktore hauek multzo berean jazo dira espresuki. Izan ere inflexio puntu horien esanahia baloratzerako orduan bi aldagaiekin gurutzatu gara; familia-arteko ardua banaketekin eta norbere autonomia pertsonalarekin, hain zuzen ere. Den-denak elkarren artean nahasten diren faktoreak direnez, bikote harremanekin eta seme-alabak izatearekin lotutako une esanguratsuak banaezinak direla estimatu da.

Norabide batean, bikotearekin hasi, harekin proiektu komun bat izan, elkarrekin bizi edota seme-alabak izateko erabakiak, elkarrizketatu askorentzat haien bizitzetan

ondorio sakonenak ekarri dituzten aldaketak izan dira. Aurkako norabidean, bikotearekin eta familia-unitatean izandako hausturek ere inplikazio handiak izan dituztela behatu dugu.

Jakina, aldaketa une horiek subjektuaren bizitza-ibilbidean izan dezaketen pisua eta ondorioz, utzi dezaketen arrastoa pertsonarik pertsona aldatu egiten da. Azken finean, bakoitzak aldaketei aurre egiteko daukan erak zeresan handia du eta baita hausturen edo bizitza-ibilbidearen gainean duen ikuspegiak ere.

Amatasuna inflexio puntu gisa baloratzeko lan horretan hurrengo behatu da: elkarrizketatuen artean ama direnek oso era desberdinean bizi izan dute ama izatearen esperientzia bera. Bakoitzak dituen lehentasunen arabera, norberaren autonomiaren eta etxeko arduren banaketaren arteko konbinazioak zeresan handia du guzti horretan.

Begoñari «mundua gainera erori» zitzaion alaba jaiotzearen, berarentzat hain garrantzitsua den autonomia pertsonala oztopatzen baitzuen beste pertsona baten gaineko ardura izateak. Are gehiago, ardura hori bikote ohiarekin partekatzeko modua espero bezain berdinkidea ez zela ikusi zuenean. Autonomiaren nolabaiteko premia horrek bere bizitza-ibilbidea markatu du une askotan eta bide horretan militantzia politikoak izan duen zentraltasuna nabarmena izan da. Alaba nerabea zela senarrengandik dibortziatu zen azkenean eta haustura dramatiko bat baino, autonomia pertsonalean horrek ekarri zion irabazia baloratzen du.

Iratxeren kasuan berriz, amatasuna izan da bere bizitzaren erdigunean lekua hartu duena. Bere ikusmiratik, eragozpena ez dator ama izateak mugatu diezaiokeen askatasunaren aldetik. Aitzitik, bizitzako beste zenbait esparruk ama izatearen esperientzia hori oztopatzen diotelako kexu da. Bizitzako une esanguratsuenak bikote-harremanekin, bikote-hausturekin eta amatasunarekin lotuta ikusten ditu eta bereziki, «bakarrik egoten hasi» zen garaia. Bikotearekin bizi zenean ere, senarrak familia arduetan zuen inplikazio faltak bakarrik sentiarazten zuen. Banandu zenez geroztik lau seme-alaba hazi eta hezi ditu ondoan beste inor izan gabe. Zentzu honetan amatasunarekin batera bizi izan duen bakardadea da behin eta berriz azpimarratu duen haustura una eta ez horrenbeste, ama izatea bera. Esperientzia honetan, berriro ere

4. Kapitulu

familiarteko ardura banaketa faltak zeresana izan du.

Amatasuna-haustura binomioarekin ari garen honetan bestelako ikusmira bat dakarkigu Loreak. Harremanen esparruan aldaketa askok markatu duten arren, semea izateak bizitzan aurrera egin ahal izateko eman dion indarra goraiatzeko du behin eta berriro. Are gehiago, alkoholarekin zuen arazoa gainditzeko kemena eman diona izan dela aitortzen digu. Hau da, ostera ere haustura une baino berreskuratze puntu gisa antzematen du aldaketa. Hori bai, berriro ere autonomia pertsonalarekin uztartuz, bere emakume identitatea garatu eta berreskuratzeko premia sentitzen du. Izan ere, guraso bakarreko familia baten buru izanik ama izate horrek bere identitate propioaren espazioa bereganatu baitu.

Manurentzat ere familiarekin lotutako erabakiak eta hausturak izan dira esanguratsuenak, lan merkatuarekin zerikusia duten zenbait erabaki aipatzen dituen arren. Umearen amarekin bizitzera joan zeneko unea, aita izan zenekoa eta bikotearengandik banatu zenekoa nabarmendu ditu. Azken haustura hori izan da beste pertsona batzuekin etxebizitza elkarbanatzera eramanez eta hein handi batean, gaur egun bizi duen egoera zehazten duena: langabezian dagoenez geroztik daukan denbora librearen semearen kargu egiteko aprobeztatzen du. Era horretan, diruz lagundu ezin duen arren semearen zaintzan duen inplikazio maila handiarekin konpentsatzen du.

Azkenik, beste behin ere, amatasuna eta bikote hausturekin lotutako testigantza dakarkigu Amaiak eta seme-alabak izateak bere bikote harremanean izan duen eraginaz hausnartzen du. Bikotearekin zegoen garaian ere bera zen umeen ardura zeukana, eta hain zuzen ere, gisa horretako erantzukizun baten aurrean bikote ohiak erakutsitako jarrera izan zen, nolabait, banaketa leherrarazi zuen faktoreetako bat:

«Bueno, semeak izateak bizitza aldatzen dizu! Amatasunak eta nik uste dut ... ez bakarrik ... amatasunak ondorio batzuk dakartza eta hain zuzen ere bikotearekin harremanak, nolabait ... birplanteatzen dira eta hor ikusten duzu, zure bikoteak zein nolako erantzuna daukan ... Gero banatzea erabakitzea oso gogorra izan zen, nahiz eta ezkondata egon ez, ez naiz inoiz ezkondata egon ... baina 20 urteko harremana apurtzea oso gogorra da, eta umeek ez dute horretan laguntzen» (Amaia)

Puntu honetara iritsita, ezinbestekoa da seme-alabak izateak lan merkatuan ekar ditzakeen oztopoak gogoratzea. Emakume batek baino gehiagok nabarmendu dituzte emakume eta ama izanagatik enplegu bat bilatzerakoan izan dituzten zailtasunak. Lan merkatuan integratzeko traba gehigarri hau zaurgarritasuna biziagotu egiten duen faktorea da. Subirats eta IGOPek proposatzen duten eredu teorikoaren arabera, *desberdintasun-ardatz* gisa jardun dezake generoak gizarte bazterkeria itxuratzerako orduan (Subirats 2004a, 2005b, 2006).

Guri dagokigunez, genero aldagaiaren eragina gizarte bazterkeriaren esparru anitzetan antzeman den arren, bereziki bi eremu jakinetan duen inpaktua bereizi nahi da. Batetik, amatasuna eta lan merkatuarekin lotuta aipatu berri ditugun eragozpenak izango genituzke. Enplegu bat aurkitzeko ezintasunek ageriko inplikazioak dituzte eremu ekonomikoan, pertsona hauen autonomia ekonomikoa kolokan geratzen den heinean.

Aurretik ere aparteko arreta eskaini diogu autonomia pertsonalaren garrantzia aztertzeari eta bereziki, norbere beharrianak estali ahal izateko derrigorrez familiarengana jo beharrak burujabetasuna urratu dezakeela azpimarratu dugu. Guzti horrek ekar dezakeen frustrazio sentrazioa zaurgarritasun egoera puzten duen beste garrantzizko faktore bat da. Gainera, lan merkatuan parte hartzeko ezintasunak norberaren estimua urratu eta arlo pertsonalean nahi bezala errealizatzea ekidin dezake.

Bigarren plano batean, familia esparruan bizi duten ardura gainzama aitortu digu zenbait emakumek. Zaurgarritasun egoerari erantzukizun gainkarga batzen zaionean bakardade egoera areagotu egiten dela ikusi dugu. Isolamendu horrek azken batean, subjektuak bere inguruarekiko senti dezakeen konexio falta irudikatzen du eta horrek dakarren identitate galerarekin batera, zaurgarritasuna xedatzen duen elementu izan gisa antzeman da. Gainera lan merkatuan integratzeko ezintasunak eta etxeko arduren gainzamak biak elkarrekin jarduten badute, *desberdintasun-ardatz* gisa diharduten heinean, genero aldagaiaren itzala biderkatu egiten da. Loreak enplegu bat aurkitzeko daukan premia eman digu aditzera behin baino gehiagotan, horrek ekarriko lizkiokeen baliabide ekonomikoez gain bere identitate propioaren berreskuratzea balioesten

4. Kapituluia

dituelako:

«Neurotiko-depresiboa naiz. Ez didate diagnostikatu ... baina ez daukat oreka emozionalik ... Eta orain hori kontrolatzeko gai naiz. Ume batekin ezin duzu gaur goian egon, bihar behean. Asko desgastatzen du horrek. Eta orain fisikoki leher eginda nago, baina baita emakume identitatearen galera hori ... Gauza askorengatik nago nekatuta. Hile amaiera iritsiko ote naizen pentsatzeaz nekatuta, edo hamabostaldira ... Badakizu sentsazio hori? Gaixotu beharrean zaudela sentituta ere, gaixotu ezin izatea? Zer egingo nuke umearekin? Asteburu batean kanpora joango balitz, orduan bai, gaixotuko nintzateke» (Lorea)

Azkenik, harremanen esparruko hausturak aztertzen ari garen honetan haustura mota oso espezifiko bati egin nahi zaio erreferentzia. Familia eta bikote harremanen baitan bizi daitezkeen biolentzia pasarteak ari gara, hain zuzen ere. Landa ikerketetarako perfilak diseinatzerako orduan ez zen espresuki aurreikusitako txarrak jasan dituen inor elkarrizketatzea baina kontziente ginen, hamazortzi kasuren artean genero indarkeriarekin lotutako esperientziaren batekin topo egin genezakeela. Kasu horietarako aurrebaldintza bat ezarri zen: helburua ez zen inolaz ere izango indarkeria esperientzia horien detaileetan sartzea, ez baita hori ikerketa honen xedea.

Hiru emakume izan dira azkenean gisa honetako bizipenei erreferentzia egin dietenak eta Kontxi izan da, hiru hauen artean gaiaz luze eta zabal aritu dena. Izan ere, nerabegarotik hasita eta duela oso gutxira arte indarkeria esperientziak bizi izan ditu bata bestearen atzetik. Guzti horrek bere istorio propioan utzi ditu arrasto larriak nabarmendu ditu: seme-alaben zaintzaren galera, kale gorrian igarotako bolada laburra eta egoitza-hiri aldaketa beste batzuen artean. Ez dugu ahaztu behar, bere azken bikote-harremanetik ihesi heldu zela Kontxi Bilbo aldera. Zalantzarik gabe guztiz berria zaion hiri batera lekualdatzeak inpaktu handia izan du bere bizitzan, bere bakardade sentimendua muturreraino biziagotu duen heinean.

Lorearen kontakizunean, indarkeriarekin lotutako pasarteak ez dute solasaldia gidatzen. Aitzitik, oso zeharka eta azaletik aipatzen du bikote ohiarekin izandako esperientzia korapilatsua baina hala ere, harreman nahasi horrek beragan izandako bi efektu nagusi iradokitzen ditu: gizonekiko mesfidantza bortitza eta egoitza aldaketa.

Nuriak ere denboraldi baterako beste hiri batera alde egin zuen, senar ohiarengandik ihesi. Edozelan, bere testigantzak independentzia ekonomiakoaren inguruan pare bat

ohar egiteko balio digu. Indarkeria kasuetan autonomia ekonomiak eta pertsonalak hartzen duten dimentsioa bistaratzeko, alegia: dudarik gabe esparru ekonomikoan baliabide propioak ziurtatua izatea berebiziko akuilua izan daiteke era honetako harreman batetik irten ahal izateko. Honen harira, Nuriak bikote ohiari denuntzia jarri eta harengandik banatzerako orduan zeukan autonomia finantzarioa azpimarratzen digu.

Erasotzailearekiko menpekotasun ekonomikoa izanez gero, ostera, are gehiago korapila daiteke egoera. Kontxik bere kontakizunean atzera begiratzen duenean lerro artean horrelako zerbait ematen digu aditzera. Bikoteren bat izan zuen denboraldietan etxetik kanpo lanik egin ez zuela esaten digunean, zera ari zaigu adierazten: eduki dituen bikote harreman gehienetan bikotearekiko menpekotasuna izan duela esparru ekonomikoan. Azken finean familia eredu tradizionalaren adibide garbia litzateke berea, gizon ogi-irabazle eta emakume etxekoandrearena. Menpekotasun ekonomiko egoerari tratu txarren biktima izan dela gehitzen badiogu, egoeraren konplexutasunaz jabetuko gara.

Nolanahi ere, benetan zaila izan daitekeena indarkeria harremana haustea erabaki ostean senti daitekeen bakardadeari aurre egitea:

«Hasieran, eragiten zidan ... zuk ume bat izatea erabakitzen duzunean, biren gauza da, eta pentsatzen duzu, ba hori, betirako izango dela, sostengu bat izango duzula ... orduan, neurri atean beldurra ematen dizu bakarrik geratzeak.. Pentsatzen duzu, nork maite nau ume batekin? Zer egingo dut? Baina hori hasieran ... gero ia ...» (Nuria)

5. Kapituluua

Ondorioak

Ondorioak

« ... pertsona hauek supermerkatuetan topa ditzakegu, eta gehienak ez dira oraindik gizartearen gehiengoarekiko bereizten. Izan ere, ez dakigu otzaran margarina, ogia eta jogurta daramatzana dietan dagoen, ala besterik erosteko dirurik ez daukan» (Glotz 1992)

Bosgarren eta azken kapitulu honetan ikerketa lanari akabera eman nahi zaio. Lehenik eta behin, marko teorikoaren eta testuinguruaren birkokatzea egingo da *Lurra hartuz: marko teorikoa eta testuingurua* azpiatalean, aurreko lau kapituluetan landutako funtsezko kontzeptuak finkatzeko. Jarraian, lanaren hasieran adierazi diren helburu nagusi eta ikerketa-galderen inguruko ondorio printzipalak agertuko dira. Emaitza orokor horiek emaitza zehatzagoak plazaratzeko bidean gidatuko gaituzte, *Bi dinamika ondo-ondoan* deituriko azpiatalean. Azkenik, hausnarketa pertsonal bati helduz zenbait proposamen mahaigaineratu nahi dira.

5.1) Lurra hartuz: marko teorikoa eta testuingurua

Lehendabiziko azpiatal honetan aurreko lau kapituluetan jorratutako ideia batzuk biribildu nahi dira, datozen ataletan ikerketa lanari itxiera eman eta zenbait ondorio proposatu ahal izateko. Zeregin honetan erabilitako erreminta metodologikoak gure ikerketari egindako ekarpen nagusiak goraiapatuko dira. Betiere elkarrizketen emaitzak erdigunean dauzkagula, ikerketa lana dagokion testuinguruan kokatzeko ahaleginak egingo dira; bai marko teoriko jakin batean ezarri ahal izateko eta baita gaur egun bizi dugun egiturazko krisi honen abagunean egokitzeko ere. Horretarako, bidean marko teorikoari eta krisiari erreferentzia egiten dioten hausnarketak tartekatuko dira.

Botere-gabeak jabetuz

Laugarren kapitulan zehar gure ikerketan protagonista izan diren hemezortzi pertsonen ahotsak entzun ditugu; entzun eta aintzat hartu. Egunerokotasunean anonimoak diren bozak aditu ditugu eta itxuraz botererik ez duten pertsonen hitzak lan honen ardatz bilakatu dira. Halaxe, gure lagunen testigantza eta bititza kontakizunak izan dira lan honetan iparra markatu dutenak.

5. Kapitulu

Lehen pertsonan bizi eta kontatutakoak jaso ditugun honetan, helburua ez da inolaz ere hauek epaitzea izan. Ez epaitu, ezta entzundakoak zalantzan jarri edota egiaztatzea ere. Zaurgarritasun ekonomiko eta gizarte bazterkeriaren artean balantzaka mugitzen diren pertsona hauen bizipenetan zentratu gara. Halaber fokua Diru-sarrerak Bermatzeko Errenten (DBE) onuradun diren pertsonengan jarri da hauetako bakoitzak bere larruan bizi duen eta bizi izan dituen egoerak desestaltzeko intentzioarekin.

Elkarrizketa kualitatiboaren bidez, gizarte bazterkeria perfilatzen duten esparru anitzak arakatu dira eta kasu jakin bakoitzean esparru horiek zelan konbinatzen diren ikusi nahi izan da, arreta nagusia betiere familia eta harremanen esparruan jarritz. Helburua ez da adierazpen pertsonalak egia absolutu bilakatzea, baizik eta esperientzia hauen muinean esanahiak bilatu eta ildo nagusi batzuk azpimarratzea.

Zaurgarritasun istorioak erabili nahi izan dira gizarte eta ekonomia zaurgarritasunaren beraren irudia taxuz marraztu eta soslaitzeko, eta sakoneko esanahiak argitara ekartzeko. Gizarte bazterkeria bezalako kontzeptu batean murgildu eta ikerketa subjektuarengan zentratzeko tresna erabilgarria da elkarrizketa kualitatiboa. Ikerketa galderen baitan gatazkan ari diren emozioak nahasten diren egoerak ulertzeko eta fenomeno beraren inguruan inplikaturik dauden pertsona ezberdinek ikuspuntu anitzak pilatzen diren kasuak jorratzeko, oso lanabes probetxugarria da. Horretarako guztirako baliagarria izan zaigu hautatutako bide metodologikoa.

Honenbestez, artaburuak aletzen diren modu berean, elkarrizketen fruitu izan diren kontakizun hauek laugarren kapituluaren zehar birrindu egin ditugu. Analisi horretan pasarterik esanguratsuenak nabarmendu egin dira eta pausuz pausu landa ikerketan parte hartu duten kide guztiak aurkeztu dira. Ezagutzera emateaz gain, istorio hauetan sakondu ere egin da pertsona bakoitzaren munduan murgildu ahal izateko.

Laugarren kapituluaren hasieran ekonomia, etxebizitza eta lan merkatuaren eremuetan biziakoak aztertu dira. Segidan familia eta adiskidetasun harremanei heldu zaie bi urrats nagusitan. Alde batean, familia eta lagunaren babesarekin kontaktatzen duten istorioetan zentratu gara, etxeko teiltupean nolabaiteko sostengua duten haiengan.

Beste muturrean berriz, gerizpe horren falta duten pertsonen esperientziak landu dira.

Ondorioak

Familia eta adiskide sarearen teilatuaren gabezia horrek, gainera, literalki kale gorria eramanez kasu batean baino gehiago. Ibilbide urratu hauetan, bazterkeria faktoreen metaketa egoera leherrarazi duen beste elementuetako bat izan da. Era horretan, harremanen esparruan bizitako indarkeria pasarteak direla eta, edota osasunarekin lotuta, buruko gaixotasun ezberdin edota drogamenpekotasunak direla eta, gordinagoak diren errealitateak antzeman dira.

Marko teorikoaren eraikuntza prozesuan bezala, kapitulu analitikoan emandako urrats guzti hauetan atentzio berezia jarri da generoan, aldagai honi zeharkako trataera emateko helburuarekin. Hala ere, arlo hau intentsitate handiagoz landu da harremanen esparruari eskainitako atalean, gehienbat familia egitura, etxeko arduren banaketa eta amatasuna-aitatasunaz aritu garenean. Honek guztiak, ezinbestean, badu bere isla emakumeek zein gizonek lan merkatuan duten posizioan, eta plano biak -lan merkatua eta harremana- banaezinak dira edozein azterketa egiterako orduan.

Generoaz ari garela, ikuspegi feminista eta Giza Garapenaren Ikuspegiaren arteko (Sen 1989) bateragarritasuna goraitu beharra dago, gizarte zaugarritasuna eta berau definitzen duen multidimentsionalitatea jorratzeko abantaila gisa (Robeyns 2003, 2005 eta 2007). Begirada bikoitz hau erabilgarria da esparru ekonomikoaz haraindi esparru domestikoa ere bistaratu ahal izateko, eta era berean funtsezkoa eremu ez-ekonomiko horretan emakumeek jokatzen duten rola kokatzeko.

Bestalde, nahiz eta Giza Garapenaren Ikuspegiaren erdigunean norbanakoa dagoen, gizabanako horren gaitasun eta askatasunak beste pertsonetikiko eta bizi diren gizartearekiko menpekoak diren heinean, ikuspegi horren izaera duala nabarmentzen du Robeynsek; etikoki indibidualista eta ontologikoki indibidualista ez den ikusmira. Gure aldetik, elkarrizketa kualitatiboen bidez pertsonengan fokatu bagara ere, ingurune sozialak pertsona hauengan duen eragina une oro presente izan dugun elementua izan da.

Tratamendu bikoitz honek, honela jokatzen du emakumeen kasuan ere: batetik emakumea indibiduo propio gisa antzematen lagatzen digu eta ez etxeko esparruan lausotzen eta galtzen den identitate gisa. Baina aldi berean, harreman sozialek eta

5. Kapituluia

elkarmenpekotasan harremanek ibilbide pertsonaletan markatzen dituzten mugak ere aintzat hartzen uzten digu. Hots, gizarte harreman hauetan familia esparruak jokatzeko duen papera aztertzeaz ari gara.

Giza Garapenaren eta ikuspegi feministaren arteko bateragarritasun honek ikerketari dakarkion beste onura bat, zaugarritasun istorio hauen atzean dagoen aniztasunari aurre egiteko duten gaitasuna da, izan ere giza aniztasuna onartzeko era esplizitua baitaude bi ikuspuntuek. Nolanahi ere, erne ibili beharra dago dibertsitate hori agertu nahian, emakumeak talde homogeneizatu batean ez sartzeko eta emakumeen artean ere dauden berezitasunak bistaratzeko.

Kasu baterako, Nazio Batuen Garapenerako Programak darabilen Genero Desberdintasunaren indizeak emakumeek gizonetikiko pairatzen dituzten desberdintasunak erakutsi nahi ditu. Giza Garapenaren Indizearen ildo beretik, indize bakar batean hiru dimentsiotan jazotako desberdintasunak barneratzen dira, zehazki bost adierazle bilduz. Batetik, emakumeek lan merkatuan duten parte hartzea daukagu. Bestetik, emakumeen jabekuntzari dagokionez, heziketa maila eta parlamentuan emakumeek duten jarleku kopurua hartzen dira kontuan. Azkenik, ugalketa osasunari dagokion esparruan, nerabeen emankortasuna eta erditze inguruko hilkortasuna neurtzen dira.

Indize trinko honek genero desberdintasunari trataera multidimentsionala ematen diola onartzen badugu ere, botere eta rol jakin batzuk aztertzerako mugatzen dela esan beharra dago eta beste zenbait faktore kanpo uzten dituela. Guri dagokigunez, elkarrizketetan parte hartu duten emakumeek ez dute botere-postuetara sarbiderik, asko eta asko lan merkatuan parte hartzetik urruti daude, eta batzuek goi mailako ikasketak burutu dituzten arren, ez dira gutxi bigarren hezkuntzan gelditu zirenak. Azken batean *beirazko sabaia*ren oztopoa baino, *zoru itsaskorrea*n tranpan harrapatuta dauden emakumeak ezagutu ditugu⁸⁸.

Honenbestez, gure protagonisten artean beste traza bateko faktoreek erakutsiko digute

⁸⁸ Lan-munduan botere-postu gorenetera iristeko emakumeek gaitasun beharrek zailtasun gehigarriak irudikatzen ditu beirazko sabaia horrek. Zoru itsaskorrek ostera, kontrako dinamika: beheko postuetan edota posturik prekarioenetan harrapatuta geratzen diren emakumeen egoera.

hobeki emakumeek gizonetik bizi ditzaketen bereizkeria egoerak; autonomia ekonomikoaren gabezia, etxeko arduren gainzama, indarkeria pasarteak, enplegua eta familia ardurak bateratzeko ezintasuna e.a. Bestela esanda, botere terminoetan baino, beharbada botere gabezia eta ahultasun baldintzetan zentratu beharra dago, bai emakume eta bai elkarrizketatu ditugun gizonen kontakizunak aztertzerako orduan. Hau da, nolabait esatearren, ahotsa *botere-gabeei* luzatu baldin badiegu, ahuldade horiei tira eginez heldu behar diogu.

Prestazioaren onuradunak erdigunean: genero ikuspegia eta marko teorikoan arakatuz

Atal teorikoan egin dugun bezala, analisisian zehar ere bi ikuspegi hauekin -giza garapena eta feminista- lotuta Robeynesek luzatutako zenbait proposamen barneratu egin dira. Hain zuzen ere, Nussbaumek landutako hamar giza gaitasunen zerrenda testuinguru jakin batera mugatzeko intentzioarekin (1995, 2000, 2003, 2012), zerrenda alternatiboa ehundu zuen Robeynsek, zehazki mendebaldeko gizarteetan genero ezberdintasuna kontzeptualizatzea ahalbidetzen zuena.

Zentzu honetan, laugarren kapituluaren zehar aztertu diren esparruetan zehar -ekonomikoa, etxebizitza, harremanak e.a.- zerrenda honetxan hainbat elementu txertatu dira, era inplizituan izan den arren. Honela, gizarte bazterkeriaren eremu ezberdinak aztertzearekin batera, lista honetako osagai askok ere gure azterketa gidatu dute; *Aterpea eta inguruneaz mintzatu gara*, *Ongizate mentalaz*, *Aisialdiaz eta Denboraren Autonomiaz* e.a. Genero eta harremanen esparruarekin lotuta, *Ordaindutako lanaz*, eta *Etxeko lanez eta zainketez aritu gara*, eta ondorioen atal honetan ere, beste zenbait elementu berrartuko dira.

Gizarte bazterkeriaren kontzeptu jakin bat barneratu dugu marko teorikoan, IGOP institutuak landu izan duena hain zuzen ere. Ikuspegi honek, egiturazko fenomeno gisa aztertzen du bazterkeria, beronen izaera dinamiko eta erlazionala azpimarratuz (Subirats 2005a). Politikatik banaezina den fenomeno honek esparru anitz biltzen ditu bere baitan, eta horiek hartu dira aintzat lan honetan; hala nola, esparru ekonomikoa, lan merkatuaren esparrua, harremanak, hezkuntza, osasunaren eremua, etxebizitza-

5. Kapituluia

egoitza eta parte-hartzearen esparrua.

Marko teorikoaren eraikitze prozesuaren barruan lau esparrutan oinarrituta dagoen eredua eraiki dugu gizarte bazterkeriaren kontzeptuaren inguruan eta erdigunean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) prestazioa jasotzen duten pertsonak kokatu ditugu. Honenbestez, eredua sostengatzen duten esparruak hurrengoak dira; botere publikoak, enplegua eta harreman ekonomikoak finkatzen dituen merkatuen esparrua, familia-harremanen esparrua eta azkenik, harremanen esparrutik guztiz aldendu gabe, hirugarren sektorea eta elkarteen esparrua. Izan ere, lau barruti hauek ongizate-erregimenen itxuratzean duten eragina argudiatu baitugu pausuz pausu.

Esping-Andersen (Esping-Andersen 1990) eredu klasikoak lan merkatua eta estatuaren arteko elkarrekintza kontenplantzen zituen ongizate erregimenak aztertzerako orduan. Gerora autoreak berak ere planteamendu bikoitz hau gainditu egin du, hirugarren aktore gisa harremanen esparrua, edota zehatzago esanda *familia* barneratuz. Hala, hainbat autorek Andersen eredu klasikoari aurpegiatu izan zaion genero itsutasuna nolabait zuzendu eta osatu egin dute (Korpi 2000), (Lewis 2002), (Orloff 1996).

Bene-benetan erabakigarria den erlazioa ordaindutako lana, ordaindu gabekoa eta ongizatearen artean dagoena bada, ezinbestekoa da familia esparrua era esplizituan aintzat hartzea ongizate-erregimenak aztertu ahal izateko (Taylor-Gooby 1991). Hauek lan merkatuaren, familiaren eta estatuaren arteko elkarrekintzaren ondorioz finkatzen badira, genero aldagaia eta familiaren esparrua kontuan hartzeko elementuak dira (Esping-Andersen 2000).

Gure analisisian ere, ezinbestekoa izan da familiaren presentzia bistaratzea, ordaindu gabeko lanaren garrantzia eta era berean, emakumeen eta gizonen papera ere kontuan hartu ahal izateko. Are gehiago aztertzen ari garen ongizate erregimena eredu mediterraneoaren barruan sartzen badugu. Atal teorikoan zehar eredu mediterranea besteetatik desberdintzen duten zenbait ezaugarri bildu dira. Horien artean, familia inklusioaren baloreak duen pisua aipatu da, familiaren baitan burutzen diren birbanaketa fluxu anitzak, alegia.

Ondorioak


Bigarren berezitasun gisa eredu hau duten herrialdeetan elkartasunak duen izaera mikroa azpimarratzen da. Finean, *familia* ongizate erregimenen funtsezko euskarri gisa identifikatzen da eta aldi berean gizarte politiken garapen eskasa uzten da agerian (Moreno Fernandez 2000). Dena den, ongizate erregimenak errotik aldatzen ari dira azken urteotako korrante neoliberalesko erreformen ondorioz, eta horrek eredu aldaketa baten aurrean gaudela pentsatzera garamatza.

Behin harremanen esparrutik hirugarren sektoreak jokatzeko duen papera bereiziz gero eta esparru honek ezaugarri eta dinamika propioak dituela onartuta, laugarren aktore bat gehitu diogu eredu hirukoitz honi (Subirats 2004a), (Adelantado, Noguera, Rambla eta Saez 1999).

Laburpen taula horretan ikus daitekeen moduan, DBE prestazioa jasotzen duten pertsonak izan dira ikerketaren jomuga (23. Irudia). Lehen kapituluan prestazio honen aurrekariak, ibilbidea eta gaur egungo arau-markoa aurkeztu dira. Lurra hartzen ari garen azpiatal honetan berriz, prestazio hau testuinguru jakin baten kokatu eta azken urteetan bizi dugun krisialdi egoeran lekutzea komeni da.

(atzealdean begiratu)

23. Irudia: Marko teorikoaren laburpena



Iturria: norberak eginda.

Ondorioak

Horretarako, primeran datorkigu Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte gaietako sailak 2012 urte bukaeran argitaratu berri duen Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta (PGDI). Inkesta honen datuek zenbakitan adierazten dute Gutxieneko Errenten Sistemak gizarteari dakartzkion onurak. DBE, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak baloratzen diren honetan, sistema honen premia azpimarratzen da.

Izan ere, datuen arabera gutxieneko errentek %37an murrizten dute pobreziaren hedadura; hau da, pobreziaren atalasetik behera bizi diren pertsonen portzentajea. Bestela esanda, gutxieneko errentarik ezean %8,5koa litzatekeen pobrezia errealdaren tasa, %5,3ra murrizten da prestazioei esker. Prestazio hauen balizko onuradunen artean, %37,5ak pobrezia errealdaren egoeratik irtetea lortzen du laguntzari esker; %35,1ak laguntza jaso arren ez du pobrezia gainditzea erdiesten, eta azkenik, kolektibo honen %27,4ak ez ditu laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen.

Emitza objektibo eta kuantifikagarri hauek agerian uzten dute gisa honetako babes politiken beharra. Honek Gizarte Segurantzaz eta pentsio-sistemaz esan ohi dena gogorarazten digu. Ongizate gaietan aditua den Navarrok, behin baino gehiagotan esan izan du Espainiar estatuan indarrean dagoen pobreziaren aurkako sistemarik garrantzitsuena, Gizarte Segurantza dela. Bere kalkuluen arabera, 65 urtetik gorako biztanleriaren %68 a pobrezia egoeran biziko litzateke pentsiorik ezean (Navarro 2004). Honenbestez, pentsio sistema pobreziaren aurkako neurri indartsuen gisa antzematen da, langabezia bezalako prestazio batzuekin batera. Alabaina ikustear dago, gobernu zentralak iragarri dituen erreformek pentsio sistema zein egoeratan utziko duten.

PGDIren datuei begiratuz, gutxieneko errentek pobreziaren aurkako borrokan jotzen duten berebiziko rola ezin jar daiteke zalantzan. Sistema honen eta bereiziki DBEren balioa eta beharra neurtzeko beste bide bat, gure elkarrizketatuen kontakizunak aditzea izan da. Pasarte batek baino gehiagok utzi izan digute agerian, prestazioak gure protagonistei hilabete bukaerara iritsi ahal izateko ematen dien laguntza. Kasu askotan gainera prestazioa hori bizirauteko ere beharrezko dutela islatu izan dute.

Aitortzaren indarrari buruz aritu gara hirugarren kapituluan eta berau, eguneroko

5. Kapituluia

solasaldietara hedatu den heinean, elkarrizketa kualitatiboetara ere hedatu dela argudiatu dugu (Gubrium eta Holstein 2002). Izan ere, elkarrizketa kualitatiboa egunerokotasunean zentratzen baita. Testigantza hauek aintzat hartzerakoan, ez genuke pentsatu behar bazterkeria psikologizatzen ari garenik. Aitzitik, tresna honek daukan indarra izan behar dugu gogoan. Bazterkeriak pertsonak gogor jotzen dituela azalertzeko metodologia honek duen gaitasunean ipini behar da arreta, prozesuaren erdigunean pertsonak daudela ahaztu gabe (Vidal 2009). Gainera, elkarrizketa kualitatiboa gizarte bazterkeriaren egungo ezagutza hobetzeko aproposa da; fenomeno honen multidimentsionalitatearekin guztiz bateragarria izateaz gain harremanen esparrua oinarritzko dimentsioetako bat dela onartzen delako (Alfama, Obradors 2005), (Subirats 2006).

Gure elkarrizketatuek etengabe aditzera eman duten moduan, PGDIren emaitza hauek agerian utzi dute gutxieneko errenta sistemen beharrezkotasuna. Prestaziorik ezean biziko luketen larritasuna adierazi dute hamaika era desberdinetan, etsipen tonu markatu batekin sarritan. Kasu batzuetan galdera era esplizituan egin bada ere, esan beharra dago gehienetan naturaltasun osoz jardun direla prestazioaren beharrezkotasunaz, elkarrizketatzailearen inongo galderari erantzun gabe.

Krisialdia bidegurutzean

Ikerketa lan honen gauzatze prozesuak bete-betean egin du bat krisialdiarekin eta ildo horretatik bereziki erabakigarriak diren bi une nabarmendu nahi dira. Hasteko, kontuan hartu behar da elkarrizketa kualitatiboak 2011ko udazkenean burutu zirela, krisia abiatu eta biziagotzen ari zen garaian. Hain zuzen ere, udazken horretan bertan erabaki zuen Eusko Jaularitzak gizarte prestazioak %7an gutxitzea. Landa ikerketa beraz, DBEren aldeko defentsan mobilizazioak indartsu zeuden testuinguruan eraman zen aurrera.

Elkarrizketetan zehar krisiaren aipamenak egon izan badira ere, ez dute gure lagunek bereziki azaltzen krisiak nola kolpatu dituen. Izan ere, pertsona hauek izan ditzaketen oztopo eta gabeziak krisiaren aurretikoak dira eta krisia zaurgarritasun egoeraren kausa baino, hauskortasuna indartu duen faktorea izan da.

Bigarren une esanguratsua ondorioen azken atal honen idazketa prozesua izan da, izan

Ondorioak

ere, Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkestaren (PGDI) kaleratzearekin bat egin duelako. Eusko Jaurlaritzak 80ko hamarkadaz geroztik argitaratzen duen lan estatistiko mardul honen garrantzia eztabaida ezina da. Bertan pobrezia-lerro desberdinak ikasi eta ebaluatzen dira, pobrezia EAEn duen eragina baloratzen da eta gizarte desberdintasunarekin lotuta dauden adierazleak eskuratzen dira.

Argitalpen hau bi zentzutan zaigu probetxugarri. Batetik, gure ikerketaren ondorioak testuinguru egokian kokatzeko balio digulako eta krisiak pertsona eta familiengan izan dituen eraginak baloratzeko lagungarri delako. Bestetik, gure ikerketaren izaera kualitatiboa osatzeko euskarri sendo gisa aurkezten zaigu. Horregatik guztiagatik, PGDI inkesta hizpide dugu hurrengo tarte honetan.

Diru-sarrera gutxiegitasunarekin lotuta, prekarietatean eta pobrezia arriskuan dauden pertsonen hazkunde bizia izan da inkestaren emaitza nagusietako bat. Izan ere, gero eta gehiago dira ohiko beharriaz eta gastuei aurre egiteko oztopoak dituzten familiak. Zehazki %24,5aren gailurra jo du egoera honetan bizi den biztanleriaren portzentajeak. Igoera latza eta esponentziala dela esan dezakegu, kontuan hartzen badugu 1996-2008 epealdian zehar tasa honek ez zuela %13,1 gainditu. Era berean krisiak akuilatuta, *Ongizate gabezia* bizi diren familien egoerak okerrera egin du⁸⁹: 2008-2012 bitartean, biztanleriaren %16,4 izatetik 19,9 izatera pasatu da.

Inkestari zuku gehiago ateraz gero, datu xeheagoetan ere suma daiteke krisiaren eragina. Esate baterako, EAEn arrazoi ekonomikoak bultzatuta bigarren eskuko arropak erostera behartuta dagoen biztanleria ia bikoiztu egin da, 2008-2012 epealdian %3,7tik %7,1ra igaro dela kontuan hartuta. Denbora tarte berean antzerako bilakaera izan du uneren batean gosea sentitu duten pertsonen kopuruak; 21000 pertsona izatetik 46000 izatera heldu da. Guzti hauek oinarri-oinarrizko beharriaz dira eta datuak behatzera pausatuz gero, izutzeko moduko emaitzak direla konturatuko gara.

Estatuko beste lurraldeekin alderatuz, EAeko -eta Nafarroako- egoera erlatiboki hobea dela erakusten digu beste inkesta batek, Bizi Baldintzen Inkestak (INE 2012) hain zuzen. Esaterako, Espainiar estatuan ustekabeko gastuei aurre egiteko oztopoak dituen

⁸⁹ Indize honek, gizarte jakin baterako estimatzen den gutxieneko ongizate mailara iristeko diru-sarrera nahikoarik ez duen biztanleria neurtzen du.

5. Kapituluia

biztanleria %40ra iritsi den bitartean, EAE eta Nafarroan ez du tasa horrek %20 gainditu⁹⁰. Pobrezia-arrisku tasari erreparatzen badiogu pareko desberdintasunak ikusiko ditugu; izan ere Nafarroa (%8,8) eta EAE (%10,8) baitira, Asturiasekin batera posturik abantailatsuenak eskuratzen dituztenak. Beste muturrean %25-33 tarteko pobrezia-tasak eskuratzen dituzten autonomiak ditugu -Kanariar uharteak, Andaluzia eta Extremadura beste batzuen artean-. Tarteko posizioan berriz, %16an bueltan dabilzan erkidegoak dauzkagu -Madril eta Katalunia-, estatuko batezbestekoaren azpitik (%21,8). Aurrerago lan merkatuarekin lotutako zenbait adierazle behatzerakoan, ohartuko gara lurralde arteko desberdintasun hauek ez direla kasualitate hutsa, izan ere eredu parekotasun askorekin errepikatzen baita.

Ez gaitzen bada, informazio-saltsa honekin larregi nahastu eta profita gaitzen hausnarketa egiteko. Lehenik eta behin, goiko paragrafoetan zerrendaratutako datuetako askok pobrezia-ekin lotutako egoera gordin eta espezifikoa erakusten dituzte. Arropak erosteko mugak izatea, gosea pasatzea, etxeko gastuak ordaintzeko atzerapenak izatea eta ustekabeko gastuei aurre egiteko ezintasuna neurtu dira txostenean eta batez ere krisiaren krudeltasuna bistaratzen dituzten egoerak dira.

Gure protagonistek halako estualdiei egin izan diete erreferentzia haien egunerokotasuna deskribatu dutenean. Etxearen aseguru ordaintzeko, zenbait elikagai edota arropa berriak erosteko, garraio publikoan ibiltzeko eta dentistarenera joateko dituzten zailtasunen berri eman digute, ez krisiak nola eragiten dien erakusteko, baizik eta aurreragotik ere bizi duten zaugarritasun egoera azpimarratzeko.

Krisia pertsona eta familia asko kolpatzen ari da eta Espainiar estatuarekin alderatuta gurean egoera hobea izan arren, kontsolamendua ustela da. Izan ere txosten honek ekarri dizkigun datuak ez dira pozteko modukoak. Zalantzarik gabe, Espainiar estatuko gutxieneko errenta politika eskuzabalenak izateak (Moreno Fernandez 2003) bere zeresana izango du diferentzial hori azaltzerako orduan. Edozein kasutan, krisi garaian nahiz oparoaldian, DBEren gisako prestazioen garrantzia berebizikoa da eta halaxe goraiapaten du PGDIk, gutxieneko errenta sistemek pobrezia tasa murrizteko duten

⁹⁰ EAEn kasuan %18,2 eta %20 Nafarroarentzat (INE 2012).

indarra datu estatistiko bidez azaltzen duenean.

Honenbestez, pobreziaren eta bazterkeriaren aurkako borrokan gutxieneko errenta sistemak garatzea hain garrantzitsua bada eta gurea estatuko aurrerakoienetako baldin bada, ahalmen hori gisa honetako politikak bermatu eta hedatzeko baliatzea otutzen zaigu. Gizartean badaude -edo beharko lukete egon- gaindiezinak diren marra-gorri batzuk. Gure artean orain arte behintzat pentsio-sistemaren nolabaiteko *ukiezintasuna* sano barneratuta egon den arren sistema bera mehatxupean dago murrizketak direla eta. Bestetik 2011ko azaroan Enplegu eta Gizarte Gaien sailak DBE prestazioaren %7ko murrizketa ezarri zuen 2012ko aurrekontuei begira. Zenbait muga zeharkatzea onartezina da, zer esanik ez, geroz eta familia gehiago pobrezia eta gizarte bazterkeria arriskuan erortzen ari den krisi garai honetan.

5.2) Galderei erantzuteko lerro nagusiak

Behin marko teorikoaren ardatzak gogoratu eta testuinguruan lurra hartuz gero, ikerketako emaitzen lerro nagusiak azaltzeko moduan gaude. Lan honen xede nagusia, bizitza kontakizunei entzunaz gizarte bazterkeriaren ibilbideak nola profilatzen diren arakatzea izan da. Elkarrizketatutako hemezortzi bidaideen ibilbideak izan dira zalantzarik gabe ikerketa lan honen aberastasuna eta horixe izan da elkarrizketa kualitatiboak, tresna metodologiko gisa, ikerketara egin duen ekarpen printzipala.

Zentzu horretan helburu nagusiarekin bete egin dela esan genezake, elkarrizketa guzti hauetatik jasotako kontakizun eta bizipen sorta zinez emankorra izan delako. Elkarrizketatuen aitortzak izan dira ikerketaren emari garrantzitsuenetako bat, eta era berean, haien testigantzak izan dira ikerketa honen aberastasunaren lekuko nagusia.

Aniztasun guzti horren ustiaketa laugarren kapituluan burutu da. Bazterkeriak har ditzakeen itxura anitzak behatu ditugu gure protagonisten narrazioei helduz eta hartara, kapitulu horretan bertan mamitzen dira lan honen emaitza mardulenak. Oraingo honetan, oparotasun horretatik abiatuz ikerketaren ondorioen lerro nagusiak batu nahi dira.

5. Kapitulu

Bazterkeriaren esparru ekonomikoari dagokionez, bizpahiru ondorio azpimarratu gura dira. Lehenik eta behin, bizipen pertsonal hauek guztiak orokortuz anibalentzia puntu bat duen emaitza jazo da: prestazioaren gutxiegitasuna ageri-agerian uztearekin batera, DBEren berebizikotasuna eta beharrezkotasuna nabarmendu dute behin eta berriro prestazioaren onuradunek. Hots, esparru ekonomikoan bizi dituzten estualdiak agertzen dituzte eta era berean, diru-laguntza honek egoera are gordinagoan bizitzetik ateratzen dituela onartzen dute.

Azken batean, dialektika hauxe bera lan honen izenburuan eta hipotesian bertan iradoki dira, prestazioaren onuradunak, zaugarritasun bideetan balantzaka bizi direla esatean. DBE prestazioak sostengu gisa balio diela bai, baina era berean, ez diela hauskortasun egoeratik irtetea ahalbidetzen.

Bestetik, baliabide ekonomiko gutxirekin bizitzeaz gain, hauskortasun egoerak berarekin dakartzan sentimendu anitzak ere zaugarritasun parte banaezina direla ikusi dugu: hilabete bukaerara ezin iristeko beldurra, prestazioa bera galtzeko izua e.a. Horrek guztiak ekar ditzakeen narriadura emozionala, frustrazioa, ziurgabetasuna, itomena eta zoramen sentimendua zaugarritasunaren alderdi garrantzitsua dira eta sentimendu hauek gainontzeko esparruetara ere hedatzen dira. Azken batean, pobrezia ekonomikoak eragindako narriadura emozional horrek, beste esparru horiek urratu ditzake, harreman pertsonaletan eta osasuna bera kaltetzeraino.

Honekin lotuta, orokortu ditzagun etxebizitzaren esparruaren inguruan bildu diren emaitzak. Diru-sarreraren proportzio handiena etxebizitza gastuak estaltzera bideratzen dela aintzat hartuta, argi geratu da, etxebizitza esparruko beharrianak asetzeko moduaren arabera guztiz baldintzatuta geratzen dela bizikidetzaren unitate bakoitzak daukan aurrekontua.

Kasuistika zabala bildu dugun arren, bi zertzelada nagusitan orokortu dira etxebizitzaren esparruan izandako ondorioak. Elkarrizketatuen artean, gehien-gehienek laguntza edo babes iturri ezberdinak konbinatzen dituzte etxebizitza gastuak estali ahal izateko. Hartara, familia esparrutik, elkarrean mundutik edota administrazio publikotik –alokairu sozialak edota EPOa- datozkien laguntza gehigarrietara jo beharra dute. Era

berean, bizikidetzaren unitatea pertsona bakarrekoa den kasurik gehienetan, etxebizitza beste pertsona batzuekin elkarbanatzea, beste aukerarik ez dute. Bestetik, ekonomia esparruan azpimarratu dugun ziurgabetasun sentimendua, etxebizitzaren esparruan ere oso presente dagoela antzeman da.

Puntu honetan, ikerketaren atal teorikoan jorratu dugun Nussabaumen Gaitasunen Ikuspegiarekin lotura interesgarri bat egin genezake. *Segurtasuna* filosofoak proposaturiko zerrendako gaitasunetako bat da. Zenbait elkarrizketatuen artean esparru ekonomikoan eta etxebizitzaren eremuan sumatutako *segurtasun* gabeziak, beraz, oinarrizko gaitasun baten hutsegitea utzi du agerian. Are gehiago, emaitza honek Wolff eta De-Shalitek dakarkiguten *Gaitasunaren Segurtasun* ideia garrantzia indartzen du. Hots, unean uneko gaitasunak etorkizunean ere bermatuta egongo direla jakiteak ematen duen segurtasuna, berebiziko garrantzia duen elementua da. Honenbestez, segurtasun gabeziarekin eta beldurrarekin lotuta aipatu ditugun sentimenduek gizarte bazterkeria itxuratzerako orduan duten pisua baieztatzen da.

Gizarte bazterkeriaren ibilbideak bi ikusmoldetatik landu dira laugarren kapituluaren zehar. Batetik, gizarte bazterkeria perfilatzen duten esparru desberdinen ikuspegitik eta bestetik, protagonistetako bakoitzaren ibilbidea esparru desberdinetan kokatuz. Hartara, bi analisi ikuspegiak era osagarrian bateratuz, ikerketaren helburu nagusiari lotu gataizkio eta zaugarritasun istorioen itxuran sakondu egin da.

Barrentze lan horretan, ekonomia eta etxebizitza esparruez gain lan merkatuari ere berebiziko arreta eskaini zaio. Bertan jazotako emaitza nagusiak laburtze aldera, ondorio orokor nagusi bat berreskura genezake. Lan merkatuan posizio, egoera eta ibilbide zeharo desberdinak dituzten pertsonekin egin dugu topo. Mutur batean lan merkatutik erabat deslotuta eta urrunduta daudenak ezagutu ditugu, etorkizunera begira ere, enplegu bat aurkitzeko oztopo nabariak bizi dituztenak. Hau da, lan merkatutik urteetan aldentuta egon diren pertsonak.

Beste muturrean lan merkatuarekin harremana izanik ere, baldintza oso prekarioetan mugitzen direnak ezagutu ditugu: langabezia eta aldizkako lanak bata bestearen atzetik kateatzen dituztenak, seme-alaben zaintza eta enplegu bat bateragarri egiteko

5. Kapituluia

oztopoak dituztenak, adina eta genero arrazoiengatik haien prestakuntza mailarekin bat datorren lanpostu bat lortzeko trabak dituztenak, lanaldi osoko enplegu bat topatu ezinean dabilzanak e.a.

Egoera aniztasun honetatik pixka bat urrunduz, hurrengo ondoriozta genezake: lan merkatuarekin duten –edo ez duten- harremanak ez die gure elkarrizketatuei bazterkeria edota pobrezia egoeratik aldentzea ahalbidetzen. Kasu batzuetan, enplegu prekarioena sostengu, motibazio, pizgarri eta diru-iturri gehigarri garrantzitsu izan daitekeela sumatu dugun arren, ez du enplegu horrek nahikoa berme eta segurtasun eskaintzen. Azken finean, DBE lan merkatuan txertatzeko jarrerarekin lotuta dagoen eskubidea izanik, kolokan geratzen da erabat enpleguari atxikitzen zaion gizarteratzeko funtzioa. Era berean, enpleguaren zentraltasun horrek frustrazio sentimenduak eragin ditzakeela egiaztatu da.

Xede nagusiari heltzearekin batera, sarreran agertu diren hiru ikerketa-galderen inguruan ere emaitza interesgarriak bildu dira aurreko kapituluan. Ikerketa galdera horiek ardatz gisa harturik, ondorio nagusiak laburtu gura dira jarraian.

Lehenik eta behin, zaugarritasun ibilbideetan *hausturek* eta une esanguratsuek izan dezaketen eragina aztertu da aparteko atal batean. Honi dagokionez, emaitzarik interesgarrienek lanaren hasieran genuen ikusmoldea birplanteatzeko balio izan digute. Zehazki, subjektu bakoitzaren bizitza ibilbidean delako *hausturek* utzi dezaketen arrastoari buruz gogoeta egitean, hasiera-hasieratik planteamendua irekia izan den arren, ikuspegia are gehiago zabaltzera eraman gaitu ikerketak.

Batetik, *haustura* hauek norbanakoarentzat duten esanahiaren garrantzia azpimarratu izan dugu. Esangura horren eraikuntzan, *haustura* hori ikusteko bakoitzak duen modua berebizikoa da, eta horretan, erabilitako terminologiak daukan garrantziaz konturatu gara. Ez zaio *haustura* hitzari konnotazio ezkorrik eman nahi izan gure planteamenduan, baina zenbait elkarrizketatuk zer pentsatua eman digute eta horrek, *haustura* terminoarekin batera beste adierazpide batzuk erabiltzeko aukera ireki digu. Hala, *lotura-puntu*, *berreskuratze-puntu*, eta *aukera-une* terminoen erabilera txertatzea proposatzen da.

Ondorioak

Haustura, une esanguratsu, aukera uneak bizitzako esparru anitzetan utzi dezakete arrastoa. Dena den, batzuetan posible da une esanguratsu jakin bat bizitzako esparru jakin batekin erlazionatzea. Familia esparruan bizitako aldaketak –bikote-hausturak, haserrealdiak, urruntzeak, seme-alabak izatea- oso era desberdinetan bizi izan dituzte gure elkarrizketatuek, baina gizarte bazterkeria egoera larrienak bizi dituzten pertsonen artean, emaitza bat orokortu genezake. Izan ere, bazterkeria latzenean bizi direnen artean, guztiek izan dituzte haustura esanguratsuak familiaren esparruan.

Honek bigarren ikerketa-galderari buruzko ondorio nagusiak aipatzera garamatza, hain zuzen ere, lan hau gidatu duen beste ikerketa galdera, familia esparruarekin lotuta dago eta. Xedea, zaugarritasun ibilbideetan familia esparruak joka dezakeen papera arakatzea izan da, bazterkeria egoerak leundu edo biziagotzeko familia esparruak izan dezakeen gaitasuna aztertzea. Kontu hau era zabalean landu da atal analitikoan zehar, baina arreta bereziaz jorratu da 4.5.3. eta 4.5.4. azpiataletan.

Era oso xehean jardun dugu baliabide ekonomikoekin estali ezin diren beharrianak familia esparruaren laguntzari esker zelan asetzen diren aztertzen. Babes horrek har ditzakeen itxura anitzak miatu ditugu, eta kasu askotan, familia ondoan dagoela jakite hutsak ematen duen bermea, ziurgabetasun sentimendua leuntzen duen faktorea dela sumatu da. Alderantziz, esparru hori ez dagoen kasuetan edo huts egiten duenetan, berme horren faltak ziurgabetasun sentimendua areagotu egiten du. Hau da, beste behin ere familiak eman dezakeen sostengu finantzario eta emozionalaz gain, segurtasun-segurtasun gabezia, bakardade eta laguntasun sentimenduak indar eztabidaezina duten faktoreak dira, zaugarritasun ibilbideen parte direnak.

Hirugarren ikerketa-galderak DBEren onuradunek prestazioaren beraren inguruan duten ezagutza mailari buruz gogoeta egitera zuzendu gaitu. Landa lanean zehar ere, subjektuak prestazioa jasotzea berari dagokion eskubidea dela barneratuta duen ala ez aintzat hartu beharreko elementua dela egiaztatu ahal izan da, eta honen harira kontraesan oso interesgarriekin egin da topo. Norberak prestazioari buruz duen jabekuntza maila eta iritzia, ingurukoek izan ditzaketen jarrerekin borrokan sartzen denean, kontrajarriak izan daitezkeen sentimenduak pizten dira. Eskubidearen ezagutza eta barneratzea prozesu indibidual eta kolektibo baten emaitza da, norbere auto-

5. Kapituluia

estimuan eta gizartean pairatzen duen estigmatizazioan zeresan handia duena.

Honenbestez, azpiatal honetan ikerketaren helburu eta ikerketa galderekin lotutako ondorio nagusiak agertu dira era laburtuan. Ikerketaren aberastasuna laugarren kapituluian zehar hezurmamitu da eta bertan azaldu dira emaitza oparoenak. Sintesi atal honek ostera, ondorioen lerro nagusiak markatzea ahalbidetu digu eta bidenabar, jarraian emaitza zehatzago batzuk plazaratzeko aukera eman digu.

5.3) Bi dinamika ondo-ondoan

Ikerketaren ondorio nagusiak aurkeztu ondoren ikerketa lanean zehar ehundutako hari-mutur nagusiak lotu nahi dira, eta bide batez emaitza adierazgarrienak begi-kolpe batean ikustarazi. Azterketaren erdigunean DBE prestazioaren onuradunak izan ditugu aldi oro eta beraz, ezin ahantz dezakegu prozesu osoan zehar *subjektua* izan dela gure protagonista nagusia. Horixe izan da hain zuzen ere lan honen aberasgarritasun nagusia: hamazortzi pertsona ezberdini boza eman eta haien narrazioei arretaz jarraitzea.

Segidan datozen irudiek burututako elkarrizketa kualitatibo guztien artean antzeman diren bi dinamika nagusi laburbiltzen dituzte. Honen helburua ez da hamazortzi begirada ezberdinek eman digutena bi multzotara murriztea, inolaz ere. Ezta gure protagonistak talde edota kolektibo itxietan barneratuz emaitzak sinplifikatzea ere, ariketa antzua bailitzateke hori.

Ikerketaren helburu nagusiari jarraiki, lanean zehar gizarte bazterkeriari eta bazterkeriaren ibilbideei forma ematen dioten esparru anitz aztertu ditugu, baita faktore hauek pertsona bakoitzaren kasuan elkarren artean nola jokatzen duten ere. Beste elementu askoren artean bizitza kontakizunetan izandako hausturak landu ditugu, lan merkatuarekin duten harremana, inguruan izan dezaketen familia eta lagun sarearen garrantzia, prestazioaren inguruan daukaten ezagutza maila, etxebizitza beharrianak nola asetzen diren e.a. Jakina narrazio bakoitza apartekoa eta errepikaezina dena, baina nolana ere singularitasun horri uko egin gabe, gizarte bazterkeria

Itxuratzen duten faktoreen arteko konfigurazioan hein batean errepikatzen diren bi eredu identifikatu dira gure laginean. Edo doiago izateko, *eredu* esan ordez, faktoreen arteko joko-dinamikaz arituko gara.

Hau da, bazterkeria faktoreak eta esparruak elkarren artean kateatu eta endredatzeko dauzkaten era amaigabeen artean bi jokabide edo profil nagusi nabarmendu dira. Faktore hauek bata bestearen artean konbinatu eta metatzeko dauzkaten joera-dinamikak dira beraz islatu nahi direnak eta ez prestazioaren onuradunen profilak.


Ekonomia bezalako zientzia baten baitan ere, ikerketa kualitatiboak teoria berreraikitzeke ematen duen aukera defendatu da atal metodologikoan. Halaxe, elkarrizketa sorta honek emandakoaz elikatu gara gizarte bazterkeria itxuratzen duten zenbait faktore eta eremuren arteko portaera-ereduak eraikitzeke.

Aldi berean, proposatutako eredu bakoitzean gure protagonistetako batzuen izenak ere txertatu dira. Patroi hauetara egokitzen diren bizitza ibilbideak dituzten heinean, eredu hauen funtzionamenduaren ulermena errazten du buruan kontakizun jakin baten ideia edukitzeak. Hau da, kasu zehatzetatik abiatuta eredu orokorrago bat eraiki da eta ostean eraikuntza orokorretik jazoera konkretuetara salto egiten dugu atzera, armazoi orokor hori hobeto konprenitzeko.

Ikerketaren xede nagusia, pobrezia ekonomikoa eta gizarte bazterkeria nola perfilatzen diren ikastea izan dela gogoan izanik eta elkarrizketa kualitatiboak teoria berritzeko ematen digun egokiera profitatuz, jarraian aurkeztuko diren bazterkeria-faktoreen arteko joko-dinamikek emaitza biziki interesgarriak jaurtitzen dituzte.

Lehen multzoa Aitor, Begoña, Lorea, Itsaso eta Amaiaren narrazioetan behatuko dinamikekin dator bat (24. Irudia). Kontakizun hauek guztiak ez dira erabat paraleloak baina modu zabalean parekotasun nabariak dituzte.

Hasteko DBEren gainean ezagutza nahiko zabala erakutsi dute eta eskubidearen defentsa irmoa egiteaz gain, HOE unibertsalarekin lotutako nozio batzuk ere badauzkate. Neurri apalagoan nahiz sutsuki, hiritar orori zuzendutako prestazioaren alde egiten dute, mugimendu sozial eta politikoetan murgilduen daudenek bereziki.

24. Irudia: Bazterkeria faktoreen arteko joko-dinamika I

Iturria: elkarrizketa kualitatiboetatik abiatuta, norberak eginda.

Eskubidearen inguruko ezaguera izateak, ez du berak bakarrik inplikatzeko pertsona hauek bazterkeria egoeratik libratzen direnik, ezta erosoago biziko direnik ere. Nahiz eta prestazioaren gaineko kontzientzia handia izan dezaketen, norbere baitan sortzen diren kontraesanen eta estigmatizazioaren aurka borroka egin beharra dago. Baina zalantzarik gabe abantaila garrantzitsua da, hauskortasun egoeraren barruan sostengu sendoa, eta auto-estimua indartzen laguntzen duena.

Harremanen esparruari dagokionez ingurune aski egonkor eta aproposa dutela erakutsi digute. Bakoitzak bere errezeta propioarekin, baina senide eta adiskide-sareekin hartu-eman jariotsua gordetzen dute. Iraganean eta gaur egun ere haien aldetiko babesa jaso izan dute; dela era iraunkorrean, dela une puntualetan zailtasunen bati aurre egiteko.

Horretaz gain, harreman sare horien inguruan eta gizarteko beste espazio batzuetan ere parte hartzen dute gehienek, maila desberdinetan bada ere: dela ikasten jarraitzen dutelako, eskolako gurasoen elkartean daudelako, edota gizarte mugimendu eta elkarteetan partaidetza aktiboa dutelako.

Ondorioak

Gainontzeko elkarrizketatuen aldean ezin esan daiteke egoera ekonomiko oparoagoa dutenik eta besteek bezala estualdi uneak bizi dituzte: zailtasunak dituzte hilabete bukaerara iristeko, etxebizitza gastuak estaltzeko eta ustekabeko egoerei edota aparteko gastuei aurre egiteko. Argi geratu da prestaziotik jasotzen dutenarekin nekez ase ditzaketela oinarrizko beharrianak ere, baina beste lagunekin parekatuz, harremanen esparruan daukaten *aterpeak* babes handia ematen die bai beharrian materialak zein emozionalak betetzeko ere.

Familia eta lagunek emandako laguntza honek badauka garrantzi gehigarria beste bi zentzutan ere. Hasteko, inguruan sare-babesle bat dagoela jakite hutsak sentiaraz dezakeen bermea daukagu. Horrekin batera, sare hori bera gertu izateak muturreko beste egoera batzuetan senti daitekeen isolamendu eta bakardade egoeratik urrun dezake bat.

Honek elkarrizketatutako etorkinen inguruan gogoeta txiki bat egitera garamatza. Izan ere, atal honetan plazaratutako bi eruedetan ez dugu etorkinik barneratu, beraien ibilbideak ez baitira bazterkeria faktoreen joko-dinamika hauetara egokitzen. Azalpen posible bat hurrengoa litzateke: familia esparru hau fisikoki urrun edukitzeak sare-babesle horren hutsunea dakar berarekin, jatorrian elkartasun harreman sendoak egon daitezkeen arren.

Bestalde, harremanen esparrura itzuliz, kontuan hartu behar da norberaren autonomiarengatiko premiak eta desioak aurrez aurre egiten dutela talka familia esparruarekiko sor daitekeen menpekotasun harremanarekin. Autonomia hori muturreraino garatu ezinak kontraesan eta frustrazio sentrazioak ekar ditzake berarekin, eta egokiera hori zaugarritasunaren parte ukalezina da.

Era berean lan merkatuarekin daukaten erlazioa hauskorragoa erakusten digu grafikoak gezi bidez adierazten den lotura horren bitartez. Hau da, lan merkatuarekin harremana duten pertsonak diren arren, lotura hori ez da batere egonkorra; enplegu bat lortzeko oztopoak, bata bestearen atzetik kateatzen diren enplegu prekarioak, edota guraso bakarreko familien buru diren emakumeek izan ditzaketan traba gehigarriak dira ahultasun horren adibide.

5. Kapitulu

Ezgonkortasun hori kontuan izanik ere bereziko da nabarmentzea ez direla lan merkatutik erabat desmarkatuta dauden ibilbideak; iragan laburrean lanean aritu izan direlako, elkarrizketak egiteko unean lan bila ari zirelako, edota epe ertainean enplegu bat aurkitzeko esperantza zutelako.

Honenbestez grafikoan protagonisten ezizenen azpian agertzen diren hiru laukiek berauen itzala bailiran pertsona hauei ematen dieten euskarria irudikatzen dute. Prestazioa jasotzeko eskubidearen ezagutza, inguruko harreman sare sendoa eta familiak emandako babesak dira, bat eginda, gure lagunei nolabaiteko bultzada ematen dietenak. Laugarren euskarri gisa, lan merkatua markatzen da, baina aipatu dugun bezala eremu horrek emandako sostengua makalagoa da.

Sostengu horiek, halaber, gizartearekin daukaten loturaren ikur ere badira, eta zaurgarritasun egoeran bizi diren arren, ezin genezake esan gizartetik deserrotuta dauden pertsonak direnik.

Bigarren irudi honek elkarrizketetatik ondorioztatu dugun beste joko-dinamika adierazten du, bi eredu artean topa daitezkeen nolabaiteko asimetriak agerian utziz (25. Irudia). Ez dira elkarren artean kontrajarriak diren dinamikak baina azken batean, eredu batean pilare izan den elementu edo faktorea hutsune nabaria izan daiteke beste ereduaren. Batean egonkortzailea dena, ezgonkortasunaren sortzaile bilaka daiteke.

Lehenik eta behin aurreko modeloan euskarri gisa seinalatu ditugun faktoreek bestelako jokabidea erakutsi dute oraingoan. Grafikoki protagonisten itzal gisa irudikatu ditugu lehen, eta orain berriz, pertsona hauengandik urrunduta irudikatu dira, etendura puntuen bitartez lotuta. Zentzu honetan lehen sostengu zirenak, orain, pertsona hauek bizi diren gizartetik nolabait deslotzen dituzten elementuak dira; desmarkatu egiten dituztenak.


Elementu hauen artean hiru, lan honetako ikerketa-galdera nagusiekin era estuan lotuta daude; bai familia esparruak jokatzen duen rolaekin, bai hausturek bizitza ibilbideetan utz ditzaketen arrastoekin, eta baita eskubidearen ezagutzarekin ere.

Honenbestez, atal honetan proposatuko emaitzak zentzu bikoitz batean dira esanguratsuak. Batetik ikerketa xede nagusiari dagokionez, bazterkeria faktoreen

arteko joko-dinamika bi proposatzen direlako, eta bestetik, bi dinamika zehatz hauetan ikerketa-galderen inguruan lortutako emaitzek bere lekua propioa dutelako.

Bide batez, beste behin ere Gaitasunen Ikuspegiarekin lotura eginez Wolff eta De-Shalitek proposatzen dituzten *desabantaila korrosibo* eta *funtzionamendu emankorrek* paralelotasuna egin dezakegu bi eredu hauen arteko asimetriak azaltzeko. Hartara, *funtzionamendu emankorrek* beste zenbait gaitasun –edo bizitzaren esparru- garatu arazten lagun dezakete. Esaterako, I. joko-dinamikan harremanen sare garrantzitsuak eta prestazioaren ezagutzak jarduten duten bezala. Alderantziz, II. Joko-dinamika honetan drogamenpekotasun arazoek edota indarkeria pasarteek *desabantaila korrosibo* gisa jokatzten dute bizitzako beste esparru batzuk ere mugatzen dituzten heinean.

25. Irudia: Bazterkeria faktoreen arteko joko dinamika II



Iturria: elkarrizketa kualitatiboetatik abiatuta, norberak eginda.

5. Kapituluia

Irudian ikus daitekeenez, batetik prestazioaren inguruan duten ezagutza eta kontzientzia eskasa nabarmentzen da. Jakitun dira bai, diru-laguntza baten onuradun direla baina ez dute prestazioaren beraren izaera eta horren atzean dagoena ezagutzen. Aspektu horretan, beraz, ez daukate bizi duten errealitatearen berri eta horixe deslotura puntu bat bezala sumatu da.

Urteetan urratutako ibilbideak dira, bazterkeria faktore ezberdinak metatu dituztenak: alkoholismo arazoak, drogarekiko menpekotasuna, indarkeria pasarteak edota buruko osasun arazoak. Finean, haien zaugarritasuna biziagotzen duten bizipenak dira. Familia esparrutik eta lan merkatutik deserrotutako ibilbide urratuak dira, parte-hartze eta babes gune gisa hain garrantzitsuak diren bi espazio horietatik at geratzen direnak.

Ez dute luzaroan enplegurik izan eta etorkizunera begira ez dute haien burua lan merkatuan integratzeko gai ikusten; ez du zertan diagnostikatuta daukaten gaixotasun edo ezintasun batengatik izan behar, baina mundu horretatik deserrotuta sentitzen dira nolana ere. Enplegua zentrala den ikuspegi batetik, epe luzera ere *enpleagarritasun* txikia duten pertsonak direla esan genezake.

Emitza honi lehendabiziko joko-dinamika taulan lortutakoak gehitzen badizkiogu, enpleguak eta lan merkaturako insertzioak gure elkarrizketatuen artean jokatzen duen rola ondoriozta daiteke. Enpleagarritasun baxuko pertsonak; gizarte prestazioen onuradun kronifikatuak; seme-alabak zaindu eta aldi berean bateragarria den enplegu bat bilatzeko oztopoak dituztenak; enpleguren bat aurkitzekotan, aldizkako lan prekarioak eta langabezia tartekatzen dituztenak; den denak egoera asistentzialetik atera ezinean dauden pertsonak dira.

Ondorio bertsuak jazo ditu Mari Luz De la Calek ere Euskadiko Babes Politikaren egoera eta erronkak aztertzen dituen artikuluan (De la Cal 2012). Orotara daukagun emitza, zaugarritasun ekonomikotik irtetea ahalbidetzen ez duen eta lan merkatuari lotuta dagoen prestazioa litzateke.

Berrero ere bigarren irudira itzuliz, harremanen esparruan senideekin izandako urruntze garrantzitsuak adierazi dira bertan, kasu batzuetan sare horren erabateko absentzia punturaino iritsi diren hausturak, hain zuzen ere. Azken finean, gabezia horrek berekin

dakarrena zera da: familia esparruak eskaini dezakeen babesarekin kontatu ezina.

Irudian deslotura elementu gisa irudikatzen dira beraz lan merkatuarekin eta familiarekin duen harremana, eta baita prestazioaren inguruko ezagutza falta ere. Horrekin batera, euskarri edo elementu mugatzaile gisa beste hiru ezarri dira.

Lehen elementua, aipatuta dago honezkero: zaugarritasun egoeran luzaroan egon diren ibilbide hauetan faktore gehigarriak metatzen dira. Bestetik, familia ingurunearen absentsia hori betetzeko, hirugarren sektoreak joka dezakeen sostengu papera ere badugu. Babesgabetasun egoeratan elkarte eta gobernuz kanpoko erakundeek betetzen duten paper osagarria bi puntutan izan da erabakigarria aztertutako narrazioetan zehar. Bestela esanda, oinarri-oinarrizkoak diren bi beharriaren hornitzaile edo bermatzaile gisa antzeman dira elkarteak, prestazioa jaso ahal izateko eta etxebizitza beharriaren asetzeko sarbidea errazten duten heinean.

Elkarrizketatuek duten baliabide ekonomikoen gutxiegitasuna aztertu dugun momentuan etxebizitza gastuek daukaten protagonismoa azpimarratu dugu. Azken batean etxeko aurrekontuaren zatirik handiena baitagokio kontzeptu honi. Egoitza-etxebizitza IGOPEk jorratzen duen gizarte bazterkeria kontzeptuaren esparruetako bat da, eta Robeynsen zerrendan agertzen den gaitasunetako batekin estu lotuta dago, *Aterpea eta ingurunea* gaitasunarekin alegia.

Elkarrizketetan zehar behatu ahal izan dugun moduan, gure protagonistek nekez ase ditzakete etxebizitza gastuak inori laguntzarik eskatu gabe. Zehazki laugarren kapituluan aztertu dugu familia esparruaren laguntzara, elkartearen babesera edota EPO prestaziora jo beharra dutela alokairua ordaindu ahal izateko. Bigarren irudi honetan adierazitako bazterkeria faktoreen joko-dinamikan, hirugarren sektoreak etxebizitza gastuak estaltzeko orduan jokatzeko duen papera da hemen nabarmendu nahi duguna.

Azkenik, hirugarren elementu mugatzailea isolamendua bera da, bazterkeria faktoreen joko-dinamika honexetan zaugarritasun egoera hobeki islatzen duena. Oso jende gutxirekin erlazionatzen diren pertsonak direla ikusi ditugu; ez lagunekin, ezta ikastaroak eginez ere, ez gizarte mugimenduetan e.a. Bakardade sentimendu sakona erraietaraino barneratzen denean, edo are gehiago bakartze prozesuen gailurra jotzen

denean, bazterkeria errealitate are gordinagoa bilakatzen da.

5.4) Azken hausnarketa

Haientzat bazterkeria ekonomikoa eta soziala, elkarrekin doaz, baina, kuriosoa da gero, gizarte bazterkerian zaudenean nola uzten zaituzten bertan behera ...

(Aitor)

Gizarte bazterkeria kontzeptu jarraitua da, etenik gabekoa, *continuum* bat. Bizitza ibilbideei so eginez, zaurgarritasun kontakizunen konplexutasunarekin egin dugu topo bekoz beko. Narrazio hauek ere bete egiten dute jarraitasun ezaugarri hori, beti baitoaz aurrera. Aitzina joateak ez du derrigorrez esan nahi ibilbideek linealak izan behar dutenik. Izan ere, ez dago aurrera egiteko modu bakar bat; bide hauek itxura anitzak har ditzakete eta ikuspegi zikliko batetik ere azter litezke.

Bizi-lerro hauen norabidea aldakorra da, etengabe muda daiteke. Aldaketa hauetariko batzuk trantsizio edota inflexio puntu bat markatzen dutenean bereziki esanguratsuak izan daitezke norbanakoarentzat. Eta, norbere ikuspegiaren arabera, une horiek *haustura, aukera, edota berreskuratze puntu* gisa antzeman daitezke.

Burututako elkarrizketa guztien artean bizipen eta istorio zeharo ezberdinak bildu dira. Gizarte bazterkeria kontzeptu jarraitua izanik ere, pobrezia ekonomiko soilean bizi diren pertsonak izan ditugu alde batetik; baliabide ekonomiko urriak dauzkatenak. Bestetik, bazterkeria ekonomikoaz gain, bizitzaren beste esparru garrantzitsuetan ere bazterkeria larria pairatzen dituztenak ere ezagutu ditugu. Honenbestez, posible da jarraitasun honen barruan muturrekoak diren egoerak identifikatzea, nahiz eta haien artean muga zorrotzak ezartzea ia ezinezkoa den. Egoera batetik muturreko beste batera garamatzan bide horretan zein igarobide dauden, ez da erraza asmatzen.

Aitorren azken pasarte horrek gure gogoeta gidatzen laguntzen digu. Bazterkeria ekonomiko egoeratik gizarte bazterkeriara zerk amiltzen gaituen galdetzen diogu gure buruari. Edo alderantziz planteatuz gero, zer ote den pobrezian bizi den pertsona bat gizartean errotuta mantentzen duena.

Ondorioak

Gizarte bazterkeria eta ekonomikoaren artean dagoen irudizko jauzi horrek, bizitza ibilbideetan suma daitezkeen *haustura* uneekin zerikusirik izan dezakeela pentsarazten digu. Hots, zaugarritasunaren bideetan tartea markatzen dutenak *hausturak* direla iradokitzen ausartu gintezke.

Hautura hauen aldamenean, zenbait elkarrizketaturen mintzoan frustrazio eta porrot sentimendu arrastoak behatu dira. *Bizitza normal bat aurrera eramateko gaitasun eza. Familia aurrera ateratzeko ezintasuna.* Estigmatizazioaren zurrumbiloi prozesu indibidual eta kolektiboek egiten dute bat eta nahasmen horretan kontraesan ugari erna daitezke.

Era paralelo batean, antzerako hausnarketa egin daiteke porrotaren inguruan ere. Porrota egotekotan, argitu beharko litzateke zein punturaino zama dakioken norbanakoari eta zein neurritan den gizarteari berari edo administrazio publikoari leporatzeko zerbait. Nolanahi ere, ezin dezakegu pertsona bat bazterkeriara kondenatu hutsegite pertsonal ez kolektiboengatik ere. Zalantzarik gabe, tokian tokiko gobernuen erantzukizuna ere bada neurri handi batean, pobrezia eta bazterkeria bizi duten pertsonak albo batera ez uztea.

Gure protagonista guztiak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) titularrak izan dira, Gizarte Bazterkeriaren aurkako borrokaren markoan kokatzen den prestazio ekonomikoaren onuradunak, hain zuzen ere. Prestazio hau jaso ezean galdua leudekeela eman dute aditzera, modu zabalean. Hein handi batean diru-laguntza hau dela haien salbazioa. Kale gorritik, delinkuentzia mundutik, eromenetik edota bere buruaz beste egitetik libratzen dituenak.

Aldi berean baina, esparru ekonomikoan bizi duten zaugarritasuna helarazi dute. Ditutzen baliabide ekonomiko gutxiekin, oinarri-oinarrizko gastuak estaltzeko estualdiak pasa behar dituzte, eta zer esanik ez aparteko gastuak edota ustekabeak suertatzen direnean. Azken batean guzti horrek segurtasun falta sentimendu handia dakar berekin eta hauskortasun hori gizarte bazterkeriari datxekion alderdi ukalezina da. Edo bestela esanda, *gaitasunaren segurtasunaren* hutsunearen isla garbia.

Segurtasuna/segurtasun-eza eta bakardade sentipenak elkarren eskutik doaz oratuta,

5. Kapituluia

izan ere, ziurtasun-gabezia eta zaurgarritasuna indargetu baitaitezke ondoan sare bat edukiz gero. Harremanen esparruaz ari gara, familia inguruneaz bereziki. Familia ondoan daukatela jakite hutsak nolabaiteko lasaitasuna ematen dio elkarrizketatu askori. Hau da, egunerokotasunean edota une puntualagoetan familia eremuak eman diezaiekeen laguntzaz gain, nora jo badutela sentitzeak soilik dagoeneko haien hauskortasun egoera leuntzen du.

Puntu honetan saihestezina den funtsezko auzia azaleratzen zaigu: familiarekiko menpekotasunaren eta norbere autonomiaren artean sortzen den barne gatazka, alegia. Prestazioaren baldintza nagusietako bat bizikidetza-unitate propioa eratzea exijitzen duena da. Bestela esanda, era independentean eta aparteko etxebizitza batean bizi dela frogatu behar du batek. Zentzu honetan, familiarekiko nolabaiteko autonomia ezartzen da aurre-baldintza gisa.

Prestaziora jo baino, ahal izatekotan familiaren babesera jo lezake batek. Horrelako esaldiak sarri entzuten dira jendartean. Baina, non geratzen da norbanakoak bere autonomia propioa garatzeko izan dezakeen premia eta desioa? Autonomia oinarrizko gaitasuna da norbere eta giza garapena bermatzeko oinarrizko tresna. Zentzu honetan, *a priori* behintzat, DBE prestazioa autonomia pertsonala bultzatzen dezakeen neurri gisa ikus genezake.

Landa ikerketan zehar, bestetik, prestazioa jaso arren familiarekiko menpekotasuna bizi duten pertsonekin egin dugu topo. Prestaziotik jasotzen dituzten diru-sarrerak ez die denerako ematen eta oinarrizko beharrian asko ase ahal izateko, era batean edo bestean familiaren sostenguarekin kontatu beharra dute. Segurtasuna eta lasaitasuna ematen dien esparru bera, norbere autonomiaren garatze prozesuan galga bilaka daiteke. Kontraesan anitz sortzen dira testuinguru honetan, norberaren desioek, premiek, mugek eta errealitateek topo egiten duten bidegurutzean.

Pertsonok elkarren artean menpekoak gara eta gure menpekotasunei erantzunak emango dizkien zaintza behar dugu. Ez gara esaten ari familia esparruarekiko hartu-eman edota elkarmenpekotasuna desegokia denik, auzia norbere bidea egitea galarazten denean pizten dela baizik. Hartara, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak

sorgin-gurpil gisa joka dezake. Izan ere, *a priori* autonomia pertsonalaren pizgarri izan daitekeen prestazio bera, familia esparruarekiko menpekotasunaren indartzaile bilaka baitaiteke. Are gehiago prestazio ekonomiko honek beharrian materialak eta oinarritzkoenak estaltzeko ere ematen ez duenean eta elkarmenpekotasun afektiboari, menpekotasun ekonomikoa atxikitzen zaionean.

Aldi berean, eta motibo desberdinengatik familia-sareak berme eta laguntza hori ematen ez duen kasuetan, hirugarren sektoreko elkarleen rola nabarmendu egiten dela behatu da. Hau da, esparru domestikoak eskaini ezin duen babesgune funtzioa, nolabait elkarre, fundazio eta GKEek betetzen dute zenbait alorretan.

Hasteko prestazioari berari buruzko informazioa eta orientazioa bidera dezakete. Baina, hori gutxi balitz, bizikidetza-unitate propioaren baldintza bete ahal izateko etxebizitzarako sarbidea errazten egin ohi duten lana ukazina da. Haien kabuz etxebizitza edo logela bat alokatzeko oztopo larriak lituzketen pertsonak, elkarrekin kudeatutako pisu edo egoitzetan topatzen dute aterpea. Behin etxebizitza *independente* batean bizi direnez geroztik, DBEren eskatzaile izateko ateak irekitzen zaizkie. Kasu honetan, elkarrekin emandako laguntza nolabaiteko berme eta lasaitasun izateaz gain, autonomia ekonomikorako bidean akuilu garrantzitsua ere izan daiteke. Esan gabe doa, helduleku hau hil ala bizikoa izan daitekeela kale gorrian egon diren pertsonentzat.

Bistan da hortaz, harremanen eremua –familia- eta hirugarren sektorea –elkarre, fundazio eta GKEak- direla neurri handi batean prestazioaren onuradunen egoera orekatzen duten esparruak. Sostengu horiek ondoan izan eta hortxe daudela jakiteak, ziurgabetasun egoera baretzen du, maila apalean bada ere.

Bi gune hauen absentziak, eta batez ere familia esparru sendo baten gabeziak, zaugarritasunaren *continuum* horretan bazterkeriaren intentsitatea biziagotzen dute. Horretaz gain, gizarteko zenbait eremurekin izan daitekeen lotura faltekin bazterkeriaren irudi gordinenak erakusten dituzte. Parte-hartzerik eza, zaugarritasunaren funtsezko elementu definitzaileetako bat izanik, isolamendua eta bakardadea *continuum* horren azken muturren ezaugarri dira.

5. Kapituluia

Senide eta adiskide-sareen hutsegitea, lan merkatuan lekurik eza eta espazio publikoetan parte-hartze falta dira deserrotze horren irudietako batzuk. Isolamenduaren gaindia, aurreko guztiez gain aisialdiaren absentzia dagoenean gerta daiteke. *Aisialdia*, Ingrid Robeynsek proposatutako gaitasunen zerrendako elementuetako bat da. Egongo da aisialdia luxua dela uste duenik, baina berebiziko garrantzia du nork bere buruarekin –edo lagunduta- gustuko aktibitateak burutu ahal izateak. Badira gainera kostu ekonomiko txikia edota hutsa duten jarduera ugari, eta horiek praktikatzea arnasbide garrantzitsua izan daiteke.

RobeynSEN zerrendaratze horretako beste funtsezko osagai bat *Errespetua* da. Gure kasuan gainera, estigmatizazioarekin lotuta zer pentsatua ekarri digu errespetuaren kontu honek. Estigmatizazioa eta errespetua, biak ala biak kontzeptu eraikiak dira eta konfiguratzeko horretan, nork bere buruaz duen irudia eta gizartearen begirada elementu erabakigarriak dira alde batetik. Bestetik bakoitzak bere buruari dion errespetua eta gizartetik jaso dezakeena.

Bestetik, Robeynsek Mendebalde gizarteetarako proposatu zuen zerrenda horren helburuetako bat genero desberdintasunak ageriko egitea izanik, gure ikerketan ere genero aldagaia desberdintasun ardatz gisa jorratu da eta alderdi horretatik, bi ezberdintasun lerro nagusi adierazi ditugu. Batetik, seme-alaben zaintza bere gain duten emakumeek enplegu bat aurkitzeko bizi dituzten zailtasun gehigarriak izango genituzke. Horrek eremu ekonomikora dakartzan muga nabariez gain, esparru pertsonalean eragina izan dezake.

Bigarren desberdintasun lerro gisa, familia arduren gainzamarekin lotuta etor daitezkeen isolamendu eta bakardade sentipenak aipa genitzake, beste behin ere, emakumeak etxetik kanporako eszenatokitik urrunarazi ditzakeena. Bi desberdintasun lerro hauek elkarrekin jarduten dutenean, genero aldagaiak desberdintasun ardatz gisa jokatzen duen funtzioa biderkatu egiten da.

Elkarrizketatuen artean pobrezia ekonomikoan bizi diren pertsonak ezagutu ditugu eta baita gizarte bazterkeria egoeran bizi direnak ere. Prestazioak alderdi ekonomikoa hobetzen lagun diezaiekeen arren, landa ikerketak erakutsi digu beronen zenbatekoa

motz gelditzen dela oinarrizko gastuak estaltzeko ere. Zentzu askotan bizimodu duin bat izateko minimoez ari gara, autonomia ekonomikoa eta pertsonala landu eta garatu ahal izateko gutxienez.

Ilido honetatik, erakundeen eta tokian tokiko gobernuen ardura ere bada, prestazioaren onuradun diren pertsonen errespetua erakustea. Erantzukizun honen izaera ez da familia esparruaren edota hirugarren sektorearen ordezkatzaileraren izan behar, bere funtzio ez da subsidiaritate mugatu behar. Berebizikoa da balizko onuradun *a priori* eskatzen zaien autonomia hori sustatu eta bermatzea.

Ikerketan zehar erabilitako terminoak gure eginez, gaur egungo krisia DBE politiken ibilbidean *haustura* edota *aukera une* gisa uler daiteke, egoerari aurre egiteko aukeratutako neurrien arabera. 2012rako prestazioaren zenbatekoak %7an murriztu ziren eta 2011n aurrera eramandako erreformak prestaziora sarbidea izateko baldintzak zorrotz zituen. Besteak beste, erroldatze epea hiru urtera arte luzatzean, heldu berriak diren etorkinak kaltetzen dira zuzenean. Gisa honetako aldaketek, aurrezki ekonomikoa baino berez ahulagoa den kolektibo baten estigmatizazioa biziagotzen dute.

Era berean, azken erreformak lan merkatuan txertatzeko prestutasunari zentraltasun handiagoa eman dio. Baina, *prekarietatearen instituzionalizazioaren* garaian zer zentzu dauka enpleguari dagoeneko bermatu ezin duen funtzio bat esleitzea? Testuinguru honetan DBE prestazioaren onuradunak lan merkatura lotzerakoan, prekarietate eta pobrezia irteteko ahulago geratzeko arriskua handia da.

Gure protagonisten artean lan merkatuarekin harreman zeharo desberdinak dituzten kasuekin egin dugu topo. Zenbaitzuek ageriko oztopoak dituzte enplegu bat aurkitzeko eta enpleguen bat izatekotan, baldintza erabat prekarioetan moldatu beharra dute. Bestetik, begi-bistan geratu dira etxeko ardurak eta bereziki haurren zaintza enpleguarekin bateragarri egiteko dauden zailtasunak. Zentzu honetan, esan beharra dago emakumeak izan direla gai honen inguruan gehien hausnartu dutenak, eta aitzitik, guraso diren gizonezkoen artean, bateraezintasun hori baino langabezian egoteak dakarren frustrazioa azpimarratu izan da.

Era paraleloan lan merkatutik kanpoko aktibitateak burutzen dituztenak ere ezagutu

5. Kapituluia

ditugu; GKEtan murgilduta dabilen bat, mugimendu politikoetan buru-belarri sartuta dagoen besteren bat, seme-alabak heztera dedikatu gura duen emakume bat, edota ikasketa osagarriak egiten jarraitu nahi duen beste bat. Zentzu honetan, bene-benetako Hiritartasun Oinarrizko Errenta izan gabe, neurri batean behintzat *existentziarako eskubidea* garatzea ahalbidetzen duen gutxieneko errenta indartsu gisa joka dezake. Eta ikuspuntu honetatik, DBEk pertsonak *desmerkantilizatze*ko daukan gaitasuna positiboki baloratzen da.

Abagune honetan gizarte babeserako politikak eta DBEk jokatzen duten papera giltzarria dira. Etorkizunera begira enpleguari egokitu beharreko funtzioa, tentu handiz erabaki beharreko auzia da, gizartearen sektore handi bat pobrezia egoeran bizitzera kondenatu nahi ez bada.

Hein handi batean gaur egun bizi dugun krisia egiturazkoa bada, krisi ekonomikoa heldu aurretik krisi sozial bat ere bazegoelako da. Krisi hau aitzakiatzat hartuz erabakiak norabide batean edo bestean har daitezke, lehentasunen arabera. Defizitak kontrolatzeko agindu inposatuen atzean, ongizate erregimenen zutabe diren hezkuntza eta osasun arloak murrizten ari dira. Kontrako zentzuan, egoeraz baliatzea ere badago Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten politikak indartu eta garatzeko.

Orain arte EAEko prestazioa –Nafarroarekin batera- estatuko eskuzabalena izan bada, autogobernuak hala permititu duelako izan da. Eta aukera horretaz baliatu nahi izan delako. Aurrerantzean ere, nahi izanez gero, politika desberdinak diseinatzeko aukera hori muturreraino profita daiteke.

Batetik, moneta terminoetan prestazioaren zenbatekoa igotzeak gizarte bazterkeriaren esparru ekonomikoan berehalako hobekuntzak ekarriko lituzke, bai arlo materialean eta baita segurtasunaren arloan ere. Gizarte bazterkeriaren konplexutasuna aztertu dugun honetan, argi geratu zaigu esparru ekonomiko ez dela zaugarritasuna itxuratzen duen bakarra baina bai, berebiziko garrantzia handia duela. Latzagoa da egoera prestazioen onuradun gisa ibilbide kronikoagoa duten haientzat. Izan ere zaugarritasunak behin-behineko izaera izatetik bizitzeko era bat bilakatzen delako.

Ikerlanean zehar egiaztatu ahal izan dugu pertsona hauen ongizatean hirugarren

Ondorioak

sektoreak jokatzeko duten papera zinez erabakigarria dela. Administrazio publikoak DBEren prestazioaren erabiltzaileak «zenbaki» gisa hartu ohi dituen bitartean, elkarte eta GKEek aldetik tratua hurbilagoa izan ohi da. Izan ere, *erabiltzaileekin* baino *pertsonekin* dihardute.

Hirugarren sektorearen ekarpena bereziki garrantzitsua da familia esparruak huts egiten duen kasuetan edota eremu honek eman dezakeen babesa oso mugatua denean. Honenbestez, gobernu organoek eta gizarteak berak ere sektore honen lana onartu eta aintzatetsi beharra dauka. Ez hori bakarrik, etorkizunera begira ere, esparru hau indartzera bideratutako neurriak sendotzeko beharra planteatu liteke. Arriskua baina, gobernu eta elkartearen arteko erantzukizunaren banaketan datza: administrazio publikoek bere gain hartu beharreko ardurak ez dizkiote beste inori besterenganatu behar. Bestela esanda, hirugarren sektorearen funtzio osagarria eta ez ordezkagarria sustatu beharra dago.

Azken aldarriak aipatutako *errespetuari* men egiten dio. Hain zuzen ere, gobernu erakundeei ere badagokie balore honi ziztada ematea, komunikabideetan eta eskola esparruan garatu litezkeen kontzientziazio kanpainen bitartez. Errespetuarekin batera prestazioaren beraren inguruko ezagutza sustatzea funtsezkoa litzateke, izan ere, honezkero egiaztatu dugun moduan, estigmatizazioan eta gizarte bazterkeriaren itxuratzean zeresana duten elementuak baitira biak.

Bibliografia

ACOSTA, A. (2010): "El buen vivir, una utopía por (re)construir", Enfoques sobre bienestar y buen vivir, ECOS buletina, 11. Zkia, Apirila-Ekaina, Fuhem, Madril.

ADELANTADO, J. (Koord.) (2000): *Cambios en el estado de bienestar*, Icaria, Bartzelona.

ADELANTADO, J.; NOGUERA, J.; RAMBLA, X.; SAÉZ, L. (1999): "Las relaciones entre política social y estructura social", Revista Internacional de Sociología aldizkarian, 22. Zkia, Madril.

AIERDI X; MORENO, G et al. (2009): *Perfil y necesidades de las personas sin hogar en Bizkaia*, Bizkaiko Foru Aldundia.

ALFAMA, E. eta OBRADORS, A. (2005): *Los conceptos de inclusión social y exclusión*, IGOPEk Lan eta Gizarte Gaien Ministeritzarako 2006an egindako ikerketa baten atala, Institut de Govern i Polítiques Públiques (IGOP), Bartzelona.

ALKIRE, S. (2002): *Valuing Freedoms. Sen's Capability Approach and Poverty Reduction*, Oxford University Press, Oxford.

ARRIBA, A. eta MORENO, L. (2005): "Spain: poverty, social exclusion and safety nets". M. Ferrera (Ed.), *Fighting poverty and social exclusion in Southern Europeen, Dilemmas of organization and implementation*, Routledge, Londres.

ATKISON, R. (1998): *The Life Story Interview*, The Sage, Thousand Oaks, Kalifornia.

Bibliografía

BAUMAN, Z. (2009): *Tiempos Líquidos*, Tusquets, Barcelona.

BAUMAN, Z. (2001): *En busca de la política*, FCE, Buenos Aires.

BAUMAN, Z. (2000): *Trabajo, consumismo y nuevos pobres*, Editorial Gedisa, Barcelona.

BECK, U. (2002): *La sociedad del riesgo global*, Madrid Siglo XXI, Madrid.

BECKER, G. S. (1976): *The Economic Approach to Human Behavior*, University of Chicago Press, Chicago.

BECK-GERNSHEIM, E. (2003): *La reinención de la familia. En busca de nuevas formas de convivencia*, Paidós, Barcelona.

BENNEY, M.; HUGHES, E.C.; STARR, S. (1956): "Age and Sex in the Interview" *American Journal of Sociology* aldizkarian, 62. Zkia, 143-152 orr.

BLANCO, M. eta PACHECO E. (2003): *Trabajo y familia desde el enfoque del curso de vida: dos subcohortes de mujeres mexicanas*, Centro de Investigación y Estudios Avanzados de la Población de la Universidad del Estado de México Papeles de Población aldizkarian, 38. zkia, Urria-Abendua, 159-193 orr.

BOGDAN R. eta TAYLOR, S.T. (1975): *Introduction to qualitative research methods: a phenomenological approach to the social sciences*, John Wiley, New York.

Bibliografía

BRIGGS, C. (1986): *Learning how to ask.*, Cambridge University Press, Cambridge.

BRUGUÉ. Q.; GOMÀ, R.; SUBIRATS, J. (2002): “De la pobreza a la exclusión social”, *Revista Internacional de Sociología* aldizkarian, 33. zkia, 7-45 orr.

BRULLET, C. (2009) : “Les polítiques locals de suport a les famílies”, *Revista del Centre d’Estudis Jordi Pujol* aldizkarian, 9. zkia, 102-121 orr.

BUSILACCHI, G. (2008): “The different regimes of minimum income policies in the enlarged Europe”, Basic Income Earth Network Conference konferentzian, Dublin. Eskuragarri: <http://www.basicincome.org/bien/papers.html#2008>

CARRASCO, C. (2012): “Sistema kapitalistak etxeetako lanaren beharra du iraun ahal izateko” (Elkarrizketa), *Berría* egunkariko *Egitura* gehigarrian, 32. or. Eskuragarri: <http://www.economiccritica.net/?p=809>

CARRASCO, C. (2009): “Mujeres, sostenibilidad y deuda social”, *Revista de Educación* aldizkarian, 1. Zenbaki gehigarria, 169191 orr.

CARRASCO, C. (2006): “La economía feminista: una apuesta por otra economía”, VARA, M.J.ren *Estudios sobre género y economía* liburuan, Akal, Madril, 29-62 orr.

CARRASCO, C. (2003): “¿Conciliación? No, gracias. Hacia una nueva organización social”, AMOROS M.I.; BOSCH A. et al., *Malabaristas de la vida, Mujeres, tiempos y trabajos* liburuan, Icaria, Bartzelona.

Bibliografía

CARRASCO, C. (1997): "Mujeres, trabajo y políticas sociales en España", *Revista de Estudios Feministas* aldizkarian, 13. Zkia, 85104 orr.

CASASSAS, D. (2007): "Filosofía y política de la Renta Básica: la experiencia internacional", Primer seminario Internacional sobre el Ingreso Ciudadano Universal mintegian, Mexiko.

CASASSAS D. et al, (2001): *La renta básica en la era de las grandes desigualdades*, Montesinos, Bartzelona.

CASTEL, R. (2007): "Audelà du salariat ou en deçà de l'emploi? L'institutionnalisation du précarité", PAUGAM, S. (zuz.), *Repenser la solidarité. L'apport des sciences sociales*, PUF, Paris, 425-433 orr.

CASTEL, R. (2000): "The Roads to Disaffiliation: Insecure Work and Vulnerable Relationships", *International Journal of Urban and Regional Research* aldizkarian, 24(3) zkia, 519-535 orr.

CASTELLS, M. (2000): "El fin del patriarcado: movimientos sociales, familia y sexualidad en la era de la información", *La era de la Información III: El poder de la identidad*, Siglo XXI editores, Mexiko, 159-269 orr.

CHAYANOV, A. (1925): *La organización de la unidad doméstica campesina*, Ediciones Nueva Visión, Buenos Aires, 1974.

Bibliografia

COLE, G.D.H. (1929): *The next Ten Years: In British Social and Economic Policy*, 6, Routledge, Londres.

COMISIÓN DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS (1992): *Hacia una Europa de la solidaridad. Intensificación de la lucha contra la exclusión social y la promoción de la integración*, Bruselas. Eskuragarri dago, <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:1992:0542:FIN:ES:PDF>

COLLET, J. eta SUBIRATS, J. (2010): *Orientacions per al suport local al benestar familiar al llarg de la vida. Noves famílies, noves polítiques*, Diputació de Barcelona, Bartzelona.

CRESSEY, P.G. (1983): "Comparisson of the roles of the sociological stranger and the anonymous stranger in field research", *Urban Life* aldizkarian, 12. Zkia, 112-120 orr.

DE LA CAL, M.L. (2012): "Realidad y retos de la protección social en Euskadi", *Ekonomiaz* aldizkarian, 83. zkia, Abendua, 256-293 orr.

DE LA CAL, M.L. (2006): "Ongizatea eta gizarteratzea", EAeko Txosten Sozioekonomikoan, EUSTAT, 135-167 orr.

DE LA CAL, M.L. eta MORENO MARQUEZ, G. (2001): "La integración de la dimensión participación en el concepto de exclusión social. El caso vasco", REPSaren III Urteko biltzarra, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

DENZIN, N.K. (1970): *The Research act, A Theoretical Introduction to Sociological Methods*, Aldine, Chicago.

Bibliografia

DEVAULT, M.L. (1990): "Talking and listening from women's standpoint: Feminist strategies for interviewing and analysis", *Social Problems*, 37(1) zkia, 98-116 orr.

DOUGLAS, J.D. (1985): *Creative Interviewing*. Beverley Hills. Sage.

ELGA, (2011): "Doing Better for Families", *Ekonomia Lankidetzta eta Garapenerako Antolakundea*, Paris.

ELA sindikatua (2012); "Bulegoko 14. Buletina", Abendua.

ELDER, G.; MORTIMER, J.; SHANAHAN, M. (2006): *Handbook of the life course*, Springer, New York.

ELDER, G. et al. (2003): "The emergence and development of life course theory", MONTIMER eta SHANAHAN (ed), *Handbook of the life course*, Kluwer Academic Plenum Publishers, New York.

ELDER, G. (2002): "Historical times and lives: a journey through time and space", PHELPS, E.: *Looking at lives: american longitudinal studies of the 20th century*, Russell Sage, New York.

ELDER, G. (1998): "The life course as developmental theory", *Child Development*, 69(1) zkia, 112 orr.

ELDER, G. (1991) "Lives and Social Change", Heinz, W.; *Theoretical Advances in Life Course Research. Status Passages and the Life Course*, Weinheim: Deutscher Studien

Bibliografia

Verlag.

ELORRIETA, J. (2011): *Renovación sindical: mecanismos y procesos. Una aproximación a la trayectoria de ELA*, Zuzendaria: Mario Zubiaga, Doktoretza tesia, EHU-UPV.

ESPING-ANDERSEN, G. (2000): *Fundamentos sociales de las economías industriales*, Ariel, Bartzelona.

ESPING-ANDERSEN, G. (1990): *Three Worlds of Welfare Capitalism*, Cambridge, Polity Press, Cambridge. *Gaztelaniaz*, (1993): *Los tres mundos del Estado del Bienestar*”, Edicions Alfons el Magnánim IVEI, Valentzia.

EUSKO JAURLARITZA (2012): *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta*, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, Vitoria-Gasteiz.

EUSKO JAURLARITZA (2008): *Oinarrizko Errenta jasotzen duten pertsonen inguruko azterketa*, Eusko Jaurlaritzako Justiza, Lan eta Guzarte Segurantzza Saila, Vitoria-Gasteiz.

EUSTAT (2005): *Etterik ez duten pertsonen gaineko inkesta. Emaitzen analisia*, Euskal Estatistika Erakundea, VitoriaGasteiz. Eskuragarri : [http://eu.eustat.es/elementos/ele0003600/ti Etterik ez duten pertsonen gaineko inkesta Emaitzen analisia/inf0003600 e.pdf](http://eu.eustat.es/elementos/ele0003600/ti_Etterik_etz_duten_pertsonen_gaineko_inkesta_Emaitzen_analisia/inf0003600_e.pdf)

EUSTAT (2005): *Pertsonen eta Familien Errenta Estatistika. Estadística de Renta Personal y Familiar*, Euskal Estatistika Erakundea, VitoriaGasteiz. Eskuragarri: [http://www.eustat.es/elementos/ele0009800/ti Informe Socioeconomico de la CA de Euskadi 2012 Distribucion de la renta PDF 358KB/inf0009897 c.pdf](http://www.eustat.es/elementos/ele0009800/ti_Informe_Socioeconomico_de_la_CA_de_Euskadi_2012_Distribucion_de_la_renta_PDF_358KB/inf0009897_c.pdf)

Bibliografia

EUZEBY, C. (2007), "Les conditions de retour à l'emploi des chômeurs et des assistés », *Revue du Marché commun et de l'Union européenne* aldizkarian, 505 zkia, 109 or, Otsaila.

EZQUERRA, S.; ELORRIETA, A. et. al, (2011): *Famílies, exclusió social i disruptcions en els cicles de vida. Una mirada a les polítiques socials des de baix*, Diputació de Barcelona, Bartzelona.

FOESSA eta CARITAS (2012): *Exclusión y Desarrollo Social. Análisis y prespectivas 2012*, Foessa Fundazioa, Madril.

FOESSA (2008): *VI Informe sobre exclusión y desarrollo social en España*, FOESSA Fundazioa, Madril.

FOURIER, C. (1836): *La Fausse Industrie*, Anthropos, Paris.

FRIEDMAN, M. (1962): *Capitalism and Freedom*, University of Chicago Press, Chicago.

GARCÍA, J. (2012): *Reinvención de la exclusión social en tiempos de crisis*, Colección de Estudios bilduma, FOESSA Fundazioa eta Caritas Española, 35. zenb., Madril, 236 or.

GAZIER, B. (2005) : *Vers un nouveau modele social*, Flammarion, Paris.

GIDDENS, A. (2000): *Un mundo desbocado. Los efectos de la globalización en nuestras vidas*, Taurus, Madril.

Bibliografia

GLOTZ, P. (1992): *La izquierda tras el triunfo de Occidente*, Alfons el Magnànim, Valentzia.

GORDEN, R. (1987): *Interviewing. Strategy, techniques and tactics*, Dorsey Press, Illinois.

GORDEN, R. (1956): "Dimensions of the Depth Interview", *The American Journal of Interview* 62 aldizkarian, 2. Zenbakia, Iraila, 158-164 orr.

GUBRIUM, J. eta HOLSTEIN, J. (2002): *Handbook of interview research*, Sage, Londres.

GUBRIUM, J.F. eta HOLSTEIN, J.A. (1995) : "The Active Interview", *Qualitative Research Methods Series*, 37. zkia, Sage, Thousand Oaks, Kalifornia.

HAINBAT AUTORE, (2011): *DBEren erreformaren aurkako manifestua*, Urriaren 18koa. Eskuragarri: <http://ebookbrowse.com/comunicado-posicion-ante-rgi-euskara-181011-pdf-d250091504>

HARDY, J. P. (1997): "El modelo francés: Principios, Organización y Funcionamiento del RMI", *Revista de Servicios Sociales Zerbitzuan* aldizkarian 31. zkia, Donostia.

HERTZ, R. (1996): "Guarding against Women? Responses of Military Men and Their Wives to Gender Integration", *Journal of Contemporary Ethnography* aldizkarian, 25. zkia, 251-284 orr.

Bibliografía

HUSSON M. (2005): "Fin du travail et revenu universel", *Critique communiste* aldizkarian, 176. Zkia, Uztaila.

IBAÑEZ, J. (1979): *Más allá de la sociología. El grupo de discusión: técnica y crítica*, Siglo XXI, Madril.

IGLESIAS FERNANDEZ, J. (2001-2002): "Renta básica: el modelo fuerte como instrumento de transformación social", *El vuelo de ícaro Revista de derechos humanos* aldizkarian, 23 zkiak, 35-68 orr.

IGLESIAS FERNANDEZ, J. (2001): "La renta básica y los derechos humanos", *El vuelo de ícaro Revista de derechos humanos* aldizkarian, 1. zkia, 161-190 orr.

IMHOF, A. E. (1988): *Reife des Lebens: Gedanken eines Historikers zum längereren Dasein*, Bech, Munich.

INE (2012): Bizi Baldintzen Inkesta, Instituto Nacional de Estadística. Eskuragarri: <http://www.ine.es/prensa/np740.pdf>

JOHNSON, J. (2002;) "Indepth interviewing", GUBRIUM, J.F. eta HOLSTEIN, J.A. *Handbook of interview research*, Sage, Londres, 103-120 orr.

KATZ, C. (2005): *Tres concepciones del Ingreso Básico*, Rebelion. Eskuragarri: <http://www.rebelion.org/noticia.php?id=20382>

KORPI, W. (2000): "Faces of Inequality: Gender, Class, and Patterns of Inequalities in

Bibliografía

Diferent Types of Welfare States”, *Social Politics* aldizkarian 7(2) zkia, 127-191 orr.

KRIEDTE, P. et al (1977): *Industrialización, antes de industrialización*, Crítica, Bartzelona.

KUHN, T. (1970): *The Structure of Scientific Revolutions*, University of Chicago Press, Chicago.

KVALE, S. (1999): “The psychoanalytic interview as qualitative research”, *Qualitative Inquiry* aldizkarian, 5 zkia, 87-113 orr.

KVALE, S. (1996): *Interviews: An Introduction to Qualitative Research Interviewing*, Sage, Thousand Oaks, Kalifornia.

LAN ETA GIZARTE GAIEN MINISTERIOA (Koord.) (2003): *II Plan Nacional de Acción para la inclusión social del Reino de España, 2003-2005* Uztaila, Madril.

LAPARRA, M. (2010a): “Garantía de recursos mínimos: elementos para el debate”, *Debates fundamentales en el marco de la Inclusión Social en España*, Cuaderno Europeo 8, Fundación Luis Vives fundazioa.

LAPARRA, M. (2010b): *El primer impacto de la crisis en la cohesión social. Un análisis provisional a partir de las Encuestas Foessa 2007-2009*, FOESSA Fundazioa eta Caritas Española.

LAPARRA, M.; OBRADORS, A.; SUBIRATS, J. et al. (2007): “Una propuesta de consenso sobre el concepto de exclusión. Implicaciones Metodológicas”, *Revista Española del*

Bibliografia

Tercer Sector aldizkarian, 5. zkia.

LAPARRA, M. (2004): "La travesía del desierto de las rentas mínimas en España" *Documentación Social* aldizkarian, 135 zkia, Iraila, 57-64 orr.

LAPARRA, M. (2001): "Una perspectiva de conjunto sobre el espacio social de la exclusión, Pobreza y exclusión", MORENO, L., *La malla de seguridad en España*, CSIC Politeya, Madril.

LARRAÑAGA, M., JUBETO, Y. (2011): "Tokiko giza garapena eta genero berdintasuna", *Lan koadernoak*, 56. zkia, Hegoa, EHU-UPV.

LARRAÑAGA, M. (2006): "Errenta Banaketa", *Euskal A Eko Txosten Sozioekonomikoan*, Euskal Estatistika Erakundea, 323-349 orr.

LARRAÑAGA, M. (2005): "Mujeres y mercado de trabajo en la CAPV", *Lan Harremanak Revista de Relaciones Laborales* aldizkarian, 13. zkia, 13-34 orr.

LATHER, P. (1995): "The validity of angels: Interpretive and textual strategies in researching the lives of women with HIV/AIDS", *Qualitative Inquiryn*, 1(1) zkia, 41-68 orr.

LEWIS, J. (2002): "Gender and Welfare State Change", *European Societies* aldizkarian, 4 (4) zkia, 331-357 orr.

LEWIS, J. eta ASTROM, G. (1997): "Gender and Welfare Regimes: Further Thoughts", *Social Politics* aldizkarian, 4 (2) zkia, 160-177 orr.

Bibliografia

LEWIS, J. (1992): "Gender and the development of welfare regimes", *Journal European Social Policy* aldizkarian, 3. zkia, 159-173 orr.

LEWIS, J. eta ASTROM, G. (1992): "Equality, difference, and state welfare: labor market and family policies in Swede", *Feminist Studies* aldizkarian, 18. Zkia, 59-86 orr.

LUFF, D. (1999): "Doing Social Research: Issues and Dilemmas", *Sociology*, 33(4) zkia, 687-703 orr.

MALGESINI, G. (2007): *Informe anual sobre la vulnerabilidad social 2006*, Gurutze Gorria-Cruz Roja, Madril.

MASSEY, D.S. eta DENTON, N. (1993:) *American Apartheid*, Harvard University Press, Cambridge.

MAYNTZ, R. (1975): *Introducción a los Métodos de la Sociología Empírica*, Alianza Editorial, Madril.

MCKAY, A. eta VANEVERY J. (1995): *Thoughts on a Feminist Argument for Basic Income*, 21. Eztabaida-papera, Glasgow Caledonian University, Department of Economics.

MEIL, G.A. (2004): "Cambios en las relaciones familiares y en la solidaridad familiar", *Arbor* aldizkarian, Ekaina, 263-312 orr.

MERTON, R. et al. (1956): *The Focused Interview*, The Free Press, New York.

Bibliografía

MEYER, N. et al. (1981): *Revolt from the center*, Marion Boyards, Erresuma Batua.

MILLER, A. (1986): *Basic Incomes and Women*, Oinarrizko Errentaren Nazioarteko I. Konferentzian, Iraila, Louvain-la-Neuve, Belgika.

MILNER, D. eta MABEL, E. (1918): *Scheme for a state bonus: a rational method for solving the social problem*, State Bonus League, Londres.

MIRAVET, P. (2003): «El Ingreso Ciudadano», COURTIS, C. et al., *Derechos sociales: instrucciones de uso*, Fontamara, Mexiko.

MORENO FERNANDEZ, L.; MATSAGANIS, M. et al. (2003a): “Existe una malla de seguridad en la Europa del sur”, Documento de Trabajo, CSIS, 03-1 zkia. Eskuragarri: www.iesam.csic.es/doctrab2/dt-0317.pdf

MORENO FERNANDEZ, L. (2003b): “Bienestar mediterráneo y supermujeres”, Documento de trabajo 03-09, Unidad de Políticas Comparadas, CSIC, Madril.

MORENO FERNANDEZ, L. (2002): “Estados de bienestar y mallas de seguridad”, Unidad de Políticas Comparadas (CSIC), Documento de Trabajo 02-03, Madril.

MORENO FERNANDEZ, L. (2001): “La vía media española del modelo de bienestar mediterráneo”, *Revista de Sociología* aldizkarian, 63-64 zkiak, 67-82 orr.

MORENO FERNANDEZ, L. (2000): *Ciudadanos precarios. La “última red” de protección*

Bibliografía

social, Ariel, Sociología, Bartzelona.

MORENO FERNANDEZ, L. eta SARASA, S. (1993): "Génesis y desarrollo del Estado de bienestar en España", *Revista Internacional de Sociología* aldizkarian, 6. Zkia, 27-69 orr.

MORENO FERNANDEZ, L. eta SARASA, S. (1992): "The Spanish «Via Media» the Development of the Welfare State" Working Paper 92-13, Instituto de Estudios Sociales Avanzados (IESA), Madril.

MORENO MINGUEZ, A. (2007): "Familia y empleo de la mujer en los Estados del bienestar del sur de Europa. Incidencia de las políticas familiares y laborales", Centro de Investigaciones Sociológicas, Colección Monografías 246zkia, Madril.

MORENO MARQUEZ, G. (2010a): "Veinte años de Rentas Mínimas de Inserción Autonómicas: El caso vasco dentro del contexto estatal y europeo", *Revista de Fomento Social* aldizkarian, 65. zkia.

MORENO MARQUEZ, G. (2010b) "Historias de vulnerabilidad: la inestabilidad en el día a día", *Documentación Social: Revista de Estudios Sociales y Sociología Aplicada* aldizkarian, 156. zkia, 171-191 orr.

MORENO MARQUEZ, G. (2009): "Características y tipologías de la personas sin hogar en Bizkaia. Hacia un enfoque complejo de la realidad del sinhogarismo", *Zerbitzuan Gizarte zerbitzuetarako aldizkarian*, 46. zkia.

MORENO MARQUEZ, G. (2007): *Crisis y reconstrucción del estado de bienestar en España. Las posibilidades de la renta básica*. Zuzendaria: Imano Zubero Beascoechea,

Bibliografia

Doktoretza Tesia, EHU-UPV.

MUSTERD, S. (2008): "Banlieues, the Hyperguetto and Advanced Marginality. A Symposium on Loic Wacquant's Urban Outcasts", *City*, 12 (1) zkia, 107-114 orr.

MUSTERD, S.; MURIE, A.; KESTELOOT, C. (2007): *Neighbourhoods of Poverty: Urban Social Exclusion and Integration in Europe*, Palgrave MacMillan.

NAVARRO, V. (2004): *El Estado del Bienestar en España*, Tecnos, Madril.

NAVE-HERZ, R. (1992): "Die Pluralität von Familienformen: Ideologie oder Realität", *Familie und Recht*, 2. zkia, 186-191 orr.

NUSSBAUM, M. (2012): *Crear capacidades: propuesta para el desarrollo humano* Paidós, Bartzelona.

NUSSBAUM, M. (2003): "Capabilities as Fundamental Entitlements: Sen and Social Justice", *Feminist Economics* aldizkarian, 9 (23) zkia, 33.59 orr

NUSSBAUM, M. (2000): *Women and Human Development, The Capabilities Approach*, Cambridge University Press, Cambridge.

NUSSBAUM, M. (1995) "Human Capabilities, Female Human Beings", NUSSBAUM M. eta GLOVER, J.-ren, *Women, Culture and Development: A Study of Human Capabilities*, 61-104 orr, Clarendon Press, Oxford.

O'CONNOR, J. (1993): Gender, class and citizenship in the comparative analysis of

Bibliografia

welfare state regimes: theoretical and methodological issues. *British Journal of Sociology* 44zkia, 501-518 orr.

OAKLEY, A. (1981): "Interviewing Women: A Contradiction in Terms?", ROBERTS, H., *Doing Feminist Research*, 30-61 orr, Routledge & Kegan Paulm Londres.

OBRADORS, A. (2006): "Exclusió social. El concepte, les teories contemporànies i algunes propostes crítiques", SUBIRATS, J.-k zuzendutako Masterrerako ikerlana, Departament de Sociologia de la Universitat Autònoma de Barcelona, Bartzelona.

OLAZ, A. 2008: *La entrevista en profundidad*, Septem Ediciones, Oviedo.

ORLOFF, A.,(1996): "Gender in the Welfare State", *Annual Review of Sociology*, 22. zkia, 51-78 orr.

ORLOFF, A. (1993): "Gender and the social rights of citizenship: the comparative analysis of gender relations and welfare states", *American Sociological Review*, 58 zkia, 303-328 orr.

ORLOFF, A. (1990): "Comments on Ann Withorn, Is One Man's Ceiling Another Woman's Floor? Women and BIG", Oinarrizko Errentaren Nazioarteko III. Konferentzian aurkeztutako papera, Florentzia.

PALMER, V.M. (1928): *Field Studies in Sociology: A Student's Manual*, University of Chicago Press, Chicago.

Bibliografía

PARELLA, S. (2000), “Las políticas familiares”, Adelantado, J.-ren *Cambios en el estado de bienestar* liburuan, Icària, Bartzelona.

PAUGAM, S. (2008): “RSA la naissance d’un régime de précarité assistée”, Eskuragarri : <http://blogs.mediapart.fr/blog/sergepaugam>.

PAUGAM, S., (2007): *Las formas elementales de la pobreza*, Alianza Editorial, Madril.

PAUGAM, S. (2006): “L’épreuve du chômage: une ruptura cumulative des liens sociaux?”, *Revue Europeenne des Sciences Sociales* aldizkarian, 135. zkia, 11-27orr.

PEÑA, R. (2006): “Minimum Income Standards in an Enlarged EU: the Case of Guaranteed Minimum Income Schemes”, *Setting Minimum Social Standards across Europe*, Background Paper for the EU Project, Working Paper-a. Eskuragarri: http://www.eapn.ie/pdfs/155_paper%20II%20-%20Minimum%20income%20standards%20in%20enlarged%20EU.pdf

PÉREZ FUENTES, P. (2004): *Ganadores de Pan y Amas de Casa. Otra mirada sobre la industrialización vasca*, EHU-UPV.

PÉREZ-OROZCO, A. (2006): “Amenaza tormenta: la crisis de los cuidados y la reorganización del sistema económico”, *Revista de Economía Crítica* aldizkarian, 5. zkia, 7-37 orr.

PICCHIO, A. (2003): *Unpaid Work and the Economy. A Gender Analysis of the Standards of Living*, Routledge, Londres.

Bibliografía

PICCHIO, A. (1992): "El trabajo de reproducción, tema central en el análisis del mercado laboral", *Borderías et al.* (1994), 451-502 orr.

PIORE, M.J. (2006): "Qualitative Research, does it fit in economics?", *European Management Review*, 3 (1) zkia, 17-23 orr.

PUJADAS, J.J. (1992): *El método biográfico. Las historias de vida en ciencias sociales*, Cuadernos Metodológicos, 5. zkia, CIS, Madril.

RAVENTÓS, D. (2001): *La Renta Básica. Por una ciudadanía más libre, más igualitaria y más fraterna*, Ariel, Bartzelona.

RAVENTÓS, D. (1999): *El derecho a la existencia*, Ariel, Bartzelona.

RAYA, E. (2004): "Exclusión social y ciudadanía: claroscuros de un concepto", *Aposta: Revista de Ciencias Sociales*, 9. zkia. Eskuragarri: <http://www.apostadigital.com/revistav3/hemeroteca/raya1.pdf>.

RIGAUDIAT, J., (2009), "Le revenu social de activité : une réforme en fauxsemblants", *Revue Esprit* aldizkaria, 352 zkia, Paris.

ROBEYNS, I. (2007a): "Some thoughts on basic income from a feminist perspective", Heinrich Böll Stiftung workshoperako paper-a, Berlin.

ROBEYNS, I. (2007b): "Will aBasic Income do Justice to Women?", Heinrich Böll Stiftung

Bibliografia

e.V.: Die Zukunft sozialer Sicherheit, Schriften zu Wirtschaft und Soziales Band 2, 102-117 orr, Berlin.

ROBEYNS, I. (2005): "The capability approach and welfare policies", *Gender auditing and gender budgeting* konferentzian aurkeztutako papera, Bolonia.

ROBEYNS, I. (2003): "Sen's Capability Approach and Gender Inequality", *Feminist Economics* aldizkarian, 9(23) zkia, 61-92.

ROBEYNS, I. (2001): "Will a basic income do justice to women?", *Analyse und Kritik*, 23 (1) zkia, 88-105 orr.

RODRÍGUEZ MARCOS, J. (2006): "25 años de historia demográfica en la Comunidad Autónoma de Euskadi", Primeras Jornadas sobre Población y territorio en Álava, Euskal Estatistika Erakundea, Vitoria-Gasteiz.

RUBIN H. eta RUBIN I., (1995): *Qualitative interviewing: the art of hearing data*, Sage, Londres.

RUSSELL, B. (1918): *Roads to Freedom. Socialism, Anarchism and Syndicalism*, Unwin Books, Londres.

SAINSBURY, D. (1994): "Women's and men's social rights: gendering dimensions of welfare states", *Gendering Welfare States* liburuan, Sage, Thousand Oaks, Kalifornia.

SARACENO, C. (1994): "The ambivalent familism of Italian welfare state", *Social Politics* aldizkarian, 1. Zkia, 60-82 orr.

Bibliografia

SCOTT, S. (1985): "Feminist research and qualitative methods", *Issues in educational research*, Falmer Press, Philadelphia.

SEN, A. (1989): «Cooperation, Inequality, and the Family», *Population and Development Review* aldizkarian, 15. Zkia, *Rural Development and Population: Institutions and Policy*, 61-76 orr.

SERRANO, A. eta ARRIBA, A. (1998): ¿Pobres o excluidos? El Programa del Ingreso Madrileño de Integración en perspectiva comparada, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Madril.

SHANAHAN, M. eta ELDER, G. (2002): "History, agency, and the life course", *Nebraska Symposium on Motivation*, University of Nebraska Press, 48. zkia, *Uztaila*, 145-186 orr.

SIERRA, F. (1998): "Función y sentido de la entrevista cualitativa en la investigación social", Jesús Galinde (1998) *Técnicas de investigación en sociedad, cultura y comunicación*, 277-346 orr, Pearson, Mexiko.

SIIS (2012); *Gizarteratuz aldizkaria*, 32. zkia.

SIMMEL, G.,(1998): *Les pauvres*, PUF, Paris.

STANDING, G. (2011): *The Precariat: The New Dangerous Class*, Bloomsbury Academic, Londres eta New York.

Bibliografia

SUBIRATS, J. (Zuz.) (2006): *Fragilidades Vecinas. Narraciones biográficas de exclusión social urbana*, Icaria, Bartzelona.

SUBIRATS, J. (Zuz.); GOMÀ, R.; BRUGUÉ, Q. (2005a): *Análisis de los factores de exclusión social*, Documentos de Trabajo 6, Fundación BBVA Fundazioa, IGOP-UAB, Bartzelona.

SUBIRATS, J. (Zuz.) (2005b): *Perfils d'exclusió social urbana a Catalunya*, Servei de Publicacions de Universitat Autònoma de Barcelona, Bartzelona.

SUBIRATS, J. (Zuz.) (2004a): "Pobresa i exclusió social. Un anàlisi de la realitat espanyola i europea", *Estudis Socials*, 16. zkia, Fundació La Caixa Fundazioa, Bartzelona.

SUBIRATS, J. (2004b): La implicación social ante los retos de la exclusión. Institut de Govern i Polítiques Públiques, Universitat Autònoma de Barcelona. Eskuragarri: <http://unpan1.un.org/intradoc/groups/public/documents/CLAD/clad0044517.pdf>

TAYLOR-GOBBY, P. (2005): *New risks, new welfare. The Transformation of the European Welfare State*, Oxford Policy Press, Oxford.

TAYLOR-GOBBY, P. (1991): "Welfare state regimes and welfare citizenship", *Journal European Social Policy*, 1. Zkia, 93-105 orr.

TESTER, K. (2002): "Diálogo con Zygmunt Bauman, Holocausto y posmodernidad" (Elkarrizketa), *Claves de Razón Práctica* aldizkarian, 125. zkia, 50-56 orr.

TEZANOS, J.F. (2002): "Desigualdad y exclusión social en las sociedades tecnológicas", *Revista de Trabajo y Asuntos Sociales*, 35. zkia, 35-54 orr, Madril.

Bibliografía

TEZANOS, J.F. (1999): *Tendencias en desigualdad y exclusión social*, Tercer foro sobre Tendencias Sociales, Ed. Sistema, Madrid.

TEZANOS, J.F. (1998): *Tendencias en exclusión social en las sociedades tecnológicas. El caso español*, Editorial Sistema, Madrid.

THOMAS, J. (1993): *Doing Critical Ethnography*, Sage, Londres.

TORTOSA, J.M. (2009): *Sumak Kawsay, Suma Qamaña, Buen Vivir*, Fundación Carolina fundazioa. Eskuragarri: <http://www.fundacioncarolina.es/esES/nombrespropios/Documents/NPTortosa0908.pdf>

UNCETA, K. (2011): "Crecimiento, Decrecimiento y Buen Vivir", I Encuentro Internacional Construyendo el Buen Vivir, PYDLOS, Universidad de Cuenca, Ecuador.

VALLES, M.S. (2003): *Entrevistas Cualitativas*, Cuadernos metodológicos 32. zkia, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid.

VAN PARIJS, P. eta VANDERBORGHT Y., (2010) : "Justice fiscale, lutte contre la pauvreté et accès à l'autonomie", *L'Économie politique*, 3. zkia, 38-45 orr. Eskuragarri : http://www.cairn.info/article.php?ID_ARTICLE=LECO_047_0038

VAN PARIJS, P. eta VANDREBORGHT, Y., (2006): *La Renta Básica. Una medida eficaz para luchar contra la pobreza*, Paidós, Bartzelona.

Bibliografia

VIDAL, F. (2009): "Lo opuesto a la exclusión no es la inclusión, sino la reconciliación"(Elkarrizketa), *Hilero Eguneratuz*, 93 zkia, 810 orr.

WACQUANT, L. (2008): *Urban Outcasts: A Comparative Sociology of Advanced Marginality*. Polity Press, Cambridge.

WACQUANT, L. (2007): *Pàries Urbans. Guetos, Banlieues, Estat*, Edicions 1984.

WARREN, C.A.B. (2001): "Qualitative Interviewing" GUBRIUM J.F. eta HOLSTEIN J.A.-ren *Handbook of Interview Research*, Sage, Thousand Oaks, California, 83-102 orr.

WALTER, T. (1989): *Basic Income. Freedom from Poverty, Freedom to Work*. Marion Boyars, London.

WILSON, W. (1987): *The trully disadvantaged, the inner city, the underclass and public policy*, Chicago University Press, Chicago.

WITHORN, A. (1990): *Is One Man's Ceiling Another Woman's Floor? Women and BIG.*, Oinarrizko Errentaren Nazioarteko III. Konferentzian aurkeztutako papera, Florentzia.

WOLF, J. eta DE-SHALIT, A. (2007): *Disadvantage*, Oxford University Press, New York.

ZUBIRI, J.B. (2009): "La Renta de Solidaridad Activa en Francia. ¿Es la activación una vía para salir de la pobreza?", *Zerbitzuan*, 45. zkia, 23-38 orr

Glosarioa

BIEN: *Basic Income Earth Network*, Oinarrizko Errentaren Munduko Sarea.

DBE: Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta.

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa.

EB: Europako Batasuna.

EGD: Elkarrizketa Galdera Dinamikoak.

ELGA: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak.

EPO: Etxebizitza Gastuetarako Prestazio Osagarria.

EUSTAT: Euskal Estatistika Erakundea.

GAH: Gizarteratze Aktiborako Hitzarmena.

GGE: Gizarteratzeko Gutxieneko Errentak, gaztelaniaz RMI.

GGI: Gaikako Ikerketa Galderak.

GKE: Gobernu Kanpoko Erakundeak.

HOE: Hiritartasun Oinarrizko Errenta.

INE: Instituto Nacional de Estadística.

LGS: Lanbide arteko Gutxieneko Soldata.

PGDI: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta.

RMI: Frantziako *Revenu Minimum d'Insertion* prestazioa, gaur egun RSA deitzen dena.

RSA: Elkartasun aktiborako diru-sarrera, *Revenu de Solidarité Active*, Frantzian indarrean dagoen GGE politika.

UNDP: *United Nations Development Programme*, Nazio Batuen Garapenerako Programa.

ZTN: Zerga Tasa Negatiboa, ingelesez, NIT (Negative Income Tax)

Eranskinak

1. Eranskina: elkarrizketen galdetegi-gida

Galdera orokorrak

- Izena
- Adina
- Jaioterria
- (Bilbora) noiz etorri zinen?
- Zer ikasketa egin dituzu?
- Lanik egiten al duzu?
- Etxeko diru-sarrerara maila, gutxi gorabehera?
- Bizilekua
- Non bizi zara, norekin?
- Nork osatzen du zure familia?

1. Esparru ekonomikoa

- 1.1 DBE jasotzen duzu/jaso izan duzu. Noiztik?zein denbora tartean?
- 1.2 Zein unetan jo zenuen administraziora laguntza honen eske?zein zen zure egoera?
- 1.3 Zelakoa izan da prozesua?
- 1.4 Estigmatizatua sentitu zara, edo sentitu arazi zaituzte OEren onuradun izateagatik?

- 1.5 Ba al da beste diru-iturririk zure etxean? Nola moldatzen zara/zarete gastuei aurre egiteko? Zer egingo zenuke DBE jasoko ez bazenu?
- 1.6 Laguntza honetaz gain, beste pertsonaren batekiko dependentea/menpekoa zarela kontsidera zenezake? Ala alderantziz, zure inguruko/familiako kideren bat, zurekiko dependentea/menpekoa al da ekonomikoki?
- 1.7 Bizitzako beste momenturen batean, zailtasunak izan al dituzu oinarritzko gastuei aurre egiteko? Zelan egin duzu aurrera? Zer babes jaso duzu familiarengandik?
- 1.8 Zein perspektiba duzu etorkizunari begira? DBE prestazioari buruz? Eskubidea galtzeko beldur zara?

2. Harremanen esparrua

- 2.1 Zein harreman duzu zure familiarekin?
- 2.2 Zein da zure familia hurbilena?
- 2.3 Zein motatako babes a jaso edo ematen diozu familiari?
- 2.4 Ba al duzu familiako inor zure kargura?
- 2.5 Uneren batean, zure karrera profesionala eten behar izan al duzu, familiako kideren baten kargu egiteko? Norbaitek zuregatik egin al du?
- 2.6 Etxeko ardura eta zainketen banaketa (haurrak izatekotan), berdinkidea al da familiako gizon eta emakumeen artean.
- 2.7 Seme-alabak (edukitzekotan), laguntzarik jasotzen al duzu edo jaso al duzu, familiaren aldetik, haiek zaintzerako orduan? (gurasoak, neba-arrebak, koinatu-koinatak.
- 2.8 Norbaiten zaintza/zainketa zure gain badaukazu/eduki baduzu, hau da, zaintzailea izan bazara, jaso duzu inolako babes/laguntzarik administrazioarengandik?
- 2.9 Zure familia harremanekin lotuta, bizi al duzu inoiz, haustura/apurketa garrantzitsuren bat ? Zein neurritan eragin du horrek zure bizitzan, zure ongizatean, zentzurik zabalenean?

- 2.10 Inoiz tratu-txarrik jaso al duzu?
- 2.11 Bizitzako momentu zailen batean familiarengana jo behar izan al duzu babes eske?
- 2.12 Eta familiaz gain, ba al duzu zure inguruan konfiantzako eta hurbileko inor, familiaren antzeko papera betetzen dutenak?

3. Ikasketa/prestakuntza eta lan merkatuaren esparrua

- 3.1 Zer ikasi duzu? Gehiago ikastea gustatuko litzaizuke? Ba al duzu proiekturik buruan?
- 3.2 Zerbaitek oztopatu al dizu bizitzako uneren batean ikasketekin jarraitu ahal izatea?
- 3.3 Lanik egiten al duzu etxetik kanpo, dela kontratuean ala kontraturik gabe?
- 3.4 Zein motatako lanak izan dituzu bizitzan zehar? Gustura egon al zara lan baldintzekin?
- 3.5 Lan bilaketa prozesuan ari al zara? (orain, eta aurreko esperientzietan) zelakoa izaten ari da prozesua?
- 3.6 Lanean aritu izan zarenean, seme-alabak izatekotan, zelan uztartu dituzu gauza biak, lana eta haurrak? Familiaren laguntza jaso al duzu?

4. Etxebizitza esparrua

- 4.1 Non bizi zara eta norekin?
- 4.2 Zeintzuk dira zure etxebizitzaren baldintzak? Kontsideratzen duzu zure beharrianak asetzen dituela?
- 4.3 Zure sarreraren zein proportzio bideratzen duzu etxebizitza gastuak ordaintzera?
- 4.4 Zelan eskuratu duzu etxebizitza hau? Alokairua ala jabegoa da?
- 4.5 Familiarengandik? jaso al duzu babesik? Administrazioarengandik?
- 4.6 Etxebizitza galtzeko beldurrik sentitu al duzu inoiz?

5. Osasun esparrua eta esparru soziala

5.1 Zuk, ala familiako kideren batek, gaixotasun fisikorik, kronikorik al du?

5.2 Drogamenpekotasuna.

5.3 Familiako kideren batek hirugarren baten laguntza behar al du eguneroko bizitzan oinarrizko eginkizunak aurrera eramateko?

6. DBEren balorazioa

6.1 DBEak zein punturaino asetzen ditu zure eta zure familiaren beharrianak?

DBEren onuradun izateak ekartzen dizkizun abantailez gain, zure bizitzako beste esparru batzuetan mugatzen al zaitu?


6.2 Oztoporik izan al duzu DBE onuradun izaterako orduan? Erraztasunak?

6.3 Zure egoera baloratzeko momentuan (laguntza jaso ahal izateko), kontutan hartzen diren ezaugarriak bidezkoak/egokiak direla uste al duzu? Zure familia egoerari ondo moldatzen direla uste al duzu?


6.4 Zeintzuk dira zure ustez prestazio honen puntu indartsuenak?

6.5 Zeintzuk uste duzu direla prestazio honen trabarik handienak? Zelan hobetu liteke?


2. Eranskina: Galdetegia GIG eta EGD formatoarekin.



Eranskinak



Eranskinak



GIG11 ETXEBIZITZA ESPARRUA

Esparru honetan bereziko sakondu gabe, etxebizitzarekin lotutako ezaugarri edo berezitasunek batek elkarriketatuaren eguneroko bizitzan, ongizatean (eta aldi berean bulnerabilitate egoeran) izan ditzakeen eraginak eta mugak identifikatzea.

GIG11.1 Etxebizitza-beharrizanak asetzeko oztopo posibleak, eta horren aurreko bulnerabilitatea.

GIG11.2 Etxebizitza beharriari aurre egiteko, familia eta administrazioaren aldetik jasotako laguntza

EGD4.1 Non bizi zara eta norekin?

EGD4.2 Zeintzuk dira zure etxebizitzaren baldintzak? Kontsideratzen duzu zure beharriak asetzen dituela?

EGD4.3 Zure sarreraren zein proportzio bideratzen duzu etxebizitza gastuak ordaintzera?

EGD4.4 Zelan eskuratu duzu etxebizitza hau? Alokairua ala jabegoa da?

EGD4.5 Familiarengandik jaso al duzu babesik? Administrazioarengandik?

EGD4.6 Etxebizitza galtzeko beldurrik sentitu al duzu inoiz?

Eranskinak

